


Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina*

# EUSKEREA NIRE BIZITZAN

Testuaren  
ardura:  
Igone Etxebarria



SUTONDOAN SORTA  
LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

SUTONDOAN saileko ale honetan Karmelo Etxenagusiaren idazlanen bilduma dakargu. Beronek orain arte argitaratutakoa, inork idatzitakoak hornidutako antologiak izan dira batez be. Oraingoan, ostera, idazle lez jator-ku.

Karmelo Etxenagusia lurretako semea da (1932) eta ikasketak eleiz-bidean egindakoa. Ibilbide horretan Eleizaren barruko hainbat zeregin eta ardura bete izan ditu, Bilboko gotzain laguntzaile izateraino (1995).

Euskal letratan urte askoan nagusi eta ugarien eleizgizonak izan arren, orain arte ez dogu gotzain idazlerik ezagutu.

Idazlanotan euskal gaiak, literaturaren ganekoak batez be, eta eleiz gaiak darabilz, han-hor-hemen eskola, hitzaldi, sermoi eta antzekoetan esateko. Baina Etxenagusiak ez dau bere burua idazletzat jotzen, eta idatziok be, ahozko erregistrora makurtuta dagoz gehienbat, normala, bestalde, esateko diran ezkerero.



Euskal Biblioteka Labayru



1020387  
LITERATURA / N. 1319

KARMELO ETXENACUSIA

*Euskerea nire bizitzan*

KARMELO ETXENAGUSIA

*Euskerea nire bizitzan*

*Testuaren ardura: Igone Etxebarria*

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA  
BILBAO  
2003


Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Txl.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Disainua: Ikeder, S. L.  
Fotokonposizioa: Ikar, S. A.  
Silutegia: A. C. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-2829-03  
ISBN: 84-89816-46-8

Eskubide guztiak jabearenak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokinikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenterako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.



Karmelo Etxenagusia, Bilboko gotzain laguntzailea. Begoña, 1995eko azaroaren 9an.






# AURKIBIDEA

ATARIKOA .....	13
<b>I EUSKEREA NIRE BIZITZAN .....</b>	<b>25</b>
Etxeko euskerea .....	27
Herriko eskolan .....	30
Durango hurrean .....	33
Elcizeak euskera .....	35
Gure herriko euskal giroa .....	36
Seminario Txikian .....	41
Gasteizko Seminario Nausian .....	45
Abadetzako Ichenengo urteak Derioko Seminarioan .....	62
Comillasen eleiz legeak ikasten .....	68
Barrero Derioko Seminarioan .....	69
Euskaltzaleekin hartuemonak .....	82
Bilboko Euskerazaletzek alkartean irakasle .....	84
Liturgia barria euskeratzen .....	86
Beste eleiz lan batzuk .....	93
Iratietan hizlari .....	97
Derioko Ikastaroa .....	98
<b>II EUSKAL GAIAK .....</b>	<b>111</b>
<b>Euskera .....</b>	<b>113</b>
Herri maite hori! .....	113
Neure umetako hiru herri-kanta .....	115
Euskal izenen moda barriak .....	120

Mutilzaharraren sermoia . . . . .	123
Euskerazko eleizliburu barriak . . . . .	128
Derioko Ikastaroa . . . . .	133
Ikastaroko omenaldia . . . . .	137
Lhenengo euskal mezea . . . . .	141
Don Inazio Zamalloa abadeari . . . . .	145
Adiskideei azken agurra . . . . .	147
<b>Euskal literatura eta idazleak . . . . .</b>	<b>149</b>
Bizkaicrazko elerti (literaturaren) atze edo edesti laburra . . . . .	149
<i>Abelete</i> eta bere <i>Gazi-Gazak</i> . . . . .	192
Pedro Puxana, Arabako euskal idazlea . . . . .	197
Mikel Zaraté, eleiz idazle . . . . .	203
Mikel Zaraté gizona eta idazlea . . . . .	209
Unamuno eta d'Abbadie Lore-Jokoen aurrean . . . . .	215
Berrio-Otxoa eta Lekuona . . . . .	221
Aita Linoren lan ezkutua . . . . .	224
Euskerazaleak eta Montiano . . . . .	231
Eusebio Erkiaga idazlea . . . . .	235
Jaime Inazio Kerexeta Callastegi (Elorrio, 1918-1998) . . . . .	247
<b>Lorategiak-Antologiak . . . . .</b>	<b>259</b>
Lorategia . . . . .	259
Bigarren Lorategia . . . . .	262
Hirugarren Lorategia . . . . .	266
Bizkaicrazko Lorategi barria . . . . .	270
Iparraldeko idazleen Lorategia . . . . .	274
Elerti ikasketak eta lorategiak . . . . .	279
<b>III ELEIZ GAIAK . . . . .</b>	<b>287</b>
<b>Barri ona gaurko munduan . . . . .</b>	<b>289</b>
Jeremias profetearen aicneak . . . . .	289
Aldatuz doan munduan barri ona zabaltzea . . . . .	291

Kristinauak gaurko Elcizan eta gaurko Herrian . . . . .	301
Loiolan erromes . . . . .	305
Barri ona hausnartuz . . . . .	309
Lanik ezaren arazoa . . . . .	324
Julita Berrojalbizen hiletan . . . . .	329
Iparragirre eta Urkiola . . . . .	332
Jaungoikoaren misterio sakona . . . . .	337
Brasilen bizkaitar bat gotzain . . . . .	340
Amerikan, "euskal artzainen" artean... . . . .	345
<b>Cabon eta Aste Santuko mezuak . . . . .</b>	<b>351</b>
Bakearen Urte Santua . . . . .	351
Adiskidetu, bakeak egin . . . . .	356
Bakearen alde . . . . .	359
Zoriona ta bakea guztiontzat . . . . .	363
Cabonetako ondasunak . . . . .	367
Bariku Santua, gaur . . . . .	371
Zuzentasuna ala errukia? . . . . .	375
Urte Santuko Pazko deia . . . . .	380
<b>Jardunaldietarako gaiak . . . . .</b>	<b>385</b>
Jesusen Barri ona gaurko munduan . . . . .	385
Andra Maria . . . . .	404
Kristinauen itzaropena . . . . .	413
Ama Birjina Sortzez Garbiari Bederatziurrena . . . . .	419



## ATARIKOA

### Bizitza-zertzeladak

Karmelo Etxenagusia Iurretan jaio zan 1932ko aprilaren 25ean. Lehengo ikasketak herriko eskolan egin ondoren, gerra ostetxoan abadetzarako bidea hartu eban eta hatarako ikasten hasi. Abadetzca izango dau, euskera-zaletasunagaz batera, harrezkero guztian bere bizitzaren ardatza. Lehenengo mailako ikasketak Gordexolan eta Artean —Arratiako Gaztelu Elcabeitian— egin zituan, eta goragoko mailakoak Gasteizen.

Abade egin barritan Lanestosara bialdu eben, baina ez denpora luzerako, ze handik lasterrera Seminario Txikira ekarri eben irakasle eta geroago, Comillasen Zuzenbide Kanokikoa ikasi eta gero, Seminario Nagusira ostera be. Gaztetarik dakusku, bada, irakasletzari, bere euskera-emaiztan eraginkorra izango dan zeregin horri dautsala.

Bizkaiko Eleiza barruan hainbat ardura izan ditu bizitzan zehar: Gotzaitegian kantziler izan zan —gotzainaren eskribau eta aholku-emoile hurrekoa—, bikario nagusi eta Begoñako parroko. Arte bitartean urtebete emon eban Erromako *Gregoriana*-n ikasten: bere bizitzako aldirik gozatsuenetarikoa bere esanean. Ardu-ara-ibilbide horretan bat egingo dau Garpide, Cirarda, Añoveros, Uriarte eta Larrea gotzainakaz. Eta Begoñako parrokia bere atzenengo ardurea izango zala-ta egoancan, Bilboko gotzain laguntzaile izendatu eben.

Halan bada, Etxenagusia goi arduretan ibili izan da beti, eta horrek hartuemon ugariak eskaini deutsoz barruan eta kanpoan.

Baina Don Karmelo gaur egun czaguna gotzain lez bada be gchienbat, eta horretatik etorri daukan entzutca, artean hainbat arlotan lan egina da, eta modu berezian, bihotz barruan josirik eroan eta hain maite izan dauen euskerearen alde.

Iurretako semea, mutiko zolia, etxe-auzo-inguruak cuskaldun hutsak izan dituana, ikasle fina, zehatza eta ekin handikoa bere ardura-zereginetan, autodidakta euskera arloan, euskera-liburuen irakurle handia, letretarako sen eta zaletasun gozoduna, hori da beste gauza batzuen artean Don Karmelo.

Eta berak egindako lana zelanbait izentau ahal baledi, apala eta isilekoa izan dala esango genduke. Nekez ikusiko da haren ize-nik alfabetatzearen historia apainetan, edota autore eta idazle handien artean. Baina bere apalean eragile handia suertatu da: gaur euskera arloan nor diran hainbati emon deutsez eskolak, literaturakoak batez be, eta haren estiloak ikasle askogan cuki dau eragintxoak: zehaztasuna eta gozotasuna, haren eskolen ezau-garriak. Ikasleen zirikatzaile eta eragilea, eta ekin handikoa izan dan aldetik, ostean etorri diran askogan sustraitu dau euskera eta euskal literatura zaletasuna.

Liburuan beronek azaltzen deusku ondoen zelan mamindu dauan bere zaletasun hori, eta egin dituan lanak zergaitik, zelan eta zeri erantzutcko egin dituan. Ez dau bere lepo ganean meritu-rik zamatuko; halangoak inoren sorbaldara botako ditu arintxu, batez be aurretikoetara —eskertsu agertuko da behin eta barrero cuskerazaletasuna berari mendau deusienakazko—, baina bakotxari berea danez zuzenbidea, Etxenagusiari be berca autortu beharra dago, eta ez da gitxi.

### **Aurrendaria irakaskuntzan**

Izenburu hau cretxitsuegia begitandu lekikio baten bati, baina ekarriko doguz ardura barik pisuzko argibide eta arrazoiak dinoguna on egiteko.

Don Karmelo izan zan gerraostean Derioko Seminarioan abadegeiai euskera irakasten hasi zan lehenengoetarikoa. Eskola apalak ei ziran, berak dinoanez. Halan izango zan, baina bestela be ezin izan euskeraz orduko giro arrotzean, gizartean eta ikasketetan erdera baino entzun eta erabilten ez zanean, eta euskerea lotsa eta bildurraren artean gerizpetan zabuka ebilen orduan. Orduko seminarioan hori pausuori emotea ez zan makala. Nahi-ta berez, abade baten zeregina zelakoa eta nogazkoa dan jakinik, edonork ulertzekoa izan (artean bildurrik izan ez balitz) abadegciak, gero joan beharko ziran herrietako hizkuntzan be jantziak egon beharra. Don Karmelo irakasle lanetan zehatza eta arduratsua zanez, bere lana ez eban mugatuko irakaste hutsera; ondo gertauko zituan ikasleci zehetu beharreko gaiak; handik-hemendik zuzenduko zituan horretarako behar ziran liburu eta materialak; irakatsi-ahala ikasgaiok idatziz atonduko zituan eta ikasleci polikopia bidez banandu: batean euskal testuen lorategiak zirala —bizkaierazkoa lehenengo, gipuzkerazkoa hurren—, bestean euskerraren joskeralegeen azalpen zehetua zala, harakoan euskal literaturaren historia laburra zala... Horretarako maisu seguruak hartuko zituan gidari: Mitxelena, Altube, Orixe... Seminario Nagusian eta Txikian ikasle euskaldunei eskolak emoten urtcetan ekin eutsan. Eskolea emon orduan Etxenagusiak eukan metodologia zehatza eta ahalegina ikusita, nork igarriko eutsan alderik cgoala asignatura derrigorrezkoen eta euskera lako borondatezkoen artean? Beste asignatura batzuk baino serioago garanduko eban hak euskerea, astean behingo eskola zurtza baino izango ez bazan be.

Harik urte batzuetara sortuko zan Derioko Udako Ikastaroa, berbetaz euskaldun ziranai euren hizkuntzan trebetasuna eskaintzeko asmoaz. Eta Don Karmelo hasieratik izango da hango irakaslea, Mikel Zaratégaz batera, eta Ander Manterola zuzendari zala. Artean, bai bata, bai bestea, horretan gaitasun handia hartuak ziran eta baliabidez hobeto orniduta cgozan hasieran baino. Baina Ikastaroa bera izango dau Karmelok euskera gehiago lantzeko zirikagarri, pozkari handia izateaz ostean.

Derioko Udako Ikastaro hori dala-ta bada ezaugarri bat guztiz bakana, metodologiari jagokonez, ganerako erakunde, ikastaro eta programetarik berezi izan dauena: euskal literatura berenberegiri irakatsi eta euskal testuen ikasketari berebiziko garrantzia emotea. Izan be, Derioko Ikastaroak, sorreratik bertatik gramatika gaiakaz batera literatura irakasteari ekin eutsan, eta hori Don Karmeloren eraginari zor jako batez be. Begi zoliaz ikusi eban hak, hizkuntza lantzeko biderik leun eta atseginena euskal literatura testurik bikainenak irakurri eta aztertzea dala. Euskalduna danak, bere berbetatik hurreko ipuin, kontraera, dialogo edo dana dalako testuren bategaz hasi ezkeru, berez berez eta ia igarri be barik ikasten dauela. Euskal poesia be, kantuaz eta erritmoaz lagundurik ikasi ezkeru, askoz be sarkorragoa dala.

Inguruetan antzeko zereginetan ibili diran erakunde eta talderik gehienak, administrazioa bera barru dala, aldapa pikean gora ibili dira, gramatika agorrari jira eta bira eraginez. Halakoren baten Derioko Ikastaroaren jokabide horri arrazoi emongo al jako!

Zer dala-ta emon ete eutsen Derioko Ikastaroaren sortzaile-irakasleok hain balio apartekoa literaturari? Eleizgizonak izanik, eurok be euren ikasketetan, latin eta grekoa ikasteko, hizkuntza harretako literaturarik ederreneko testuez baliatu izan ziran behin eta barru, besteak beste latinezko testu erretorikoez. Derioko Ikastaroan be zenbat eragin egin ete jaku bere sasoiari Frai Bartolomeoren dantzen gatz ozpinduai! Bestetik, erraz susmau leiteke, irakasleok euskeren euren kabuz ikasi baeben, ez zala izan gramatika-liburuen bidez, ezpada eskuetara etorkezan euskal aldizkari eta liburuak —erlijinozkoak asko, ipuin, olerki eta kontraerazkoak batzuk— astiro irakurriz eta mamurtuz baino. Baegoan hirugarren errazoi bat be, ez edozelangoa barriz: literaturaren bidez mundu bat agertzen zan aurrera, euskaldunen mundua, euren eretxi, asmo, gogo, esakera eta siniskerakaz. Beste modu batera esanda, literatura kultura baten espilu zan, eta haren bidetz gramatikak emon eiketan baino mundu askoz zabalagoa erakusteko



erea egoan. Hizkuntza bere egitura gordinean ikastea –hori be beharko zan baina– ez zan nahikoa. Aditz-paradigmak, deklinabidea, joskera, idazkera eta enpaidukoak beharrezkoak ziran izatez, baina bazan alderdi bat, gizakiaren barne gogoari joakona hatan be, gramatikeaz haruntzago egoana. Literatura zan hiztunon hartuemonan, adierazkortasuna, irudi-mundua, egoera baktari egokoa berbabidea erraztoen erakutsi eikeana. Horretarako ezinbestekoa zan eredu onak eskaintzea.

Etzenagusiak bide hori hartu eban, horretan ibili da bere irakasle-denpora guztian, eta berak lan apaltzat daukan hori izan da bere eskoletatik igaro diran ikasle askorentzat, literaturaz gozatzeko, eta gchiago leiduntako grina bizitu deutesena. Liburuan bertan honetara deskribatzen deusku lehenengo eskoletako metodologia: “Euskeraz irakurri, euskeraz idatzi, idatzi-takoa aztertu ta zuzendu: horra hor gure orduko ikasbide urria”. Urria, jakina, bitarteko barik egozalako: testu gitxi egon eta curak eskuratzen gatzak izan. Baina Don Karmeloren ikasle izan garcanok badakigu ze gozotasunaz leidunten ebazan euskal testu ondo hautuak, zelango argibide jakingarriak emoten ebazan irakurgaitan aitatzen ziran gaien ganean. Testu-iruzkin formalik egin ez arren, ederto igarten cutsan irudi ederra edo esaera polita eukan testuari. Eskoletan, bere zaletasuna nahastetan ekian. Bide-erakusle izan da eta bide horri ekiteko gogoa emoten jakin dau.

Derioko Udako Ikastaroan 1970ean hasi eta 1989 arte urterik galdu barik ibili da literatura irakasten. Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Iparraldekoa hurrenez hurren, beti Ikastaroaren leloari darraiola: “dakigunetik ez dakigunera”. Lehenengo hurren dagona ikusi eta ikasi, eta gero inguruetara zabaltzen joan, idazleen bitartez hizkuntza aberasteko.

Ikastaroko Dekanoa izan da, ikasle nahi irakasleek maisutzat autortua. Atzetik etozanak, gazteak izanik gitxiago jakin arren, begirune handiaz hartu ditu beti eta bai arnasa emon be eurai aurrera ekiteko.

1989an, Derioko Ikastaroaren hogeigarren urteurrenean, irakaslerik beteranoena zala-ta, omenaldia egin jakon Karmelori, eta une hori hautu eban txandea hurrengoai ixteko.

Derioko Ikastaroaz gancra, Euskerazalcak erakundeagaz be hartuemon estua izan dau Etxenagusiak, eta irakasle ibili be bai hainbat urtetan Montianoren bidez.

### **Liburugile derrigorrean**

Karmelok euskera irakaskuntzan ohartu eban hutsunerik handiena liburu eta material egokiena izan zan. Gerraosteko eremu mortu haretan ezer gitxi euken eskura euskera ikasi nahi irakatsi gura ebcnak: gramatika arloan urri baebilzan, irakurgai behar dan modurik zuzentzen be ez euken erraz. Eztasun horretan, handik-hemendik zuzendutako gauzatxuakaz konpondu behar zan eta norberak atondu behar irakasteko eduki eta baliabideak.

Berberak azaldu deusku, ikasleentzat irakurgai egokien behar-irizana ikusita hasi zala testuak zuzentzen eta hautatzen. Lehenengo Kirikiñogaz hasi ci zan, eta apurka-apurka beste batzuk, bizkaiera arlokoak batez be hasieran, halantxe igarri barik mordotxua batu arte. Hortik sortu ei ziran berak egindako testu-antologia edo lorategiak. Latin ikasteko erabili ohi ziran lehenagoko florilegioen antzera.

Lanbide horretan aurrerari izan danik ezin ukatu. Dana esateko, bazituan aurretiko apal batzuk. Lafiten lorategia Iparraldean eta Omaetxebarria eta Villasanterena Hegoaldean. Baina halanda be goizetikoak dira beraren lehenengo lanak: bizkaierazko testuen lorategia 1965ekoa eta gipuzkerazkoena 1967koa. Liburu honetan sartu ditugu Bizkaiko literaturaren historia azaltzeko berak ondutako apunteak be, horreek be 1965 ingurukoak. Seminarioan euskera eskolak emoteko eginak. Gaur eguneko ugaritasunetik ikusita lan apalak dirudie, baina orduan nok egin eikean halakorik? Denporea izan da testigu, hibe zuzenetik ebilela; ordukoan ezarritako zimenduek sendo dirau e gaur be.

Ikasleen beharrizanak zelangoak ziran, horren arabera atonduko ebazan lorategiak: errazenetik gaxenera, hurrenetik urrunera: bizkaierazko idazleetatik abiatu, gero gipuzkerazkoetara jo, eta azkenek Iparraldekoetara ailegatu. Lorategioi begiratu bat egitea nabikoa da Etxenagusiak euskal literatura ondo ezagutzen ebala oharitzeko. Lorategi onak egingo bazituan, euskeraz idatzitako testu gehienak irakurri beharko ebazan, eta, zein urtetan eginda dagozan ikusita, ezin eikean hobeto asmau.

Beste ezaugarri bat be agirian dago Don Karmeloren lanotan, letretarako dauen sena. Irakurgaien ederraz gozaten daki, eta edertasun hori bilatzen eta transmititzen aparteko maisua dogu hera. Lorategiotan egiten dauen testu-hautaketa esanguratsua da guztiz: zentzun handiz egina, batetik, baina bere sensibildade eta senaren erakusgarri ezin hobea be bai.

Karmelok holango zereginetan ziharduan sasoiari, inguruan gehiago zan aditzak zelan urkuldu, deklinabide forma zuzenak zein diran erakutsi edota joskera egiturak. Hizkuntzaren hazurdura ornitzen daben osagaiak, zeozelan esateko. Berak, ostera, euskerazko testuen hidez bizitzako gorabeherak ikusiaz deuskuz: barregarrikeriak, gertaera latzak, antzerki kontuak, erlijino gaiak... Hau da, hizkuntzorren atzean dagoan gizarteak bere bizi-modua eta historia zelan gauzatu dauan. Hazurretatik harago, bihotzaren taupaden bizitasuna, arnasa eta arimea azken baten.

### **Sortzaile baino gehiago eragile**

Etxenagusiaren lanakaz osotu dogun liburu honek mardula urten dau. Horrek esan gura dau sendo idatzi dauela. Baina ha ta guzti be, gure idazlea ez genduk sortzailatzat joko. Sorkuntza era askotakoa izan daiteke eta gai baten ganeko gogoeta be hatakoztat hartu daiteke, baina beraren idatziak, sorkuntza asmoz baino gehiago, osterantzeko zereginetarako pentsatuta idatzi ditu.

Beronen idatziok be beteten dabe, gure ustez, berak literaturan bilatu gura izan dauena: edertasuna bilatu eta haregaz goza-

tuarazoteko; horretara sortu ditu irakurleak, eta bilduma hau be, batez be lehenengo partea, berebizikoa da zeregin horretarako.

Literatura sortzen baino, beste idazle batzuen lanen ganean jardun dau gehiago, bai eskoletan bai idatzietan. Modu zuzenean aurkeztuko deuskuz obra honetan, berak hartuemonak euki dabean hainbat idazle: Mikel Zarate, Eusebio Erkiaga, Jaime Kerexeta, Manu Ziarso eta Santos Rekalde, besteak beste. Liburu bidez barik, hurretik ezagutu ditu, lagun izan ditu eta auspoa emon deusie euroi idatzi eta argitaratzeko. Batzuetan zirikatatu be bai idazle zereginetan jarraitzeko. Bizkaitik kanpora, cuskera munduko hartuemonik esanguratsuenak, Liturgia Batzordearen ingurukoak dira, beratu izan zan-eta beste elcizbarruetako elcizgizon cuskalzale batzukaz batera liturgiako testuak hurreratzen eta bateratzen ibili zanetarikoa.

### *Euskerea nire bizitzan*

Zelangoak dira liburu honetan batu diran idatziak? Askotariakoak gaictan, estiloan eta helburuan. Testu batzuk argitaratzeko eginda dagoz, beste batzuk jenteaurrean leiduntako —hitzaldiak, aurkezpenak, irratsaioak, sermoiak—, beste batzuk hari edo gidoi modura eginak, norberarentzat lagungarri izateko, kanpoan erakusteko asmo barik —hitzaldi eta gogo-jardunaldietarako haria—.

Hasierako atal luzea biografia moduko bat da, idazleak liburu honetarako beren-beregi idatzia.

Esan dogu sorkuntza-asmoz ez dauela idatzi Etxenagusiak, baina, idazten jarten danean be, zirrikitu berezi bat bilatu dau hortik alde egiteko, eta idazten dabilela idatziko ez baleu lez agertzeko: alkarrizketa. Hasierako atal osoa, berez, narrazio cdo kontatera da, bere ibilbidearen azapena. Baina kontarari artez eta gordinean heldu beharrean, alkarrizketa bidea asmatu dau, Ander Manterolak itaunak egin eta berak erantzunak emonda. Azken baten atxakia bat jarri dau bitarteko, eta ez da lehenengo bider hori egiten dauena. Zer ondorio dakarsku horrek? Etxenagusia

*esataria* dala idazlea baino gehiago, berbaz moldatuten dala bera ondoen, eta hori arin igarriko dau liburua irakurten paretan danak. Testuok leiduteko dira berez, idatziz dagozalako, baina euren berezko bizia ahozkoan daukie. Leidukeran entzun egiten dira, ez dago norberak zertan doinurik emon, leidu-ahala erritmo eta doinua berez hartzen dabe.

Sermoiak, hitzaldiak, gogo-jardunaldiak, eskolak... ahozko kodearen barrukoak dira danak, eta horretan dabil ondoen, erosoan eta sarrien Don Karmelo. Euskerea be horretan ondo moldatzeko moduan menderatzen dau, gauzak gozo eta modu naturalean esaten daki, errez aitu eta gozaro entzuteko eran. Horri loturik dago alkarrizketaren trikimailua. Irratian esateko mezuetan, idazleen ganeko artikuluetan eta biografia kontatzeko saioan, danetan jotzen dau alkarrizketara; berbalaguna benetakoa ala asmatua dan, gitxi ardura. Idazlea ezkutau egiten da; idazlearen jantzi serio eta etiketaduna ipini barik, jantzi arinagoaz helduko deutso esakizuna azaltzeari, era zuzenago eta informalagoan, idazte-jardunari garrantzia kentzen baleutso lez.

Liburu honetan, bai hasierako atalean, bai liburu osoan, idazlearen bizitzako ardatz bien ganeko irakurgaiak aurkituko ditu irakurleak: euskera eta cuskal literatura alde batetik, eta Eleiza eta fedea bestetik. Biak lotu-lotu eginta doaz beraren bizitzan eta guztiz izan ditu garrantzitsuak, eta ditu orain be, bizitzako joan-ctorrian.

## **Nondikoa eta norakoa**

Orain dala urte batzuk hartu eban Labayru Ikastegiak —Derioko Ikastaroan eskolak emotzari itxi cutsanean, garbi esateko— Etxenagusiarren idazlanak batu eta argitaratzeko asmoa. Urteak igaro dira hatan-horretan. Baina atzenean soinekoa ipini jako asmo soil hari. Don Karmelori eskatu jakon, bere idatziei osotasuna emoteko biografia antzeko bat idazteko: euskerea bere bizitzan zer izan dan azaltzea. Bildu diran ganerako lanak bita-

rikoak dira: batzuk sakabanan argitaratuak; beste batzuk, argitaratu barik (eta horretarako asmo barik) egozanak. Beharbada, idazleak berak gurako eukezan baino gehiago sartzeari eretxi deutsagu. Zer dala-ta hori? Lekukotasun aldetik daben balio handiagaitik. Gerraoste iluneko euskerearen aldeko lan ixilaren eta eleizan euskeraz egin dan lanaren (Bilboko urian, berbarako) testigantza parcbakoa zalako.

Euskalzaleentzat orohar euki leiken balioaz batera, uste dogu eleizgizon eta kristinau euskalzaleentzat lagungarri ona izango dala Etxenagusiaren lekukotasuna. Hor dakuskegu argiro, gaur egun be badirala eleizgizonak, euskal literaturaren tradizioari egin deutesen ekarri ugaria aberatsago egiteko gai diranak.

## Gure edizinoa

Edizino honetan aldi luzean egindako lanak batu ditugu. Gaiak be era askotakoak dira. Halan ba, zereginik handienetakoa dana ondo jostea izan da, liburuari batasun itxurea emotearren. Idatziak solteak diranez, gaika pilotu ditugu ardatz biren inguruan, euskera eta erlijinoa.

Euskera aldetik be bateratu dogu. Berrogei urteko ibilaldia dago liburuan zehar, lehenengo idatzietatik azkenengoetara, eta bitarte horretan aldaketa handiak jazo dira hizkuntza idatziaren finkatze prozesuan. Horrek Don Karmeloren idazkeran be eragina euki dau.<sup>1</sup>

Guk danak ekarri ditugu gaur egun bizkaiera idatzian nagusi diran erizpideetara. Horretarako arrazoi bat baino gehiago izan ditugu. Batetik, liburua osotzen daben testuak ez dagoz ordena kronologikoan, beraz, idatzi zaharretatik barrienera dagozan aldaketak, idazleak bere ibilbidean egin dituen aldaketak, saltoka geratuko lirateke liburuan zehar. Bestetik, idazleak berak argitzen

---

<sup>1</sup> Berak emoten ditu horren ganeko argibide batzuk hasierako atalcan.

dau barruan lehen ez ebalu h-rik idazten, baina orain bai. Gure eretxiz, gaur egun dituan czaugarriak prozesu baten betetasuna adierazoten dabe, eta hori testu osora zabaltzeari eretxi deusagu zuzenena. Bada hirugarren arrazoi bat be: liburua sorta baten barruan dagoanez, sortaren barruko koherentzia jagon gura izan dau editoreak. *Sutondoan* liburu sorta honen gogoa gaurko irakurleei ereduizko irakurgaiak eskuera ipintea bada, ikasle-irakurleei eredu jakin bat eskaini behar jake.

Jatorrizko idazkeran egindako aldaketak honcek dira: *iñ>in*; *ill>il*; *h sartu*; *s/z/ts/tz/tx gaurko arautara ekarri*; *aditz formak gaurko arautara ekarri*: *dautsa>deutso...*

Testuen digitalizazio, bateratze eta gaurkotze-lana Igone Etxebarria ikertzailearen ardurapean egin da. Eta eskertzekoa da egileak Labayru Ikastegiari eta testu-begiratzailari emondako konfidantza eta askatasuna liburu atontzeko orduan. Egileak bere eretxia emon dau eta gurari batzuk agertu (zein testu sartu eta zein kendu, zelango idazkeran argitaratu...) baina askatasun osoa argitaratzailari emonda, eta editoreak be haren eretxiak kontuan hartu ditu azkenengo ebatziak hartzeko orduan.

Labayru Ikastegia





I  
EUSKERA NIRE BIZITZAN



Ander Manterola adiskideak hainbat bider esan deust: “Zergaitik ez dok idazten euskera zelan ikasi hoan eta zelan eta non hasi hintzan hi euskera irakasten?” Badakit nik arlo honetan zein dan berak gehienbat jakin gura dauana: Derioko Seminarioan noiz eta zelan sartu zan euskera irakaskintzan. Egia esan, Adolfo Arejitak, behinolako nire ikasle argiak, nahikoa zehatz azaldu euskun hori<sup>1</sup>; baina gaztea da Adolfo gurc aldean, eta ezin berak ondo eta zehatz jakin bere aurreko konturik.

Ander adiskidearen gogoia beteteko, eta baita neure barruko eskabide bati erantzutcko be, hasi naiten lehenengo lehenengotik, nire memoria makalak lagaten deustan neurrian, behintzat. Anderrek berak egingo deustaz itaunak, eta nik erantzun (guzti hau, jakina, asmazino hutsa da, gaia bere haritik argiago croan ahal izateko baino ez). Anderrek eta biok alkarri “to” egin izan deustagu beti, baina hemen nire amesetako alkarrizketok lotsa gehiagoz egingo dodaz, “hika” hori alde batera itxi eta “zuka” erabiliaz.

### **Etxeko euskera**

*Zu, Karmelo, hurretan jaio zinan, eta orduan zueanean euskera hutsa egingo zan...*

---

<sup>1</sup> Adolfo Arejita, “Euskeran eskolatu osotasunean. Derioko Ikastaroaren esperientzia”, *Derioko Udako Euskal Ikastaroa. 25 urtean (1970-1994)*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1996. 233-257 or.

Bai, Ander, halan da, orduko euskal etxetan ohi zan legez. Nik gurean euskera hutsa entzun eta egin izan dot beti. Gure gurasoak biak ziran herri eta auzo berean jaiotakoak (Iurretako Gaztañatan), eta curen artean ez eben cuskerca baino beste berbetarik erabilten. Sekula santan ez neutsen gure gurasoei alkarri erderaz berba egiten entzun; inoizkoren baten egitekotan be, curen aurrean erdaldunen bat egoanean izango zan, erdaldunak be ulertu egien.

*Eta erdera jakin baekien zuen gurasoak?*

Jakin... jakin, bai, eta polito, orduko denporetan izateko. Amak aitak baino hobeto. Erderea ulertu biak egiten eben, bape eragozpen barik. Eta ez zan hori mira egitekoa: etxe euskalduntan jaiotako izan arren, biak ziran erdaldunen artean be bizi izandakoak. Gure ama luzaroan egon zan Bilbon eta Bilbo inguruan neska ("krixeda" esaten da gure herrian): hamaika-hamabi urtekoa zala joan zan herritik kanpora lanbide horretara, eta ezkondu arteko urterik gehienak hortxe eta horretantxe emon zituan, hainbat erdal etxetan. Ezkondu eta gero be, sarritan joaten zan negu aldi Bilboko plazara, hendeja saltzen (porrua zan, gehienbat, gure anak saltzen ebana), eta baita Durangokora be, urte guztiko zapaturik gehienetan; eta holako leketan erderea zan nausi. Erderraz berba egiteko erreztasun handi samarra lortu baeban be, batzuetan izaten zituan halako "hanka-sartze" nabarmen batzuk, hategi be erdal berben gencroakaz. Gure aitak, oster, gitxitan urten eban euskal berbetaren ingurutik: gaztetxu zala, morroi egon zan okindegi baten Gizaburuagan eta Gernikan; gero Durangoko lantegi handi baten, Hijos de Mendizábal critxoncan, sartu zan langile, eta horkoxe behargin zala heldu jakon heriotzea (54 urtekoa baino ez zan hil zanean). Lantegi horretan euskaldunak asko ziran, baina erdaldunak be ez gitxi; eta gure aita zan erderaz be polito ikasi eban, bere anaiarik gehienak baino hobeto. Soldadutza Bilbon egin ei eban, San Frantzisko kaleko kuartelean, eta horrek be emon cutsan erderea ikasteko crca.

*Orduan zuenean, umetan, beti euskeraz...*

Bai etxean eta bai auzoan ez genduan besterik egiten. Hiru bizitzako baserria zan gurea, *Ertzilbengoa* izenekoa, Bilbotik Donostiarako kamino nausiaren ondoan dagoana, aldatz txiki baten erdian. Teilatupe berean bizi ginan hiru familiok hirurak ginan euskaldun garbiak. Gure "handiko" familia biak, erdera kontuan, gure gurasoak baino askozaz atzerago egozan: euretari-ko gehienak gitxi eta txarto egiten eben erdera. Gure auzoan nire umetako lagun guztiak be neure antzera egozan. Hori holan dala, gure bizimodu osoa, gure hartuemon eta barriketa guztiak, bai etxean eta bai auzoan, euskal giro hutsean egin behar.

*Noiz izan zenduan<sup>a</sup> erdereagazko lehenengo hartuemon?*

Ba esango deutsut: gerratcan, 1937. urtean, ni 5 urte eginbarriko umemokoa nintzala. Ebakuazinoa zala-eta, ihunabar baten Etxebarriko Zubibarri ondoko etxe batera eroan ginduzcan, kamioi zahar baten ganean pilatuta. Gure amaren nebarik zaharrena —Asentsio *panaderue*— han bizi zan, eta beronen etxean hartu ginduzcan gu laurok (gurasoak eta anaia biok) eta Iurretako beste senide batzuk, ganadu ta guzti.

Erdi baserri, erdi kalcko etxea zan, korta ta guztikoa, eta bere ondoan soloak be bacukazan. Bilbotik Madrilera doan kamino ondoan egoan, aldatz labur pike baten hasieran; Arratiako tranbia be etxe ondo-ondotik igaroten zan, beti zaratatsu.

*Baina zuen osabearenean euskera egingo eben..*

Ba... ez. Gure osabca baserriko semea zan, Iurretako Gaztañatza auzoan jaio ta hazia, eta euskerea geuk lez ekian. Haren andreak, Etxebarriko alabea izanik, euskera jakin baekian, baina erdercraz erreztasun gehiago eukan, eta etxean, bai senarragaz eta bai lau seme-alabakaz, erdereea baino ez eban erabilten. Nire 4 lehengusuak, ni baino 5-10 urte zaharragoak, euskerea ia ulertu

be ez eben egiten. Ganera, inguruko kale-giro haretan, erderea zan berbeta bakarra. Harritzekoa bada be, etxeko amama zahar-rak berak, gure izekoaren amak, erdera txarto be txarto egin arren, ia besterik ez eban egin gura izaten, ez etxekoakaz ez gugaz. Erdereari dotorecagoa edo eritxon, antza. Ez dakit ziur zenbat denpora emon genduan ebakuazino horretan: pare bat hilabete edo izango zan guztira, lehenengo Zubibarrin eta gero Bilbo barruan, Irala kalean...

*Eta zuk, erdal giro horretan, erdera ikasi...*

Ba, bai. Danak eskuen puntan erabilten ninduen ni, hango seinena edo umetxua neu nintzan eta. Ez dakit zelan, ez zergaitik, baina barrero etxera bihurtu ginancan, ni ia erdaldunduta nengoan: erderea polito ulertzen neban (adin horretako umetxu batek egin daiken neurrian), eta egin be, tira, zaletasun handiaz egiten neban, maisutasun handiaz ez bazan be. Gero, ostera, etxera bihurtutakoan, etxe barruan eta auzoan barrero euskerea baino besterik ez neban entzuten eta, laster moteldu jatan ikasitako erdera hori, eta euskera hutsean izaten zan etxeko ta auzoko bizimodua. Orduko denporetan, dakizunetz, gaurko irrati eta TV-rik be ez egoan, eta erdereak bitarte gitxi aurkitzen eban gure artean sartzeko.

## **Herriko eskolan**

*Eta eskolan zer?*

Cure herrian, orduan, Herriko Eskola bat baino ez egoan, cleiza aurreko plazan; horrezaz ganera, beste hiru auzo-eskola: bata Orozketan, bestea Amezketan, eta hirugarrena Orominon. Nik Herriko Eskolan egin nituan lehenengo urteetako ikasketak. Lehenago ezin eta —danentzat lekurik ez egoan—, sei urte ta erdigaz edo sartu nintzan ni eskolan. Ordurako, etxean ikasita, eskolako hainbat gauza nekian: zenbaketa, irakurten, zirriborro batzuk egiten. Etxean neukan, zorionetz, maisu ona...

*Nor zan irakaslea, aita ala ama?*

Ez bata ta ez bestea: neure anaia bakarra, ni baino ia lau urte zaharragoa. Gurasoak aginduta, nire anaieak here ikasletzat hartu ninduan, eta nik gogotsu ikasten neban, egia esan. Ikasteko beti da gauza ona zeu baino gehiago dakian bat aldemenean eukitea.

*Baina eskolan dan-dana erderaz ikasiko zenduan...*

Jakina, orduan ez egoan beste ikasbiderik. Zenbaketca euskerraz be ondo ikasi neban etxean. Gogoan dot zelan handiko sutondoan, erdi olgetan, hango amama zaharrak esaten eustan: “Erdu, ume, jarri hemen sutondoan, eta ea zenbateraino dakizun kontetan...” Eta han hasten nintzan ni “bat-bi-hiru-lau”-ka. Ehuneraino heldu nintzanean, maisu handitzat euki neban neure burua. Gauza barragarriak be irakatsi custeizan:

*“Bat, bi, hiru ta lau,  
Txominek andrea falta dau,  
horma zuloan topau dau...”*

Baita beste hau be:

*“Hiru t’hiru sei, hiru bederatzi,  
hamar hemeretzi, bat hoge...,  
kiskillu ta miskillu hirurogei!”*

Auzoko ume lagunok be euskerraz egiten genduzan geure kontuak. Hara: behin baten umcok kamino nausian olgetan genbiltzala —orduko denporak! Gaur egin behar hori!—, hor non datoren eskeko bat, eta itanduten deusku: “Chavales, ¿cuántos kilómetros hay de aquí a Bilbao?” “Veintidíes” erantzun cutsan berehala gutariko batek. Guk orduan euskereca erderatzen genduan; gaur, ostera, erdereca euskeratu ohi da.

### *Eta Herriko Eskolan be erdera hutsean?*

Jakina! Gerrosteko urteak urte onak ziran, ba, izan be, eskola barruan euskera egiteko! Bat izan ezik —geure herriko semea zan D. Nikolas Zuazo—, beste maisu guztiak erdaldun garbiak izan nituan; bai izatez eta bai euren gogoz, erdaldunak eta erdalzaleak. Hori holan dala, eta legeak be horixe zorrotz aginduta cukalako, eskola barruan ez genduan guk euskeraz ezer ikasten, ezta berbatxu bat be euskeraz entzuten. Cogoan daukat, esate batcrako, zapatuetan errosarioa errezen gendua-la eskolan, baina haxe be erderaz beti. Kristinau lkasbidea (“dotriña”) be eskola barruan dan-dana erdera hutsean. Maia-tzean, eskola aurrean geunkan parroki-eleizan, eskola-ume guz-tiok, bai neskato ta bai mutikook, alkarregaz Andra Mariaren Lorak egiten genduzan, baina dan-dana —kanta ta guzti— erdera hutsean. Egia esan, Herriko Eskolatik kanpora, beste eskola “partikular” batera be joan nintzan urte batzuetan, gehiago ikastekotan. Hango maistrak ahizta bi ziran, euskaldun garbiak biak eta abertzaleak, geure herriko alabak; baina han-txe be eskola barruan ez zan erdere a baino beste hizkuntzarik erabilten. Biak gerratean Inghaterran egondakoak ziran, eta ingles apur bat be irakasten eben, norbaitek hori ikasi gura baeban.

### *Eta eskolatik kanpora zer?*

Atetik urten ordukoxe gure artean euskerea baino besterik ez zan egiten eta entzuten. Alper-alperrik zan guri maisuak sarritan gogor egitea: “Tenéis que hablar en castellano; tenéis que aprender castellano, para no ser unos burros.” Guk, munduko bazter guztietan ohi dancz, geure inguruan ikusten eta entzuten genduana egiten genduan: etxeko eta herriko berbe-tea.



## Durango hurrean

*Baina, Karmelo, gerroste horretan, eta Durangotik hain hurrean egonda, erdereak ez ete eukan ezetariko eraginik lurretako euskaldunen artean?*

Gerrostea aitatu dozu, eta danok dakigu zelakoa izan zan hori gure euskerearentzat: hau sekulan baino umezurtzago gelditu zan... Eta Durangon, Bizkaiko beste herri hazitxuctan lez, aparteko indarra hartu eban orduan erdereak. Durangoko eleizetan be ez zan euskrazko berbarik entzuten, nahiz eta durangoar askok euskera jakin eta ganera albo-herrietako hainbat jente joan eleizkizunetara (esne-saltzaileak, merkatariak, bendejerak, baseritar goiztarrak e.a.). Kaleetan be erdereak zan nausi bakarra: gerra aurreko durangoar gehienak euskera polito backien be, gerra inguruan Durangon jaiotako umeak eta gaztetxuak ez eben euskerarik egiten. Txarrago dana: jakiteko borondaterik be ez eukien. Euskerea baseritarren berbeta zan, ez kaletarena, gehienen ustez. Sarritan ikusten gendua: guraso biak euskaldunak izan eta etxean euren artean euskera egin arren be, umeak ez eben euskerarik ikasten. Eta, esango ete dot? Guraso asko pozik, umeak bide horretatik ikustean, eurak baino erdera gehiago ekiela-ta...

*Eta eurak baino erreztasun gehiago izango ebela gaurko mundu erdaldunduan bizimodua atarateko.*

Bai, hori be egia da eta gogoan hartu beharrekoa. Orduan eta gaur ez doguz gauzak begi hardinez ikusten... Beste arlo askotan lez, honetan be orduko gauzak ez doguz gaurko begi zorrotzez aztertu ta epaitu behar, nire ustez.

*Eta lurretan zer?*

lurreta, herri legcz, orduan Durango zan, Durangogaz bat eginda egoan, Durangoren auzo bat baino ez zan, orduarte beti eleizate izandako gure herria. Egia esan, iurretarrok ez genduan

sekula santan hori ontzat hartu eta geure nortasunari sendo eusten abalegin handiak egiten genduzan. Durangogaz bat eginda bagengozan, hori legez holan zan, baina ez geure borondatez: Durangok irunsi egin ci eban Iurretan, ni jaio baino urte gitxi batzuk lehenago. Nekez esango eban iurretan batek bera Durangokoa zanik... Baina Durango moduko herri erdaldundu bat hain hurrean izateak ez cutsan mesede handirik egiten iurretarron euskercari. Geure bizimodua, neurri handi baten, Durangon egiten genduan: lantegiak, dendak, merkatua, eskola nausiak (maristena, jesuitena, monjen ikastetxeak...), jolastokiak, trenak eta autobusak, e.a., dan-danak Durangon egozan. Hori holan zala, eta herri handiak txikietan izan ohi daberen eraginaz, ezinbestekoa zan hango erderek eta erdalzaleatasun biziak gure artean be indar eta eragin handia izatea.

*Esango zeunke zehatzago hori zetan agertzen zan?*

Ba, begira, Ander... Erdera jakitera behartuta ikusten genduzan geure buruak, giro haretan eroso bizi ahal izateko. Zenbat baserritarrek ez eban erderea ikasi lantegietan, eguneroko plazan, dendetako hartuemonetan! Gero, modak itsu-itsuan ontzat hartu ohi dira-ta, erderearen modoa be holantxe sartu zan aldi haretan gure artean. Eta gure gazteak, neskatilak batez be, erderea ikasteari eta egiteari emon eutsen, euren buruak baserritar agertu ez egitearren. Euren baserrietatik kalera hurreratzen ziranerako, han ixten zituezan bazterren baten euren abarkak... eta baita euskerrea be, oinetako barriak eta berbeta barria jazteko. Durangotik hurrago egozan Iurretako auzunak be laster hasi ziran erdalduzten, berezkoa danez: Durango uritik hurrago, erderek indar gehiago Iurretako auzunetan.

*Eta orduko komunikabideak zer? Ez eukien indarririk euskerearen kontra?*

Ez handirik, nire ustez. Egunkariak gitxi irakurten zituan; eta irratarik nok eukan, ba, orduan? Telebista, jakina, asmatzeko ego-

an... Zinea eta kanta barriak erdera hutsean ziran beti, eta euren eragintxua izan arren, ez dot uste horren handia izan ebenik...

### **Eleizeak euskeraz**

*Herriko eskolan erderean nausi bakarra izan arren, eleizan horraitino lurretako abadeak euskeraz egingo eutsuen...*

Bai, holantxe da. Nik neuk behintzat horixe ikusi neban beti gure parrokiari. Baina badakizu, ezta? Ordukoaren barri ez dakianak uste izan lei eleizako eleizkizun guztiak oso osorik euskera hutsean egiten zirela, gaurko antzera. Eta ez: orduan mezearen liturgia guztia latinez egiten zan, aspalditik inguruko herri ta nazino guztietan lez. Eta domeketako meza nausian (hamarretako mezan) parrokoak egiten eban sermoia edo homilia izan ezik, beste dana latin hutsean izan ohi zan: irakurgaiak eta kanta guztiak be bardin. "Meza isiltan" (gure herrian goizeko sei eta erdie-tan eta zortziretan emoten ziran mezetan) gure umetan ez zan ezetariko berbaldirik egiten. Hori bai: meza isilotan kantaren bat edo beste sartzen bazan, holako kantak euskerazkoak izan ohi ziran. Vatikanoko II. Kontzilio aurreko meza guztietan —bai hemen eta bai Latin Eleiza osoan mundu zabalean— latina zan jaun eta jabe, herri-hizkerak ez euken orduko liturgian ezetariko lekurik.

*Baina mezea ez zan orduan eleizkizun bakarra...*

Ez, zorionez. Beste eleizkizun batzuk be egiten ziran gure parrokiari eta auzoetako ermita ugarietan, eta dan-danok euskeraz baino ez: bederatzirenenak, errosarioa, Carizumako kurutzekak, misinoetako berbaldi luze zaratatsuak, Maiatzeko Lorak...

*Eta Kristinatu Ikasbidea?*

Dotrinea, eleizan, euskera hutsean ikasten genduan; eskolan, ostera, erderaz baino ez. Hamaika urtekoa nintzan Semi-

nariora joan nintzanean, eta ordurako Kristinau Ikasbideko hiru mailak buruz ikasita neukazan, bai euskeraz eta bai erderaz, berba guztiak ondo ulertzen ez banituan be. Hainbeste urtetan, horixe izan zan nik euskeraz irakurritako lehenengo liburua, hiru mailatako *Kristinau Ikasbidea*. Lehenengoa ta bakarra. Gero, abadetzako estudioak hasitakoan, horixe be ez: gai guztiak erdera hutsean. Lotsagarriagoa dana: euskeraz errezetan be ahaztu egin jatan. Gurean egumero esaten zan errosarioa, afal aurretuan zcin afal ostean; baina etxeko umeok, nire anaieak eta biok, errosarioa zuzentzen ikasi genduanetik, erderaz egiten genduan, gure gurasoak euskeraz erantzuten ebela.

### **Gure herriko euskal giroa**

*Baina, hortik kanpora, euskal kulturea aberatsa izango zan zure inguruan. Esaterako, ipuinak, euskal kanta herrikoiak eta hola-koak...*

Ba..., egia esateko, ez gauza handirik. Etxean, gure aita bertsozalea zan, baina ez bertsolaria. Zirikatzaile ona beste batzuk bertsotan jarteko, berak aurretik zelako-halako bertso modukoren bat botata. Behin baino gehiagotan, Gabon eta Gabonzaharretan, auzoko gizonak eta gazteak batzen ziran gurean, afal ostean, eta eurotariko bik edo hiruk eten ezineko jarduncan ekiten eutsen bertsotan. Kanpoan atc-joka hasten ziraneko, gure aitak, etxe barrutik, bertsoren bategaz zirikatzen zituan. Auzoko bertsolariok, behin hasi ezkeru, nok isildu? Gu guztiok, barre-zantzoka eta pozak zorutzen, ordu luze atseginak igaroten genduzan bertsolarion ahoberokeria “celebreak” entzuten. Bestelan, gure aita ez zan kantari ona; ez kantazalea. Beragandik ikasi neban kanta bakarra zera izan zala uste dot: “*Hator, hator, mutil, etxera...*” Gurean ez zan Gabon-afaririk hasiko, aitak kanta herrikoi hori kantau barik...

*Eta auzoan zer?*

Auzoan be ez gauza handiegirik. Gure "handiko" Sabino agurre zaharrak, horraitino, hainbat ipuin gatzbako esaten eustan, gchienbat "Peru ta Marixerenak", eta oraindino gogoan dot zelan amaitzen zituan beti, niri ziria sartu eta eruegua emoteko:

*"Ipuin ipuin alamanera (?),  
oilo guztiak laba ganera,  
oilarrak korotza egin dau,  
Karmelo sur-puntan jo dau!"*

Ez eukan Sabinok ez boz onik ez belarri finik, baina gaur be badakit agure harek kantetan eustan kantaren bat edo beste:

*"Ai ene!, Oi ene!  
makailauen hazurrek  
itlo bihar nabe!"*

Eta eurenca, andren artean, bere andrearen eta arrebearen artean, matrakaren bat sortzen zanean, gure Sabinok, hasarretu beharrean, umore onari emoten eustan, bihotz barruko garratzasuna zertxubait gozau gurarik edo. Ondo ekian berak gauzeak ez eukana erremediorik eta, androk alkarrri inon dircanak esaten itxita, gurera etorten zan errenka eta, atean sartu ordukoxe, han hasiko zan kantetan:

*"Batien bata,  
bestien bestie,  
gure etxien tanbolin barik  
sarri fiestie!"*

Geroago, nik abade izateko gogoia agertu nebanean, —hamar urteko mutikoa nintzala— ez eustan ba Sabinok ada-

rra gitxi josten, ikusten ninduan bakotxean kantetan eustala, danen aurrean:

*“Estudiante tunantie,  
kapapien kittarrie;  
holan eztala zerbitzen  
Jangoikuaren legie...”*

Gure “handiko” Mercedes Ibarruriko auzo bateko alabca zan, eta Gernika aldeko *Marijesiak* sarritan kantetan euskuzan. Gure herrian be antzerakoak kantetan ziran orduan, abenduaren 23ko gauean, baina Merzedesenak eta gureak ez ziran guztiz bardinak.

*Eta ama ez dozu aitatu. Zer? Ez eutsun amak euskal kantarik irakatsi, ala?*

Gurcan, ama aita baino bizkorragoa zan kanturako: belarri hobea ta ganora gchiago eukan horretarako. Gaztetxu zala, eta orduko denporetan ohi zanez, josten ikasteko, jostun bategaz ibili ei zan etxerik etxe, aldikada baten, hako “Intxauspoko alaba dendaria” izandako apendizaren antzera edo. Holakoetan ohi zanez, denporea emoteko, irratirik ez eta, euskal kantik erabilten ei zituezan, josteari itxi barik. Baekian gure amak, eta sarritan kantetan euskun harako “Herriko fiestak ziran biharamon goizean...” kanta umoretsua. (Handik urte askotara, Iparraldeko euskerca emoten hasi nintzanean Seminarioan, jakin neban kanta hori ez zala besterik J.B. Elcizanbururen “Iragan besta” baino. Gure amak ckiana eta kantetan euskuna zelanbait bizkaieratuta egoan). *Brabanteko Genobebaren bizitzea* be irakurten ei eben joste-orduetan, negarra dariola sarritan, G. Arrucena izango zan, haren baten. Eta, auzoko andra bati ikasita, Kurutzebide osoa ekian buruz, bertsoetan, doinu ta guzti. (Bere bizi guztian, batez be zahartzaroan, sarritan egiten zituan kurutzecok, berak bakarrik, ezetariko libururen premina barik). Eta beste eleiz kanta batzuk

be baekizan buruz, esaterako, Maiatzeko Hilean Santa Maña (Marina) ermitan kantetan zireanak... Gaur be bizirik dirau ohi-tura eder horrek, eta antxina ez dala kantau custen nire auzoko-ak, ermitan bertan, Santa Maña egunez, Andra Mariaren kanta bat, nik orain artean beste inon entzun ez dodana:

*“Ama ederra ta laztana,  
zeure beharra daukagu,  
hainbeste neke eta  
hainbeste arrisku.  
Hainbeste nekeren artean  
zaindu gagizuz menpean  
zerura heldu artean”*  
(Eta gero estrofa mordo bat)

Horren antzeko hainbat kanta entzuten zan Maiatzeko “Flo-  
resetan” (guk orduan holan esaten genduan) Santa Mañako gure  
ermitan: zorionez, oraintsu batu ta argitaratu dauz kantu ta  
errezuok liburutxu dotore baten Uribeko Juantxu Zamalloak.  
Hortik kanpora, cuskal kanten arloan, gauza handirik ez. Erde-  
razkoak, ostera, hainbat ikasi nebazan, eskola-lagunei entzunda  
edo: esaterako, Mexiko aldeko “rancheroenak”, eta gure gerra-  
tekoak.

*Baina, zuen herrian be, eske-kantak ez zirean galduta egongo...*

Ez horixe! Nausien antzera, orduko umcok be kantetan gen-  
duzan, etxerik etxe, “Abendu” eta “Santa Ageda” kantak. Eta  
baita umeenak baino ez ziran beste eske-kanta batzuk be: “Urte-  
barri”, “Erregen”, “Kandelerio”, “Egucen Zuri”...

*Beharbada gaur be ahaztu barik izango dozuz...*

Zoritzarrez, urteak joan urteak etorri, memoria asko moteldu  
jat eta ez dodaz danak hain ondo jakingo.

*Eurotariko bat esango deuskuzu?*

Bat baino ez bada, egin daigun: "Erregen". Neuk dakidan moduan esango dot.

*"Erregen, Erregen,  
kimeletaña,  
zazpi intxaur  
da zortzi gaztaña.  
Zotzak eta paluek  
estudiantien kontuek...  
Apalazijo zaldunek,  
hiru Erregen egune.  
Hiru Erregek  
agindu deuskue  
botateko poltsiori.  
Atrapa ta zizili,  
sillie jo barik itzuli!"*

*Kantu hau be dirua batzeko egiten zenduen?*

Jakina, diru barik pausorik be ez orduko ume gosekilok. Dirua esan dot, baina beste cdozer be pozarren hartzen genduan: sagar zimelak, intxaurreak, urrak, txorizoa... Orduko gurc goseak ez cukan mizkinkeria handirik. Gure herrian, gurc ume-denporan, Urtebarri andren eguna izaten zan; Erregen, gizonena; Gabonzahar (San Silbestre), mutil zaharrena; San Sebastian, mutil gaztecna; Kandelario, neskatilena...

*Eta neska zaharrena?*

Neska zaharrak be baeuken curen eguna, baina orain ez dot goioan zein zan egun hori.

*Eta gaur be bardin da?*

Ez, ez dot uste. Oraingo erdal moda barriak lehengo olitura asko irunsi egin deuskuez, eta goian csandako hori be bai.



Orain, dakizunez, denda nagusien agindupean bizi gara: eurok jarten deuskue bakotxaren eguna, gure diru apurrak eskuratu nahirik.

## **Seminario Txikian**

*Zu, Karmelo, hamaika urteko mutikotxua baino ez zinan, Seminarioko bidea hartu zenuanean...*

Bai, holantxe da: adinez mutikotxua eta, ganera, gorputzez txikia ta argala ("Karmelo Txiki" esaten eusten eskola-lagimak, txikia nintzalako..., eta ni baino zaharrago eta handiago ziran beste Karmelo bi bagozalako herrian).

*Eta non hasi zinan abedetzarako ikasten?*

Seminarioko ikasketak egiteko, ez ginan etxe ondoan geratu: Cordexolaraino bialdu ginduezan. Herri horren izena bera be sekulan entzun bakoa nintzan. Eta, egia esan, herri txiki dotore hori guztiz erdalduna egin jatan. Jendeak erdera baino ez eban egiten kanpoan; eta gure "Preceptoría" barruan be ez zan besterik erabilten. Herriko eleizan, bardin: hango abade guztiak erdaldun garbiak ziran; gure abade zuzendaria bera be, arabarra zan, erdalduna ta erdalzalca ganera.

*Abadegaion artean, ostera, izango zan euskaldunik.*

Bai. Eta ez gitxi: hirutik bat-edo, euskaldun garbiak ginan. Lau-bost, Durango aldekoak; beste batzuk, Arratiakoak. Baina, hain zan erdalduna orduko eta hango bizimodua, geure artean euskerarik egitea burura etorri be ez jakun egiten. Euskaldunok be geure artean erderaz gu beti, jo ta ke, "euskerakada" ederrik botaten genduala lantzean behin, gure ikaskide erdaldunen barre-garri.

*Gogorra egingo jatzun bizimodu barri hori...*

Ba, hara: bai eta ez. Alde batetik, gauzak holantxe izan behar ebela uste genduan orduan. Eskolan polito nembilen, neke handiegirik ez neukan gauza barriak ikasteko. Zer janik be ez jakun falta, eta hau ez zan gitxi orduko denpora larriretarako. Nire esturirik handicna, "konfesetan" joaten ginan bakotxean izaten zan.

*Zer dala-ta hori? Pekatu handiegirik be ez zenduan, ba, eukiko...*

Pekatuak... hori Jaungoikoak eta neure kontzientziak baino ez dakie. Berbeteak, erderaz autortu beharrak, emoten eustan larrigurea. Ni, neure herrian, euskeraz konfesetan ohituta nengozan, eta ez nekian erderaz pekatuak zelan esan. Han, ostera, ez egoan euskera ekian abaderik. Horixe izango zan nire kurutze



Cordexolan ikasle, 1943-44 ikasturtean. Ikaskideak eta irakasle biak, Don Patrizio Elosegi eta Don Patrizio Ruiz de Eguilaz. Karmelo, zutumik, beheengo iladan. ezkerretik laugarrena.

bakarra, haren baten, Gordexolako "Preceptoría" haretan zorientsu igarotako lehenengo urtean.

*Gordexolatik Arteako Seminario Txikira, bigarren kurtsoa egiteko...*

Bai, Gordexolan lehenengo urtea baino ez zan egiten. Hurrengo urte biak, bizkaitarrok Arratiako Artean (Gaztehu Elxabeitian) egiten genduzan. Gerreak hondatutako Seminario Txiki hau behar dan moduan atondu barik egoala-ta, berandu, guztiz berandu eroan ginduezan Artcara, bigarren urtea egiteko: urtarri-laren azken aldean, aurreko urriaren hasieran croan beharrean. Juzca, benetan, luzeegia gure lehenengo oporraldi hori: lehenengo kurtsoan ikasitako gehiena ahaztuta bihurtu ginan Seminario-ra, negu gogorraren bihotzean.

*Artea herri euskalduna zan eta han aro hobea izungo zenduan euskerearentzat.*

Holan izan beharko eban, baina, zoritxarrez, ez zan holan-gorik jazo. Ikasketak, hitzaldiak, alkarrizketak, antzerkitxuak..., dan-danak erdera hutsean. Urte bi egin nituan Artean, eta, herrian bertan euskeraz egiten bazan be, gure artera ez zan euskal usain handirik heltzen. Beste gai batzuen artean, hizkuntzak euken lehen tokia gure ikasgaietan: latinak, gaztelaniak, eta baita grekoak eta frantsesak be, hirugarren urtean. Euskerea bazanik be ez euskun inok aitatu. Elciza barruan, esaterako, ez otowitzik ez kantarik ez zan euskeraz sekula santan egiten. Inoiz edo behin, tipleak emoten euskuen kontzerturen baten, euskal kantaren bat be sartzen zan: gogoan daukadan bat "Binbili bonbolo" da.

*Irakasleen artean bazan, ba, euskaldunik...*

Bai, erdiak inguru. Bat, bizkaitarra; beste hiru, Gipuzkoako semeak. Handik urte batzuctara ikusi neban, euskaldunak ezeze,

euskaltzale handiak be bazirala. Abade egin barritan Derioko Seminario Txikira bialdu ninduenean, hantxe aurkitu nebazan eurotariko gehienak, eta, izen eta guzti esateko, M. Estonbak, J.M. Iruretagoienak eta S. Duok asko be asko lagundu eusten Derion nire euskaltzaleatasuna bizkortzen. Arteako Seminarioan, ostera, eurak be ez euskuen euskeraz egiten, ez eskola barruan, ez eskolatik kanpo. Gure arteko askok uste genduan euskerarik jakin be ez ekiela abade irakasleok...

*Euskerearen arazoaz konturatu ez, ala bildurra?*

Nire ustez, bildurra. Gerrosteko urte hareek latzak eta garratzak ziran, eta Seminarioan euskerca aitatu be ez zan egiten. Egia osoa esateko, esan dagidan beste hau be: Arteako nire bigarren urtea amaitzeaz egoala, itandu eustan behin Iruretagoiena "Aita espiritualak" bere gelan: "Zuenean egunero errezatzen al da Errosarioa?" Baicitz erantzun neutsan; eta abadegei nintzanetik, neuk zuzentzen nebala, ganera. Eta berak: "Euskeraz ala erderaz?" "Erderaz beti", erantzun neutsan; euskeraz zelan egiten zan ahaztuta neukala... Eta aurrerantzean etxe barruko otoitzak euskeraz egiteko agindu eustan. Halaxe egin neban harrezkero. Bai Iruretagoiena zarauztarra eta bai Estonba irundarra, biak Don Manuel Lekuonaren ikasle bikainak izanak ziran, Gasteizko Seminarioan, "Cardaveraz" Akademian. Eurak autortu eustenez, gorengo sariak irabazitakoak Akademia horretan.

*Eta konfesetako? Gordexolako esturak barriro?*

Ba... ez. Arlo horretan bidea asko erreztu jatan: astean behin herriko abade biak etorten jakuzan seminariora, konfesetan —biak euskaldun garbiak—, eta ni eurakana joaten nintzan, ia beti, eta oso ondo hartzen ninduen biak (bata, lekeitiarra zan. D. Sebastian Larragan; bestea, abadinoarra, D. Alfonso Lami-kiz...). Harrezkero alkarren adiskide handi egin ginan betiko.

## Gasteizko Seminario Nausian

*Arteako urte biak amaitutakoan, orduan ohi zanez, Gasteizko Seminarioa.*

Bai. Hamalau urteko mutil bardingoa nintzan, baina gorpuztez txikia ta argala, adinari jagokozan praka luzeak jazteko laburregia. Prakamotzakaz sartu nintzan Seminario Nausian.

*Eta Gasteizen, ezertan aldatu zan zuentzat euskal giroa?*

Euskereari jagokonez, ezetan be ez. Eskoletan erderca zan nausi bakarra (gaztelania ta latina, batez be, greko eta frantsesagaz batera). Gaztelcratzko eta latinezko literatura ederraren ur sakonetan be murgildu ginduczan. Hamaikatxu zati eder buruz ikasten be ahalegindu gintzazan ("Pensum" esaten gcuntsan horri). Eskola orduetatik kanpora, gaur eguneko beste hizkuntza batzuk ikasteko zaletasuna be erein euskuen gogo-bihotzetan: ni, behintzat, orduantxe hasi nintzan italiano eta ingles apur bat ikasten, Cabonetako eta udako oporraldietan, batez be. Italiano, I. Oñatibia irakasleak irakasten euskun, guztiz "fascista" zan gramatika baten bidez (Mussoliniren hitzaldi batzuk be ia buruz ikasi genduzan gramatika haretan); oporretarako, gogoan dot zcin liburu emon eustan irakurteko: Madame Curie-ren bizitza. Ingleseko lehen pausoak udan egin nebazan, eta horretan sartu ninduana neure abadegei lagun bat izan zan: Santos T. Rekalde... Euskerea, ostera, inok aitatu be ez, gure hezitzaile ta irakasleen artean hainbat euskaldun izan arren.

*Oñatibia euskaltzaleak be ez?*

Ba... ez! Cuzurra badirudi be, orduko Oñatibiak, niri behintzat, ez eustan euskera sakontzeko hiderik emon. Eta, nire ustez, ez zan horren errudun: holakoxea zan gure euskal giroa Gasteizko Seminarioan! Eta, egia osoa esateko, erbesteko hizkuntzak ikastea mesedegarri izan jat nire bizitzan, eta oraintxe be pozarren irakur-

ten ditut, lantzean lantzean, latinezko eta grekozko zati batzuk: latinerako, hor dot "Orduen liturgia"; grekorako, aspaldian eskuratu neban Bover-ek paratutako Itun Barria (Azken aldi honetan beste edizino bat erabilten dot sarriago: gure Euskal Herrian grekoz, latinez eta euskaraz argitaratu deuskuen Itun Barria). Ingle-sak, frantsesak eta italianoak ez deuste gitxi lagundu munduan zehar ibilteko. Hori bai: Seminarioan ikasitako apurra gero neure kontura landu eta aberastu egin behar izan dot, ez neke gitxigaz.

*Baina euskaltzaletasuna sasoe horretantxe sortu ei zan zure bihotzean. Zeuk esanda dakit hori.*

Bai, egia da dinozuna. Baina hazi hori ez eben Seminarioko eskolak eta irakasleak erein nire gogo-bihotzetan. Beste abadegai batek, neure erdi-herritar zan batek, jarri zituan nire eskuetan lehenengo euskal liburuak.

*Horren izenik emon zeinke?*

Emongo ez dot, ba? Pozik emon be: Santos Teodoro Rekalde durangoarra, gorago aitatu deusudana bera. Ni baino laubost urte zaharragoa zan, baina urte bat baino ez karreran aurrerago. Beti ameslari handi eta hide-urratzaile izan dan Rekaldek lau liburu erosi zituan aurreko udan Bilbon, Verdes-en liburudendan. Pablo Zamarripa zan liburuon egilca, eta euron izenak be gogoan dodaz: *Kili-Kili, Firi-Firi, Zaparradak eta eta Gora begira.*

*Eta irakurri egin zenduzan liburuok?*

Pozarren irakurri be. Eta mundu harri maitagarri bat agertu jatan orduan: euskerearen mundua. Hamabost-hamasei urteko adina ez da sasoeirik txarrena gaztetxua ames ederren bide barrietan sartzeko, eta liburu samurrok irakurri-ahala, konturatu nintzan euskerea ez zala horren iluna eta gatxa. Liburuon

euskerea ez zan gure inguruko herrietakoa, baina bai Bizkaikoa, eta gehien-gehiena beste barik ondo ulertzzen neban. Baziran, bai, Zamarriparen liburuotan berba eta esaera ezczagunak be. Aldi haretan ez nekian nik euskerazko gramatikarik, ez neukan euskal hiztegirik; baina, ezetariko laguntza barik be, Txorierri eta Mungialdeko euskera hori nahikoa argia egiten jatan, eta holan euskera irakurtzeko neukan bildurra kanpora jaurti neban.

*Zuk, gero, bizkaierazko Antologia egin zenduanean, bioi emon zeuntsen euren lekua: Zamarripari eta Rekalderi...*

Pozik eta esker onez emon be: Zamarripari, ondo irabazita eukalako, erderaz egindako euskal gramatika baten eta hainbat idazti crez eta jatorren egilea izan zalako; Rekalderi, Ipar Ameriketari artzain euskaldunen eleiz artzain ebilela, hango bizimodua aitatzzen deuskun nobela bitxia —*Deunor* izeneko— idatzi ta argitaratu ebalako. Gainera, Arrate Irratian eta *Boletín del Banco de Vizcaya* orriari hainbat urtetari emon euskun, euskeraz, Ameriketako artzainari barri. Bioi ordaindu gura izan neutsen neure aspaldiko zorra, zelari edo halari.

*Eta zeu baino ez zinari, Gasteizko ikasleen arteari, euskera irakurteri ebana?*

Ezini esan neizu hori. Batek baino gehiagok egingo ebalakotari nago, baina, egia esan, horren barririk nik ez neukan orduari. Berba egin, bai: euskeraz alkarregaz berba egiten hasita gengozan lagun batzuk. Beste bizkaitarrakaz baino gehiago egiten neban nik euskera gipuzkoari batzukaz, Deba ibaiari ertzean edo inguruar dagozari herrietako abadegeiekin (Aretxabaleta, Oñati, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Eibar...-tarrekin). Beste kiputxen hizkera gozo dotorea ulertzeko ez nintze gari, baina esandako herrietakoe kin euskeraz jarduteko ez neukan ezetariko zailtasu-

nik. Ez nekian nik orduan hori zergaitik zan; ez nekian gipuzkoarron euskerea ta bizkaitarrona euskalki beraren adarrak zireanik.

*Eta beste kiputxekin ondo aitu ezin euskeraz?*

Halan da. Eurak euren artean jarduten ebenean, *azkarregi* (niretzat!) *ari ziren* eta, ganera, erabilten zituztan *zenbait hitz erabat ezezagunak* egiten jatazan. Gogoan dot zelan behin, Iparragirreran “Ume eder bat” kanta ezaguna entzutean, ez neban ondo ulertzen harako “hitz erditxo bat hari esan gabe...” hori. Zergaitik? Ba, *gabe* niretzat *gaba* (gaua) zalako, eta ez *barik*. Horrenbestekoa zan sasoc haretan nire ezjakina euskera gaian! Baina ekinaren puruz, inoren laguntza barik, berba barriak ikasten ninoian, ... eta handik lasterrera, Zamarripa irakurri ostean, nor eta Lizardi irakurten hasi nintzan.

*Zer dinostazu? Lizardi?*

Ba, bai. Ez dakit nok emon eustan, ala non erosi neban. Lizardiren *Biotz-begietan*, Zarautzeko Itxaropenak argitaratua, eta pozik ekin neutsan liburu eder hori irakurteari.

*Ez jatzun, ba, samur-samurra egingo lehenengotan.*

Ez horixe! Lizardik gipuzkeraz idazten dau, dakizunez; baina, ganera, olerkaria da, eta eder-mundu hori hitz egokiz, urriz eta hautatuz azaltzen deusku. Ondo landutako hizkera dotore eta “garbi” zehatza darabil. Horregaitik, oso gogor egiten jatan hasiera baten. Baina, zorionez, argitalpen horrek baeukan albokaldean gaztelaniazko itzulpena be, eta laguntza horregaz hobeto ulertzen neban olerki bakotxaren esangura sakon aberatsa. Nire bizitzan gora handikoa eta scinalagarria izan zan Lizardiren olerkiok irakurte hori: gaztearen bihotza eder-munduak liluratzen dauan



adin horretan, cuskerea be goi mailako edertasuna adierazoteko gauza badala ikusi neban, eta horrek poz handia emon eustan eta ikuspegi zabala erakutsi.

### *Zein urtetan izan zan hori?*

Karrerako boskarren edo seigarrenan izango zan, hamasei urte inguruko mutil gaztetxua nintzala. Gogoan dot zelan egin neban gerotxuago —“filosofo” nintzala—, antzerki antzeko idazlantxu bat, Santa Katalina egunerako (“filosofoen” jaia orduan Seminarioan), eta lan horren gaia *Lizardiren Xabiertxoren eriotza*-tik hartu neban. Autor dagidan, lotsaz beterik, erderaz (gaztelaniaz!) egin nebala neure lan apal hori.

*“Latinoen” pabelloia itxi eta “Filosofia” aldatu zinan. Ezer aldatu al zan, toki-aldatze horregaz, zure euskal munduan?*

Eskola mailan, ezertxo be ez: gaiak barriak ziran gehienak. Barriak eta sakonagoak, baina guztiak gaztelaniaz eta latinez emoten genduzan. Latina guztiz itxi barik, “Griego bíblico” eta “Hebreo” be apurren bat ikasten ahalegindu ginan. Eskola barruan, gure euskerea erbesteratuta beti. Beharbada, ikasleon arteko hartuemonak sarriago egiten genduzan cuskeraz, betiko lagun euskaldunen artean, baina, hortik kanpora, ezer be ez: ez eskolan, ez eleizan. Seminarioko zer ofizialetan entzuten zan cuskerak bakarra, euskera apurra, “Salón de Actos”-en entzuten genduan, lantzean behin, harako kontzertu handietan: Seminarioko koruak euskerazko kantaren batzuk be abestuten zituan gure pozerako. Eleiza barruan, ostera, urte guztian euskeraz kantatzen zan abesti bakarra, kurtsoari azken agurra egiteko eleizkizumean izaten zan: “Agur, Jesús en Ama” kantatzen genduan, barruko pozari eta begietako negarrari cutsi ezinik... eta orroa baten! Ez daigun ahaztu, orduko Seminario Nausian abadegecirik gehienok —lautik hiru, bai, gitxicenez be— bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ginala.

*Eta zuk, zeure kontura, ezer egiten zenduan euskerea lantzeko?*

Cauza handirik ez. Irakurri, bai, libururen bat tarteka: gogotan dot ze pozik irakurri neban Txomin Irigoienen *Bizi* (erderazko *Vive tu vida*-ren euskal itzulpena). Hau gipuzkera herrikoian egotan-eta, nahikoa errez ulertzen neban. Ez naz ondo gogoratzen baina, uste dot orduantxe irakurri nebala lehenengo aldiz Txomin Agirreren *Garoa* be, ezetariko hiztegi barik. Berba asko ta asko ez nituan ezagutzen; baina liburuaren baserri-giroak eta erromantizismo-usainak ase ta bete egiten ninduen. Beste liburu ospetsu bat be irakurri neban sasoe horretan, baina, egia esan, hau ulertzea gehiago kostatu jatan.

*Zein?*

Orixeren *Euskaldunak* poema luzea (1950). Neure ikaskide batek itxi eustan liburu dotore lodikote hau (orduko 100 pezeta kostatzen zan, eta aberatsen batek izan ezik nok eukan, ba, orduan horrenbeste diru liburutuan eralgiteko?). Poema hori ona be ona zala-eta, —horixe inoen orduko kritikoak—, ahalegin handiaz irakurten neban, geroago ta gehiago ulertzen nebala. Zoritzarrez, liburu handi honek ez ekarren erderazko itzulpenik alboan, Lizardirenak lez (zerbait lagundu eustan, horraitino, A.M. Labayenek erderaz argitalduriko laburpenak, itzulpen zehatza izan ez arren...). Orduko euskal hiztegiak be ez eusten laguntza handirik eskeintzen, nafar usaineko eta baserri-giroko hainbat berba ezezagun ulertu ahal izateko. Baina, nekaz bazan be, gogotsu irakurten neban, gaur zati bat, bihar beste bat, eta eder-mundu aberatsa aurkitzen neban poema horren zati askotan. Ganera, ni neu baserriko semea izanik, poema horretako gai asko etxeko egiten jatazan.

*Besterik ezer, euskera-arloan, zu "filosofo" zinala?*

Ba, bai: euskeraz idazten be hasi nintzan. Ordurarte, irakurri, bai, egiten neban, askotzarik ez bada be, baina neuk euskeraz ida-

tzi, sekulan be ez. Egia esan, erderaz eta cuskeraz hasi nintzan idazten. Gauero, ohera joan aurretik, horri labur bat idazten neban, gaur euskeraz, bihar erderaz, neure idazkerea lantzeko asmotan. Gaia, gebien baten, egunak berak eskainitako gogoetak eta bihozkadak.

### *Gordeta izango dozuz orduko lantxuok...*

Bai zera! Jardukizun apaltzat baino ez neukazan, eta horregaitik ez nituan neugaz gorde izan. Horraitino, egunotan agertu jat nik aspaldian galdutzat neukan kuaderno apal bat, euskeraz nire lehen itzulpenak eta hiru-lau lantxu labur dakazana. Uste dot eguneroko ekite honck hainbat mesede egin custala neure cuskerara landerra aberasteko. Aldi honetantxe hasi nintzan amari be kartak cuskeraz egiten.

### *Ordurarte zelan egiten zeuntsan, ba?*

Erderaz beti. Gure aita hil arte (1950), etxekockin neukan hartuemon idatzia erderaz izaten zan: nik gurasoci zuzentzen neutsezan neure kartak, eta gero euren izencan anaicak erantzuten eustan. Anaia biok beti euskeraz berba egiten geuntsan alkarri, baina kartak erdera hutsean. Ni filosofo nintzala hil jakun aita, ia bat-batean, eta nire anaia bakarra soldadu eroan eben Donostiara, handik bi hilabetera. Gure ama bakar-bakarrik geratu zan etxean. Aitaren heriotza ustebako hori eta amaren egoera bakartia astinaldi gogorra izan ziran nire bihotz gaztearentzat. Hamazortzi urte beteteko nengoan. Orduan erabagi hau hartu neban: amari astero-astero egingo neutsala eskutitza... eta hori euskeraz egiten hasi nintzan, nik amari zuzenean erderaz berba egiten ez nekialako.

### *Eta hori luzaroan holan?*

Harrezkero, neure bizitza guztian: bai Gasteizko Seminarioan ikasketak amaitu artean, eta baita gero be, Comillas-ko Unibersidadean urte bi egin nituanean.

*Eta zure ama pozik...*

Hoba ez! Baina hau be esango deusut: nire euskerazko eskutzei gure anak erderaz crantzuten eutsen! Nireak oso ondo ulertzen zituan, nik berbeta argia eta erreza erabilten nebalako; baina berak ez eban inoiz euskeraz idazten ikasi eta, horregaitik, erderaz crantzun behar, huts bat baino gehiago sartzen ebala, batez be ortografian. Dakizuncz, ez da hau gure kasu bakarra: euskal cixerik gehienetan bardin jazo izan da oraintsura arte. Horren lekuko, soldadu euskaldunak etxera egindako kartak: ia bcti crdera hutsean.

*Orduko denporetan, gure Seminarioan, hezitzaileak irakurri egiten euskuezan eskutitzak, bai geuk egiten eta bai hartzen genduzanak. Zuk zeureak euskeraz egiteagaitik, ez eutsuen ezer esan?*

Ba... ez. Ez eusten sekulan ezer csan, ez horren alde, ez horren aurka. Handik urte batzuetara, “teologo” nintzala, konturatu nintzan gure hezitzaile batek interes handiaz irakurten zituala nire euskerazko eskutitzak. Itandu neutsan behin: “Baina berorrek euskerrea ulertzen dau, ala?” Erantzuna —gogoan daukat beti— latincz emon eustan. “*Disputatur inter auctores*” (Autoreen artean eztabaidca dago horretaz). Badakizu nor zan hezitzaile hori? Gero gure Bilboko gotzain izango zan Koldobika Mirena Larrea. Nok csango eustan niri orduan, handik urte batzuetara, Bilboko gotzain egin ebenean, neuri dei egingo eustala, katedralcan sarrerako hitzaldian egingo zituan euskerazko berbak aztertu ta zuzentzeko!

*Berbaldi hori, euskerazko zatian, zeuk egin zeuntsan?*

Ez, ez. Euskerazko zatia be berak eginda egoan, baina neuk ikustea eta zuzendu beharrekoak zuzentzca nahi izan eban.

*Harrezkero alkarren ondoan egon zineen urte askotan...*

...cra gure arteko hartuemon arruntak euskera hutsean izan dira beti. Gero, gai zailagoak erabili behar zireanean, berak erderara jotzen eban.

*Filosofia ikasten hiru urte egiten genduzan. Aldi horren ganean, badozu ezer gehitu beharrik?*

Ba, bai. Hurrengo hau ez neuke esan barik itxi gura. Eskoletan euskerarik ez aiatatu ez irakatsi ez baeuskuen be, gure buruak eta gogoak gizonaren eta herrien eskubideetara zabaltzen asko lagundu euskuen. Batez be, Gregorio. Rz. de Yurre-ren eskolak jatortaz gogora. Irakasle hau arabarra zan eta erdalduna, baina guri irakatsi euskun "Filosofia Social" harek sakonetik astindu ginduzan. Benetako demokrazia maite izaten lagundu euskun bere irakatsi argi eta sakonen bidetz. Herriaren eskubideak argi-ago ikusten be bai. Euskal Herriaren izenik aiatzen ez baeban be, ez zan neke handirik behar gure irakaslearen irakatsiak geure Herriari ezarteko. Ez zan hori gitxi orduko denpora ilunetarako.

*Filosofiako urteak amaitu, eta Teologiako ikasketak...*

Holantxe da, bai. Hemeretzi urte baino ez neukazan, eta, antza, ume-arpegia oraindino. Horixe jaurti eustan, behintzat, arpegira J. Goikoetxeandia arima-zuzendariak, ni ikusi ninduan: "Tú, ¿a qué vienes a Teología con esa cara de chaval?" (Egia esan, nire kursoan gazteena ez banintzan be, gazteentari-koa bai). Aldi honetan eta euskerearen arlo barruan, badaukat aitatzekorik.

*Lehenengoa?*

Euskerazko eskolak.

*Zer dinostazu? Ordura arte ez, eta Teologian hasi jatzuezan euskerazko eskolak emoten?*

Ez, ez. Holakorik ez. Handik lasterrera askok eta askok gure eleiz-zereginak gehien baten euskraz egin behar izango genduzan arren, Seminarioko egitarauetan euskereak ez eukan ezetariko lekurik, hori gaur ulertezina egiten bajaku be. Beste hainbat ikas-

gairen artean, bageunkan bat, "Pastoral" eritxona, gure herrietan artzain on izateko bidcak erakusten euskuzana. Baina dan-dana erdera hutsean azaltzen cuskuen, eta euskerearen arazoa aitatu be egin barik. "Liturgia" gaian be beste horrenbeste.

*Hori holan dala, zer dala-ta aitatu dozuz "euskerazko eskolak"?*

Beharbada, "eskola" berbea ez da egokiena, baina, hara: euskal abadegei batzuk, geu hasi ginan alkarregaz astean behin batu, eta alkarri euskera apur bat irakasten.

*Isilpean ala baimen eta guzti?*

Alde batetik, baimen eta guzti: bageunkan horretarako gure Erretorearen baimena (Felipe Ugalde urretxuarra zan orduan gure Erretorea). Abadegeien eskabidea aintzat eta ontzat hartu eban Ugalde jaunak, eta bere baimena emon be bai. Baina isilpean ibiltzeko eskatu euskun, zarata handi barik, berak ez-ikusi egingo ebala... Bildur zan, antza, goragokoren batzuk horren barri izango baeben, ezetza ta debekua etorriko eta jakuzan, eta hortik gure erretorearen bildurra eta gu kontuz ibili beharra.

*Asko batzen zineen horretarako?*

Ez danok (euskera genkian guztiok, esan gura dot), baina hainbat. Bagooan orduan gure artean "Academia Rural" izeneko alkarte apal bat be, gure baserrietan Kristoren barriona zabaltzeko bidcak erakusten euskuzana. Akademia honexek, nire ustez, zabaldu euskuzan begiak euskercaren arazoa argiago ikusteko. Ez nago guztiz ziur. Dana dala, Akademia horren eragile bi izan ziran, behinik behin, orduan bizkaitarren gure euskal taldetxua sortu, bultzatu eta zuzendu ebenak: Martin Olazar eta Julián Olazabalaga. Euron izenak ez neuk ez isildu gura, gerora be euskerearen eta euskal gaien munduan hainbeste egindako abade langile bion izenak.

*Eta, zuen aurretik, ez egoan holakorik?*

Gerrosteko Seminarioan, ez dot uste. Nik neuk, behintzat, orduan ez neukan horren barririk. Baina geroago jakin izan dot gu baino lehenago be izan zirala honen antzeko ekintzak. Martin Olazarrek berak esanda dakit, bera eta Txomin Artetxe joan zirala erretorcagana baimen hori eskatzen. Eta Juan Mari Lekuonak be beste horrenbeste autortu deust: kiputxak be orduantxe hasi zirala batzen eta alkarri lagunduz euskerea lantzen. "Garai hartakoak gure lehendabiziko argitalpentxoak, *Egan*-en plazaratuak eta Don Pablo Bilbao Aristegik zirikatuturik eta lagundurik. Hor ikusten dut nire idazlanen lehen emaitza xumea", autortu eustan Julen Marik bere eskutitz baten.

*Hiru bizkaitarren izenak aitatu dozuz: Artetxe, Olazar eta Olazabalaga, eta, abade eginda gero be, hirurok agertu jakuz euskaltzale handi.*

Bai, halan da. Txomin Artetxe euskal liburu txiki baten egilea be bada...

*Bai, gero?*

Bada hor gure Balendin Berrio-Otxoaren bizitza labur bat, *Egartek* bizkaieraz idatzia eta Bilbon argitaratua, D. Klaudio Gallastegi handiaren hitzurre ta guzti. *Egarte* hori ezizen lotsorra baino ez da, eta hiru abaderen deiturak estaltzen deuskuz: Patxi Epelde (E) azpeitiarra, Santi Garmendia (gar) ormaiztegiarra eta Txomin Artetxe (te) bizkaitarra, Arteako semea. Eurok esanda dakit dakidan hau: Gasteizko Seminarioan "teologo" zirala, euskerea lantzeko batzen ei ziran, eta horretarako liburu horren gaia jorratu eben kiputx biak eta gure bizkaitarrak. Don Manuel Lekuonari erakutsi ei eutsoen euren lan apala, maisu handiaren eretxia jakiteko, eta beste barik argitaratzeko agindu ei eutsen Don Manuelek...

*Zuk hau lehenago be nonbaiten zabalago aitatu zenduan, ezta?*

Bai, *Zer* aldizkarian emon neban horren barri, oker ez banago. Hori holan egin banaban, honexegaitik izan zan: *Egarteren* liburu-txu hau ez zalako inongo euskal bibliografiatan agertzen (eta kontutan izan daigun urte horretan —1952— euskeraz 23 liburu argitaratu zirala, eta euron artean 3 baino ez Bizkaiko euskeran!). Hau holan dala, euskal liburuen zerrendetan zergaitik ez dau bere lekutxua merezidu izan *Egarteren* liburu apal honek? Caiak berak eta liburuaren euskera onak horrenbeste eta gehiago merezidu dabe.

*Zuk aitaturako Martin Olazar horrek gogotsu ekin deutso gerora be euskal lanari...*

Gogotsu eta eten barik. Aldizkarietan argitaratu dituan artikuluak batek badaki zenbat diran! Berak be ba ete daki? *Agur, Aran, Zer, Euskerazaintza, Kardaberaz, Alkartasuna-Concordia, Goiz Argi, Bermeo, Sasaki-Naski* eta beste aldizkari batzuetan dagoz sakabanatuta, ia beti Bizkaiko euskera jator, garbi ta argian idatziak. *Aran*, Arratiako aldizkaria, berak sortu eta zuzendu eban, Zeanurin abade egoala; *Zer* aldizkariaren zuzendari bera da hainbat urtetan; eta Mungiaiko *Alkartasuna-Concordia* horrena be bai. Eta ez daiguzan ahaztuta itxi Bilboko Eleizearentzat egin izan dituan itzulpen ugariak, batez be Eleizbarrutiak eratutako Batzar Nagusi haren urte luzeetan. Zenbatek daki orduko itzulpen guztiak —eta Jaungoikoak daki zenbat paper zabaldu zan orduan!— Martinek euskeratu zituala? Bermeen parroko egoala, Udaleko itzultzaile be izan zan luzaroan. Eta holako beste lan asko ta asko. Guzti honen barri zehatzago Martinek berak emon deusku oraintsu, bere *Zu, Martin* liburu autobiografikoan.

*Irakasle be izan da Martin...*

Abade zala, Filosofía y Letras ikasi eban eta lizentziatura-tesia Mungialdeko eta Bizkaiko beste alde batzuetako euskal





Gasteizko Seminarioan, 1949-50 ikasturtean. Karmelo, markurtuta, ezkerretik hasita hirugarrena. Bere eskuman Jesus Altuna eta ezkerrean Gabriel Mariskal. Atzean, ezkerretik hasita bosgarrena, Juan Mari Uriarte gaur Donostiako gotzaina.

fonetikari buruz egin eban. Bere abade-lanak alde batera itxi barik, goi-mailako eskolak be emon zituan Gasteizko Irakasle Eskolan.

### *Baina ez luzaroen... Zergaitik?*

Martin bere eretxien "martiri" dala esango nuke nik. "Euskara batua" nagusitzen hasi zantik hona, Martinek behin eta berrero azaldu izan ditu bere pentsakerea ta jokabidea, eta dala-ko euskera batu hori hainbat puntutan ez dau ontzat emoten. "Erri-euskera" dau maite, eta, bizkaitarrontzat, bizkaiera. "H" horren arazoan argi ta garbi emon izan ditu bere arrazoiak. Eta, bere ustez gure herritarrik gehientzat alperreko eta kaltegarri dala uste izanik, ez dau hizki hori erabili nahi eta horren aurka adoretu agertu jaku beti.

*Eta zer dauka horrek "martiri" izateagaz zerikusirik?*

Ba, hara: bere eretxici eustearren eta gaurko "euskara normalizatu" hori puntu batzuetan ontzat ez hartzearren, lanpostu bate-tik baino gchiagotik aldendu ei dabe Olazar idazlea: Berneoko Udaletik, Gasteizko Eskolatik, Bilboko Gotzaitegitik... Esangura zabal baten barruan, zer da martiri izatea, norbere fedearen testi-gu zintzo azkeneraino izatea baino besterik? Hori ta guzti be, gure gamiztarra bere bidean zintzo aurrera, gau ta egun euskal lanari ekiteko beti gertu.

*Eta hirugarrena, Julian Olazabalaga...*

Legezkoa da nik Julian aitatzea. Berau izan neban, euskal arloan, lehenengo maisua... edo maisu-ordea, Gasteizko Seminarioan. Gure taldearen buru berau zan. Aspaldian galdutzat neukan kuaderno zahar maite bat oraintsu agertu jat, zorioncan. Neure bizitzako lehenengo euskal lantxuak dakaz: Arami-ren *Viva tu vida* liburuaren itzulpen zati handi samar bat (10 orrialde), Iurreta neure jaioterriari eskainitako artikulua bat, San Mateoren Barri Onaren itzulpena (kapitulu batzuk baino ez). Lanon zuzenketak J. Olazabalagarenak dira. Autor dagidan Julian adiskideak asko estimetan zituala orduko nire lantxuak. Halan, behin, San Paulok maitasunari egiten deustsan goratarrea (1 Kor 13) euskeratu neban, nire itzulpenaren hurrengo Orixerena jartzan nebala, eta gure Julianek hauxe jarri cutsan bere eskuz nire lanari: "Muy bien. Creo que pronto llegarás a pisar los talones a Orix". Lorak botatzen hasi ezkeru, bota! Ez orduan bakarrik, gerora be beti adore emon deust Olazabalaga adiskideak euskal lanetan jarduteko.

*Berak, osteru, ez dau euskerea askotzarik landu...*

Kontuz, Ander, esaten danagaz! Julian ez dala euskal hizkuntzan maisu handia, asko aitua? Ez dauala gramatika askotzarik ikasi eta gauza handirik argitaratu euskeraz? Hori egia da.

Baina gure larrabetzuarra txalogarria da benetan euskerearen alde egin eta eragin dauan lan ederragaitik. Alderdi batzuk baino ez aitatzekotan, horra hor irrati-mundua. Nok daki zenbat ahalegin egin izan dituan Olazabalagak euskerea Arrateko eta Billboko Herri Irratian sartzeko? Zuzendariei eskabidea egiten ekin eta ekin, hizlariak bilatu, gaiak eskaini, berak be bere grabazioak eta alkarrizketak ekarri, herrietan propagandea zabaldu... Nik neuk gehien ezagutzen dodana Billboko gure Irratiaren kasua da, eta behin baino sarriago autortu izan dot irrati honetan euskerea Juliani eskerrak sartu zala...eta gaur be, gure eleizbarrutiko Bizkaia Irratia guztiz euskaldunean Julianen boza eta eragina ez jakuz falta, zorionez.

*Irratiarena aitatu dozu. Eta besterik?*

Gaur Labayru Ikastegiaren ardurapean dagoan "Derioko Ikastaroa" nondik sortu zan? Julianen asmo ta ekintza batetik: gure eleiz gizon eta emakumeak euskera makal egozala-ta, 15 eguneko ikastaroa asmatu ta eratu eban Julianek, Derioko Seminarioan. Mikel Zarate ta biok hartu ginduzan irakasle. Gu biok orduan Derioko Seminarioan euskera irakasle ginan. Geure eskutian itxi euskun gaiak eta metodologia aukeratzea. Hogeiren bat abade eta monja bat izan ziran ikastaro horren lehenengo ikasleak. Ikastaroa martxan jarri ebanean, Julianek —beste arlo batzuetan egin ohi izan dauanez— beste esku batzuetan itxi eban horren ardurea... eta zeuk, Ander, hartu zenduan haren lekua, eta hortik sortu jakun gure "Udako Ikastaro" maitea, 30 urte bizirik eta hutsik egin barik iraun dauana.

*Haritik urtenda-edo ez ete gabiz, Karmelo?*

Urtenda ez, nire ustez. Luzeegi, bai, beharbada. Baina nire euskaltzasunean eragin handia izan dabe hiru abade lagunok, eta zor jaken aitamena egin gura izan deutset nik hemen hiruroi, horrenbeste eta gehiago merezidu dabelako.

*Eten luze hori albora itxita, goazen, Karmelo, lehengo harira. Teologiako urteetan gagoz (1951-1955). Lau urteotan, badozu besterik aitatzeko modukorik?*

Ba, bai, eta niretzat garrantzia handi handikoa: *Eguneroko meza-bezperak.*

*ORIXEk latinetik euskeratutako meza-liburua esan gura dozu?*

Bai. Teologiako lehenengo urtean nengoala zabaldu zan gure artean liburu dotore ta karu hau. Neure ikaskide batek, Donostian bizi zan Iñaki Zumeta tolosarrak, ekarri euskun, Maritxu Barriolaren eskuetatik. Ez dakit dirua nondik zuzendu neban, baina erosi nebana badakit, eta ez dot horren damurik sekulan izan. (Oker ez banago, dana batera ezin ordaindu eta, hilcan honenbesteko bat emoten geuntsan Zumeta ikaskidcari, zor dana kitutu arte). Hurrengo hau esaera biribila bada be, egia baino ez dala uste dot: nire bizi guztian euskal arloan mesederik gehien egin deustan liburua hauxe izan dot.

*Horrenbesteraino?*

Nik neuk halan uste dot, behintzat. Zecuk ondo dakizuncz, guk Seminarioan goizero izaten genduan meza santua: hauxe zan gure lehenengo eginbeharra, gogarte-otoitzaren hurrengo. Astegunetakoak "meza isilak" izaten ziran, hau da, mezemoileak laguntzaileakaz baino ez zituan izaten here alkarrizketak. Beste guztiok, bakotxa bere lekuan, muturik, abadeak latinez esaten eban meze-ari erderazko meza-liburu baten bidez jarraitzen geuntsala (beste libururen bat irakurten ez genduanean!). Domeka ta jaiegunetan, ostera, kantuz eta danok entzuteko moduan izaten zan meza, eta guztiok esaten edo abesten genduzan geure crantzunak.

*Orduan, jakina, dan-dana latinez izango zan...*

Horixe izan da Latin-Elcizearen ohiturea ta legea hainbat mendetan, azken Kontzilioan liturgia barriztau arte.

*Eta zertan dauka horregaz zerikisirik ORIXEren meza-liburu barriak?*

Nik, ordurarte, beste ikaskide guztiak lez, latin-gaztelaniazko liburua irakurten neban meza-denporan. Euskerazko hau eskuratu nebanetik, ostera, erderazkoa alde batera itxi eta hauxe baino ez neban erabilten.

*Ba... ez jatzun hain samur egingo liburu horren napar usaineko euskerea...*

Egia esan, lehenengotan, ez. Baina erabiliago, argiago egiten jatan: zati batzuk (Mezearen egunerokoa) beti bardinak ziran eta, ganera, euskereak han ekarren aldamenen latinezko testua, berba ta esaldi ilunak argitzeko lagungarri ezin hobea guretzat. Lau urtetan goizero, eguncan ordurdi, euskeraz irakurtea, badakizu zer dan? Urtearen azkenerako zenbat ordu diran?

*Ez gitxi. Zenbat ikastarok emoten dabe horrenbeste ordu?*

Baina ez hori bakarrik, Ander. Beste jokabide bat be hartu neban, liburu horri esker: neure gogo barruko erlijino-berbete guztia euskeraz egiten hasi nintzan, eta hau be mundu barri gozoa izan zan niretzat. Holan izan zan orduan, eta harrezkero holantxe izan da nire bizitza guztian. Aparteko berotasun gozoa aurkitzen eban nire bihotzak euskerazko hitzetan. Lehen latinez buruz nekitzan otoitzak, salmoak, antifonak, eleiz kantak... orain euskeraz hausnartzea harrigarri ta zoragarri egin jatan. Konturatu barik, mezearen egunerokoa bizkaieratu be egin neban neure barrurako, otoitzak neure etxeko euskeraz egiteari beste gozotasun bat aurkitzen neutsalako.

*Eta besterik ezer irakurri zenduan euskeraz Teologiako urtetan?*

Gauza handirik ez, baina, tira!, lantzean behin han jausten zan euskerazko libururen bat nire eskuetan, eta, zaletuta nengo-

anez, irakurri be pozik irakurten neban, asti bitartecetan. Euskal itzulpenak be bai: gogoan dot zelan irakurri nituan orduan J.R. Jiménezzen *Platero ta biok* eta Shakespeareren *Hamlet* be, beste batzuen artean. Azken urtean, oker ez banago, beste liburu mardul bat be crosti eta eskuratu neban: Aita Santi Onaindiak egindako euskal poesiaren bilduma handia: *Milla euskal olerki eder* deritxona. Hiau, Aita Santiren lehengusua zan geure ikaskide batek ckarri eta zabaldu eban gure artean: Imanol Oruemazaga berriztarrak. Nok esango eustan orduan niri, handik urte batzucetara neuk erosiko neutsazala Aita Onaindiari bere liburu honen azken aleak, Larreako komentuan, Derioko abadegeciñ artean saritzat bananduteko!

### **Abadetzako lehenengo urteak Derioko Seminarioan**

*Zein urtetan egin zinan abade, Karmelo?*

1955. urtean, San Pedro egunean, Begoñako Basilikan, 23 urte eginbarri neukazala.

*Eta meza barria zeure herrian, jakina...*

Hoba ez! Iurretako "Aita" San Migelen eleizan emon neban meza barria, orduko denporetan ohi zan jai-giro handian.

*Euskeraz?*

Nongo euskeraz? Orduan meza osoa latinez izaten zan. Sermoia, bai, euskera hutsean izan zan, baina ez neuk egina. Ni Seminarioa croan ninduan abadeak berak egin eustan sermoia, Ibarrangeluko semea dan Don Domingo Zuluagak. Parrokiako koroak Bizente Goikoetxearen meza ederra abestu eban (lehenengo aldiz gure parrokian), eta gero, azkenean, eskumunean, "Te Deum" luze ederra.

*Eta zu euskalduna zinan ezkeru, euskeraz egiten zan herriren batera bialduko zinduezan abade...*

Bai eta ez. Neure abadetzako lehenengo 20 egunak Bizkaiko ertz-ertzean igaro nituan, Lanestosan, Kantabria ta Burgosen mugetan, beste abade baten ordezko. Dakizunez, Lanestosan ez da euskerarik egiten. Ganera, udea zan, eta udan kanpotar asko joaten zan orduan hara, oporraldia bertan igaroteko: eurotariko asko eta asko "montañesak" (kantabroak) eta madrildarrak ziran.

*Eta hogeï egun laburrok egindakoan, nora?*

Derioko Seminario Txikirako dei egin eusten, han hezitzaile ta irakasle izateko. Udearen erdian 15 eguneko ikastaro labur bat izan genduan Derion, hurrengo kurtsoan Seminarioa sartu behar eben mutikoak ondo aukeratu ahal izateko. Hainbat umek eskatzen eban orduan Seminarioan sartzea. Ehunetik gora izango ziran urte haretan. Eurotariko asko euskaldun garbiak ziran, baina sasoe haretan euskaldunekin be gehienetan erdera hutsean egiten genduan berba. Euskeraz... lantzean behin baino ez. Ume euskaldunak eta erdaldunak danak batera egiten eben eguncroko bizimodu osoa: eskolak, jolasak, otoitzak, e.a. Mutikoen artean dantzariak baegozala jakin genduan, hamabost eguneko ikastaro honetan dantzari-taldetxu bat cratu genduan, eta eguneroko jantziekin saio polita eskaini euskuen: dantzari dantza eta aurrekua. Dantzarion artean, onenatarikoa Gamizko mutiko zuhur bat, gero euskaltzale handi, euskal lanetan lagun eta adiskide on izango neban Lontzo Zugazaga. Hurrengo kurtsoan (1956-57), Gasteizko Seminarioan egozan abadegaiak Deriora etorriko ziran, euskal dantzak indar handia hartu eban gure Seminarioan. Irakaslerik onenak J.A. Retolaza ("Kili-kili" ren sortzailea izango zana) eta J.M. Uriarte (gaur Donostiako gotzaina) izan ziran.

*Irakasle lez, zer emon zenduan zuk Seminario Txikian?*

Zer ez? Hainbat gai ezberdin: latina eta gaztelania lehenengo urtekoei, gaztelaniazko literatura hirugarren eta laugarren kurtso-koei, solfeo apur bat eta bai hasibarrieci...

*Eta euskerarik ez zenduan emon?*

Seminario Txikian ez zan orduan euskerarik emoten. Ez dakit kurtso horretan ala hurrengoan izan zan, baina Seminario Nagusian euskera apur bat emoteko agindu eusten. Euskereak bere bidea eginda eukan ordurako Derioko Seminarioan: bide estu, apal eta lotsorra, baina ez zan gitxi aldi haretarako. Ez dakit nori entzimen neutsan, Don Casimiro Morcillo Bilboko lehenengo gotzainak edo egia atsala ate estu hori euskerari Derioko Seminarioan...

*Ez zan, ba, gotzain hori euskalduna...*

Ez, erdaldun erdalduna zan, Madrilan jaioa, mendi aldeko herritxu baten. Erdalduna izatez eta bihotzez. Erdalduna eta erdalzalea, ondo landutako gaztelania dotore ta aberatsa erabilten ekiana, bai berbaz eta bai idazkietan. Baina hau eta esan behar da haren alde, egia da-ta: gotzain honen denboran (5 urte egin zituan guztira Bizkaian, 1950-1955), Erromako lehenengo Bulatik hasita, eleiz agiri ofizialik gehienak erderaz eta euskeraz argitaratu ziran Bilbo eleizbarrutiko Boletinean. Ez da, ez, gauza handia, baina gure Euskal Herriko zein erakundetan egiten zan orduan beste horrenbeste?

*Gotzain horrek zergaitik sartu eta eban euskerea Seminarioan?*

Ez dakit gauza ziurrik, baina inoiz edo behin entzun izan dot Bilboko andra aberats euskaltzale batek diruren bat itxi ebalu bere testamentuan, Bizkaian abade izango ziranak euskerea jakin egien. Andra horren izena, Maria Uralde, Eleizearentzat beti hain eskuzabal agertu zana.





Ama eta biak, 1995eko abuztuaren 15ean, abade egin barritan.

*Zu hasi aurretik, egon ete zan beste euskerazko irakaslerik Derion?*

Bai. Otxandioko seme bat, Don Fernando Arzuaga, zan irakaslea. Gernikako Artzipreste izandako abade hau, Gernikatik atara eta katedraleko benefiziadu egin eban Morcillo gotzainak. Derioko Seminarioan bizi zan. Zein gramatika erabilten eban be gogoan daukat: Paulo Zamarriparen *Gramática Vasca*. Oker ez banago, Don Jesus Garai abadeak be emon zituan eskola batzuk nire aurretik.

*Seminario Txikian ala Nagusian hasi zinan zu euskera emoten?*

Esan deutsudanez, Nagusian, eta lehendik euskera ekicnei baino ez. Orduko denporetan Seminario Txikian ez zan euskerrik emoten. Beraz, nire lehenengo ikasleak "teologoak" izan ziran, handik lasterrera gure herrietan abade izango ziranak...

*Ze metodo erabilten zenduan?*

Astean eskola bat baino ez zan izaten, eta metodo jakinik ez genduan. Nire irakasleak euskaldunak ziran, euskeraz berba egiten polito ekienak, baina sekulan euskerea landu bakoak. Lehengo urteetan gramatika gitxi emoten genduan (neure gogokoa izan ez arren, besterik ezean Nikolas Cortés Manterolarena be zerbait erabili nebala gogoan dot...). Euskeraz irakurri, euskeraz idatzi, idatzitakoa aztertu ta zuzendu: horra hor gure orduko ikasbide urria... Egia esan, erdereka ondo menperatuta cuki arren, euskerea irakurteko eta, batez be, idazteko motel eta trakets aurkitzen zituezan ikasleok euren buruak, eta laster konturatu nintzan hori ez zala adinik egokiena euskera ikaŝten hasteko. Ganera, nik neuk be ez nituan gauzak garbiegi ikusten, liburu egokien laguntzarik be ez genduan, eta euskereari astero emoten geuntsan denporea laburregia zan, ezer ganoraz ikasiko bagenduan. Horren lekuko, abadegcien laguntzagaz orduan euskeratu neban lantxua:

*Lagunarteko Meza Orienteko Kristiñauen eraz* (Delegación Misiona-  
nal Diocesana, Bilbao, 1959).

*Zer da hori?*

Eguzkialdeko kristinauen mezea euskeraz jarria. Orduan bazan gure Derioko Seminarioan mezea era horretan emoteko bai-  
mena eukan abade erdaldun bat, Francisco Ballester Viu, hiz-  
kuntza klasikoak ondo ezagutu, asko maite izan eta gartsu ira-  
kasten zituana. Ia egunero emoten eban berak mezea Eguzkialde-  
ko liturgiari jarraituz, gchienetan grekoz, gure abadegciak  
erasoten eutsoela. Beronck eskatuta euskeratu genduan meza  
horren "Egumerokoa", eta behin baino sarriago erabili eban  
Ballester jaunak euskerazko itzulpen hau Bizkaiko herrietan. Hau  
ez ahaztu: orduko denporetan mezea latinez baino ez zala emoten.  
Oker ez banago, Arrazolan emon eban Ballester abadeak lehenen-  
go aldiz meza hori euskeraz, J.A.Retolazak eskatuta, eta ni neu  
bertan izan nintzan. Egia esan, orain itzulpen hori irakurten  
dodanean, argi be argi ikusten dot zenbateraino zan urria nire  
orduko jakituria euskeraren arloan.

*Orduan, horixe izan zan gure artean lehenengo mezea euskeraz...*

Ba...bai. Vatikanoko II. Kontzilioa iragarri be cgin barik ego-  
an, eta inok ez genduan uste gure liturgia euskeraz sekula santan  
ikusiko genduanik.

*Zenbat urte emon zenduan euskera irakasle Seminarioan?*

Ez asko: hasi eta nire hirugarren urtea amaitutakoan, estudio  
barriak egitera bialdu ninduen Comillas-era; "Jus Canonicum",  
Eleizearen Legeak edo kanonak. Ez gaia bera, ez lekua, ez ziran  
orduan nire gogo betekoak, baina inoren menpean gengoan, eta  
agindua agindu; gotzain jaunak agindu ei eban nire hara joatea,  
beste abade lagun bigaz.

## Comillasen eleiz legeak ikasten

*Derio itxi eta Comillas erdaldunera...*

Benetan erdalduna orduko Comillas! Sasoe haretan Seminario ta Unibersidade ospetsu hori gaztez ganezka egoan; maila, adin, herrialde eta gai askotariko ikaslez bete-betea. Gure gaian, ostera, kurso bi baino ez ginan, eta guztira hogeta hamarren bat ikasle, España guztitik etorriak; atzerritar banakaren bat be bai.

*Euskaldunen batzuk be izango ziran hainbeste ikasleren artean...*

Bai, halan da. "Kanonisten" artean, banaka bat baino ez; teologo ta filosofocn artean, gehiago, baina ha ta guzti be, askotarik ez. Hango giroa erdaldun-erdalduna zan, bai berbetaz, bai gogoz eta bihotzez.

*Ez zan, ba, beti holan izan. Nik dakidanez, gerra aurrean behintzat, euskaltzale sutsu batzuk be egon ziran Comillasen, Orixe ta Nemesio Etxaniz euren artean.*

Holan izan zan, bai, baina euskaltzeok curak curetara landu eben cuskerca, ez goikoak lagundu eta bultzatuta. Horren barri behin baino gehiagotan emon eustan Antonio Zaldua abadeak, bera be giro haren barruan sartuta egon zan eta. Gerra ostean, barriz, euskaltzale gitxi igaro zan handik. Baina, gure denporan be, euskaltzaleren bat edo beste ezagutu nban: hor dogu Juan B. Gallastegi durangoarra, bere ikasketa guztiak Comillasen egin arren, beti euskaldun eta euskaltzale sutsu izan doguna...

*Antonio Zaldua aitatu dozu. Nor izan zan abade hori?*

Corlizen jaiotakoa, Munitibarren bizi izandakoa, euskaldun garbia bihotzez be; gure gerratean Kubako erbestera joan beharra izan cban, eta han, Santiago uri handian, bertako gotzainaren idazkari eta bikario izan zan. Gotzain hori bizkaitarra zan, Mar-

kinaldeko Etxebarrikoa, Zubizarreta kalmeldarra, gizon zentzundun eta jakitun handia. Zaldua, Kubako egotaldi luzea amaitutakoan, Billora bihurtu zan; eta hemen Gurrupide gotzainak, Comillasetik ezagutzen eban-eta, bere Bikario Nausi ordeko egin eban. Nik Kurian ezagutu neban eta lagun handi egin ginan. Zalduak beti adoretu ta bultzatu ninduan euskera bidetik aurrera joteko. Horretarako bere liburu batzuk be emon eustazan, curon artean orduan balio handikoa zan R.M de Azkueren hiztegi ederra...

*Eta zelan eutsi zeuntsan zuk Comillasen zeure euskal zaletasunari?*

Ahal izan neban moduan, lagun. Euskeraz berba egin, gitxitan egin ahal izaten neban; baina euskerazko liburutzuren bat beti nekuan neugaz, eta egunero irakurten neban zerbait euskeraz, gehienetan *Kristoren Antz-bidea*, gipuzkeraz. Amari eta adiskide batzuri be euskeraz egiten neutsezan eskutitzak, eta, batez be, aspaldiko ohiturca ondo gordeten ahalegindu nintzan: neure gogo barruko jarduna euskera baino ez neban egiten.

### **Barrero Derioko Seminarioan**

*Comillasen urte bi egin, titulu barria eskuratu eta gero nora?*

Barrero Derioko Seminarioa. Oraingoan, Seminario Nausira, teologoen arduradun eta irakasle. Eleiz legcen gai horretan "Jus Publicum Ecclesiasticum" emon eusten irakasteko: hain zuzen be, Comillasen ikasi beharrik izan ez neban gai bakarra (Gasteizko Seminarioan ikasita neukalako). Ez neban izerdi gitxi bota gai barri hori ikasten eta Seminarioko gazteentzat egokitzen...

*Baina euskera emoten be jarraituko zenduan...*

Ba... hai. Eta geroago ta pozago, ganera. Emon-ahala, neuk ikasten neban eta orduko nire ikuspegia estua ta laburra zan arren, gure euskal idazleen mundua eder eta maitagarri agertzen

jatan. Beste euskaltzale batzuk be ezagutu nituan eta curakazko hartuemonak mescedegarri izan jatazan.

*Eta aldi honetan hasi zinan zeure euskal idazleen antologiak egiten...*

Halan da, bai. Baina gauzak zelan diran! Nik euskerazko eskoletan hainbat gai cmoten neban: euskal aditza (gehienbat, Joseba Intxaustiren liburua lagun), euskal joskerea (S. Altuberen *Erderismos* bidelagun nebala)...

*Altuberen liburu hau laburtu be egin ei zenduan zeure ikasleentzat...*

Egia da. Neure herritarra zan abade batek (orduan Arrictan egoan José Antonio Zamalloak) berak Altuberen lan horri egindako laburpena eskaini eustan, eta lagungarri ona izan neban hori ikasleentzat.

*Baina bai Altuberen liburua, bai zure laburpena, erderaz dagoz...*

Orduko denporetan ohi zanez. Nekez aurkituko dozu, sasoe horretan, cuskeraz egindako gramatkarik.

*Bat bai, behintzat: R.M de Azkueren Euskal Izkindea.*

Bere "gaztaroko pekatutzat" izan ei eban gramatika hori Azkuek. Eta, holako gaiak cuskeraz erabilteko orduan, ez eban jarraitzaile askotzarik izan. Azkuek berak geroago *Morfologia Vasca* hain aberatsa zelan argitaratu eban? Erderaz, gaztelaniaz. Hari beretik joan zan S. Altube, *Erderismos* egiterakoan. Horraitino, Arantzazun argitaraturiko liburu bi be jausi ziran nire eskuetan: Aita Iñazio Oimaetxebarriak eta Aita Villasantek (biok frantsizkotar eta gernikarrak) egindako *Euskera*, eta Villasanteren gramatika laburra. Liburu biok, gramatika gaiak azaldu ondoren, euskal idazleen zati hautatuak be eskaintzen ebezan (antologia

txiki biok A. Villasanterenak ziran), eta honek asko lagundu eus-  
tan neure begiak zabaltzeko.

### *Begiak zabaldu? Zetarako?*

Nire ikaslecn premina gorri bat hobeto ikusteko: irakurgai egokien beharrezana. Argi be argi ikusten neban nire ikasleak zentzumez eta bide artezctik eroan behar nebazala irakurgai onak irakurtera. Handik urte batzuetara, gure Udako Ikastaroak bere ikurtzat hartu eban bide zuhur horretatik croatea ikasleak: "Dakigunetik ez dakiguncra..." Irakurgai errezak eta atseginak bilatzen hasi nintzan eta ikasleentzat polikopiaz ataratcn.

### *Orduan zure lehenengo asmoa ez zan liburu bat egitea izan...*

Bai zera! Hori geroago etorri zan. Neure asmo hori beteteko lehenengo hautatu neban idazlea E. Bustintza *Kirikiño* izan zan.

### *Autore horren euskereak ez eban eragozpen handirik izango ikasle bizkaitarrentzat...*

Eragozpen handirik ez, eta, ganera, aberastasun asko azterketa-lanrako. Bere umore onagaitik atsegin handiaz irakurten eben *Kirikiño* nire ikasleak.

### *Horregaitik, zure lehenengo "lorategian" Kirikiñori eskaintzen deusazuz lehenengo orriak, eta ugari ganera.*

Hortik ikusi zinei zein izan zan lorategi horren jatorria: Kirikiñoren irakurgai errez atsegin mordo bat eskainitakoan, beste idazle batzuen zatiak be sartzen hasi nintzan eta holan, igarri be egin barik, Bizkaiko idazle asko agertzen dira hor. Azkenean, polikopiaz banan-banan argitara cmoniko orriak batu... eta horra hor nire lehenengo antologia edo dana dalakoa: bilduma apala, benetako antologia baino gehiago.

*Zein urtetan zan hori?*

1965.ean. Neure "Pluma 22" idaztresna txiki makalean egin nebazan etxean kopia guztiak, eta gero josi Bilboko "Casa de Misericordia"-n josi eustezan, nahikoa merke.

*Ez zenduan gauza handirik irabaziko zeure lehenengo "umetxu" horregaz...*

Nongo irabazi? Neuri kostatako prezioan saldu neban, batz be Derioko ikasleen artean.

*Baina hortik kanpora be zabaldu ei zan.*

Banakaren batzuk, bai. Aldi haretan euskaltzale gehienok alkarren lagun ginan, eta alkarri laguntzeko beti gengoan prest. Handik eta hemendik eske hasi jatazan, eta gelditu ziran apurrak holantxe zabaldu nebazan, batera ta bestera. Hainbatek autortu eusten eurentzat be mesedegarri zala nire lantxua.

*Gauza batek harritzen nau liburu horretan: zuk idazle bakotzari egiten deutzazun sarrera laburrak, dan-danak dagoz erderaz eginda. Zergaitik ez euskeraz?*

Horrek harritu? Orduko jokabide baten ezaugarri dozu hori. Beste erdal hizkuntzekin egin ohi zanez, euskerea be erderaren bidez emoten zan. Euskerea "ikasgai" baino ez zan, ikasi behar zan gai bat; ez, ostera, ezer irakasteko tresna egokia. Gorago aitatu deutsudaz Azkue ta Altube. Hori dozuz, geroago, euskal literaturaren kondaira bi be: L. Mitxelena eta Aita Villantereak, biak titulu bardinekoak, biak erdera hutscan idatziak. Eskola barruko azalpenik gehienak beti erderaz egiten genduzan, ikasle guztiak euskaldunak izan arren. Oker ez banago, Euskaltzaindiak berak be, bere batzarretan, gaztelania erabilten ei eban —sarritan behintzat— alkarriketarako hizkeratzat...



*Zure bigarren lorategian, ostera, sarrerak be euskera hutsean egin zenduzan...*

Irakaslea beti da ikasle, eta nik neuk be ikasi neban, halakoren baten, euskerea bera be bazala gai euskal gaiak aurkeztu, aztertu eta irakasteko. Gainera, Orixren lan bat irakurri neban, euskal literaturearen kondairari buruz egina: *Euskal literaturaren atze edo kondaira laburra*. Eta dan-dana euskera hutsean egoala ikustek asko poztu ninduan.

*Poztu bakarrik, ez; makinaz idatzi eta zeure ikasleentzat polikopiaz atara zenduan Orixeren lan hori, nik dakidanez.*

Halan da. *Euskal Esnalea* aldizkarian zatika argitaratu eban Orixek bere lan hori. Nik ez neban besterik egin, zati guztiak batu eta danak bat egin da argitaratu baino, etxe barrurako eskuidazki lez. Beste liburu bat be izan neban argi-emoile: Pierre Lafitteren *Eskualdunen Loretegia, Lehen Zathia (1645-1800)*. Antologia labur bitxi hau be euskeraz dago dana. Zoritxarrez, XVIII. mendera arteko idazleak baino ez ditu sartzten, eta ia dan-danak iparraldekoak.

*Zure bigarren antologia hori, Euskal Idazleen Lorategia —itz lauz—: II. Gipuzkeraz (1967), dana euskeraz dago, eta ganera aurrekoa baino txukunago eta dotoreago.*

Dotoretxuago, bai, baina ondo apal gizajo handia. Hau be polikopiaz egin genduan, Derioko Seminarioan bertan. Azala, sendoagoa jarri cutsien, ez dakit non. Apaingarriak eta argitaratzelana, P.M. Ojanguren abadegaiak egin eustazan.

*Eta gipuzkeraz idatzi eben idazleak sartzten dozuz bigarren antologia horretan.*

Bai. Gorago esan deutsudanez, nik lanok neure ikasleentzat egin izan dodaz beti, ez kanpoan erakusteko edo zabaltzeko.

Ikasleak zelango preminca, nire erantzuna halangoxea. Bizkaie-razko lorategiaren bidez Bizkaiko literaturan sartu nebazan ikasleak. Gero beste arlo zabalagoetara zuzendu gura nebazan, eta horretarakoxe da nire bigarren “ume” hori. Aurreko hitzaurrean —*Berbatxu bi aurretik*— eta gehigarritzat daroazan hiztegiectan be argi ta garbi ikusten da norentzat eta zertarako dagoan cgindea.

*Zertarako hiztegi biok: bata, orokorra, liburuaren azkenean, sarritan agertzen diran berbena; bestea, orri bakotxaren azpikaldean, orri horretako berbarik gatxenen argibidetzat?*

Neure ikasleci bideak erreztuteko, irakurle bizkaitar hasibarriei ahal danik eta ondoen laguntzeko. Nekez aurkitu eitekean orduan salgei euskal hiztegi merke egokirik. Orain ez dogu hiztegi irritasunik gure artean, ez horixe! Baina sasoc haretan ez zan holangorik.

*Bigarren lorategi honek ordena gehiago dakar —idazleak urterik urte, zaharrenetarik hasita—; baina, idazleak hautatzean, ez ete zenduan zabalegi jokatu?*

Bai, beharbada. Baina hori argiro autortzen dot hitzaurrean: danetariko idazleak sartzan ahalegindu nazala —“lehengoak eta oraingoak, ildakoak eta biziak, jokera batekoak eta bestekoak...” —, beti be ikasleci bide ugari ta zabalak erakusteko asmotan. Ez danak neure gogo betekoak ziralako, ikasleak danen barri jakin egien eta gero eurak euretara hautatu egiezan onenak. Norberaren cretxia ikasleci ezartea, hori ez da, nire ustez, maisu on baten cginbcharra.

*Oker ez banago, 50 euskal idazle baino gehiago sartu zenduzan gipuzkerazko bilduma horretan...*

Bai, eta sartu barik be hainbat itxi nituan.

*Poesiari, esate baterako, ez zeuntsan lekurik emon...*

Ez poesiari, ez bertsoei, ez antzerkiei... Tituluan garbi esaten denez, prosazko lanak baino ez nituan sartu. Penagarria da hori, badakit, baina poesiarako bageunkan Aita Onaindiaren antologia mardula (*Milla euskal olerki eder*), eta bertsolaritza aparte aztertzeko asmoa neukan (goratxuago aitaturako Bizkaierazko elertiarren edesti laburrean).

*Eta ez da bigarren bilduma horretan agortzen zure antologia-zaletasuna...*

Ez, ez. Hirugarren bat be egin neban, lagun askoren eskabideari baietza emonez. Euskaltzaleetasuna gehitzen joian aldi haretan gure Herrian, batz be gazteen artean. Batetik, alfabetatzen kanpainak, bestetik euskera batuaren bultzadea... Dana dala, Ernuan egin zan euskaltzale askoren batzar baten, eskatu izan jatan nik egindako antologia biok liburu bakar batean sartu eta irarkolaz argitaratzeko. Editorca be aurkeztu eusten: Iñaki Beobide donostiarra. Nire erantzuna: prest nengoala lana egiteko, baina argitaratze-azarotan ez nebala sartu gura.

*1969. urtean argitaratu eutsun Iñaki Beobidek zure hirugarren antologia hori: Euskal Idazleen Lorategia (Itz lauz).*

Bai, halan da. Hamaikatxu izerdi bota neban aurkeko udan, liburu hori ahal zanik eta bizkorren gertaten. Azkenean, nik pilaturako lana luzcegia zala liburuaren neurri egokiarentzat, eta zerbait arintzeko eskatu eustan Beobidek... eta bidea be berak erakutsi: bizirik egozan idazleen lanik ez sartzea. Niri pena handia emon eustan neurri estuegi honek; baina ezer kentzekotan, errezena horixe zan niretzat. Holan bizien arteko inok ez eustan arpegira jaurtiko ea bera zergaitik sartu ez neban.

*Beti dago horren arriskua, ezta?*

Bai horixe! Hurrengo bat egin nebanean —Iparraldeko idazleena—, behin baino sarriago hurreratu izan jat hango idazle bat zera esan eta esan: ea bera zergaitik itxi dodan alde batera.

*Hirugarren antologia gorriak horixe da moldiztegian argitaratzen dan zure lehenengoa...*

Bai, baina, ikusi dozunez, niretzat hirugarrena da, gehien bat aurreko bien umea baino ez.

*Eta ondo zabaldu eta saldu zan?*

Esan deutsudanez, nik ez neban horren ardurarik hartu. Ondo saldu zan ala ez, hori nik ez dakit, baina arin agortu zana bai. Irabazietatik, ohi zanez, %10 agindu eustan Beobidek, hori argitaratzeko ardurea hartu ebanean. Baina gero antologia hau alfabetatze-kanpainetarako erabiliko ebela eta, ahal zanik eta merkeen saltzea erabagi zan, eta nik ez neban ezetariko dirurik eskuratu: 20 liburu emon eustazan Beobidek, neure adiskideen artean zabaltzeko, eta kito.

*Hauxe da, harenbaten, zuri famarik gehien emon deutsun antologia...*

Beharbada, holan izango da, gure artean hutsunc nabarmen bat bete ebalako aldi haretan. Gancra, gure inguruko mundutxuan kritika onak jaso zituan. Mesedegarri izan bada, eta euskaltzaleak alfabetatzeko lagungarri, horixe da niretzat saririk ederrena.

*Eta Derioko Seminarioan irakasle zinala, ez zenduan beste antologiarik egin?*

Ba... bai. Egin egin neban, baina argitaratu ez: euskal poesiaren antologia. Gai mordo bat hautatu neban, eta gero gai

bakotxerako olerki egokiak aukeratzen ahalegindu nintzan. Hau be, jakina, neure ikasleentzat zan, ez kanporako egina. Ez dakit nondik nora ibiliko dan orain nire lan isil hau. Hainbeste etxe-aldaketagaz nonbaiten erdi galduta egongo da gizajo handia!

*Beste arlo batzuetan be zu laster hasi zinan euskerazko eskolak euskeraz emoten. Horra hor, horren lekuko, zeure ikasleentzat polikopiaz egin zenduan "Bizkaierazko elerti (literaturaren) atze edo edesti laburra". Erderaz barik, euskeraz egin zenduan.*

Egia da dimozun hori, Ander. Arlo horretan ez neban L. Mitxelenaren eta L. Villasanteren bidea hartu, Orixerena baino.

*Derioko Seminarioan, urteak joan, urteak etorri, hainbat ikaste izango zenduan euskeraren arloan.*

Bai, asko eta danctarikoak.

*Onak be bai, euron artean.*

Eta ez gitxi. Banaka bat, guztiz onak, bikainak be bai: zaletasun handikoak, buru argikoak, langile gogotsuak... Eurotariko batzuen izenak ezagunak dira gaur gure irakaskuntzan eta literaturan. Ez naz ni hemen izenak emoten hasiko. Hor dozuz puntarengo, bai Unibersidadcan, bai komunikabideetan, abadetzan, irakaskuntzan, e.a. Izenik aitzatekotan, gazterik hildako batena egingo dot: Gotzon Caritaonandia. Urdulizko seme hau, gogoz eta bihotzez goitik beherako euskaldun sutsua zan, euskal mundu osoa maite ebana eta bere zaletasun hori inguruan crein eta jorrazten ekiana. Ondo dakie horren barri bermiotar askok. Kantatzeko be aparteko gozotasuna eukan eta euskal kanta liliuragarri bihurtzen ziran haren ahoan. Gazteegi zala-eta gitxi en uste genduanen hil jakun gure Gotzon, baina ez bere euskal zaletasuna eta herri-bizkerea erabilteko trebetasuna ondo eta hainbat lekutan erakutsi barik.

*Hildakoen artean, Mikel Zarate be hor dozu. Ez dozu aitatu behar?*

Bai, eta pozarren. Egia csan, Mikel Seminarioan ikasle izan neban, baina ez euskera-gaictan. Nik Mikel Seminario Txikian aurkitu neban: biok gaztetxuak ginan orduan, ia adin berekoak, baina ni abade eginbarria eta hera abadegei hasibarria... (Ni, umetan, Mikel, ostera, gaztetan sartu ginan Seminarioan). Mikeli gaztelaniazko literatura emon neutsan urte batcn, bere laugarren urtean eta nire lehenengoan. Euskerea, bere kontura ikasi eban Mikelek, Filosofiako urtetan, ni Comillasen nengoan artean. Handik gero-txuago, Seminario Nausian, ni haren kursokoei euskera emoten hasi nintzaneko, Mikel maisu handi eginda egoan; bere lehenengo liburutxua be —*Gure Meza deuna*— argitara emonda cukan. Barrero Deriora bihurtu nintzanean, ez neban sekulan euskera-ikasleen artean hartu nahi izan Mikel: maisutzat neukan. Hori bai: beti izan ginan alkarren lagun eta zirikatzaile euskal gaictan, berak Seminarioko ikasketak egiten ziharduan artean. Eta arlo honetan sartu nozun ezkeru, isilpeko gauzatxu bat be aitatuکو neuskizu Mikelen ganean.

*Aitatu, aitatu bildur barik.*

Mikelek Teologia ikasten ziharduan. Ordurako, euskera kontuan, bere ikaskide guztien ganetik egoan eta holantxe ikusten eban berak bere burua. Eta, hau holan dala, konturatu nintzan Mikel gurca, euskerea guztiz alde batera itxi barik, beste gai batzukaz egoala guztiz zaletuta; eta bildur izaten hasi nintzan ca ez cte eban Mikelek lehengo euskalzaletasun gartsua galduko... Orduan hasi nintzan ni Mikeli euskal liburu barriak eskuratzen eta bere eretxiak eskatzen.

*Abade eginda, Markina aldera bialdu eben Zarate.*

Bai, Mallabiko Geriara, Oiz azpiko auzo txikira. Bizi, Trabakuganeko taberna baten bizi zan, kamino ondoan. Eta, gaztea zala eta astitsu egoala-ta, Markinako Eskola Profesionalcan sartu

eban irakasle, nok eta gorago aitatu dogun Julian Olazabalaga zuzendariak. Baina eskola horretan Mikelek ez eban cuskercarik emon, beste gai batzuk baino. Dana dala, Markina aldean urte gitxi batzuk bizi izateak mesede galanta egin cutsan Mikelen Txorierri aldeko euskereari. Ate barriak edegi eutsazan, Bizkaiko euskerearen aberastasun harrigarriaz jabetu ahal izateko. Berak beti autortuko eban hango euskereagazko zor hori. Geria izan ci zan berarentzat "Basarteko Unibersidadea".

*Eta, ekin eta ekin be, lortu zenduen Mikel Zarate Derioko Seminaria ekartea euskerea emoteko...*

Gerian egoala be emon geuntsan lan bat: *Gure Salbaziño Egin-tza* (Itun Zaharra) bizkaicratzea. Gogotsu egin eban itzulpen hori gure Mikelek. Eta jasotako zorion-agurrak asko poztu eben. Poza dariola esaten eustan behin baino sarriago: "Lezamako parrokoak dinost erderazkoa baino hobeto ulertzen dauala nire itzulpena!"

*Zuk zeure lehenengo antologian (bizkaierazkoan) euskal idazleen artean Mikel be sartu zenduan. Zergaitik?*

Dana dalako lorategi horretan Zarate da azkenengo idazlea. Ordurarte liburu bakar bat baino ez eukan argitaratuta (gorago aitaturiko *Gure Meza deuna*). Baina irakurri egizu nire sarrera-txua eta hor ikusiko dozu, erdi czkutuan bada be, zelako zirika-dea sartzen deutsadan nik Mikel gurcari. Zorionez, Mikel barriro sartu zan, ohi eban berotasun handiaz, euskal letren munduan, eta horri eskerrak mesede asko eta handiak egin zituan, egiten eta egingo dauz euskal letren arloan.

*Baina alde batera itxi daigun oraingoz Mikelen autu hau, eta bihurtu gaitzean lehenengo harira, Karmelo: zure maisu lana Derioko Seminarioan.*

Esan beharreko gehiena esanda dagoala uste dot. Apurka-apurka euskereak bere lekua egin eban Derioko Seminarioan:

Nausian hasi bazan be, gero Txikian be sartu genduan, eta hori mesedegarri izan zan danontzat.

### *Zergaitik dinozu hori?*

Ba, hara: ume euskaldunak batera samar ikasi ta landu behar dauz hizkuntza biak, euskerea ta erderca. Bestelan, erdereca sako-netik ikasten eta ganoraz lantzen badau eta, bien bitartean, etxe-ko ta herriko euskera apurra alde batera itxita badauka, orduan alde ta tarte handiegia sortzen da hizkuntza bion artean. Eta gero, euskera ikasten hasten bada, bere burua ezjakin eta motel ikusten dau, erdi lotsatuta. Euskaltzale sutua bada, ahaleginduko da, harenbaten, zulo hori ahal danik eta bizkorren heteten; baina badaezpadako zaletasuna badauka, bere ezjakinaren errua eusker-eari berari egotziko deuto eta ez dau aurrerapide handirik egin-go. Horixe da, behintzat, nik Seminarioan ikusia.

### *Eta, halakoren baten, oker hori arteztu zan Derioko Seminarioan?*

Bai. Askotzarik ez bazan be, hasi ginan euskerazko eskolak Seminario Txikian emoten, eta mutikorik bizkorrenak gogotsu eta polito aberastu eta sakontzen eben euren euskerea, etxetik eta herritik ekarrena. Ez danak, jakina; baina batzuk bai. Beti izan-go dot gogoan holakoxe ikasleak hartu nebazala, euren Filosofia-ko lehenengo urtean: hareekaz ez egoan gramatikako lehenengo pausoak emon beharrik, ez zertzelada hotzetan gogait eginda ibil-terik. Gramatika bera be guztiz baztertu barik, ur sakonagoetan sartzen hasi ginan, literatura ederraren itsaso atseginan. Astean eskola bat baino ez genduan izaten, gitxiegi gauza handirik egin ahal izateko. Eta ta guzti be, urte bakoitzean lau-bost idazle hau-tatu eta euren lana aztertzeari ekiten geuntsan, geroago gogotsua-go. Idazle bakoitzaren eder-mundua zein zan, bere bihozkadak zelán azaltzen zituan, bizitzako arazoan aurean ze jokabide eukan... Horixe zan, gitxi gorabehera, gure bidea. Eskola barruan nik haria baino ez neutsen emoten, eta gero eurak euretara,



bakotxak bere gela barruan, lan txalogarriak egiten custeazan. Ikasleak curak eta irakaslea, danok pozarren. Orduko nire ikasle-en arteko ez gitxik gerora be euskera lantzeari eta irakasteari ekin deutsoe, eta badauke honezkero euren izena euskal kulturaren hainbat arlotan. Batzuk baino ez aitatzekotan, gogoan dodaz —Mikcl eta Gotzonegaz batera— X. Amuriza, J.J. Puxana, L. Zugazaga, A. Arejita, J.M. Agirre, J. Agirreazkucnaga, J. Kortazar, J. Etxezarraga, J.L. Goikoetxea, J. Etxegarai, J. Eguzkitza (“Eguzki”). Guk aztertutako idazlecn artean gogoan ditut Salbatore Mitxelena, Lizardi, Orixo, Lauaxeta... eta baita “Olatu barriko” poeta batzuk be: Gabriel Aresti, Bitoriano Gandiaga, Joxe Azurmendi, esate baterako.

*Horretarako zuk zeuk be egin eta eskaini zeuntsezan ikasleei zeurre azterlan batzuk, lagungarri.*

Bai, eta gogotsu ganera. Ez dakit nondik nora ibiliko diran orain orduko nire zirriborro horreek. Horixe baino ez ziran.

*Urte askotan holan?*

Zoritzarrez, ez. Goia jota be, lau-bost urte baino ez. Aldaketa handiak jazo ziran Seminario Nausiko bizimoduan Kontzilio oste-ko urte hareetan: alde batetik, abadegeiak Deustuko Teologi-Fakultadera joaten hasi jakuzan; bestetik, Derioko Seminarioan bertan bizi beharrean, han-hor-hemen sakabanatu ziran, talde txikietan, Bilboko eta Bilbo inguruko parrokiatar. Lehengotan, zelan edo halan jarraitu neban Seminario Nausiko ikasleci euskere-a emoten, baina gehien baten Txikikoakaz jarraitu behar izan neban.

*Txikian, euskaldunakaz ala erdaldunakaz?*

Euskerea lehendik dakianari irakastea izan da beti nire gurari bizia eta pozik handiena. Horregaitik, ikasleak euskaldunak

baziran, pozarren laguntzen neutsen euren etxeko euskereaz hobeto jabetzen. Irakurgai erraz politak erabilten genduzan horretarako eta gogoan dot zelako lantxuak egiten eustezan ikaslerik bizkorrenak. Baina, behin baino gehiagotan, euskerarik ez ekienici be emon neutsezan eskola batzuk, Patxi Altunaren *Euskera hire laguna* lagungarri genduala, "Lasa jauna" gora eta "Lasa jauna" behera.

*Eta, zure metodologian, euskal kantak be berarizko lekua euken...*

Halan da, bai. Aspalditik hartuta neukan jokabide hori. Baina ez, gero; eskolen berezko astuntasuna arintzeko bakarrik eta batz be. Nik hautatu eta erabilten nebazan euskal kantak gure herri-literaturaren zati on bat ziran, eta hauxe zan nire asmoa: gazteak kantok aztertu eta ondo ulertu egiezala, eta gero buruz ikasi. Hori holan egin ezkeru, bihar-ctzi be gogoan izango ebezan, eskola barruko beste gauza asko ta asko ahaztu arren be. Bide hau, gehien baten, Udako Ikastaroan erabili neban geroago, baina aurreko urteetan baita Seminarioan be. Ni neu ez naz belarri eta boz oneko kantaria; hori holan dala, beste batzuen laguntza eskatzen neban. Laguntzaile on batzuen izenak be gogoan dodaz, esker onez: Gotzon Garitaonandiak, "Txuma" Olaque lagun eballa, *Ogei Kanta Arantzazuko* grabatu eustezan nire "Geloso" txikian; Xabier Amurizak, lehenengo, eta Lontzo Zugazagak, geroago, herri kanta mordo ederra; abadegei talde batek, Orixek bere *Euskaldunak* poemaren gehigarritzat jarritako kantak... J.I. Abasolo zuzendari zala. Grabaketa honeek, etxe barrurako eginak, akordeoi edo pianoaren doinuaz lagunduta egozan; X. Fresnedo eta J.M. Sagarna izan ziran soinujole.

## **Euskaltzaleekin hartuemonak**

*Eta bazenduan ordiko euskaltzaleekin hartuemonik?*

Euskaltzaleon mundutxuan sartzen joan nintzan, apurka apurka, batez be Comillaseko ekitaldia amaitutakoan. Euren arte-

an adiskide onak be egin nituan: Lino Akesolo, Aita Onaindia, Jaime Kerexeta, Eusebio Erkiaga, Xabier Peña, Augustin Zubikarai, Nikolas Alzola, Aita Mokoroa, L. Villasante... Neure lorategiak egiten hasi nintzanean, ezjakin honck askoren laguntza eskatu beharra izan neban, eta holan sarritan jo behar izaten neban goian aitaturiko maisuokana. Beti argi ta garbi autortu dodanez, zor handia deutset, asko be asko lagundu eustelako, borondaterik onenaz lagundu be. Euron artean, ezin aitatu barik itxi Aita Lino, Nikolas Alzola, Aita Mokoroa eta Juanito San Martin cibartarra.

*Eta aldi horretan Euskaltzaindian sartzen zaitue.*

Hatan horretan, neuk gitxien uste nebanean, Euskaltzaindiak bere "urgazle" edo laguntzaile izendatu ninduan, eta hori be bide ona izan jatan euskaltzale barriak ezagutzeko. 1964. urtean izan zala uste dot. Egia esan, ez dakit ez zergaitik, ez zelan. Ni orduan ez nintzan inor, ez ezer, euskal letren munduan; ez neukan ezer argitaratuta, Seminarioan euskera irakasle baino ez nintzan. Harenbaten, izen barriak eskatuko zituan Euskaltzaindiak, eta ez dakit nok eta zergaitik nirea emongo eban, eta aparteko merezi-mentu barik erakunde horretan sartu ninduen, esandako "urgazle" maila apal horretan.

*Zelango hartuemonak izan dozuz gero Euskaltzaindiagaz?*

Onak beti, baina ez ugariak ez estuegiak. Noizik behinean batzarretara joaten izan naz, batez be batzar berezietara (euskal idazleren bati egiten jakon omenaldietara). Arantzazun 1968. urtean egindako "Euskera batuaren" batzar ospetsu hartan be izan nintzan. Batzarrotan hainbat euskaltzain ezagutu neban eta gero eurotariko batzuek hartueinon estuagoak be izan ditut. Zeuk ondo dakizunez, ni eleiz arazoetan egon naz beti samaraino sartuta eta asti modurik ez dot izan Euskaltzaindiari eta beste euskal erakunde batzuei neure laguntza apala eskaintzeko. Nik eurokandik hartutakoa, nik euroi emondakoa baino mila bider gehiago izan da.

*Eta erakunde ta batzarretan sarritan parte hartu ez arren, euskal kulturaren mundua ondo ezagutzen zenduan?*

Neure ahalegintxua egiten neban, behintzat. Orduan argitaratzen ziran aldizkari eta libururik gehienak eskuratzen nebazan. Diruz ez genbiltzan ondo abadeok, baina zenbat ziran, ba, gure mundutxuan argitaratzen ziran liburuak, orduko denporetan?

### **Bilboko Euskerazaleak alkartean irakasle**

*Bilboko Euskerazaleak alkartean be lankide izan ei zinan.*

Egia da dinozun hori. Jose Antonio Montianok eskatu eustan astean gau eskola bat edo beste emoteko, eta baietza emon neutsan. Alfabetatze mailako eskolak ziran. Ikaslerik gehienak, borondate ona bai, baina jakin, oso gitxi ekien. Kontuak atara: eskola barruan Euskerazaleak alkarteak sarritan argitaratu eta asko zabaldu zan metodotxua erabilten genduan (Xabier Peñaren metodoa bera, Montianok ikasgai laburrago ta ugariagotan urkuldua). Hainbat urte emon nebazan lanbide honetan, beti doan (aldi hatan ohi zan legez), eta azkenean alkartecaren zuzendaritzakontseihuan be sartu ninduen aldi labur baterako. Borondate oneko hainbat lagunek zuzendu ta aurrera atara eben Euskerazaleak alkartea, ia beti Jesus Oleaga Buru ta Montiano Buruorde edo Idazkari zirala. Honen barri beste nonbaiten emon dodala uste dot, Zer aldizkarian edo. Zorioncz, gaur be bizirik dirau alkarte horrek, Iñaki Zubiri zuzendari dala. Nire ustez, Bilbok eta baita Bizkaiak be asko zor deutso alkarte horri, bai euskera irakatsi ta zabaltzeko egin eta egiten dauan lanagaitik, bai euskal kontzientzia bizkortu eta zabaltzeko aurrera croan zituau ekintzakaitik.

*Urte gogorrek hareek euskerearentzat Bilbo barruan, ezta?*

Aurrekoak baino bigunagoak, baina benetan gogorrek. Gaur holakorik asmatu be cin. Euskerazaleak sortu aurretik be, Bilbo-

ko euskaltzaleak izartzen eta alkartzen hasita egozan. Zarata handi barik, baina ekin ta ekin, han ziharduan Xabier Peña tolosarrak euskerazko eskolak emoten, berak eginiko metodoa lagun ebalu (kiputx batek bizkaieraz egina, hau miraria!). Mikel Arruza be ezin ahaztuta itxi. San Antongo eleizan batzen ziran domeka ta jaietan, Don Klaudio Callastegi handiaren magalpean, Bilboko euskaldun fededun asko ta asko, eleizkizunetan euskerari geroago eta leku gehiago emoten eutsela. Abade ospetsu horren babes zabalta ta laguntza ugaria izan ebezan, besteak beste, Juan Angel Etxebarria santurtziarrak eta Jose Antonio Retolazak be, euren euskal lanak argitaratu eta zabaltzeko: *Kili-Kili* aldizkariak bere "osaba" handizat izan dau beti Don Klaudio. Beste eleiza batzuetan be euskerak bere burua agertzen eban, lantzean behin, ez neke ta eragozpen gitxigaz, euskaltzale batzuen eraginari ta ekinari eskerrak: katekesia, lehenengo jaunartzeak, hiletak, lehenengo barikuak, eta abar. Bilboko parrokiatan abade euskaldunik ia ez egoala eta, hainbat bider dei egiten euskuen euskal eleizkizunetarako Mikel Zarateri eta bioi. Emakume talde sutu bat eta Castor Uriarte, E. Erkiaga ta X. Peña, bultzatzaileen artean. "Txinparta" antzerki taldea be hor ebilen, lan errazen bidez Bilbon eta Bizkaian euskerrea zabaltzen. Dantza-talde batzuetan euskereka eta euskal kulturea indar barria hartzen joaizan. Bertsolariak be plazetara eta uri handietako teatroetara urtetan hasi ziran, Euskaltzaindiaren babespean, Alfonso Irigoien gai-jartzaile zala. Alfonso, Gabriel Aresti, Xabier Kintana eta Xabier Cereñoren inguruan be euskal mogimenturik baegoan, haize ta bide barriak urratuz. Iralako frantziskotarrak be aitatu beharra dago, Aita Imanol Berriatua sutua aurrelari zala. Eta beste hainbat, nik orain gogoan cuki ez arren.

*Euskerazaleak horretan eskolak emonaz ganera, beste lanen batzuk be egin ei zenduzan.*

Gauza handirik ez, baina zer eedo zer bai. Eskoletarako lagungarritzat eta euskera gitxi ekien ikasle hasibarrientzat sakeleko

liburutxuak atara nahi zituan alkarteak, Montiano bultzatzaile zala. Horretarako Xabier Peñari eta bioi itzulpen batzuk egiteko eskatu cuskuen, eta hortik urten eban “Irakurgai errez politak” izeneko liburu txortatxuak. Hiztegi urria ta esaldi laburrak erabili behar genduzan itzulpenetan, irakurleari bidea errazago egiteko. Ingles mundutik hartutako creduak ziran gure gidari eta Montiano bera liburutxuon hautatzaile.

*Eta J.A. Montianoren IKAS hiztegi barrian be biok —Peñak eta zuk— zeuon laguntza emon zenduen.*

Hiztegi hori Montianok berak asmatua da, erderazko zeintzuk berba sartu be berberak erabagi eban. Guri eskatu jakunak bide estua —estuegia!— cukan: erderazko hitz bakotxari euskerazko bat edo, goia jota, bi jartea, berba egokiak eta erabilienak, beti be bizkaiera ta gipuzkera euskalkien barrutitik urten barik. Agindu jakuna egin genduan, borondaterik onenaz, eta harrezkeroko dana Montianoren eskuetan gelditu zan.

*Hiztegi labur horrek harrera ona izan dau hainbat urtetan eta gaur be erabilten da.*

Nik gauza garbirik ez dakit, baina halan dirudi. Hori egin badau, mesedegarri izan bada, gure nekea ondo ordainduta dago. Baina, bcti be, hiztegi labur apala baino ez da izan. Hori argi daukat.

### **Liturgia barria euskeratzen**

*Beste arlo baten be sartu zinduezan zu, Karmelo, aldi haretan: liturgiako itzulpen lanetan...*

Egia da, bai. Vatikanoko II. Kontzilioaren eraginez, Eleizeak bere liturgia herri bakotxaren berbetara bihurtzea erabagi eban. Ez zan dana goizerik gauera egin, astiro eta mailaka baino. Oker

ez banago, lehenengo egin zana zera izan zan: mezako irakurgaiak herriko hizkeran erabilteko baimena emon. Bizkaitarrok, Jaime Kerexetaren *Eguneroko Meza* liburuari esker, suberte handia izan genduan honetan: itzulpen ofizialak egin artean, Kerexetaren meza liburuko irakurgaiak erabilteko baimena emon eban gure Bilboko gotzainak, Gulpide jaunak, eta erabagi hori gogo onez hartu eban gure euskal eleiztako abaderik gehientsuenak, bai bide barri hori maite ebelako, eta baita Kerexetaren euskerea lehenagotik be etxeko egiten jakelako. Guk baino burukomin handiagoa izan eban orduan gipuzkoarrak, Orixeren itzulpena (bere *Urte guziko Meza-Bezperak* liburukoa) herri xehearentzat ilunegi egiten jaken eta.

*Baina Kontzilio aurretik be entzuten zan ebanjelioa euskeraz gure eleizetan...*

Bai, baina ez meza guztietan; domeka ta jaiegunetako meza nausietan baino ez. Ebanjelioa latinez irakurri edo kantatu ostean, mezemoileak (parrokoak ia beti), herriari begira, haxe ebanjelioa bera irakurten eban euskeraz, Bizkaian Eguskitzaren *Argi Donea*-tik. Baina ebanjelioa baino ez. Kontzilio ostean, ostera, epistolea be bai, eta ganera eguneroko meza guztietan, domeka zein aste-gun izan. Hauxe izan zan liturgia barriaren lehenengo pausoa, eta ez txikia.

*Hurrengoa zein?*

Harenbaten, eta oker ez banago, *Mezaren egunerokoa* euskeratzea (Ez orain erabilten doguna, lehengo latinezko mezearena baino).

*Eta horretarako be Kerexetarena hartu eta kito, ezta?*

Ba... ez! Oraingo honetan, gauzak patxadaz egiteko, talde bat sortu eban Gotzaitegiak, Aita Lino Akesolo buru zala. Ni neu be

talde horretan sartu ninduen. Hainbat euskaltzaleri bialdu jakon testua, bakotxak bere itzulpena egin eta gero taldetxu batek azken erabagiak hartu egizan. Gogoan dot, beste lankide askoren artean, Mikel Zarate be izan genduala, bera Gerian abade egoala: Mikelek erdi bertsotan jarri zituan abadearen eta herriaren arteko alkarrizketa batzuk. Neure eskuetan daukadaz Mikelen erantzunak, makinaz eginak, eta azpian, bere eskuz eta lumaz, hauxe dino: “Erriaren belarri eta biotzerako gauza atsegingarri da-ta, bertso modura ipiñi dodaz, batez be erantzun laburrak...”

*Orduan, Mikelen itzulpen hori hartu zenduen, beste barik?*

Ez, ez. Mikelen hori aintzat hartua izan zan neurri on baten, baina ez oso-osoan. Batzordeak berak erabagi eban zein izango zan “Eguneroko” honen itzulpena, askoren erantzunak aztertu eta gero. Esaterako, ez eban ontzat hartu Ispasterko Intxusarragari abadeak bialdutako “Sanctus”-en itzulpena: “Deun, Deun, Deun...” hasten zana gogoan dot...

*Eta itzulpen ofizial hori zelan zabaldu zan?*

Asko ta bizkor zabaldu zan gure eleizetan. Milaka ta milaka ale, hainbat argitalpenetan. Behingoan ikasi zituan buruz herriak bere erantzunak, eta zati batzuk kantuz be jarri ziran: gaur be behin baino sarriago entzuten da itzulpen “zahar” hau gure eleizetan, abotsetara kantatzen diran meza batzuetan. Behin nekez ikasitakoa, zelan itxi alde batera?

*Zuk dinozunez, hori bizkaitarrok zeuok zeutara egin zenduen, beste euskal eleizbarrutiekokin hartuemonik barik. Hori holan zergaitik?*

Hori holan izan zana badakit. Zergaitik? Ezin esan neizu. Hasiera baten, euskal eleizbarruti bakotxak bere aldetik jokatu eban, bakotxak bere itzulpena egiten eta zabaltzen eba. Zorio-



nez, egoera honek ez eban luzaro iraun: Mezako Irakurgaiak prestatzeko alkarregaz lanean hasita gengoan, gure arteko muga estuegiak hausita. Eta *Canon Romanum* (orduko Eukaristi Otoitza, Latin Eleizeak gizaldi askotan erabili izan dauan bakarra) itzultzeko baimena Erromatik etorri zanean, orduan Euskal Herri guztiko Eleizen ordezkariak alkartu eta itzulpen hori egiteari ekin geuntsan, gotzainen baimen eta guzti. Egia esan, Erromak be holakoxe batasuna eskatzen eban hizkuntza bakotxaren eremuan.

*Alkarlan hori ez zan, ba, lehenengotan horren erraza izango...*

Ez horixe! *Canon Romanum* horren testua bera ez zan luze-egia, baina oinarrizko itzulpen bakar batera heltzeak eztabaida luzcak eta lau-bost ekitaldi luze ta gogor eskatu euskuzan. Nekeak neke eta eztabaidak eztabaida —badakizu, norik bere opilari sua, bakotxak bereari eutsi gura!—, lortutako frutua mescedegarria izan zan guztiondako, eta argi ta garbi ikusi genduan horixe zala aurrerantzean be gure jokabiderik zuzenena: alkarregaz lan egin, eta ahal zanik eta batasunik handienera hurreratzen ahalegindu. Harrezkero hortixek jo izan dogu beti. Gaur be bai.

*Eta lan itzela egin da liturgiaren arlo horretan...*

Handia, luzca, nekatsua, txalogarria eta, gizonon lan guztien antzera, ez hutsik bakoa. Itzultzaile taldea, urte barruan, astean behin baino ez zan batzen, Donostiako Seminarioan; gero, udan, leku baketsu bat bilatzen zan, lanari gogor ekiteko astebetean edo hamabost egunean: Estibalitz, Donamaria... Asteroko lanetan Aita Lino zan bizkaitarren ordezkaria, udakoetan beste batzuk be ekiten geuntsan, gogatsu eta girorik anaikorreren, beti be guztion buru ta zuzendari On Manuel Lekuona zala (orduan euskaltzainburua) eta Jexux Gaztañaga idazkaria. Holantxe egin zan, urte askoren buruan, liturgia osoaren itzulpena.

*Baina lortutako itzulpen hori ez da bakarra, danean bardin-bardina...*

Itzulpena bera, ahal zan neurrian, bakarra zan. Baina jakituentzat barik, herri herriarentzat zalako, eleizbarruti bakotxak hizkerea zerbait egokitu egiten eban, orduko entzuleen preminak gogoan izanik. Dana dala, kriterio batzuk argi egozan: egunero edo sarritan erabili behar diran testuak, eta herriak buruz ikasi edo kanturako behar dituanak, horreek ahal zan neurrian bardinak izan citezala; besteetan, batez be irakurgetan, askatasun handiagoz jokatu izan da.

*Eta egin ahala argitaratzen ziran lanok, dan-dana egin arte zain egon barik.*

Halan da. Lehenengo urteetan horixe izan zan hartutako bidca. Gero Erromak liturgi erreformea amaitutzat emondakoan, zatirik behinenak barriren barri argitaratu doguz, liburu handi dotoretan. Hor doguz, esaterako, Meza-liburu nagusi biak: *Altarako liburua* eta *Irakurgaiak*.

*Oso handia, behintzat, Irakurgaiak izeneko liburutzar hori. Ez dakit gure artean horren liburu handirik aspaldion argitaratu izan danik...*

Neuk be ez dakit. Liburu horretan, liturgia osoan (bau da, mezatan eta beste sakramentuetan) erabilten diran irakurgai eta salmo-kanta guzti-guztiak sartu dira. Ez dabe bardin jokatu beste herri batzuetan: hor dozu gaztelaniazkoa, esaterako. Liburu askotan banandu dabez irakurgaiok. Cuk, ostera, merkeago be badalako, liburu bakar baten. Ez da liburu handikote hori abadeak bere eskuetan erabilteko —astunegia be bada horretarako!—, irakurtegian (“amboian”) jarri eta bertatik irakurteko baino. *Altarako Liburua* altara ganean, eta *Irakurgaiak* bere tokian. Bakotxari bere lekua emon behar jako. Horixe da gaurko liturgi legeak eskatzen dabena, ahal dan neurrian.

*Liturgi arloan egindako lan handi hori guztiz mesedegarria izan da gure Eleizearentzat eta baita euskerearentzat be.*

Neu be horretan nago. Horren lehenengo helburua, jakina, ez da izan euskereari indarra cmotea, Eleizearen otoitz ofiziala herriaren hizkeran jartea baino. Geroak esan begi zenbateraino lortu dan helburu nagusi hau, eta baita zertan izan jakon lagun-garri euskereari.

*Zuek horretan hasi zinanetik hona, bide luzea egin dau euskerearen arazoak. Batez be, "euskara batua" nagusitu da, geroago gehiago, gure artean. Ze eragin izan dau indar barri horrek Eleizearen hizkeran?*

Alde batetik, ez handiegia: gure liburuak ez dira aldatu (izan be, ez da hain erreza goizetik gauera holako liburuak barriren barri aztertu eta argitaratzca). Baina gauzak oraingo bidetik aurrera badoaz, eta euskaldun fededunen belaunaldi barriak bide horretatik josten badabe, Eleizeak be bere liburuak egokitu egin beharko ditu. Nik dakidanez, hor dabil aspalditxuan taldetxu bat meza-liburu eskurakoia (txikia) egin guran; bide batez, egindako itzulpenak zehatz aztertu gura ci dabez. Jakina, euren lan hori argitaratzekoan, Euskaltzaindiak urtcotan emondako arauen bidetik joko ei dabc.

*Agirian dago euskal eleizbarrutiak, azken urteotan, euren dokumentu ofizialak argitaratzean, dalako "euskara normalizatu" hori erabilten dabela. Hor doguz, esate baterako, Euskal Herriko gozainak Garizuman urtero argitaratzen daben Artzain Gutuna...*

Bai, bai. Gutariko bakotxak geure eretxiak euki geinkez euskeraren arloan; baina dokumentu ofizialentzat ontzat emona dago zuk aitaturiko "euskara normalizatu". Ha ta guzti be, Bizkaiko Eleizeak, azaleko zertan hortik jo arren, bizkaierera erabilten dau, gehien baten, oraindino gure herririk gehienak euskalki hauxe daualako argien eta maiteena.

*Pozgarria izango da zuentzat, horraitino, liturgian holako lan handia ta ederra egin izana...*

Benetan pozgarria. Niretzat suberte handia izan da, ganera, lan luze hau egikeran hain maisu handien ondoan egotea eta curen eretxiak entzutea. Euskal Herri guztiko ordezkariak alkarregaz lan egitea ez zan beti gauza samurra: eztabaida sutsuak be izan genduzan behin baino sarriago, hitz hau edo esatera hori zala eta ez zala, bakotzak bereari gogor eutsi nahirik. Baina adiskidetasun sakona sortu zan gure lanetik. Orain, mezatan, berba bat edo beste entzuten dodanean, sarritan etorten jat gogora: "Berba hori urliak eskatu eban, esatera hori eztaibaida honen ondorena da, hain lekutan sartu genduan..."

*Ejenplu bat emon zeinke?*

Bat baino ez bada, hona hemen hauxe: *Mezaren Egunerokoa* egintzat geunkan, eta batasun handia lortuta punturik nagusiengan. Baina arantza bat geunkan, min handia emoten euskuna. "Agnus Dei" horrek oinarritzko itzulpen bi eukazan lehendik (bata, Baionakoena; bestea, enparaduen), eta itzulpen bakarrera heltzeko ahalegin guztiak egin arren, ez egoan eretxi batera heltzerik, ez eban inok amore emon gura. Hangoena honantxe hasten zan: "*Jainkoaren Bildotsa, munduko bekatua kentzen duzuna...*"; gurea, oster: "*Munduko pekatua kentzen dozun Jaungoikoaren Bildotsa...*" Agiri danez, biak ziran zuzenak eta, ganera, biak cukezan lehendik musika egokiak, herriak buruz ikasiak. Eta horra hor non batzen garean behin itzultzaileok Baztango ostatu baten, alkarregaz bazkari bat egiteko. Eta bazkal ostean, gogoak argiago eta bihotzak samurrago edo, (udazken haren edertasun sarkorra eta jandako arrankarien gozoa lagun!), guztiok itzulpen barri bat ointzat hartu genduan: "*Jainkoaren Bildotsa: Zeuk kentzen dozu munduko pekatua...*" Itzulpen barri hau gatz handirik bakoa zan, beharbada; baina argia, zuzena eta danontzat egokia. Eta, beste barik, geure-geurea alde batera itxi (ez



Liturgi-itzultzaileen taldekoak Erroman, San Pedro plazan, 1971an. Ezkerretik hasita Bizente Hernandezena (N), Karmelo Etxenagusia (B), Pedro Mari Zabaltza (N), Mixel Idiart (L), Miguel Azpiroz (N), Piarres Xarriton (I.) eta Jesus Gaztañaga (C).

bihotzeko min barik!), eta barri hori hartu genduan guztiok, batasunari berea emonez. Geroago ikusi dodanez, ingelesak be bide bardinetik jo eben zati honen itzulpenean.

### **Beste eleiz lan batzuk**

*Liturgiatik kanpora zuk beste eleiz gai batzuk be landu izan dozuz, oker ez banago.*

Katekesi gai batzuk euskeratzen parte hartu nebhan (eskola barruko katekesia), Ori Manuel Lekuonagaz eta euskal eleizbarruti arteko talde txiki bategaz. Eta gure Bilboko Kurian argitaratu diran dokumentu batzuk be neure eskuetatik igaro dira, euskerari aldetik behintzat.

*Bilboko gotzainen euskeratzailea be izan zara.*

Ez beti. Hara: Morcillo gotzainarenik ez neban nik ezer euskeratu, ezta Gurrpiderenik be. Zirardaren denporan hasten naiako zer-baitetan laguntzen: gotzain honek Bizkaiko herri-euskerea ulertu egiten eban, baina berba egiteko eragozpen handiak aurkitzen eban. Orduan, cuskal herrietan berba egin behar ebanetarako, testu batzuk zuzendu eustazan, erderaz berak eginak, nik euskeratzeko. Horregaitik sarritan esaten eustan umerotsu: "Bihar hain lekutan daukagu sermoia zuk eta biok". Hortik kanpora, gotzain honek egindako dokumentu bat edo beste be neuk euskeratua da.

*Eta Zirarda gotzainak Gurrpideren hileta-mezan euskeraz esandako berbak (gauza harrigarria orduko denporetan!), horreek be zeuk euskeratuak izan ziran, ezta?*

Ba... ez. Horretan nik barik Mikel Zaratek lagundu eutsan, eta ederto egin be. Mikelek beste dokumentu batzuk be euskeratu eutsazan, berak bakarrik; bat baino gehiago, berak eta biok alkarren artean (gogoan dot behin zelan emon genduan gau osoa gure Begoñako komentu zaharrean, jo ta ke lancan, itzulpena amaitu ezinik). Bardin antzera jokatu genduan Añoverosen denporan be.

*Hurrengo gotzainak euskaldunak izan ziran: Uriarte ta Larrea...*

Bai, biok bizkaitarrak, eta eurok eurotara egiten zituezan euskerazko berbaldiak, inoren laguntza eskatu barik. Halan da be, euren dokumentu ofizial batzuen euskeratze lanetan neu be sartuta egoten nintzan.

*Eta orain, zeu gotzain laguntzaile zareala, zer?*

Neuk egiten eta izenpetzen dodazanak, gehien bat neureak dira euskera aldetik, ia beti. Gotzaitzengiko beste dokumentuentzat itzultzaile berezia dogu aspalditik: hainbat urtetan Txomin Solabarrieta abade ondarrutarra izan da; Martin Olazar gamiztarra be

lan handia egindakoa dozu. Oraingo itzultzailea Mallabiko neska-tila gazte bat da, Miren Leanizbarrutia. Ganera badaukagu batzorde bat be, euskera eleiz gaitan erabilteaz arduratzen dana, Andoni Cerrikaetxebarria bikario nagusia buru dala. Gotzain nazanetik hona, lehenago baino aukera gehiago dot cuskeraz berba egiteko, euskal herri askotara joan behar izaten dodalako. Batcko hau dala, bestcko hori, batera ta bestera ibili behar izaten dot, eta batzar eta eleizkizun askotan cuskeraz berba egin behar. Egia esan, Bilbo barruan itota baino nasaiago ikusten dot cuskal herrictan neure burua, pozago izaten da nire euskal bihotza.

*Berba egin bai, baina cuskeraz idatzi, orain lehen baino gehiago?*

Zertarako dan. Neure hitzaldi asko —ez danak—, aurretiaz idatzi be egiten dodaz, baina ez inon argitaratzeko asmotan, esan nahi dodana zehatzago eta laburrago esan ahal izateko baino. Badaukadaz hasita euskerazko idazlan apal batzuk, baina noiz eta zelan amaituko dodazan ez dakit. Bihar-etzi, oraingo lan astunak zerbait arintzen badeustez, beharbada burutu be egingo dodaz aitaturako lanok.

*Euron gaia zein dan jakin geinke?*

Zergaitik ez? Zaharren kontuak, norbere bihozkadak: umetarako gomutak, eleizkizunak zelan egiten ziran Iurretako eleizan Kontzilio aurretik, gogo jardunetako gaiak... Badakizu: behin zahartzaroan sartu ezkeru, beti zagoz lehenari begira.

*Eta, parkatu, baina isilpeko zertxu bat be itandu nahi neuskizu...*

Itandu, itandu bildur barik.

*Gure oraingo gotzain erdaldunari zeuk irakasten deutzazu euskerea?*

Ba, egia esateko, ez. Argibide batzuk emon izan deutzadaz, noiz edo noiz; baina euskeran lehenengo pausoak emoten beste

abade batek lagundu eutsan. Gero, bere kontura eta bere bidetik dabil, egunero zerbait egiten dauala: batez be, Ebanjelioak euskeraz irakurri, Kerexctaren itzulpenean. Bere berbaldietan euskerazko esaldi labur batzuk sartzen dituanca, gehienetan neuk euskeratzen deusadaz. Eta, eleiz gizonekin hasi garcan ezkeru, Erromako gotzainarena be aitatuco deusut...

*Zer? Aita Santuagaz be izan dozu hartuemonen bat euskera kontuan?*

Bai. Erdi olgetan bada be, esaten dot, nik ez Bilboko gotzainari bakarrik, Aita Santuari berari be euskera apur bat irakatsi deusadala.

*Ez da hori egia izango?*

Ba, bai. Legezkoa danez, bost urterik behineko ikustaldia egin geuntsanean, 1998. urteko irailean, ni Etxenagusia nintzala esan eutsan D. Rikardok Aita Santuari. Eta honck, beste barik, badino: "Ene! Etxegarairen antzekoa!" (Roger Etxegarai, Ezpeletakoa, aspalditik da kardinal ospetsua, eta hantxe dago Erroman Aita Santuaren ondoan). Eta nik orduan Aita Santuari zerbait azaldu neutsan: "Aita Santua, "etxe" euskeraz "casa" da; "garai", altua; "nagusia", handiena..."

*Eta horretan geratu zan dana?*

Ez, ez. Nik esandako apur hori ez jakon ahaztu Erromako gotzainari. Biharamonean, gotzain guztiok batera hartu ginduzan Aita Santuak, eta, obi danez, bere hitzaldia emon euskun. Ez euskun irakurri egin; banan-banan bere ondora dei egin eta bakoxtari eskura emon euskun bere hitzaldi horren kopia bana. Dcia berak egiten eban, bakoxtaren izen-deiturak esaten zituala. Eta badator D. Ambrosio Etxebarria zeberiotarraren txandea (hau, orduan, Barbastroko gotzaina zan, Aragoiko lurraldean).



Eta, Aita Santiagana hurreratzean, honek badinotso, beste barik: "Vasco!". "Etxe" berbea euskalduna zala ahaztu barik eukan.

### **Irratietan hizlari**

*Gure irratietan be behin baino gehiagotan entzun izan da zure euskerea, Karmelo.*

Ez sarritan, lantzean behin baino ez. Egia da, bai, gure Bilbo Herri Irratian euskerea bere leku estu laburra lortzen hasi zanean—gorago esan dodanez, Julián Olazabalaga izan zan honetan aurrlari eta hultzegile—, neuri be laguntza apurren bat eskatu eusten.

*Eta zetan lagundu zenduan zuk?*

Zapatuero irratsaio labur bat zuzentzen neban, goizetan, "Jaunaren Hitza" eritxona. Domekako cbanjelioa irakurri eta Jaunaren eguna giotzea eta Elcizearen barri emotea zan nire egitekoa. Egia esan, ez zan lan handia, baina astero egin beharrak astunago egiten zituan nire eguneroko beste lanak.

*Eta zure lanok ez zirean arinak izango.*

Nik orduan Kurian lan egiten neban (zapatu goizetan be bai), eta gauza bat neukan ona gure irratitari laguntzeko: aldi haretan gure bulegoak eta irratiaarenak etxe berean egozan, Henao kalean.

*Geroago, egunero euskeraz emoten zan mezan be zeozetan lagundu zenduala uste dot.*

Hainbat urtetan emon neban meza hori, bere euskerazko berbaldi labur eta guzti, Begoñako Basilikatik. Astean behin egiten neban nik. Zu zeu be, Ander, mezmemoilectarikoa izan zinan aldi

baten, neugaz batra. Orain gu barik be ondo jarraitzen dau goizeko irratsaio horrek zorionez, Bizkaiko hainbat fededunen mesederako. Ondarroa ta Begoñako cleizak txalogarriak doguz horregaitik be.

*Eta mezatik kanpora, besterik ez, irrati bidez?*

Ba... gauza handirik ez. Lehenago, Aste Santuko berbaldiren bat emon neban; gero, gotzain egin ninducenetik hona, bai Gabonetan eta bai Pazkoetan, mezu laburren bat zuzendu ohi deusat gure kristinau herriari, eta noizik behinean alkarrizketaren bat be eskatzen deuste irratitik, eguneroko eleiz gairen bat argitu behar danean. Irratiak, nire ustez, garrantzia handia dau fede arloan be; baina, zoritxarrez, nik neuk orain ez daukat arlo horretan lan askotarik egiteko asti modurik.

## **Derioko Ikastaroa**

*Gorago aitatu dogunez, zu Derioko Ikastaroan sartuta be egon zara.*

Bai horixe! Lehenengo-lehenengotik hasi eta hogeitaz hamar urte luzetan, behin be hutsik egin barik. Zeuk dakizu hori, Ander, nik baiden ondo, Ikastaroak beti zuzendari izan zaitu eta. Ikastaro hori non eta zelan hasi zan, zein bidetatik ibili dan, horren helburuak eta jokabideak zeintzuk izan diran, eta abar, hori danori ondo csanda eta zehatz idatzita dago, hainbat lekutan, eta ez naz ni horretan barriro sartuko. Hor dogu *Derioko Udako Euskal Ikastaroa, 25 urtean (1970-1994)* liburu lodikotea.

*Baina zeure gomuta batzuk agertuko deuskuzuz, horraitino...*

Hori baino besterik ez bada... Gogora jatortazan zer batzuk baino ez dodaz hemen aitatu. Lehenengoa, haxe: pozik eta gogorik onenaz lan egin nebala beti, baina baita neke artean be.

*Nondik gogo ona?*

Gogo on eta beroa, barruko poza, Ikastaroko ikasleak emon izan deustez beti: udako oporraldian, sarritan eguraldi bero astu-  
nean, bai etxetik eta bai itsasertzetik aldenduta, gazteak euskera  
hain sutsu ikasten ikusteak irakaslearen gogo-bihotzak adoretu egi-  
ten zituau. Ikaslerik gehienek ikas zaletasun bero hori lagungarririk  
onena zan gure nekeak gozatzeko. Hainbeste gazteren ikasgura bizi  
horrek harritu eta poztu egiten ninduan. Gure gazteak alperrak,  
motelak, ardurabakoak dirala? Ez horixe! Guztiak ez, behintzat.

*Nekeak be aitatu dozuz. Zeintzuk neke?*

Bata, eta ez txikiena, gaiak patxadaz gertateko astirik eza.  
Behin be ez neban izan eguneroko beste zereginak alde batera itxi  
eta Ikastaroari neure ahalegin guztiak eskaintzeko aukerarik: goiz  
osoa gotzaitegian emon behar izaten neban, beti lanpetuta. Biga-  
rren nekera: orduarena. Goizean ezin, eta bazkalosteko ordurik  
txarretetan izaten nebazan neure eskolarik gehientsuenak, eta  
udan hatan be. Irakaslea errukarri, ikasleak ez gitxiago. Hau dala  
eta, bertso modukoren bat be moldatu neban, eskola barruan  
kantatzeko (S. Mitxelenaen bertsoak zerbait egokituz):

*Itsasoak urak gazi, / ez dakianak ikasi...*

*Ikastarora bi asterako/ urtero goazi.*

*Gurekin batean nasi, / itsas bazterrak ahantzi...*

*Ikusiko dok ez gareala / gaztanbera bizi!*

*Ikastaro bakotxean, / ikasgelako labean,  
urtuko jakuz koipe ta gantzak / sargori errean...*

*Noizbait handik jalgitean / ez goaz bake onean:*

*lo gutxi eta lana ugari / ein behar gauean”*

Geroago, Iparraldeko euskerea ikasten hasi ginanean, beste  
hau be kantatzen genduan, hemengo eta hango hitzak nahastuz:

*“Oren luzeak eskolan eta / gero gelako xokoan,  
itsas bazterrak, mendi garaiak / arduza gure gogoan...  
Gu, aldiz, hemen, Iparraldeko / haurride eztiñ ondoan.  
Neke laburrak betiko poza / sorturen deusku kolkoan,  
boskarren maila bortitz luze hau / fite burututakoan”.*

Bertsoak alde batera itxita, hirugarren neke bat be aitatu dagidan: ikasleakandik urrin bizi beharra.

*Zer esan gura dozu horregaz?*

Ikasle eta irakasle asko, batez be lehenengo urteetan, Seminarioan bertan bizi ohi ziran, gau ta egun; eta eskola orduetatik kanpora sortzen zan hartuemonara ta giroa guztiz ci ziran atseginak eta mesedegarriak. Nik, ostera, Begoñan neukazan etxea eta bete-beharrak (komentuan eta gotzaitegian), eta ikasle ta irakasle lagunen ondoan egon ezin. Honek pena handia emoten eustan beti.

*Eta ze gai emoten zenduan zuk Ikastaroan?*

Gehienbat, euskal literatura, edo, zehatzago esateko, euskal idazleak. Seminarioko abadegeiekin egin neban antzera. Ikasleak ugaritu ahala, irakasle barriak be sartu ziran (eurotariko asko geure ikaslerik onenak izandakoak), eta gaiak banandu beharra citorri zan.

*Eta zeure ikasleentzat beste antologia bat argitaratu zenduan.*

Bai, *Euskal Idazleak Bizkaieraz* deritxon lorategia. Liburu lez 1980. urtean argitaratu genduan, baina gaia bera aurreko urteetan emonda neukan ikastaroan. Ordurako ni gipuzkera eta Iparraldeko euskal literatura emoten hasita nengoan, baina esan eusten ona zala ikastaroko ikasleentzat bizkaierazko antologia bat argitaratzea, eta holantxe egin genduan.

*“Egin genduan” esan dozu. Orduan, zeuk bakarrik ez zenduan egin?*

Ez, hau ez. Liburuak berak azalean dinoanez, Jon Kortazar eta Aitor Etxebarria be —biok Ikastaroko irakasleak eta nire ikasle izandakoak— badira egile. Idazle eta idazlanak hiruron artean hautatu genduzan, J.A. Etxezarraga be tarteko zala; eta eurenak dira, batez be, testu-azterbideak eta ariketak. Argi-emoilerik behinena, oraingo honetan be, Lino Akesolo izan neban, eta zu zeu, Ander, eta A. Arejita akulari eta bultzegile.

*Orduan liburu hau ez zan liburudendetan beste barik saltzeko...*

Ez, ez. Nire aurreko beste antologiak lez, eta sarreran argi ta garbi autortzen dogunez, lorategi honek be helburu didaktikoa dau, eta zuzenean geure ikastaroko ikasleentzat dago eginda: ikaslerik gehientsuenak bizkaitarrak izanik, lehenengo euren etxeko berbetan sendoro oinarritu eitezan, gero euskera zabalago eta batuagora heldu ahal izateko.

*Aurreko zure lorategietan baino zabalago jokatu dozu barri honetan. Esaterako, herri-literatureari tarte handia emon deutzazu, olerkiak eta teatroa be sartu dozuz. Eta, gauza barria dana, ariketak eta azterbideak be bai.*

Halan da, bai. Horretan nire aurreko lorategietan baino zabalago jokatu genduan, baina cuskalki bakar baten barruti estutik urten barik. Beste hcsi bat be jarri geuntsan liburuari: ordurarteko antologietan argitaratutako zatirik ez sartzea, barriak baino. Hortik kanpora, ikuspegi zabala erakutsi nahi geuntsen ikasleei: antxinatik oraintsurarte bizkaiera erabili izan dabon idazleak, jokabide ta idazkera askotakoak, danak era bardinean geure gogoko izan ez arren.

*Beharbada, Bizkaiko idazle batzuri ez deutsezu leku handirik emon, esaterako, G. Aresti olerkariari...*

G. Aresti bizkaitarra da izan, Bilbon jaioa eta bizia, baina ez eban bizkaieraz gauza handirik idatzi, eta ez ahaztu gure antologia "bizkaierarena" dala, ez "bizkaitarrena". Hor dozuz beste batzuk be, bizkaitarrak izan arren, euren euskal idazlan asko beste euskalki batzuetan egin izan dituenak: Erkiaga, Villasante, Irigoyen, Gandiaga, Kintana... Guztiok agertzen dira gure lorategian —Aresti bera be bai—, baina bizkaierazko zatiak baino ez doguz aukeratu.

*Itzulpenari be tartetxu bat emon zeuntsien...*

Bai. Argiro autortzen dogu herri baten literatureari izen ona eta ospea sortze-lanetik jatorkozala, eta ez itzulpenetatik. Baina itzulpenak ugariak dira gure artean, eta garrantzia handikoak euskerearentzat. Eta itzultzaile askok euren trebetasuna ondo baino hobeto erakutsi izan dabe hizkuntza mailan, itzulpenok egikeran. Hau holan dala, gchigarri lez, itzultzaile gitxi batzuen zatiak sartzeri ondo eretxi geuntsan, eta hor dozuz ORIXE (*Tormes'ko itsu-mutila*), J. Kerexeta (*Euskal Biblia*), Liturgia barriko Irakurgaietariko bi, eta B. Larakoetxea zeauritarra (Shakespeareren teatro-lan guztiak bizkaieratu zituana). Emondako tartetxu hori, behintzat, zor jakela uste dot. Hori gitxienez.

*Zuk Ikastaroan gipuzkera be emon zenduan, Bizkaiko euskerea itxita.*

Bai, balan da. Egia csan, nik ondoen menperatzen dodana eta ctxekotzat daukadana geure Bizkaiko euskerea da. Beti arlo honetantxe jardutea izango zan nire borondatea, cgarria eta zoriona. Baina, Ikastaroa hasi ahala, beste arlo batzuetan sartu ninduzuen: lehenengo, gipuzkeran; geroago, Iparraldeko euskeran. Besterik ezcan, neuregandu neban eginbehar hori, eta zelan



Bilboko gotzainak Euskaltzaindian, 1997an. Ezkerretik hasita, Jose Antonio Arana Martija, Juan Mari Lekuona, Ricardo Blazquez, Jean Haritschelhar, Karmelo Etxenagusia, Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia.

edo halan beteten ahalegindu be bai. Ikastaroa guztiz laburra zanez (10-12 eskola baino ez uda bakoitzean), nire egitekoa be apala zan eta neurtuegia: bidezidor batzuk urratu eta erakustea ikasle bizkaitarrei, gero eurak curctara euskalki eta literatura barri horren ur handiagotan sartu citezan. Behin baino sarriago esan izan deutset ikasleei: “Hara, ni ez naz “irakaslea”, ni “erakuslea” baino ez nozue. Ikusten dozue hor Ganguren mendi tontor hori? Ez da horren handia, baina Bizkaiko beste mendi asko ikusten da hortik: Gorbeia, Anboto, Udala, Mugarra, Oiz, Sollube, Jata, Ganekogorta, Eretza... Nik Gangurenera baino ez deutsuet lagunduko, eta handik beste mendion izcnak eta bideak crakutsiko. Gero mendiotara igon gura badozue, zcuok egin beharko dozue bide hori...” Ikastaro labur baten gehiago ezin egin!

*Eta, gipuzkera emoteko, ze liburu erabilten zenduan eskola barruan?*

Libururik ez. Polikopiaz egindako horri solteetan, idazle “kiputxen” zati hautatuak baino ez geunkazan. Arlo honi luzarago ekin izan baneutsa, beharbada lorategiren bat egin eta argitaratuko genduan. Baina, ikasleak eurak eskatuta, maila barri bat jarri jakon Ikastaroari —boskarrena— eta orduan, gipuzkera laugarren mailarako itxi zan, eta ni boskarrenera bialdu ninduen —edo, hobeto esateko, ninduzuen—, Iparraldeko euskerca zertxubait irakasteko.

*Eta berehalaxe, ikasleen lagungarri, zeure azken antologia argitaratzen dozu: Iparraldeko Euskal Idazleak.*

Ikastaroa lau mailakoa izan zan artcan, laugarren mailan gipuzkera eta Iparraldeko euskera emoten nituan, bata lehenengo astean, bestea bigarrenean. Gauza gitxi, sarreratxu bat baino ez. Boskarren mailea sortu zanean, aste biak Iparraldekoari eskaintzen geuntsazan, eta ikasleei bideak erreztuteko, lorategi barri hau eratu neban. Arineketa baten egina da, aurrekoen bidetik, gitxi gorabehera.

*Eta harrera ona izan eban, lehenengo edizinoa (1981) agortu eta bigarren bat egin behar izan zalako (1988).*

Hori, Ander, zeuk dakizu nik baino hobeto. Nire egitekoa, “umea” mundura ekartea izan da; gancrako ardura guztiak beste batzuen sorbalda ganean egon dira. Edizino biok guztiz agortuta badagoz, horrek esan gura dau, beharbada, Ikastaroan bertan eta beste lcku batzuetan hutsunc handia bete izan dauala.

*Iparraldean bertan be bai. Hara be hainbat bialdu izan doguz.*

Ba nik ez neban hangoentzat egin. Holan egin izan baneu, zentzun gitxiko gizona agertuko nintzan. Nor nintzan ni, hangoei euren literatura aberatsaren barri emoteko? Ez, iparraldekoentzat



barik, bizkaitarrentzat egin neban nik antologia hori, eta, batez be, neure eskoletan lagungarri izateko. Argi ta garbi agertzen da hori lorategiaren hiztegitxuetan. Hangoak antxinatik euken P. Lafitteren *Eskualdunen Loretegia* (1931); baina, zoritxarrez, Lafittek bere lanaren “Lchen Zathia” baino ez eban argitaratu, eta 1545-1800 urteetako idazleak baino ez zituan sartu. Autor dagidan barriren barri, gorago egin izan dodanez, Iparraldeko maisu handi honen “Loretegia” izar argia izan nebala, antologien munduan sartu nintzanean.

*Eta hauxe da zure azkenengo antologia...*

Bai. Eta ez dot uste aurrerantzean besterik egingo dodanik. Nire bizimoduak beste bide batzuk hartu ditu eta nekez sartu ahal izango naz barrero lehengo arloetan.

*Hogei urte luzetan irakasle izan eta gero, Udako Ikastaroa itxi egin zenduan...*

Bai, halan da. 1989ko udan, Ikastaroari berari zelako-halako omenalditxu bat egin behar jakola eta, niri neuri zuzendu zeun-tien omenaldi hori. Orduan, inoiz baino argiago ikusi nebazan gauzak, eta esan neutsan neure buruari: “Txotxo, hik arlo honetan onenak emon dozak, zahartzen hasita hago, eta gazteagoci lekua emotea dok zentzunezkoena”. Orduantxe amaitu neban Bikaritza Nagusitako bigarren ekitaldia be, eta urtebeteko atsedena —“zapatu urtea” deritxona— emon eustan gotzain jaunak. Erroman emon neban urte bedeinkatu hori, hemengo arazoetatik urrin eta gazte-munduan sartuta Unibersidadean. Ez dot errez ahaztuko Erroman igarotako kurso hori. Ez neban ezetariko titulu barririk atara hango ikastetxe nausietan (zaharregia nintzan horretarako), baina barrero ikasketa sakonen munduan murgiltzeko aukera ederra opatu eustan urte bedeinkatu horrek. Bide batez, Erroman hainbat leku zoragarri ikusi nituan. Eta Italiako beste uri eder asko be bai. Handik bihurtu nintzanean, Begoñako

parroko egin ninduen. Eta holantxe amaitu ziran Derioko Ikastaroagaz irakasle lez izandako hartuemon luze estuak...

*Eta ez zagoz damututa?*

Damututa... zergaitik damututa? Ez, ez! Behin baino gehiagotan, orduko denporak gogora jatortazanean, halako nostalgia apur bat izaten dot. Baina "aldian aldiko, neure mutiko!" Euske-rea erabili, landu, zabaldu, beti egiten dot harrezkero, eta bizi nazan artean be egin gura dot; baina oraingo bideak ez dira lehen-goak, barriak baino. Labayrugaz eta Udako Ikastaroagaz beti nago hartuemon onean, gotzain laguntzaile nazanetik hona be bai, zuek ondo dakizunez. Aurrerantzean be bardin jokatu nahi neuke. Lehen era batera, orain beste batera, nik cuskerca jorrazteari eten barik ekin gura neuskio. Baina, Ander, gure hautu hau luzegei be badoa eta, moztu egin beharko dogu.

*Ez, horraitino, beste itaun pare bat egin barik.*

Egin lehengoa.

*"Euskara batua" dala eta, zein izan da zure eretxia, zein zure jokabidea?*

Itaun horri patxadaz erantzuteko beste lan luze bat egin beharko neuke. Baina hona hemen nire erantzuna, azalekoa eta laburregia bada be: beste edozein herrik lez, gureak be hizkera bakarra mesedegarri dau arlo askotan. Helburu hori lortzea txalogarria da, beharrezkoa, batez be literatura idatzian. Baina herri baten ohiturak sustrai sakonak izan ohi ditu, eta gauzak goizerik gauera eta goitik behera aldatu gura izatea arrisku handizat jo izan dot beti. Arazoak patxadaz eta zentzuncz aztertu eta gero, bide artezak erakustea, argibide zuzenak emotea ondo baino hobeto dator hori. Baina gaurko egoerca hain bizkor eta zehatz aldatzeko egin diran ahaleginak (batez be, arazo honen lehengo urteetan eta orduko

egoera larrian), alde batetik borondate onckoak eta mesedegarriak izan badira be, ez dira arrisku eta kalte bakoak izan.

*Zer esan gura dozu “orduko egoera larri” horregaz?*

“Euskara batuaren” aldeko borroka hori 60ko hamarkadan zertzen da, batez be, eta Arantzazuko batzarrean (1968) hartzen dau bultzadarik handiena. Eta ze indar cukan orduan gure euskal gizarteak burruka hori aurrera eroateko? Non egozan orduan gure gaurko ikastolak, irratiak, ikastetxeak, aldizkari eta egunkariak, euskal gobernuaren laguntza eta eragina...? Azken 20 urtetan ikusi eta ikusten doguna, noren gau-ameseta gozoetan agertu zan urte ilun eta garratz harectan? Horregaitik, ni ez naz egon sekulan euskera batu baten aurka, baina bidea astiro, patxadaz eta kontuz egin behar zala uste izan dot beti. Pierre Lafittek Arantzazuko batzar haretan esan eban legez: “emeki emeki”, astiro eta kontuz! Hako “astiro jantzi nagik, prisaz najabilk eta”. Euskaltzaindiari beti izan dectsat lotsa handia, baina erakunde horrek ez deust —eta ezin deust— eskatu fede itsu eta osoa. Araurik gehicnetan pozik eta berehalaxe jarraitu dectsat, beste batzuetan astiroago eta nekezago.

*Esate baterako, “h” horren zerean...*

Bai, Ander. “H” euskal hizkia da, iparraldekoak ugari sartzen dabena (eta badabe horretarako errazoerik). Cuk, ostera, aspaldiko urte luzectan horren beharrizanik ez dogu izan, eta ez dot uste horregaz gauza handirik galdu dogunik. Euskera batua beharrezkoa bada eta hori lortu nahi badogu, azaletik hastea da errezena eta emon behar dan lehenengo pausoa ortografia bateratzca da. Baina zein bide hartu horretarako? Iparraldeko “eskualdunak” beharrezkotzat joten dabę zorioneko “h” hori, aspaldiko tradizioari jarraituz; beste euskaldunok ez dogu horren preminarik izan; hangoak % 20 baino ez dira, hemengoak, ostera, % 80, gixienez. Bidcrik errezena zein dan argi dago. Halan da guzti be,

biderik estuena, kargarik estuena hartu zan... eta horretarako errazoerik ez egoanik ez dot nik ukatuko.

*Urteak joan, urteak etorri, hasierako eztabaida garratza baretu egin dala dirudi, eta "h" hizkiaren aldekoak irabazle dirala...*

Argi dago hori. Hangoak euren "hatxeak" urritu eta mehatzu egin dabez, hemengoak Euskaltzaindiak aurkeztutakoak ontzat hartu. Nik neuk uste neban baino bizkorrago eta errezago egin da hori.

*Baina zuk hainbat urte emon dozuz, bide horretan sartu orduko.*

Egia dinozu, Ander. Hara, argi ta garbi autortuko deusut: ni bildurti nintzan pausu horren aurrean. Uste neban euskarearentzat mesedetan baino gchiago ekarriko ebala kaltetan. Horregaitik borondate osoaz izenpetu neban behin Euskaltzaindiari egin izan jakon eskabidea.

*Zein eskabide?*

Hainbat euskaltzalek, alkar harturik, eskatu geuntsan Euskaltzaindiari kontuz jokatu egiala arazo honetan; gu prest gengozala "h" batzuk (preminazkocnak) sartzeko, baina ez guztiak. Oker ez banago, Aingeru Irigaray euskaltzaina izan zan eskari honen buru. Cogoan dot non izenpetu neban nik: Zuberoko Santagrazi herritxuan, pastoral bat ikusten gengozala.

*Eta zein izan zan Euskaltzaindiaren erantzuna?*

Euskaltzaindiak berak ez euskun zuzencan erantzunik emon; euskaltzain baten esku itxi eban erantzuna, eta, nire memoria oker ez badago, Alfontso Irigoien izan zan euskaltzain hori. *Euskera* aldizkarian argitaratu zan.

*Ezer lortu zenduen?*

Ez. Euskaltzaindiak bere bideari cutsi cutsan, ezcertan amore emon barik. Eta horixe da gaurko bidea be.

*Baina ibili ta ibili be, halakoren baten gure Karmelo "h" sartzen hasi jakun...*

Beste gauza askotan lez, honetan be nik zabal jokatu gura izan dot: inori gogorrean ezer ez ezarri, bakotxari askatasun osoa emon beti. Nire ikasleak eta adiskideak ondo dakie nire jokabide honen barri. Gehientsuenak "h" hori erabilten ebela ikusi nebanean (baita gure gotzaitegiak be), neu be erabilten hasi nintzan, eta kito. Ez dot uste horregaz ezer galdu dodanik, ez askotzarik irabazi. Beti esan izan neutsan neure buruari: "Ez haz aurrenengoa izango, baina ezta azkenengoa be." Horixe izan da dana.

*"H"rena baino arazo larriagorik badauko euskereak, ezta?*

Bai horixe! Gaurko gure egocrea ikusita, alde batetik Jesusen berbak jatortaz gogora: "Zorionekoak zuen begiak, ikusten dabe-na ikusten dabelako..." Zer egin dan, zer egiten dan, zer egin gura dan ikustean, pozez betirik gagoz euskaltzaleok. Baina, bestetik, hainbeste ahalegin egin eta gero, non eta zelan aurkitzen garean ikusteak ardurea eta kezka larria sortuazoten dauz gure gogobihotzetan. Ikasi, askok dihardue gaur euskera ikasten; ez dira gitxi argitaratzen diran liburu barriak eta zaharrak; sekula santan ez dau izan euskereak gaur daukan laguntasun ofizialik. Baina zetan indartu da gure berbetea etxeetan eta kaleetan? Gramatikak, hiztegiak, ikastolak eta ikastaroak, euskerearen aldeko ibilaldi eta jaiak e.a., sinistu be ez egiteko moduan ugaritu dira, bai. Gure gizartean izan ona jadetse dau euskereak, euskera jakitea harrotasun bihurtu da... eta baita ogibidea errezago irabazteko ate zabala be. Irratiak eta telebista be badoguz euskerez. Ha ta guzti be, zenbatek ez dogu min hartzen, gure artean berba gitxi, motel eta arlote samar egiten dala ikustean? Euskera bizia, dotorea, zuzena, aberatsa ikusi nahi dogunok, non aurkitzen dogu gaur hori?

*Euskerearen etorkizuna ez ete dozu ilunegi ikusten, Karmelo?*


Zer esango, Ander? Ordu eta egun ilunagoak ikusiak gara. Sarritan izaten dot gogoan hako Mikel Zarate adiskideak esaten eustana, euskerearen etorkizunari buruz geure kezkek alkarri azaltzen geuntsazanean: "Hara, dana dala, zu ta biok bizi garcan artean, behintzat, euskreak bizirik iraungo dau!" Mikel hil zala, 20 urtetik gora da; euskerearen alde lan eder ugari eginda joan jakun, gitxien uste genduanean. Eta euskerca, bizirik eta bizi izateko gurari biziaz heldu jaku mende ta milurte barriotara. Noiz arte? Nok jakin hori? Berandutxo, baina antxina urten eban "plazara", "dantzara", "mundu guzira", Detxepare olerkariaren eskutik. Eta Lizardik nahi ebanz, gure "hizkera larrekoa" biziko al da luzaroan, gu mundu honetatik joan eta gero be, sendo eta dotore, "noranahikoa" izateko abalmencz eta borondatez. Gutariko bakotzak geure ahalegintxua egin daigun, "hontan iraun dezan" (*Orize*). Gauza bat, behintzat, argi be argi dago, Ander: gureak laster egingo dauala, eta kristinau lez, azken agurra egitean, euskeraz abestuko al deuskue: "Agur, Egun Handirarte!". Eta egon ziur: gu biok hil eta gero be, gure euskera maiteak bizirik iraungo dauala. Xenpelar bertsolariarena: "Jaioko dira berriyak, / gu gara Euskal Erriyak".

*"Amen, aleluia!", erantzun beharko deutsagu horri.*

...zein "Holantxc", batzuk esan ohi dabenez. Bai, holantxc izan dadila. Baina biziko bada, ez bedi izan J.M. Aranaldek behin esaten euskunez, euskercaren geroa baltzegi ikusten genduanean: "Ez beldurrik izan. Behinola latin zaharra bezala biziko da gure hizkuntza; herriak agian erderaz egingo du gure herrietan, bainan Eleiza hor ari izango da, lehen latinez egin zuen antzera: "Aitaren eta Semcaren..."

Begoñan, 2002.  
urteko uztailaren 4an,  
San Balentin Berrio-Otxoaren jaietan.

II  
EUSKAL GAIAK





# EUSKERA

## HERRI MAITE HORI!<sup>1</sup>

Nire herriari lurreta deritxo.

Askorentzat, beharbada, inoiz entzumbako izen iluna. Baleiteke... Begira, adiskideok, neuri be zer jazoten jatan.

Guztiok, nire ustez, zeuon jaioterrria bihotzez maiteko dozue: neuk be holantxe maite dot neurea ume-umetatik.

Halanda guzti be, baina, bchin baino gehiagotan lotsaz gorritu jat aurpegia, nungoa nazan autortzean. Hara zer jazoten dan.

Bazoaz hortik zehar zeure herri inguruetatik kanpora; esate baterako, bultzian. Aurrez aurre, ezezagun bat, ixilik; itxuraz euskalduna. Halakoren baten, bata-besteari:

—Eguraldi cderra, ezta? Eguzki epel osasunkorra...

—Bai, ez dago txarra, aspaldiko ordez...

Eta hortik hasten gara jardunean:

—Gazte, nungoa zara zu, Gernikakoa?

—Ez, jauna, lurretakoa...

—Nungoa?

—Lurretakoa...

---

<sup>1</sup> Gasteizko Seminarioan, 1951, azaroaren 4an.

—Ez dot neure bizian izen hori entzun; basomortuen baten galduta egongo da harenbaten...

Eta nik, apal-apal kanpotik, baina negarrez bihotzetik, dinotsat:

—Ez, ba; Bilbotik Donostiara doan bide nagusiaren erdi-erdian dago. Baina gaur, egia esan, Durangoko zati bat baino ez da...

Beste batzuk gure bultziko ezezaguna baino lotsagaldukoagoak izaten dira:

—Txo, nungoa haz?

—Iurretakoa.

—Je, je... Iurretakoa! Hori ez dok herria, Durangoko auzuna txiki ganorabako bat baino... Gizonak lotsatu be ez iturri zikin bategaitik euren herria saltzen!

Eta barre egiten dabe, adurra dariola. Orduan beti jatort gogora neure auzoko bateri behin entzuniko esakune sakon bat: "Tentela, beti harroputz".

—Zer, ba, Kazintxo, ez da egia, ala, Iurreta Durangori iturri bategaitik saldu zala?

Eta berak, irribarrezka, begiak lurcan josita, erantzun eustan:

—Ume, inoiz ikusi dozu seme bat bere ama iturri bategaitik saltzen? Nik, urte batzuk badaukadaz baina, ez dot holakorik inoiz entzun. Baina behin baino sarriago beste gauza bat ikusi dot, zoritxarrez, antxinako esakune zaharrena: "Arrain haundiak, txikia iruntsi". Ta, unce, arrainak ezeze, gizonak be beste hainbeste: nagusiak txikia menperatu; uri haundikiak, alboko herriak jan. Durangok Iurreta... arrain haundiak txikiari zer? Iruntsi, eztok? Ba... beste horrenbeste".

## NEURE UMETAKO HIRU HERRI-KANTA<sup>2</sup>

Gure “Autobus” zahar hau herdoitu xamar omen dago ta, Zuzendari zorrotzak guzion ekina ta ahalegina eskatu digu, ea denon artean martxan jartzen ote degun. Niri olerkariaren usain goxo ta biguina emateko eskatu dit, eta hemen nauzu hori iritsi nahiean; izan ere, egitan da egokia urtearo hau olerki-sena azkartu eta zabaltzeko.

Bainan nik ez dizuet gaurko hontan gure olerkari ezagunik aipatuko: herri xehea ekarri nahi dizuet begien aurrera, gure aspaldiko herri apal eta xume hau, hainbeste gauza ederren sortzaile eta gordairu degun herri maitagarria.

Norberaren herria baino maitagarriagorik, zein baina? Beraz, neure herriko hiru herri-kanta baino ez ditut hemen gogoraziko, guk haurtzaroan horren maiz kantatzen genituen kanta zaharrak, herriko eskola zabalean bata besteagandik ikasiak eta Gabon-Urteberri inguruan erabiliak.

1. *Abendu-kantak*: Gernika aldean “Marijesiak” izenarekin czagutzen omen dituzte honelango eske-kantak. Gure herrian

---

<sup>2</sup> Derioko Ikastaroan 1974an *Autobusa* izenagaz egindako aldizkaritxoan. Honako oharra dauka:

“Nik orduan, Ikastaroan, Gipuzkerazko literatura emoten neban, eta horregaitik artikulutxo hau gipuzkeraz egiten ahalegindu nintzan.”

—Iurretan— ez genuen izen hori erabiltzen: “Abendu batzen” esaten genion, etxerik etxe bertsuok kantatzen ibiltzeari. Hainbat bertso dira, baina guziak ez ditut gogoan eta, hiruzpalau baino ez ditut hemen jarriko:

*“Abendu santu honetan  
Kristoren jaiotzia  
kontentuaren handiz  
guziok poz gaitian.*

*Hogeta laugarrena  
dogu abenduan,  
desio genduena  
logradu genduan.*

*Jaio, jaio, jaio,  
jaio dala Jesus:  
Semia jaio ta gero  
dontzeila gelditu.*

*Zorionian, Jesus,  
zu jaio zinian,  
bestela zeruetan  
sartzen ez gainian...”*

Bertso hauek batek kantatzen zituen, eta, bakoitzaren ondoren, guziok aho batez honelako erantzuna ematen genuen:

*“Maria, Jose  
Jesus, Maria, Jose!”*

Gaur ere, zorionez, aspaldiko ohitura eder honek bizirik dirau gure herrian. Luzaroan iraungo al du! Betoiz Bizkai aldera ekialdeko Olentzaro ta beste horrelako ohiturak, bainan geure-geureak ez ditzagun bazterrean utzi, ez ahaztu.

Ezagutzen al duzu Lizardiren olerki xamur hura: bere seme Xabiartxoren heriotzean egindakoa? Irakurri ezazu, eta guraso biren sinismen beroak zure bihotza ereugarretan jarriko du.

2. *Urtebarri, barri-barri*: Urtearen lehendabiziko eguna, etxe-ko andren eguna. Eta aterik ate, mutiko-neskatoak, taldeka, eskean. Gure herrian, hara nolako kantuz:

*“Urtebarri, barri-barri,  
daukanak eztaukanari!  
Nik eztaukat eta niri.  
Niri eztostanak emoten  
txarri-belarri”*

*Sí, sí, sí, no, no, no;  
aquí estamos cantando.  
Cantaremos una, cantaremos dos,  
por una limosnita, por amor de Dios.*

*San Vixente, San Vixente,  
tu hermano mi pariente,  
ole, ole, alegría...  
ekazu limosnia / Jaungoikoagaitik,  
enaz hasarratuko / asko (gitxi) emonagaitik”...*

Eta, cuskera ta erdera nahasi ondoren, bukaera honela izan ohi zan:

*“Urte zaharra joan da,  
barria etorri;  
ni banoa hemendik:  
agur guztiori!”*

Nere ustez, ohitura hau zuen herrictan ere ezaguna izango da; beharbada, kantuaren hitzak eta doinuak aldaketaren bat baino

gehiago izango dituzte. Zeintzuk? Pozik hartuko nituzke. Gure Kirikiño atseginak ere ipui parragarria idatzi zuen, gai hau harturik. Irakurri al dezu? Ezetz? Nora begira zaude, bada?

3. *Erregen*: Erregen egunean, etxeko gizonen eguna ospatzen da. Betiko eskaleak, betiko ohiturea; taldeka bildu, eta atez ate, eskean. Cauza handirik ere ez dute eskatzen gizagaixook: zazpi intxaur eta zortzi gaztaina!

*“Erregen, Erregen  
kimeletaina:  
zazpi intxaur ta  
zortzi gaztaina...*

*Zotzak eta paluak  
estudiantien kontuak:  
Apalaziyo-zaldunak,  
Hiru Erregen Egunak.*

*Hiru Erregek agindu deuskue  
botateko poltsiori:  
atrapa ta zizili,  
silie jo barik itzuli”.*

Zer ote dira “kimeletaina”, “Apalaziyo-zaldunak”, “atrapa ta zizili” eta horrelako esaera bitxiak? Ba al dakizu? Eta zer ziran “zotzak eta paluak”?

Horra hor hiru abestitxo, herri-herritik jasotakoak. Ba al dute baliorik? Herriak horrenbeste urtetan gorde izan baditu, zerbaitegaitik izango zan, ezta?

Gure “Autobus” zahar-berrituan ere izango al dute tokirik, gaurko abesti barriekin batean, horrelako kanta zahar xume baliotsuak. Izan ere, nun toki hobeagorik, giro egokiagorik, autobus barruan baino, guziok elkar hartu eta kanta-kantari joateko?

Pozaldi eta trixtura-orduetan, kantua beti gure lagunik onena; kantua izan ohi da, bihotzak bat egiteko lokarririk biguin eta sendoena. Abestu, bai, kanta beti ta nunai, baina kristauok, batez ere, urtearo honetan:

*“Kanta dezagun danok,  
hau da egun alaia:  
Jesus jaio da eta  
kanta: ALFELUIA.”*

Apczpikutegiko bulcgo-zulotik, Iurretako KARMELOK

## EUSKAL IZENEN MODA BARRIAK<sup>3</sup>

### Amama zaharraren larrialdia

Ncuk entzundakoa. Pozik be pozik ei etorren gure Manuela, bere semearen seintxuaren ama ponteko (amabitxi) izanda. Ama izateak poz handia emoten badau, amama egiteak ez, beharbada, txikiagoa. Gure Manuela, behinik behin, pozarren etorren bere etxerantz, ilobatxu barriaren aingeru-aurpegia bere buru-bihotzetan ekarrela. Baina, etxera orduko, ez eban koitada handiak estura txikia izan. Ez deuto, ba, auzoko Josepak bidera urten, eta zorionak emonaz batera, beti ohi dan itauna egin: "Eta ze izen ipini deutzazue, ba, umeari?" Ai ene! Orduan zircau Manuela gurearen estutasunak! Ze izen? Ze izen? "Ba... hara! Mihinaren punta-puntan daukat baina, ez jatort orain gogora. Euskerazko izena da, bai. Izen polita, oso polita, baina oraingo izen barri horretarikoa. Hau da izatekoa! Ama ponteko neu izan, eta umecaren izena abaztu!" Lotsatuta heldu zan etxera. Beste horrenbeste! Semea etxeratu zenerako, erdi hasarratuta, umecaren izena "papelean eskribiduta" emoteko eskatu eutsan amak, hurrengo batan halako lotsaririk ez ebala hartu nahi-ta...

---

<sup>3</sup> *Redención*, 1975eko martxoa, 544 zk., X-XI or.



## Izenen gorabeherak Gernikan

Gizonak berak, eta gizonaren gauza guztiak, euren aldiak, txandak eta gorabeherak izaten dituez. Iznak be, bardin antzera. Gernikako Andra Mariaren parrokiak emongo deusku gaur argibide apur bat puntu honetan. Hara: igazko urtean, 58 elciztar hil dira parrokia honetan; eurotatik 46-k lehenengo abizen biak euskaldunak zituztan, 9-k, erdaldunak biak; beste laurak, bata euskalduna, bestea erdalduna. Ba, 58 lagunon artean, gaur "euskal" izen deitzen deutesgun horretarikorik bat (!) baino ez dot aurkitu: Gurutz. Hildakoak, jakina, gehien-gehienak urtetsuak izan dira, eta, ikusi dozuez, 9 izan ezik, dan-danak euskaldunak.

Parrokia horretan 61 ezkontza izan dira, 1974garren urtean: 122 lagunon izenak eta abizenak jaso doguz. Hara zelan bananduta: ezkongai biak euskaldunak, 30; bata euskalduna eta bestea erdalduna, 12; biak erdaldunak, 19. Ezkontzen dan jentea, gehientsuenetan, gaztea izaten da, hiltzen dana baino askoz gazteagoa. Ez da begi zorrotzik behar, Gernikaren aldaketa bizkorra zelakoa dan ikusteko. Baina gure asmoa "izenak" aztertzea da. 122 lagunon artean, 10 "euskal" izen baino ez ditut aurkitu: 6 Begoña, Aránzazu 2, eta Javier 2 (holantxe etozan idatzita izenok).

Goazen orain lora barriakana: urte berean, 202 izan dira parrokia horretan Bateo santua hartu daben scintxuak. Ez dira gitxi, ez; hildakoak baino 144 gehiago. Horrenbeste umetxuren artean, zenbat "euskal" izen? 92!; 37, mutikoen artean; 47, neskatoen artean; enparauak, nik neuk ez dakit ziur mutikoenak ala neskatoenak direan, hain dira niretzat izen barriak, izan be! Moda barria? Kontzientzia biziagoa? Ilaize barriak, behinik behin, aldaketa handiak.

Niretzat harrigarriena, izenon ugaritasuna: 48 izen ezbardin, 92 izenen artean! Nire lagun batek esaten dauana: "Badirudi, gaurko gurasoak, umetxua mundura ekartzen baino burukomin gehiago izaten dabela seinarentzat izena bilatu eta aukeratzen".

Izenok, ganera, "barriak" dira gehien-gehienak: orain arteko Mikel, Joseba, Xabier, Arantza eta horreen antzekoak, banaka bat baino ez dira agertzen. Bizkaian jazoteko, harrigarriagoa: Begoña izenik ez deitsoe neskato bati be ipini. Lehendik zabalducgia dagoalako edo.

Eta zeintzuk dira, ba, izen "barriok"? Mutikoen artean: Aitor da nagusi (6); gero, Asier (5) eta Zigor (4). "Ipuinak" kristau fedeak baino indar gchiago hartu ete dabe guraso batzuen bihotzetan? Antxoka, Beñat, Garikoitz, Unai, Aitzol eta beste holakoren batzuk, goazen martxan, laster baztertuta geldituko dira, gehiegi zabaldu dirala-ta... Irudimen eta gozotasun gehiago erakusten dabe, jakina, neskato politen izen gozoak: Leire ta Eneritz dira erabilienak (5 bider bakoxta); hurrengo Maider, Idoia, Nerca, Izaskun eta Itziar: launa. Nik egundo entzun bako izenak be ez dira falta: Iraide, Nagore, Oihana, Ainara, Alaitz, Doltza t.a. Gauko egoeraren ezaugarritzat, Iraultza izena be ezarri deusie aingerutxu bati; beste bati, ostera, Aritz izena, Gernikako haretx ospetsua barruko harrak jota dagoalako edo, umetxua zugatzik santuena baino sustrai handikoagoa izango dalako itxaropencz edo. Batek badaki zergaitik!

Amaitzeko edo biribiltzeko: euren seinari euskal izena emon deusien gurasotarik 60, euskaldun garbiak dira aita eta ama; 20, bietarik bata erdalduna; eta 8, biak erdaldunak.

Gure Manuela koitadeak, eta haren antzeko aitaita-amama askok, hamaika ahalegin egin beharko dituez alperrik, "izen baragarriok" ikasten, sekula ondo lortu barik; baina, bien bitartean, gure etxeak, gure herrietako auzo ta kaleak, ikastola ta cleizak, usain gozoko izen barriz beteko jakuz. Bizi gara, aldatuz goaz eta!

## MUTILZAHARRAREN SERMOIA<sup>4</sup>

Beste herrietan ez dakit nik zer izango dan; baina, Euskal Herrian behintzat, neskazahar-mutilzaharrak ez dira, gizajo handiak, ziri gitxi hartutakoak, ez horixe! Hamaikatxu bertsolarik zorrotzu dituez euren gogo-eztenak, neskazahar eta mutilzahar errukarrei zirikadak emoteko! Esaterako, nok ez ditu gogoan, harako Xenpelar handiaren bertso gogoangarri famatuak:

*“Illobak nauka arrotza;  
—“Ua emendik orrontza!”;  
nekia franko, esker gaiztua,  
alimentu otza;  
soldata gabe morrontza,  
begiratua zorrotza,  
animosua ez dago mutill  
zarraren biotza”...*

Horren antzeko beste asko ta asko aitatu geinkez hemen.

Baina nik gaur Bizkaiko bertso batzuk argitaratu nahi ditut; beharbada, lehendik be beste nonbaiten agertuko zirean, nik jakin ez arren. Dana dala, aspaldian daukadaz-neure magnetofonoan

---

<sup>4</sup> *Redención*, 1975eko apirila, 545 zk., X-XI or.

hartuta, eta batek baino gehiagok eskatu deust aldizkariren baten argitaratzeko, bertsozalceen pozerako.

Aurretik, zerbait argitzea ondo etorriko jaku: "Mutlitzaharrena Sermoia" deritxoen bertsuok "esan" egiten dira —ez abestu—; eta, esan be, "sermoe antzera", Iurreta eta Durango aldean, behinik behin. Nik hantxe entzun eta jaso ditut, eta jasotako moduan emongo dodaz hemen.

"Sermoe" honek badauka, gure artean, sermolari ospetsu bat be: mutlitzaharra bera —bihotzez eta umore onez gazte gordin beti, bai horixe!—, Arandiagoitiko semea, Benito Uribe. Gure "sermolari" honek, buruz dakizan bertsuok esateko, badauka berarizko "liturgia" antzeko bat be. Lehenengo ta behin, ez deustu "sermoe" hau edonoz eta edonun botako: bazkari edo afari patxadazkoren baten ostean izan ezik, barruko berotasunik ez-eta, ezin; bigarren, lagun honen erregu sutsuak ekin eta ekin bultz eragin behar; azkenez, behin berotutakoan, lotsak alde batera itxi, mahai ganera ("pulpitora") igon, txapela kendu, eta, lehenagoko sermolari zaratsuen antzera, errime ta serio berba egin, besoei be egoki eraginez. Dana esateko, entzuleak adi ta zuhur egoten dira "sermoe" honen egi biribilak entzuten; baina, geroago ta beroago, azken aldira sermolariaren esanei txaloz eta barre-zantzoz emoten deutse euren baietz oso-osokoa. Horra hor, "sermoe" honen "liturgia".

Horretaraxe jaso neban nik "sermoe" hau Durangon, orain hamabiren bat urte, bazkari eder baten ostean, maiatzaren lehenengoan, Uriberen ahotik, 60 gizon helduren barre ta txalo-hotzen artean.

Eta, beste barik, goazen harira, hau da, "Mutlitzaharrena Sermoia" entzutera:

*"Neure entzule maitiak:  
Orain etorri dira  
ordena barrijak,  
ezkontzeko neskazahar  
ta mutlitzahar guztijak.*

*Ezkontzen ezpadira  
eurtengo urtian,  
datorren urtian joan biharko dabe  
errematian.*

*Mutilzaharren bizija  
nahi neuke nik jarri,  
gogoratzen bajako  
nere buruari.  
Erruki haunditxo bat  
dautset nik hareri,  
zelan bizi direan  
hain lastimagarri.*

*Berrogei urterarte  
dabil nobijetan,  
eta sarriten egoten da  
bide bazterretan,  
zuri-zuri bizarra  
bere matrailetan,  
et'orduak geratzen da  
ha erdi-baketan.*

*Bere burua dago  
beti amesetan;  
"Andra bat hartu baneban  
nik neure gaztetan,  
enintzake, ez, egongo  
gaur modu honetan,  
lorik egin ezinda  
hainbeste gabetan!"*

*Etxera doianian  
su-inguru hotza,*

*eta harek larritzen dautso  
apur bat bihotza.  
Amak ipinten dautso  
bekokia motza,  
eta, horren ganera,  
kuartua guztiz hotza.*

*Amari Jangoikoak  
deitzen dautsonian,  
orduan hasitzen da  
andragai-atzian,  
itargi betiagaz  
buruan gainian,  
berari argi egiteko  
gabaz doianian.*

*Emakume guztiok  
dirautse arpegira:  
"Mutilzaharra zara-ta  
enaz zure gura,  
zu baino hobiagorik  
joan da zerura!"*

*Bizarra zurituta  
buruan kalbua,  
orduan izaten da  
haren akabua.  
Edozeinek dirautso:  
"Mutilzaharra hor dua,  
horrek berak galdu dau  
berorren burua!"*

Orain arterainoko egi guztiak bizi-bizi "bota" ditu gure mutilzahar sermolariak; baina hemendik aurrerakoak aparteko

berotasuna ta indarra dauke haren berba eta zinuetan, berebiziko harrera ona entzuleen barre-zantzo eta txaloetan (mutilzaharren artetik, batez be, jakina!).

*Baina... gauza bat ona dauko  
mundu honetarako:  
ez daukala umerik  
prakak loituteko (!)...  
eta emazterik pez  
hasarre egiteko,  
irabazten dabena  
dana beretzako (!).*

*Diru apurtxuren bat  
badauko etzian,  
bera ondo gorderik  
bildurrez giltzian;  
eta lobak ibilten jakoz  
beraren atzian,  
daukana kenduteko  
engainau artian...  
AMAITU DA!!!".*

Amaitzeko, itaun bat: norenak etc dira bertsook? Irakurleren batek baleki, pozik hartuko geunkcz edozelako argibideak.

## EUSKERAZKO ELEIZLIBURU BARRIAK<sup>5</sup>

Euskeraz ez ei da liburu askotzarik argitaratzen; gainera, euskal liburuok gitxi zabaltzen ei dira, zoritxarrez gitxi irakurten... Euskeraz egiten direan liburuen artean, ezin eleizliburuak ahaztuta itxi. Zenbat eleizliburu argitaratzen ete da gaur? Zeintzuk dira? Zelangoak? Zetarako ?

Hau danau apur bat argitu gurean, Karmelo Etxenagusiagana jo dogu. Eta gure asmoa agertuz, hauxe esan deutsagu:

*Zeu ei zara, azken urteotan, eleizliburuen arduradun nagusia gure eleizbarrutian...*

Ba, bai... Arduradun edo holako zeozer. Baina, aitu ondo, Bilboko eleizbarruti honek argitaratzen dituan eleizliburucna baino ez. Ostantzeko erlijino-liburuak beste edozeinek argitaratu daitezke, nahi izan ezkeru, bere kontura; eta argitaratu be egiten dira: hor dozuz, esate baterako, gure J. Kerexetaren hainbeste liburu txalogarri; honako liburuetan nik ez daukat zerikusirik.

*Zuen arloa, ba, eleizliburu "ofizialak" argitaratzea da.*

Bai, horixe baino ez: liturgia ta katekesirako behar diren liburuak.

---

<sup>5</sup> Redención, 1975eko maiatza, 546 zk., IV-V or.



*Eleizliburuak ez ete dira "euskal" liburu?*

Hona heldu gareanean, Etxenagusiak puntu bat argitu gura izan deust. Urtero egiten eta argitaratzen ei dau Juan San Martinek, aldizkariren baten, azkenengo euskal liburuen —cuskeraz idatzitakoen— zerrenda bat; lista hori dala ta ez dala, aurten eztabaidatxua be izan da, 'h'-z idatzitakoak hain barik egindakoak baino gehiago badireala ta ez direala... Dana dala, gauza batek harritu ei eban gure Karmelo: zerrenda horretan euskercrazko eleizlibururik banakaren bat baino ez zala agertzen. Hutsune hori zer gaitik etc zan jakin gurean, eskutitz bat egin ei eutsan San Martin adiskidcari, eta baita honek crantzun garbia emon be: berak ez zituala holako liburuak bere listan sartzen, baina ez aintzat hartzen ez zitualako, horren ardurea beste norbaitek hartu ebalako baino...

*Eta beste "norbait" horrek bete al dau bere egitekoa?, esan deustat Etxenagusiari.*

Nik neuk dakidala, ez, azken urteotan behinik behin. Eta, nire ustez, tamalgarria da hori: San Martinen zerrendok ikustean, batek baino gehiagok uste izango dau, ez dala cuskeraz beste libururik egin urteotan.

*Ba, hara, oraintxe daukazu era ederra, Redención-en orriotan, hutsune hori beteteko.*

Eskerrik asko. Pozik be pozik egingo dot hori. Baina, zoritxarez, nik hemen Bizkaiko eleizliburuak baino ezin ditut aitatu; beste eleizbarrutiak zer egin dabenen barri zehatzik eta ziurrik ez daukat orain.

*Gaurkoz, bertakoak baino ez doguz aitatu; hurrengo baten, beharbada, zuk zeuk zein besteren batek emon ahal izango deusku Donostia, Baiona ta Iruñekoen barri.*

## Liturgiarako eleizliburuak euskeraz

*Goazen, ba, aurrera. Liturgian erabili behar direan liburu barrietatik, zenbat dagoz euskeratuta eta argitaraturik?*

Hainbat. Hara zeintzuk, banan-banan:

### *Mezatarakoen artean:*

1. *Mezaren egunerokoa* (1971): Altarako liburua; eguneroko mezetan behar direan otoitz eta abestiak dakaz, 74 orrialdetan, letra ederrean. Asko zabaldu da Bizkaiko eleizetan.

2. *Meza Santua* (1969): Mezaren Egunerokoaren zatirik behinenak eta, batzuek, herriaren erantzunak dakaz liburutxu honek. Argitalpen biko zirean: bata, euskeraz; bestea, euskeraz eta erderaz (48 orrialde). Liburutxu hauxe da, danen artean gehien zabaldu dana gure eleizetan; gaur, kristinaurik gehienak buruz ikasi dituzue euren erantzunak eta abestiak, baina, hori ta guzti be, beti dagoz kristinau barriak eta polito zabaltzen da orain be.

3. *Meza Liburu barria: Otoitzak*: Altarako Liburu nagusia eginda dago, euskeratuta, baina argitaratu barik; bien bitartean, domcka ta jaiegunetako otoitzak eskaintzen ditue liburuok.

4. *Irakurgaiak*: Domcka ta jaiegunetakoak, hiru urte edo ziklotan: A, B ta C. Bakotxak 300 orrialdetik gora ditu, eta dotore argitaratuta dagoz.

5. *Eukaristi-Otoitzak*: Gaur mezetan erabili daitekezan 4 Eukaristi-Otoitz nagusiak, letra haundiz, alkarturik mezetan erabilteko oso egokiak.

### *Sakramentuen eleizkizun-liburu edo Ritualak:*

1. *Umeen Bateoko eleizkizun-liburua* (1970): 134 orrialdeko Ritual barria. Aparteko orritxu batzuetan, eleizkizun honetarako kanta egoki batzuk be argitaratu zirean.

2. *Ezkontza*: Ritual osoaren laburpen eskurakoia.

3. *Hiletak* (1974): Hilien liturgiarako liburu ofiziala (188 orrialde). Berongaz batera, lagungarritzat, beste hiru liburutxu egin dira: lehenengoak, abesti guztien hitzak dakaz; bigarrenak, abestien doinuak, hirugarrenak, hauxe berau, baina organu ta abotsetarako atonduta.

4. *Penitentiako sakramentua* (1975): Ritual harri honen laburpena.

*Ez da, ez, gitxi egin dana; baina zer dago oraindino egiteko?*

Euskeratzeko, oso gauza gitxi; gehien-gehiena, ia dana, egin da dagoala esango nuke; baina, irarkolara eroan aurretik, ikutu asko emon behar izaten jako liburu bati. Horregaitik, eginda egon arren, argitaratzeko daukaguzan liburuok honecek dira:

1. *Altarako liburua*: haundia izango da, urte guztiko domeka ta astegunetan behar direan antifona, otoitz, prefazio, Euskaristi-Otoitz eta beste zer guztiakin.

2. *Geixoen oleazino edo igurtzia*.

3. *Astegunetako irakurgaiak*.

*Sakramentuetan beste liburu batzuk be falta dira. Esaterako, Abadegintza eta Sendotza...*

Bai. Liburuok eginda dagoz; baina ez dira liburu lez argitaratu. Dakizunez, sakramentuok gotzainak emoten ditu, ez edozein abadck; eta, horregaitik, ale gitxi behar direala-ta, multikopiaz baino ez dira egin.

### **Elcizliburuon zabalkundea ta indarra**

*Amaitu aurretik, beste zozertxo itandu gura deusut. Elcizliburuok asko ala gitxi zabaltzen dira? Ba ete dauke indarrrik gure herrian?*

Ezin crantzun biribilik emon. Hara: batzuk asko be asko zabaldu dira; esaterako, herriak berak eskuetan erabili behar

dituanak (*Meza Santua*): Bizkaian bakarrik, 100.000 liburutik gora egin eta zabaldu dira horretarikoak. Beste batzuk, oster, oso gitxi egin eta zabaldu dira: abadeak erabili behar dituanak; bakotxetik 350 hortxe-hortxe zabaltzen dira.

*Ez da, ba, askotzarik.*

Ez, ez. Baina liburuon indarra ez dator euron ugaritasunetik, euron erabiltetik baino. Gogoan izan behar dogu zetarako eginda dagozan, batez be: ez norberak irakurtzeko, eleizetan *entzuteko* baino. Eta igandero —batzuk aste barruan be sarri— berba bardinak edo antzerakoak entzuteak, herri-euskera dotorea ta argia behin eta barrero entzuteak, beste edozein liburuk baino indar gehiago dauka, duda barik, euskerearen bizirako be. Alderdi hau ezin dogu ahaztuta itxi.

*Besterik ezer?*

Ezer bakarrik? Hasi baino ez gara egin! Guk hemen, eleizliburuen artean, “liturgikoak” eta “ofizialak” baino ez doguz aita-tu.

## DERIOKO IKASTAROA<sup>6</sup>

Jaun-andreok:

Arratsalde on guztioi ta bakotxari!

Gure Ikastaro honek, hamar urte bete dituala-ta, bere burua Euskal Herriaren aurrean agirian aurkezteko gogoia dau, eta honetarakoxe alkartu gara gu orain hemen.

Nire egitckoa, mahaiburukoei eta ikastarokoei harrera egitea da, ahal danik eta laburren. Hasi gaitezana, ba.

Mahaiburuko jaun agurgarriok: agur t'erdi, eta eskerrik asko, Ikastaro honen deiari baietza emon eta gure artera etorri zareelako. Pozez betetrik hartzen zaituegu, eta gaurko zor barri hau euskaltzaletasun sutsuagoz ordaintzen ahaleginduko gara. Geure berbea emoten deutsuegu.

Aurrean doguzan jaun handiok, gure begiak ikusten dituenek, berbaz be danok batera aurkeztu nahi neukcz; baina gizona bera lez, gure berbea be mugatua ta neurtua da-ta, banan-banan aurkeztu beharko ditut:

---

<sup>6</sup> Derioko Udako Euskal Ikastaroak hamar urte bete ebazan urtean, Ekitaldi Akademikoan Karmelo Etxenagusiak egindako hitzaldia, Derion, 1980ko uztailaren 17an.

—Mahaiapuruko, Bizkaiko Eleizearen izenean, gure Gotzain Laguntzailea, Juan Mari Uriarte jauna: Bizkaiko semea, Seminario honetantxe ikasle ta irakasle izandakoa, euskaldun garbia, eta —gaur guretzat hain maitagarri dana— Ikastaro honetan ikasle izandakoa, gotzain egingo eben aurretxean, hain zuzen be. (Egin ez baeben, beharbada, orain Ikastaroko irakasleen artean izango genduan...). Ez dogu ahaztuko Ikastaro hau Bizkaiko Eleizearen babespean sortu, hazi ta zabaldu dala; eta, gaur be, eleiz erakundeen laguntzaz irauten dauala. Zeure etxean zagoz, geure arteko zaitugu: agur zuri!

—Eusko Jaurlaritza sortubarriaren izenean, Pedro Migel Etxenike jauna, Heziketa kontseilaria: Nafarroako Erronkari xar-manteko seme argia, txalogarri guretzat euskera ikasten egin dituan ahalegin handiakaitik: ongi etorria, Kontseilari jauna, eta eskerrik beroenak zuri eta Eusko Jaurlaritzari.

—Urteak eta jakituriak apal dutako apaiz maitagarri bat be badogu gaur gure artean: On Joxe Migel Barandiaran. Noren edo zeren izenean? Euskal Herriko "Ichen gizonarenean": Bizkaiko Santimamiñen eta Axlorren geure asaba izan genduan horren izenean? Ala Barandiaran jakituma euren artean hartu daben hainbeste Erakunderen izenean? Cuk uste, zeure izakerea, jakituria, Euskal Herriaren eta kristau fedearen alderako hainbeste nekez eta ikerlanez egindako lana nahikoa ta larregi dozula, inoren izenean barik zeure izenean etorteko, eta esker oncz ta maitasun handiz ezin hobeto hartua izateko.

—Bizkaiko Jaurerri honen Aldundiak be bere ordezkaria bialdu deusku: Amorrortu jauna. Bizkaikoa da Ikastaro hau, bizkaitarrak ikaslerik gehientsuenak, Euskadiko alde maitte honi laguntzeko beti ta edonon prest gagozanak. Agur, jauna; zeure etxean eta zeure herritarren artean zagoz. Eskerrik asko.

—Euskarearen barrutian Erakunde ofiziala dogun Euskaltzaindiak, bere ordezkari jauna bialdu deusku, Joxe Mari



Derioi, Udako Ikastaroaren hamargarren urteurrena, 1980ko uztailaren 17an. Mahaian, ezkerretik hasita Agustin Zumalabe, Javier Izagirre, Ander Manterola, Pedro Migel Etxenike, Joxemiel Barandiaran, Juan Jose Aspuru, Alberto Amorrortu eta Joxe Mari Satrustegi (hizlariaren atzean). Hizlari Karmelo Etxenagusia.

Satrustegi apetz nafarra: zeure eskuetan ixten dogu Euskaltzaindiaganako dogun lotsa, begirune, esker ona; zeure eskutan, euskeraren alde lan egiteko emoten dogun euskaldun berbea.

—Eusko Ikaskuntza Alkartearen ordezkari, hona hemen Zumalabe jauna: Ikastaro honen zuzendaria, Ander Manterola, zeuon arteko dogun ezkerro, ziur gagoz, aurreantzean be, crakunde bion hartuemonak eta alkarregazko lanak iraunkorrak eta aberatsak izango direana.

—Labayru Ikastegiak bere lehendakaria: Joan Jose Aspuru.

Eta orain, mahai inguruko jaun agurgarriok, berba bi, aurrean dozuezan ikasle-irakasleok aurkeztuteko:

— *Jente gaztea dozue*: ikasturte luze baten ondoren, uda barruan, hondartza ta mendi-gailurretako bakea alde batera itxi, eta lkastaroan hamabost egun gogor emoten dituenak, gazterik gazteenak dira danak, bihotzcz behinik behin.

— *Gazte langileak dira*: eskola-ordu luzeak gitxi dirala, gau-ordu zaharretan be hamaika lan egiten diharduenak, irakasleen crrukirik ezari eskerrak! “Seriyo” lan egitea, hauxe izan da —ziur gagoz— Ikastaro honi bere izen ona emon deutsana.

— Ikastaroko lagunok familia handi bat egiten dogu: geroago ta ugari ta zabalagoa, baina lokarri estuz lotua betiko.

— Eta, amaitzeko, beste gauza pozgarri bi: bata, ikasleon artean ia danak irakasleak edo irakasle bidcan dagozanak dirala: euskercak, datoza urtcetan, han-hor-hemen, maisu argi ugari izango ditu; bigarrena, gehienak andrazkoak dirala —neskatila ta neska gazte—: biharko ama euskaldunok, euskera onaz eta cuskal zaletasunaz ondo horniduak, gure etorkizun cuskaldunaren itxa-ropen pozgarri doguz.

Besterik ez. Eskerrik asko.



## IKASTAROKO OMENALDIA<sup>7</sup>

Jaun-andreak, adiskide maiteok:

Badakit, bai, zuek une honetan Hitza ta Aditza baino gurago dozuela txanpanaren bitsa (eta tuntunaren "saltsa" zaratatsua)... baina badakizue, esaera zaharra da, "Apczak azken hitza bere". Nire berba hau zuhurra ta laburra izango al da, guztion onerako.

1. "Enian uste erraiten zicla / aitunen semek gezurrik." Ez, ez neban uste; baina bai aitunen semek eta bai, batez be, Ikastaro honen zuzendariak guzurak, edo crdi-guzurak, esaten badakic. "Hogeigarren urtea be badok eta, Ikastaroari berari egingo jeutsagak aurton omenalditxu bat; eta, horren barruan, heuri, zaharrena heu haz eta." Zaharrena! Horra hor nire titulurik behinena gaur omenaldi hau hartzeko! Eta zuzendariak bere berbea ondo bete ez daualako, gaur hemen Karmelo gehiegi eta Ikastaroa gitxiegi aitatu direalako, nik gauzak euren lekuan ipini gura dodaz.

2. Ikastaro honek bere hamargarren urtea bete ebanean, pozik egin geuntsan zor jakon omenaldia eta, oker ez banago, neu

---

<sup>7</sup> Derioko Udako Euskal Ikastaroan, azken eguneko ekitaldi akademikoan, euskal kulturako pertsona nabarmenen bati omenaldia egin jako hainbat urtetan. Urte horretakoan Karmelo Etxenagusiarri egin jakon. Hori dala-ta, afalostean, berbalditxu hau egin eban berak, Derioko Seminarioan 1989ko uztailaren 14an.

be hizlarien artean izan nintzan. Hamargarrenean bai, eta hogeigarrenean ez? Ze ganora modu da hori? Horregaitik, eta ikastaroa danok osotzen dogun ezker, nik beroni egin gura neuskio omenealdia; baina, labur izateko, Ikastaroko lagun banaka bat baino ez dot hemen aitatuko:

2.1. Lehenengo ta behin, lehenengoa: ikastaroaren asmatzaila izan zan Julian Olazabalaga. Izen hori ezin guk ez ahaztu, ez baztertu. Julianek orain "Ilirugarren Adinckoen" ardurea daroanez, laster nozue, zuotariko zaharren hau, barriro be Julianen menpeko, zahar sarituen aldran sarturik.

2.2. Ikastaroko lehenengo emakumea be aiatatu daigun: Libe Altuna, bilbotarra, ia euskaldun barria, Merzedeko mojea. Ikastaro honetan ezer ugaritu bada, "Ebaren alaben askazia" ugaritu da, gaur hemen "neska gazte xarmanta" baino besterik ia ez dogu ikusten eta.

2.3. ZUZENDARI JAUNA. Jaun eta jabea. Buru, buruzagi, bide barrin zabaltzailca... Behin baino sarriago entzun izan deusagu, aurreko urteetan, Ikastaroko arazoez itota ebilela, bere obizko zemaia edo amenazu gogorra: "Ilaxe dot azkenengoa! Datorren urtean etxagok Ikastarorik!" Baina, urpetik urtenda, Ikastaroaren azken bazkarian bere boz sendo ta ilunaz "Intxauspeko alaba dendaria", mahaitik jagita, kantetan euskunean, bagenkian guk hurrengo Ikastaroa ezeze, baita Ikasturtcak, iker taldeak, aldizkari barriak, euskal bibliotekak, Labayru Ikastegia eta abar eta abar zuzendu ta aurrera eroateko prest egoana.

Baina filosofoak egia: gu geu eta geure ingurua garcala. Gure Anderrek be beti izan dau bere ondoan eta inguruan "mariachi" ugaria ta fidela, zintzoa ta behargina, zintzorik eta beharginik inon bada. Euron izenik esan beharrik ez daukat, danon gogobihotzetan dagoz eta. Baina, bat aitatzekotan, zahar sarituen arte-ra joan jakun bat aitatuko dot: Jesus Oleaga adiskidca, danon lagun ona.

2.4. Irakasleak. Hasieran bi baino izan ez baginan (Mikel eta biok), gero udagueneko perretxikuak lez ugaritu dira. Eurotariko gehienak Ikastaroko ikasle izanikoak doguz: gure ikaslerik argienak, asmoz eta jakitez eta ikasleci lan eragiteko gurariz ondo horniduak eurok. Eta, irakasleen talde honetan be, autor dagidan, “andre gazte xarmantak” dira gaur nagusi, lehengo abade zaharkolotuak eta beste gizonezko gogaikarriak albora bota ta gero. Ez dira irakasle bakarrik: aztertzailc, ikertzailc, idazle eta liburu barricn egile be badira. Batzuk agur esan badeuskuc be, badago horreen hutsunea nok bctc!

2.5. Baina Ikastaroa, batez be, zeuok zaree, Ikasleok. Zeuontzat asmatua ta sortua, zeuok zabaldu dozue bazter guzticitan Derioko Ikastaroaren izen ona. Udako egunik beroenetan, hondartzetatik urrun, ez lorik ez atsedenic —ez gara “gaztanbera” bizi!—, lanari “semper” ekinik, “Euskadiko gazteria berria” zarelata argi ta garbi erakutsi deuskuzue urtero urtero. Eta hau be autor dagidan: erruki handi bako irakasleok hainbat gauza ikasten dogula beti zuokandik.

3. Frantziako “matxinadearcnc” egun gogoangarricn ospatzen dogu gure jaia. Hau gogora ckartean, bildur naz, jai giro honetan, ez cte nozucn dantzara atara nahi izango, behinola Sempereko herrianc hango atso zaharrak bertako erretore handikotea plazara atara eben lez, “Nazioneko besta” ospatzeko. Jakizuc nik, lege zaharreko abade urtetsu honck, holakorik czin dodala cgin. Horren ordez, nahiago dot, Detxepare adiskidcagaz bat cginde, cuskera maitea ataratca “plazara..., dantzara..., mundura..., mundu guztira!”.

4. Amaitzeko (oraingoan bai), gauza bi:

4.1. Afari barruan gagoz eta, giro honetan euskal brindisa jatort gogora; “Nik zuri, zuk niri, agur cginaz alkarric...” zuek mai-

te nozue (argi dago hori); nik maite zaituet; zuek pozik zagoze, irakasle zahar hau be ez dago harako Atharratzeko “zitroi dora-tü” haren antzera, “bihotza kargatirik, begiak bustirik...”, poz-pozik baino.

4.2. Bigarren gauzea, behar-beharrezkoa, eskerrak emotea. Eskerrik asko dan-danoi: agintari, labayrutar, ikasle, irakasle, lagun eta laguntzaile guztioi. Eskerrik asko!

Eta, eskerrak emoteko, neure bihotzeko lagun maitari dei egingo deusat, Mikel Zarate ahaztuzinari. Hilgo zan aurretuan, elciz kanta barri batzutan hustu eban Mikclek bere abade-bihotz samura. Ikastaroak hainbeste zor deusan gure Mikelegaz bat eginda, danagaitik guztioi —gure Jaungoikoari danen aurretik— eskerrik beroenak emoteko, kanta ezagun bat crabiliko dogu: gure elcizetan eta kristinau batzarretan ia “goratzarre” bihurtu jakun kanta ederra:

Eskerrik asko, Jauna, bihotz-bihotzetik,  
Eskerrik asko, Jauna, orain eta beti.

## LEHENENGO EUSKAL MEZEA<sup>8</sup>

### Don Klaudiok San Antonen?

Behin baino gehiagotan entzun izan dot, eta noizbait irakurri be bai, lehenengo euskal mezea Bilbon emon zala, San Antongo parrokian, eta meza-emoilea Don Klaudio ospetsua izan zala. Erroman Kontzilio ostean meza-liburu barria erabilteko baimena emon aurretxean egin ei eban hori gure elorriotarrak, bere herri-tar batek cuskeraturiko meza-liburua erabiliz, Kerexetaren *Eguneroko Meza* hain zuzen be. Ez dakit ziur zein urtetan izango zan hori, baina argi dago azken Kontzilioa amaitu eta gero izango zala, ez lehenago.

### Orienteko mezea euskeraz

Ez naz ni hemen hori holan izan zan ala ez aztertzen eta ezta-baidatzen hasiko. Baina oraintsu aurkitu dot neure liburuen artean, galdutzat neukan aspaldiko idaztitxu apal bat: *Lagunarteko mezea orienteko kristiñauen craz* dauka izena, eta, izenburuak berak dinoskunez, euskeraz eginda dago, Bizkaiko euskeraz hatan be. Ez dino inon zein urtetan argitaratua izan zan (bai, horraitino, nok eta noiz emon eban argitaratzeko eleiz baimena: "Flavio-

---

<sup>8</sup> Zer, 1998ko martiaren 7an.

brigae, 18 januarii 1959, PAULUS, Episcopus Flaviobregensis"). Argitaratu Bilboko *Delegación Misional Diocesana* critxonak egin eban; honen zuzendaria, urte askotan, A. C. Omaetxbarria izan zan.

### **Abade "melkita" bat Derion**

Idaztitxu honek hainbat gomuta zahar ekarri eustazan burura. Derioko Seminarioan zan. Han baegoan orduan D. Francisco Ballester Viú eritxon abade bat, kanpotik etorria, latin eta griegozale amorratua. Ekialdeko Elcizea be ondo ezagutzen eta asko maite eban. Canera, beste baimen bat be baeukan gure gizon honek: Eguzkialdeko liturgia erabilteko baimena. "Rito melkita" eritxona erabilten eban (hau da, "rito bizantino", baina arabe hizkuntzaz), eta ia egunero holantxe emoten eban meza santua Derioko Seminarioan, bere ikaslectarikoren batek lagunduta. Arabez be sarritan emoten eban, han Derioko etxe baten beragaz eukazan gazte palestinar batzuentzat. Derioko Seminarioan gerkeraz (griegoz) emoten eban, ikasleak be hizkuntza honetan aurreratuak eukazalako, batez be, "Perficit" izneko kurso berezia egiten ebenak.

### **Eguzkialdeko mezea euskeratu**

Hatan horretan, Ballester horrek behin aitatu euskun berak bacukala baimena edozein hizkuntzatan mezea emoteko, bere ritoari jarraituz, jakina; eta euskera emoteko be prest egoala, norbaitek bere liturgiaren euskal itzulpena eskaintzen baetsan. Bai gero? Eta, ez dakit nik zelan, arlo horretan sartu ginan edo ginduezan, Derioko Seminarioan euskerazko ikasle ziran teologoak lagun nituala. Orduko gure euskerca (bai irakaslerena, bai ikaslerena) makala eta pobrea zan, baina besterik ezincan, borondaterik onenaz egin genduan itzulpen hori, eta Bilbo elcizbarrutiko Misino-Idazkaritzak argitaratu, gorago esan dodanez.

## Retolaza eta Ballester

Aldi hatan Arrazolan abade egoan J.A. Retolazari otu jakon bere parrokiari euskal meza hori emotea. Eta eskabide hau Ballester Viú-ri egin eutsanean, honek pozarren emon eban bere baie-tza.

Edozein hizkuntza menperatzeko berebiziko erreztasuna eukan gure Ballesterrek, eta euskerea ganoraz irakurtea eta meza-ren zati batzuk buruz ikastea be ez jakon horren gatx egin. Harri-tuta itxi ginduzan guztiok, Arrazolako eleizan, herri guztiaren aurrean, mezea euskeraz emoten ikusi genduan. Mezea euske-raz emotea egunero edonon ikusten dana da aspaldion, baina gogoan izan daigun, kristinau fedea gure herrian sartu zanetik, hemen meza-ren liturgia beti-beti latin zaharrea egiten zala, munduko beste herri askotan lez. Ba egozan, bai, meza santuaren erdal itzulpenak (euskerazkorik bat baino ez neban ezagutzen orduan: Orixe handiaren *Urte guziko Meza-Bezperak* critxona, gure Seminarioko azken urteetan hainbeste mecede egindako libu-ru bedekintua). Jaime Kerexetaren *Eguneroko Meza* gerotxuago agertu zan, 1962-63 urtean. Gure euskal herrietan, egia esan, gehientsuenak isilik egoten ziran meza denporan, edo-ta kantaren batzuk kantaten ziran; sarritan, meza-emoileak isilik meza emoten ziharduan bitartean, beste abade batek katekesi gairen bat azaltzen eutsan han batutako kristinau herriari.

## Arrazolan euskeraz Eguzkialdeko mezea

Harrigarria eta pozgarria izan jakun Ballester Viú jauna eguz-kialdeko mezea euskeraz emoten ikustea, non eta Anboto azpiko Arrazolan. Halakorik ez genduan egundo ikusi. (Esan daigun, orraitino, erderaz horren antzeko mezak lantzean behin emoten zirala, batez be kristinauen Batasuna eskatzeko egiten zan zor-tziurrenean, urtarrilean). Beste euskal gai askotan lez, honetan be aurrelari izan genduan J.A. Retolaza, *Kili-kili*-ren sortzaile ta

zabaltzaile aspertu ezina. Bakotxari berea zor jako: “nori berea, hori da zuzenbidea”.

Vatikanoko II. Kontzilioak handik urte gitxira emon eban mezea herri bakotxari bere hizkuntzan esateko baimena. Baina Kontzilio horren aurretik, Euskal Herrian, ez dakit beste inon emon zanik euskeraz mezea, Arrazolan baino lehenago. Ballester jaunak eta J.A. Retolazak ondo irabazita dauke aipamen apal hau aldizkari honetan.

Gure itzulpen honek agiri-agirian ditu bere akatsak, ezjakinaren ume erkinak; baina beronen bidez emon ahal izan zan lehenengo meza hori cuskeraz Arrazola herritxu zoragarrian. Euskal liturgiaren artxibuctan zor jakon leku bat izan begi euskerazko itzulpen apal honek, baztertxu batean behinik behin.

(Oharra: Euskerazko lehenengo mezea itzulpen honen bidez emon zala, hori gauza ziurra da. Baina Arrazolan emondako horixe izan zala lehenengoa, hori beste gauza bat da: Oiz azpiko Geria parrokia txikian emon ei eban Ballester-ek lehenengo meza hori cuskeraz. Halan dala esan deuste, behintzat, Geriako seme dan Sabin Barruetabeña pasiotarrak eta orduan Geriako parrokoa zan Bittor Ajuria abadeak.)



## DON IÑAZIO ZAMALLOA ABADeari<sup>9</sup>

Zure ondoan gaur batu gara  
Iñazio, otoizlari,  
abade zintzo zaran horregaz  
herriko abade ugari.  
Zeugaz batera "Eskerrik asko!"  
emoteko Jainkoari,  
Berau dogu-ta grazi-iturri,  
Berau neke-lancn sari.

Bibliak dino: "Bai gauza ederra  
Aron zaharraren bizarra!"  
ederragoa, anai maiteok,  
gaur eiten dogun batzarra.  
Edceak dino erdian dala  
Jesus Abade bakarra...  
Hau sinisteak sutan jarten dau  
poztasunaren txingarra.

---

<sup>9</sup> Iurretako seme argia dan D. Iñazio Zamalloa abadeari jarritako bertsoak, beronen urre-ezteguetan, 1984.

Berrogeta hamar urte badira  
abade zinala egin,  
ordutik hona zenbat apaiz-lan,  
zenbat neke ta atsegin!  
Aurrerantzean, Jainkoa lagun,  
zintzo jokatuten ekin,  
noz bait Jaun onak, bere etxean,  
batuko al gaitu alkarrekin!

# ADISKIDEEI AZKEN AGURRA<sup>10</sup>

(Doimua: "Txoriñua, norat hua...?")

1. Ijorretako txoria  
hainbat urtez kaiolan,  
ondo bai, baina katigu...  
zelan bizi lei holan?  
Askatasun eguzkia  
izan begi Erroman!  
Bestela, ostatu ona  
badozu gure etxolan.
2. Xederak eta sareak  
ctenaz, xoriñoa  
urrutirako bidea  
harturikan, badoa...  
Bere pozak, horraitino,  
pena bat badaroa:  
lagunak, adiskideak  
utzi beharrekoa!

---

<sup>10</sup> Erromara joaterakoan, "urte sabatikoa" egiten, 1989-07-19.

3. Gorputzez urruti baina  
beti hurbil bihotzez:  
xoriñoak badakic  
hegaz egiten aidez...  
Alkar maite dogunontzat  
ez dago urrinik, ez!  
Bihotzak beti loturik  
doguz urczko katez!

# EUSKAL LITERATURA ETA IDAZLEAK

## BIZKAIERAZKO ELERTI (LITERATURAREN) ATZE EDO EDESTI LABURRA<sup>1</sup>

*Gure asmoa:* Euskerea (bizkaierea, batez bc) hobeto ikasteko, gure euskal idazleak sakonago ezagutu.

### BIBLIOGRAFIA

1. L. Michelena: *Historia de la Literatura Vasca*, Ed. Mino-tauro, Madrid, 1960.

2. L. Villasante: *Historia de la Literatura Vasca*, Ed. Sendoa, Bilbao, 1961.

(Oso onak dira biok; bigarrena, luzeagoa ta zehatzagoa, baina, zoritxarrez, ez ditu aztertzen hildako idazleak baino; gaur bizi direanak ez; Mitxelenarenak, ostera, labur-labur bada bc, bada- kar zertxobait gaurko literaturari buruz be. Eretxietan, alkarren antz-antzekoak dira biak.)

3. Nikolas Ormaetxea "Orixc": *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* (cuskeraz egina ta *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratua, 1927garren urtean).

---

<sup>1</sup> Lan honek ez dino noizkoa dan, baina, beronen bibliografiak erakusten deuskunez, 1965-1969 urteen artekoa da. Derioko Seminarioan bere ikasleei emondako gaien txostena dira hurrengo orrialdcok. Euskal gaiak maila askotan gazte-raz emon eta argitaratzen baziran be, cuskeraz irakasten zituan gure egileak.

4. S. Onaindia: *Milla Euskal Olerki Eder*, Larrea-Amorebieta, 1954 (gure olerkirik onenen Lorategia dozu hori; behar-beharrezko liburua; horrezaz ganera, sarreratxuetan hainbat gauza jakin-garri aurkituko dozuz, idazle baktxaren lanen barri t.a.).

5. N. de Cortázar: *Cien autores vascos*, Col. Auñamendi, Donostia, 1966 (izenorde horrek Nikolas Alzola Gercediaga estaltzen deusku; liburu honetan ehun euskal idazleren barri emoten deusku, batez be idazle ixil eta apalen barri).

6. K. Etxenagusia: *Euskal Idazleen Lorategia-Bizkaieraz*, Derioko Seminarioa, 1965, polikopiaz.

7. K. Etxenagusia: *Euskal Idazleen Lorategia (itz lauz) II. Gipuzkeraz*, Derioko Seminarioa, 1967, polikopiaz.

N.B.: Cai baktxari jagokozan jakin-garri zehatzagoak, Mitxelena ta Villasanteren liburuak eskaintzen deuskuezan monografietan bilatu zcinkez.

*Sigla batzuk*: honeixek erabiliko doguz idazlan honetan:

LM: L. Mitxelena, *Historia de la Literatura Vasca*.

LV: L. Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*.

O: Orixe, *Euskal Literaturaren Atze edo Edesti Laburra*.

MEOE: S. Onaindia, *Milla Euskal Olerki Eder*.

LB: K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia — Bizkaieraz*.

LC: K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia — Gipuzkeraz (II)*.

## I. SARRERA

### 1. EUSKEREAREN EZKUTUAK EDO MISTERIOAK

Izan be, eurok bultz eginda, hamaika jakitunek (erbestekoak gehienak) burua hausi dabe, erantzun egoki bat bilatu gurarik; baina oraindino behintzat, ez dabe argitasun haundirik lortu. Aitatu daiguzan hemen, beste ezer baino lehenago, jakitun ba-

tzuen izenak, merezidu be ba dabc-ta: erbestekoen artean, Humboldt, Luis Luziano Bonaparte printzipea, Schuchardt, Karl Bouda, René Lafon, A. Tovar, Uhlenbeck, Meyer-Lübke, R. Menéndez Pidal, G. Bähr, J. Vinson, H. Cavel, Van Eys, Meillet, t.a.; etxekoen artean, barriz, Larramendi, Astarloa, R.M. de Azkue, I.M. Etxaide, J. Urkixo, S. Altube, Pierre Lhande, Arturo Campión, Lacombe, Luis Mitxelena, Caro Baroja, J.M. de Barandiaran...

Egia osoa esatekotan, hauxe be autortu behar: hainbeste gizon jakintsu gure hizkuntza zaharra aztertzen ikusteak, halako harrokeritxu bat be sortu dau euskaldunon bihotzetan: “Bagara, antza, zerbaiten jabe!” Ezin ukatu, ostera, geu —euskaldunok— nagiak eta zabarrak izan ez garcanik (baten batzuk alde batera itxi ezkerre), gure hizkuntza sakon ezagutzen. Baina, hau be esan behar: izan cte dogu horretarako erarik?

Hara ba hemen, labur bada be, misterio batzuk:

### 1.1. Noztikoa cte dogu geure hizkuntza?

Zaharra be zabarra danik ez dau gaur inork ukatzen: “...lengua, que podemos considerar, sin ninguna exageración, como el resto único de un continente lingüístico, de extensión desconocida, que fue sumergido por las olas de los invasores de lengua indo-europea, hace ya más de tres mil años... Monumento único para la historia de nuestra Península, y aun de todo el occidente de Europa”. (A. Tovar, *La lengua vasca*, San Sebastian, 1954, 7. or.). Hauxe da, ba, gaur garbi esan geinkeana: hizkuntza indo-europarrak baino lehenagokoa dogula, gitxienez be, gure euskera zahar hau; hortik aurreragokorik, ezin jakin gauza garbirik. (Paradisuban Jangoikoak Adani erakutsitako hizkuntza dala; edo ta Babelgo nahaste haretatik datorrena, Tubalck ekarritakoa, ta holako zerak... zera baino ez dira; ipuin hutsak, edo burubero baten ameseta gozo ustelak; jakintza zehatz hotzaren aurrean, mututu egin behar holako aho beroak.)

## 1.2. Euskerearen senideak

Munduan, jakina, hizkuntza asko eta asko erabili izan dira, eta gaur egunean be erabilten dira. Itxura baten hain desbardinak izan arren, jakintsuek, gauzak aztertu eta aztertu, hizkuntzarik gehienen artean halako senidetasun batzuk (handiagoak edo txikiagoak, estuagoak edo nasaiagoak) aurkitu dabez. Euskereari, ostera, ezin deitsoe senide ezagunik aurkitu: hor dago berau, beti bakarti, behinolako Melkisedek haren antzeko edo. Hau dala-ta, gaur askok *hizkuntza bakartia* (lengua isla) deitzen deitsoe.

Euskerearen senidetasun honen marapilo gogor hau askatuteko, hamaikatxu hipotesi asmau dira, ba! Baina, horixe baino ez dira izan: lanerako hipotesi batzuk; eta gaur harro-harro agiri dana, biharko barri batek lurperatzen dau... "El vasco ha sido comparado con un crecido número de lenguas de todas las partes del mundo, por obra de aficionados que se han limitado a recoger, sin seriedad ni reglas, un puñado de curiosidades. Pero hay dos grupos de lenguas cuyo parentesco con la vasca han intentado demostrar lingüistas de gran autoridad. Se trata, en primer lugar, de las lenguas hamito-semíticas (acadio, hebreo, árabe, egipcio antiguo y copto, líbico antiguo y dialectos bereberes modernos, etc.) y, en segundo, de las lenguas caucásicas". (L. Michelena, *Sobre el pasado de la Lengua Vasca*, Colección Auñamendi, 36 zk., 168 or.).

Aitatu daiguzan hipotesi batzuk:

1. *Euskal iberismua* (Humboldt, Larramendi, Astarloa, Cejador, Mz. Pidal...): Euskereak ba ei dauka zer ikusirik Espainian antxinan egin zan iberiku haregaz. Aldikada baten hipotesi honek indar haundia izan eban; baina gaur iberiku-hizkuntzaren testu zaharrak irakurten ikasi dabe jakitunek, eta ez ci dauke euskerearen antz handirik! (Cfr. L. Michelena, o.c., 168-171 or., 6.5. zk.); halan da guzti be, honetaraxe amaituten dau Mitxelena: "Sea lo que fuere, el hecho es que el ibérico constituye hoy por hoy



el campo más prometedor, por sus mismas dificultades y hasta contradicciones, para quien desee penetrar en la prehistoria de la lengua vasca. No es posible, con todo, predecir qué nos van a revelar esos textos el día que su estudio, apoyado en la aparición de nuevos materiales, esté más adelantado”, o.c., 171 or.)

2. *Asiako hizkuntzak*: uralo-altaico, paleosiberiano, sánscrito, sumerio, acádico, japonés, chino, etc... Baina, batez be, Kaukaso inguruko hizkuntzak: “Hoy podemos afirmar, y ello va siendo una verdad de dominio común, que en rasgos fundamentales y típicos, y en muchos elementos de léxico, el vasco se asemeja a lenguas del complejo grupo caucásico, lo cual supone un parentesco remotísimo en el tiempo, que nos traslada a varios milenios atrás” (A. Tovar, *La lengua vasca*, San Sebastian, 1954, 25-27 or.). Gure Mitxelena, ostera, gai hau sakon aztertu ondoren (cfr. o.c., 174-196 or.) senidetan hau ilun be ilun ikusten dau: “... es indiscutible que la hipótesis del parentesco lingüístico vasco-caucásico se ha mostrado hasta ahora singularmente infructífera. Los enigmas de la prehistoria del vasco y de las lenguas caucásicas, que no son pocos ni de pequeña entidad, no han recibido luz alguna de los ensayos comparativos hasta ahora realizados. Y mientras esta situación continúe, es decir, en tanto que la hipótesis siga siendo ineficaz y estéril, no podrá pasar del estado de creencia o, a lo sumo, de opinión personal, muy respetable por otra parte...” (o.c., 194-5 or., 6.17 zk.).

3. *Ipar-Afrikako hizkuntza zaharrak* (Kabyliarrena, berebere, touareg, egipzio libiko, etiope...): “La relación con Africa es evidente en el vasco, pero no ya en la íntima estructura de la lengua, sino sobre todo en el léxico” (A. Tovar, o.c., 25-27 or.). Baina, barriri be, Mitxelena beste eretxi batekoa agertzen jaku: “La hipótesis de una relación genética entre el vasco y las lenguas hamito-semíticas tiene algún fundamento objetivo, pero es —o era, cuando gozaba de cierto favor— más que nada el corolario que difícilmente puede ser cierto de premisas que nacieron del error y de la confusión” (o.c., 171 or., 6.6 zk.).

4. *Ameriketako hizkuntza zahar batzuk*: quechua (Peru, Ekuador), katio (Kolonbia), narru gorridunenak... (USA)...

5. *Europakoak*: fines, hungaro, etrusco, latin...

Ez dago, bada, gauza garbirik: "en resumen, la filiación de la lengua vasca sigue siendo un misterio, como es también un misterio en el caso de otras muchas lenguas, vivas o muertas" (L. Michelena, o.c., 196 or.). Eta, noz arte iluntasun hau? Batek badakil: "...puede darse por seguro que la búsqueda continuará incansable en el futuro sin dejarse desanimar por lo escaso de las cosechas anteriores. Ojalá que la fortuna, amiga siempre de los audaces y de los perseverantes, se incline alguna vez a sonreirnos." (Ibid., 196 or.).

Azken oharra: dana dala, ezin ukatu euskercak badituuala gaur hortik eta hemendik bereganatutako berba asko (batez be, latinetik, zuzen-zuzenean, edo inguruko erromantze-hizkuntzen bidez), ta baita gramatika-arau edo lege batzuk be. Beste edozein hizkuntzak lez, euskereak be lapurretan eginaz gorde dau bere bizia, eta izan dau bere aldatzea edo eboluzinoa (agiri danez, euskerearen aldaketa honek beste hizkuntza askotan baino astiroago egin dira; baina, bizirik dagoana, aldatuz doa, ta euskerea be bai!)

### 1.3. Euskerearen batasuna eta euskalkiak (dialektoak)

Ezin inork ukatu, "euskaldunok" (Araba, Gipuzkoa, Nafarroa ta Bizkaian bizi gareanak) eta "eskualdunak" (Lapurdi, Baxenabarre ta Zuberoakoak) batasun eta senidetasun baten kontzientziarik euki ez dogunik eta ez daukagunik; horretarako, gure lokaririk sendocna ta sakonena, hizkuntzarena izan da (Euskera, Eskuara, Euskara).

Baina, euskerearen barruan hain nabarmen agiri diran desberdintasun handiak ikusirik, esan ete geinke gure hizkuntzak batasun bat daukanik? Baietz dinoe gaur, aho batez, hizkuntzalariak: "la innegable unicidad de la lengua" (A. Tovar, o.c., 7 or.) (Cfr. LV, 25

zk., 42 or.). Desbardintasun honeek ez gaitue harritu behar: munduan diran hizkuntza guztiak horretaraxe bizi izan dira, harik eta eskola ta liburuen bitartez batasun batera heldu arte.

Luis Luziano Bonaparte Printzipea izan dogu euskal dialektok lehenengo sakon aztertu dituana (bere aurretiko euskal idazleak baekien euskalki honcen barri: Larramendi, Kardaberaz, Mogel, Añibarro...: cfr. K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia II - Gipuzkeraz*, 4-5, 16 or.). Gero, Azkuek, batez be, jorratu eban arlo hau.

Bonapartek euskal dialektocn mapa eder bat itxi euskun, gaur be balio haundikoa: "nos ha legado una clasificación muy cómoda, además de razonable" (L. Michelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 26 or.). Honecexek ei dira *euskerearen dialektok*:

1. Vizcaino (B); 2. Guipuzcoano (G); 3. Alto-navarro septentrional (AN); 4. Alto-navarro meridional (gaur galdua); 5. Labortano (L); 6. Suletino (S); 7. Bajo-navarro oriental (BN); 8. Bajo-navarro occidental (BN).

Zortzi euskalkiok hiru taldetan bananduten dabez: a) Bizkaiakoa; c) Zuberokoa ta Benaparroako biak; b) enparauak (erdikokak). Azkuek Erronkariko euskerea be dialektotzat eukan (R): han be ia zeharo hilda daukagu gaur, baina barriro biztu gura dabe.

Euskalki bakotxaren barruan desbardintasun asko dagoz, batez be ahozko hizkeran; baina literaturaren barruan 4 dialektok nabarmendu dira: bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera eta Zuberokoa.

Euskalkiok buruhauste asko emon izan deutsie hizkuntzalariei: "La personalidad de estos dialectos no sabemos hasta qué punto es consecuencia de la diferenciación de un posible "vasco común", o bien si por el contrario los dialectos actuales continúan lenguas originariamente afines, però distintas" (A. Tovar, o.c., 87 or.).

G. Lacombeck, batez be, euskal dialektok bi baino ez ebazan aintzat hartzen: alde batetik, bizkaiera; bestetik, beste danak. Mitxelena, ostera, bizkaierearen nortasuna autortu arren, hauxe dino: "el vizcaíno es un dialecto vasco más entre los otros, aunque

tan individualizado como el primero, y el valor de su testimonio para la reconstrucción de etapas prehistóricas de la lengua tiene todas las ventajas, y también los inconvenientes, de su posición marginal, en estrecho contacto con el romance desde hace muchos siglos.” (*Sobre el pasado de la lengua vasca*, 65, 58-65 or.). (Ikusi baita A. Tovar, o.c., 87 or. osoa).

Beste alderdi batetik begiratuta be, euskalkiok aztertu izan dira urteotan: literatura idatzian behar dogun euskal batasuna zelan lortu? Zein dialekto aukeratu horretarako? (Cfr. Antonio Arruc, “Euskeraren batasuna”, LG, 85-87 or.: jakingarria).

#### 1.4. Euskerearen nondik norainokoa (zabalerea)

Hau be ez dago hain garbi: “El vascuence... es una lengua de pasado muy mal conocido” (LM, 27 or.). Dana dala, esan daigun zcozer:

1.4.1. Historia aurretiko barririk ez dakigu, ta ezin jakin be. Esate baterako: cuskeraz egiten etc eben Santimamiñeko haxpccetan bizi izan zirean antxinako gizon hareek? Balciteke holan izatea, baina curak ez deuskuc ezer esan, czta esango be! Baina, gauza garbirik ez badago be, badira hipotesi batzuk, euskereari aldi haretan zabalera haundia cmon gura deutoenak:

a) Humboldték eta beste askok (gure Larramendi be euron artean...) zera dinoskue: Espainia guztian zabaldua egon zala; euskera = ibérico. Gauza harrigarria bada be, euskal usaineko izen asko agiri dira gaur be Espainia guztiko toponimian!

b) E. Lewyk, osterá, gehiágo dino: Atlantiko-aldeko Europa osoan euskera egiten zala, hizkuntza indoeuroparrak etorri aurretik, behinik behin.

1.4.2. Historiaren argiak hauxe erakusten deusku: gaur daukan baino zabalera handiágoa baeukala euki, baina ez goiko horreek dinoen bestekoa.

a) *Erromatarren garaian*: Iparraldeak, Akitaniako inskripzio batzuek erakusten deuskenez ('Andere', 'Cison', 'Nescato' t.a. agiri dira izen horreen artean), Akitanian eta Auch deritxon alderdian be cuskera egiten zan, antza... "La intensidad de la influencia romana fue muy variable según las comarcas. La principal defensa de la lengua estuvo sin duda no en la fuerza, sino en la misma debilidad e insignificancia militar y económica del país y de sus gentes. El retraso cultural, en contraste con lo que ocurrió en zonas más progresivas, hizo mucho menos seductora la atracción del latín. Y el género de vida primitiva y rústica que en él se conocía no era adecuado para provocar la inmigración de gentes de habla latina acostumbrados a otros modos de existencia" (L. Michelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, 82-83 or.).

b) *Iparraldeko barbaroak* (bisigodo ta frankoak) etorri ziran, cuskaldunak —cz dakigu ziur zergaitik— kontra jarri jakezan, eta holan cuskereak be indar barria hartu cban.

c) *Erdi Aroan* (Edad Media): hegoaldean, Errioxan eta Burgoiko lurraldeetan be erabili izan zan cuskerea. Hori argi dago: XIgarren mendean, San Millango eskuizkribuak (Manuscriptum Aemiliense) cuskal glosa bi damoskuz, erderazkoa azal duteko (gogoan izan, horixe dogula, hain zuzen be, gaztelaniazko lehenengo agiria!); Gonzalo de Berceoek berak be agiri-agirian dauka euskeraz backiala... (Cfr. LV, 13 zk.). Nork eta Menéndez Pidak heste hau be badinosku: "el castellano no es otra cosa que un romance hablado por labios vascos", "todo indica que en los siglos oscuros de la Edad Media los vascos entraron, abandonando su pasividad anterior, en un período de expansión, entregándose a la penetración de las comarcas vecinas, período que no deja de ser comparable mutatis mutandis con el que vuelve a registrarse a finales del siglo XV" (L. Mitxelena, o.c., 84 or.)

Naparroak berak be; Erdi Aroaren azkenaldian, 640 herri cukazan; eurotatik

%92 euskaldun huts-hutsak ziran (Jabier, Lumbier, Zangosa, t.a. be bai!)

%3,8 bietarikoak (bilingüismo): euron artean, Iruñe (Pamplona)

%4,2 zeharo ordaldunduta egozan ordurako, Erribera aldean batez be.

d) *Harrezkero*, zoritxarrez, atzerakada handiak egin ditu euskereak hegoaldeetik (iparraldean ez gauza haundirik), batez be Naparroan eta Araban (XVII-XIXgarren gizaldietan). Gure egunotan be, azkenengo gerraostean, ez da gitxi galdu ta makaldu —bai inguruetatik, bai barru-barrutik— gure artean asaba zaharren hizkuntza. Agiri-agirian daukagun jazoera negargarria dogu hau.

(Gai honetarako bibliografia apur bat: a) arin ikustekotan: LV, 14-16 zk.; b) astiro ta sakonago: *Geografía Histórica de la Lengua Vasca*, ale 2, Col. Auñamendi, 13-14 zk.; I. Mitxelena, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Col. Auñamendi, 36 zk.).

## 2. EUSKALDUNAK ETA EUSKEREAK

Gure hizkuntza hau dala-ta, era askotara jokatu dogu euskaldunok (lehengoak eta gaurkook).

2.1. Askok eta askok (gchienak): hizkuntza hau crakutsi cutschela-ta, berau erabili dabe euren hartuemonetan; baina beronen aberastasun, arau (lege), bizi, gramatika, elerti ta heste jakingarri asko ezagutu barik. Gogoan izan daigun, euskercak ez dala izan egungo Euskal Herrian hizkuntza ofizial bat, ez eskoletan, ez elcizan, ez legeetan, ez inon (ezta Naparroako Erregenen aldi hartan be!) Gaur bizirik badirau, herri-herriari zor deuto; herriko seme-alaba apalok ekarri deuskue, gizaldiz gizaldi. Geure egunotan be, ez ete doguz herri-herrian aurkituten euskerearen maisurik onenak? Holan üste eban gure Juan Antonio Moglek: Peru Abarka baserritarra, eskolarik bakoa, horixe da euskera-maisua, ta ez Madrilen ikasi dauen "Maisu" Juan Barberua. (Ikusi LB, 10. or.).

2.2. Batek baino gehiagok (Ichen eta orain; bai goikoak, eta bai behekoak): hizkera hau iluna ta urria dala-ta, "bizitzarako" ta "kulturarako" (=dirua irabazteko) gauza ez dala-ta, baztertu egin ohi dabe; batzuctan, hori baino txarragoa ta negargarriagoa dana be bai: hiltan lagundu! Hauze zan, esate baterako, M. Unamunoren eretxia. Autortu beharra dago, euskal burujantziak (kulturdunak) ez dabela, gehientsuenetan, euskerea aintzat hartu, ta beratu landuten be ez dirala ahalegindu: eleizgizonak, osagileak, maisuak, praile-mojak, agintariak, t.a. (Ikusi, *Gipuzkerako Lortegia*, 2.4. 14-16, 18, 45, 64, 72, 104-105, 112-113... or.) Hori ikusita, herriak be zer egingo dau ba?

2.3. Euskerea maitatu, ta maitatu be, sasi-jainko txiki bat egiteraino, gero! "todos los vascos han sentido un orgullo desmedido por su idioma" (LM, 15 or.). Danak ez badira be, hainbat doguz, euskerea goratu ta goratu diharduenak: berbaz behintzat! Maitaleok talde bitan banandu geinkez, gitxi gorabehera: apologistak eta erromantikoak (burrukalariak edo aldezlariak, eta bihotz-bigundunak).

2.3.1. *Apologistak*: ugari be ugari izan doguz honetarikook gure artean (eta gaur be ez dira falta!). Erbesteko batzuk be lagundu deuskue arlo honetan. Apologistok euskerearen alde berba ugari (ta, batzuctan, lan asko) egin dabe, maitetasunik handienagaz egin be; baina, zoritxarrez, askok eta askok berbaz baino ez; eta berbok eukok be erderaz (lan horretan egindako ahaleginetatik, lautik bat bakarrik euskeraz egin izan balebe, bestelako mescedea euskerearentzat! Baina, euskerea zapalduta egoala-ta, hizkuntza itsusizat eukela-ta, horra nun sortzen diran gure burrukalariok, euskerearen pitxiak eta edertasun izkutu harrigarriak agirian ipini guran). Hamaika eztabaida sutsu! Hamaika burruka gogor, berba gordin, euskera-goratze bihotzoko!

Egia esan, apologistok ezin dabe, arerioen aurrean, gure hizkuntza honen frutu handirik agertu, egon be ez dago-ta (liburuetan, esan gura dot). Zer egin, orduan? Euskerearen barru-barru-

ko ondasunak aztertu ta agertuko dituez: antxina-antxinakoa dala (Paradisukoa; Babelgo zeretik sortua, gitxicenez be; Tubalek eka-rritakoa; Aitorren hizkuntz zaharra; Espainiako zaharrena ta lehenengoa, t.a.); garbia, argia, biraorik bakoa (!), ederra, zorgarria, txukuna, logikoa, soinu gozokoa, filosofiarako oso egokia, aberatsa... ta nik dakit ba zenbat holako eta antzeko.

Hor dozu jokaera horren ejenplu eder bat, "Aitorren hizkuntz zaharra" deritxon kantan: ikusi *Abestiak*, Edic. Guerediaga, 44 zk.; MEOE, 513 zk., Etxeitaren "Bizi bedi euskera", ta holako asko ta asko.

Ezin hemen, ezelan be, apologista guztien izcnik emon; batzuk baino ez ditugu aitatu:

Aita Manuel Larramendi, S.I. (Cfr. LV, 133, 138 zk.): txalagarria benetan gizon jakitun hau, euskercaren alde egin eban lan handiagaitik. Beronek sortu eban, gure artean, lotan egoan euskaltzaletasuna. Polcmista gogorra berau; langilea be aspertuezina. Baina, euskerea nondik eta zelan aldeztuko ta goratuko beti, inon diran gauzarik harrigarrienak esan ebazan, oinarri sendorik bakoak sarri. Ganera, lanik gehiena erderaz egin euskun; baekian, bai, euskeraz edertotxu idazten ta berba egiten, baina erdaldunen aurka ebilen-eta, erderaz egin bchar. Euskera zelangoa zan Larramendirentzat? Ikusi: "ezta munduban gure Euskera bezañ izkuntza itsaskorrigo, eztiago, gozoagorik... Oraindik eztazaute [ez dabe ezagutzen] euskaldunak euskera duela gauzarik onena ta onragarriena?... nastegabea, garbiena, piñena ta nobleena..." (Beste holango zer bait: *Gipuzkerazko Lorategia*, III, 1-3 or.)

Pedro Pablo Astarloa, abadea, durangoarra: gizon ospetsua bere sasoiari, gizon jakituntzat euken orduan danak; gaur, oster, haren eretxirik gehienak amcseta barregarri lez agertzen jakuz (parkagarri be bai, aldi haretan ez egoalako gaurko jakintzarik). Filosofia ta Logikearen aldetik aztertu eban honck euskerea, ta inon diran aberastasun harrigarrienak aurkitu be bai! Beste askok jarraitu eutsoen gero "maixu" handi honi. (Aro honi "época paradisiaca del euskera" deitu deutso baten batek).



2.3.2. *Erromantikoak*: Euskaldunok, azalez behintzat, hotzak eta bihotzgorrak-edo agertzen ei gara sarri askotan; baina, azal horren azpian, ez ete daroagu, gero, bihotz bigun-samur bat, eta ez ete gara erromantiko negarti batzuk? Euskerea dala-ta, behinik behin, zenbat bertso eder, zenbat aiene, negar garratz eta itxaropen gozo gure literaturan! Hemen be ezin danak aitatu. Begira bat edo beste:

Bernat Detxepare (gure lehenengo cuskal idazlea): cfr. MEOE, 140, 141 zk.

*“Heuskara,  
Ezein ere lengoajerik,  
ez franzeza ez berzerik,  
orai ezta erideiten  
heuskararen parerik.”*

(Bizkaieraz: Euskera, inungo hizkuntzarik, ez frantsesa ez besterik, orain ezta idoroten —aurkitzen—, euskeraren parekorik)

Ta beronenak dozuz halako dei sutsu hareek: “Heuskara, jalgia [urten] adi kanpora, plazara, mundura, dantzara”. Gure lehenengo euskal idazlea, cuskaltzale amorratu lez agertzen da.

Felipe Arrese-Beitia otxandiotarrak: MEOE, 237 zk. (ta beste asko)

Pello Mari Otaño bertsolari bikainak: MEOE, 341 zk.

B. Mokoroa: MEOE, 679 zk.

Xabier Lizardi olerkari sakonak: MEOE, 777 zk. (Ikusi gein-keanez, erromantiko askok, cuskera maitatu ta txalotu ezeze, erabili be egin dabel)

2.4. Euskerca maitatu... ta landu, erabiliaz!: fedea, baina obraduna. Hauxe da benetako maitasuna, idazle askok bai obraz eta bai berbaz ondo erakutsi deuskuena.

Hara hemen Axular handiaren berba ederrok:

“Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez, edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain [hareek baizen] aberats eta konplitu izanen zen [izango zan] euskara ere, eta baldin hala ez bada, euskaldunak berek dute falta eta ez euskarak.” (*Gero*, hitzaurrea, Juan Flors, 55 or.). Cfr. LM, 16 or.

Detxeparek berak be argi ikusi eban hori, bere lehenengo olerkian:

*“Bertzeak oro [beste guztiak] igan dira bere goihen gradora;  
orai huru [ha, euskera] iganen da [igongo da] berze ororen gainera;  
Heuskara,  
oraidano [oraindino] egon bahiz inprimitu bagerik [barik]  
hi engoitik [gaurtik aurrera] ebiliren [ibiliko haz] mundu guzieta-  
rik”* (MEOE, 140 zk.)

Bide honetatik jo dabe beste euskal idazle guztiak be: crabili-  
liaz eta lauduz, geroago ta bigunago bihurtu deuskue artzain,  
baserritar eta arrantzaleen hizkuntza zahar gozoa. Inongo ta eze-  
lango laguntasun ofizial barik egiteko, hain gitxi ete da, gero, eus-  
kal literaturan egin dana? Nork ezagutzen dau, gure artean,  
literatura horren laurenik?

Urteokaz, beharbada, egundo baino gordinago sentitzen da,  
batez be gazte batzuen artean, euskerea kultura mailara jaso  
beharra; Lizardiren deiarri erantzunaz, euskerea be “edozetarako”  
egin behar dogu, ez hiru-lau ipuin polit esateko bakarrik.

*“Zoritxarrez (baina, zergaitik zoritxarrez?), baserria ez  
da euskal geroaren zuzendari izango. Baserrian bizi nahi  
badezagu, gureak egin du. Euskal-atxa, gizaldiak zear, mendi-  
aizez mutildu bada, gaurgero ez dezakegu mendi-gora jo. Etor-  
kizunaren euskerak ibarretan bear du; zertarako dugu erro-  
mantizismu loarazlerik, geroa mamitzen ari geran zoko aue-  
tan? Caro-usaiak ezer gutxi bizituko du gure izkuntza.*

*Joan diren mendeeri geiegi begiratu gabe, goazen gaurko gaur onek zer eskintzen digun ikustera.*

*Kulturaz ornitu bear ditugu gure euskal idaztiak, europetar kulturaz. Benetako Europa kulturaduna ez diteke gure etsai izan, gure salbatzaille baino...*

*Geroa gurekin izan dedin, Europa-odola bear du euskal literaturak.*" (Intxaustitar Joscha, ofm., *Jakintxo*, I (3-4) 1960.

Badihardue batzuk, lan eta lan, arlo gogor honetan, baina badago oraindik zeri ekin! Jokabide honen ezaugarri bat lez, hor dogu euskal gazte kulturadurak argitaratzen dabena *Jakin* aldizkaria, bere akats eta guzti be benetan txalagarria. (Ikusi, gai honi buruz L. Mitxelenaren cretxia: *Gipuzkerako Lorategia*, 98 or., "Itzen bizitza"). Aita Kardaberazek be ondo argi ikusi eban euskeraren gatxa nun egoan: cfr. ibidem, 4 or.

### 3. EUSKAL LITERATURAREN EZAUGARRI NABARMEN BATZUK (cfr. LM, 11 or. eta hurrengoak)

3.1. Euskerea ez da izan egundo —dakigunez, behintzat— Euskal Herri osoaren hizkuntza bakarra, bizitzako arazo gutzietarako:

—Euskal Herrian, Bizkai, Araba eta Nafarroako alderdi batzuk, behin Xgarren gizaldia ezkeru, hizkuntza erromanikoen menpean egon dira; ta geroago ta gehiago.

—Canera, bilinguismoa izan dogu beti nausi: euskerea, etxe barrurako ta eguneroko hartuemontxuetarako; erderea, osteru, —latina, frantsesa edo gaztelania— beste zereginetarako: eskola, liburu, agiri (documento), lege t.a. Nafarroako erregeak eurak be, euskaldunak izan arren, latina erabili eban lehengoko euren agiritan eta legeetan; gero, gaztelania (Gaztelan bertan baino lehenago!). Beste herrialde batzuetan be bardintsu jazo ei da: herri-hizkuntzak ez cuken literatura idatzirik, eta horregaitik idaztietan latina (ta gero erromantzeak) erabili ohi ziran.

—Kultura arloan, gure herria beti egon da aldenduta, zoritxarrez. Izan dira, bai, Euskal Herrian be euskaldun kulturadun ta kulturazaleak; baina honeek Euskal Herriatik kanpora —ta erderaz— landu dabez euren buruak. Gaur be antzera samar gabiz.

—Euskal Herriko agintariak ez dabe egundo agertu ardura handirik, kultura-arazoetarako: “indiferencia por toda actividad desinteresada” (Ta ez cuskeraz bakarrik; erderaz be bardin).

3.2. Euskal literatura aitatzen dogunean, literatura-mota bi euki behar doguz gogoan: herri literatura (ahoz ahozkoa) ta landua (idatzia) (Cfr. LM, 12 or.):

3.2.1. *Herri literatura*: ugaria ta aberatsa dogu; ez zaharregia, zoritxarrez (gure herria be, beste asko lez, ahaztukorra da); inguruetako herrien ohitura, siniste, hitz, soinu, t.a., gure herrian aurkitu dabe kaia ta ostatua (“fossilización”). (LM, 20-22 or.). Gaur be bizi-bizirik dirau, gauza batzuetan urritu bada be.

### 3.2.2. *Idatzitakoa* (landua):

Ohar bi aurretik: 1) Literatura hitza, bere esangura zabalenean hartzen dogu hemen, hau da: euskeraz idatzitako liburuak (zein eder hutsaren maitez eginak izan liburuok, zein praktikotasunez baino ez). 2) Batek baino gehiagok itandu be egin dau: “Ba ete dago, gero, egon be, euskal literaturarik?” Hor dogu Julien Vinson, euskal bibliograforik ospetsuena: ez ehan berak uste benetako euskal literatura bat dagoanik(!). Gure liburuak ez dira erderatu, banaka batzuk baino, ta horregaitik, erdaldunak uste dabe, euskeraz ez dala ezer idatzi. Ez hori bakarrik: euskaldunon artean be, zenbatek ezagutzen dau gure literatura hau? Lotsagarria ta negargarria, benetan!

Zelangoa dogu, baina, gaur eguncan inork ukatzen ez daben gure literatura landu hau?

*Berandukoa:* XVIgarren gizaldirarte euskera zaharrak ez dau urten liburuen plazara; izan be, Bernart D'Ettxepare dogu lehenengo euskal idazlea, ta beronek be ondo ekian hori, bere liburuaren izenak argi dinoskuncz: *Linguae Vasconum Primitiae* (1545). Ta cz hori bakarrik: hemendikaldeko euskaldunok gizaldi bat beranduago izartu ginan (!), ta XVIIgarren gizaldian be ez daukagu gauza haundirik. (Ordurako, gure inguruko hizkuntzak ondo landuak egozan eta frutu ugari ta ederrak emonda...).

*Estua:* hau da, euskerca, idatzita, ez da erabili izan edozetarako, gizonen arazo guztietarako. Euskerari edo ta beste edozein kultura-gairi buruz egindako liburuak (gramatikak, hiztegiak, t.a.) erderaz eginak dira ia dan-danak. Euskerea ez dogu erabili gai arruntentzat baino: ipuinak, cleiz-gaiak...; ez, eskolea irakas-teko, batez be goi-mailako gaiak azaldueteko.

*Apala edo bildurtia:* ez dau agertu eder-egarri bizirik, ezta lan iraunkorrik egiteko adorerik be.

*Batez be, eleizkoia:* gehien bat, eleizgizonak egin dituez, bai lehen ta bai gaur be, euskal liburuak gehienak. Ez hori bakarrik: gaiak eurak be, cleiz edo erlijino-gaiak izan dira ia beti... Gaur, ostera, laikoak be indar handia dakarre, ta gaiak be danetarikoak doguz.

Frantzia aldekoak, hemendikaldekoak baino *ugariagoak* (literaturan), eta herriagandik *hurrago*; baina gure artekoak asmo garaiagotunak eta erradikalismo-zaleagoak...

(Cfr.: LM, 16-19 eta 157-161 or.)

\* \* \*

"...Bakardadea lagun izan zaio euskerari gordin eta bizidun irauteko; bañan, ez du geiago onik egoera orrek. Mugak erori egin dira, mendien babesak itzaldu gaurko gizartearen estruktura berrien aurtean. Orregatik, euskera ere il cgingo da aiekin, euspen berri ta positibuetara eltzen ez bada...

Gure makiña bat idazleek bere probintzi-sorotxoan jorratu dute, alako literatura baseritar-lehenengoan, noizean-bein erro-

mantizismu baliotsu bat-edo gaintzea iritxiaz. Tarte bezela, zuze-  
nezkoa da esatea, reazioak izan ditula positibu-zatiak euskeraren  
itz, gramatika ta joskera ainbat mordollokeri ajolakabctik garbi-  
tzeakin. "Orixe" ta beste batzuen ekiteak bere aipamena merezi  
dute ontan. Bañan, neurri batean ez du eskuratu bakarkeritik  
irtetzea, bere baserrikeri kulturagabe ta mercktik desegitca, bere  
soroa europar amasez igurtzitzca..."

(L.M. Mujika, *Bide giroak*, Itz-Aurrea, Ed. Sendoa, Bilbao,  
20-22 or.)

\* \* \*

#### EUSKERA BETI TA EDONUN:

*"Euskera nai det goizetan,  
euskera arratsaldetan,  
baita gabaz ametsetan.  
Euskera nai det bizi guziko  
jardun eta egintzetan.  
Euskera nai det zarretan,  
nai det azken-otoitzetan."*

(Aita Manuel Larramendi, S.I.)

"Gu nor bagira, biozdunak bagara, ez dugu jakin bearrik  
Euskera polita dela, ederra, mamiduna, aberatsa dela; asko (nahi-  
ko) dugu jakitea gurea dela. Euskera maite dugula adierazteko ez  
da bide bat baizik (baino): Euskeraz ikasi, euskeraz itz egin eta  
euskeraz idatzi. Baño ez jostaketako bezala, baizik eta buruz artu  
eta biotzez alkarren artean erabiliz, arazo guztietarako gai da-ta.  
Zapeldunak, bizardunak, irakasleak, sendalariak (medikuak),  
apezak, andreak, nieskatxak: DENEK EUSKERAZ EGIN".

(Irigarai, *Larreko*)

## II. GURE HERRI-LITERATURA

*Sarrera:* gizonak nahi ta nahiczkoa dau egia, ederra ta ona bilatu ta maitatzea; ta gizon guztiak, era batera edo bestera, bilatu daroetz, ta aurkitu-ahala beste batzuei be agertzen ahalgindu ohi dira.

Horregaitik, ez dago munduan herririk, zelan edo halan jakintza ta arte berarizko bat ez daukanik: folklore edo herri-jakintza.

Baina hau be autortu behar: XVIIIgarren mendearen azken aldirarte, herri-jakintza hori herriak berak baino ez eban aintzat hartzen; gizon “landuak” —kulturadunak— “huskeritzat” eta “itsusizat” euki eroen herri-jakintza hori. Orduan, baina, ingles batzuk hasi ziran herri-jakintza osoa aintzat hartzen; gero, alemanak be bai eta, apurka-apurka, beste herrialde guztiak.

Harrigarria bada be, izan dogu Euskal Herrian gizon apal eta txalogarri bat —herritarra (laikoa) bera, ganera: euskeraz idatzi dauan lehenengo herritarra!—: Juan Iñazio Iztueta, zaldibitarra (1767-1845). Berau dogu, harenbaten, gure inguruotan, lehenengo folklorista ta herri-jakintzaren lehenengo biltzailea (beti ez gara euskaldunok besteen atzetik ibiliko!). Jakina, hemen be betikoa jazo jaku: euskerazko liburuak ez ditu inork erderatzen (ta gure Iztuetak euskeraz eskaini euskuzan bere liburu jakingarriak!), eta holan ezin gure gauzarik munduan zehar zabaldu.

“Folklore” hori zer dan? Eskolabako jendecen kulturea, edo, Azkueren esanera, herriaren jakintza. Jakintza horrek, ostera, arlo asko ditu (folklore bera be, Etnografiaren zati bat baino ez da):

- a) Antxinatiko gertacerak, ipuinak, kantzak, dantzak.
- b) Antxinatiko ohitura edo ekanduak.
- c) Siniskerak (creencias y supersticiones).
- d) Herri-hizkuntza: esakune, errefrau, atsotitz, t.a.

Gaur, jakintsuen artean, geroago ta garrantzia handiagoa emoten jako herriaren jakintza honi (ta herri-literatureari). Begi-

ra zer dinoan Rodney A. Gallop, ingles euskaltzale sutsuak: "herri batek bere izakerea ez dau inon agertzen, herri-literaturan baino argiago ta beteago".

## BIBLIOGRAFIA:

Ugaria dogu gai honetan; batzuk baino ez doguz aitatuko hemen:

1. J.I. Iztueta: *Gipuzkoako dantzak* eta *Gipuzkoako kondaira*.

2. Francisque Michel (1857): *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Lan handi honen zati eder bat Auñamendi liburutegiak argitaratu deusku barriro: *Canciones populares de los vascos*, A. Irigarairen erderazko itzulpen eta oharrekin.

3. J. Sallaberry (1870), Mauleko lege-gizona: *Chants populaires du Pays Basque*.

4. Julien Vinson (1843-1926), jakintsu honen libururik nabarmenena hauxe da: *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, baina baditu beste batzuk be: *Les Basques et le Pays Basque*; *Le Folk-lore du Pays Basque*; *Notice Bibliographique sur le Folk-lore Basque...*

5. Charles Bordes (1896): musikalari honek euskal kanta zoragarriak batu ebazan herririk herri. Ez deusko gitxi zor gure herri musikeak.

6. Resurrección M<sup>a</sup> Azkue (1864-1951): batez be, lan eder bi itxi deuskuz arlo honetan:

*Cancionero Popular Vasco* (argitalpen bi cgin ziran: bata, 11 tomokoa, musikazko laguntasun barik; bestea, 9 tomokoa, piano-rako musika-laguntasunagaz, baina ez kanta guztiak, aukeratuak baino). 1.001 herri kanta batu ebazan Azkuek, musika ta hitzak.

*Euskalerrriaren Jakintza*, 4 liburu marduletan argitaratu dau Espasa-Calpek, euskeraz eta erderaz. Oso jakingarria. Hara 4 liburuon mamina:

I: Ohitura ta sineskeriak (Costumbres y Supersticiones)



II: Ipuin ta irakurguiak (Cuentos y Leyendas)

III: Atsotitzak (Proverbios) – Esakerak (Modismos) – Aurren hizkuntza (Lenguaje infantil) – Ago korapiloak (Trabalenguas) – Goitzenak (Sobrenombres) – Igarkizunak (Acertijos).

IV: Herri-otoitzak (Oraciones populares) – Herri-olerkiak (Poesías populares) – Ostagikindea (Metereología) – Herriaren sendakuntza (Medicina popular) – Haurren jolasak (Juegos de niños), eta gehigarritzat, Índice de piezas musicales (109).

7. Aita Donostia (P. José Antonio de San Sebastián): hainbeste hitzaldi eder egin zituan Euskal Herri guztian zehar, gai honi buruz. Gancra, euskal kanta bikainen bilduma bat itxi deusku bere *Cancionero Vasco* liburuan.

8. Manuel de Lekuona (gaur, Euskaltzaindiaren burua): berea dogu *Literatura oral euskérica* (1935). Oraintsu argitaratu dau barrero, Colección Auñamendi liburutegian, zerbait osotuta, izenburu honegaz: *Literatura oral vasca*. Behar-beharrezkoa dozu liburu hau, herri literatura ezagutzeko.

9. José Miguel de Barandiaran: abade txalogarri ta langile honek, Bitoriako Seminarioan maisu egoala, abadegaien laguntzarekin, sakon ta zehatz aztertu eban gure herri jakintza: *Anuario de Eusko-Folklore*. Alkarte bat be egin eban horretarako: Sociedad de Eusko-Folklore. Lanik gehienok Colección Auñamendik argitaratu deuskuz barrero: 11, 12, 18, 27 zk.

10. P. Jorge de Riezu: *Flor de canciones populares vascas* (Edit. Ekin, Buenos Aires). Ederra, melodia ta guzti.

11. Juan Gorostiaga: *Antología de la Poesía Popular Vasca*.

Beste autore batzuk be ezin itxi hemen aitatu barik: C. Borrow inglesa, Chaho zuberotarra, D'Abbadie euskal odoleko irlandar euskaltzalea, José Manterola donostiarra (gure artean euskal arnasa biztu ebana), Jaurgain, Dufau-Barbier, Gavel, Rodney A. Gallop...

*Oharra*: Bertsolaritzari buruzko bibliografia ugariagoa gero emongo dogu.

# 1. HERRI-TEATROA: ZUBEROAKO PASTURALAK ETA XARIBARIAK

## 1.1. Ezaugarriak

*Zuberoako herrietan* baino ez da ezagutzen, eta antxinakoa da, XV-XVIgarren gizaldikoa-edo. Erdi Aroan egiten ziran misterioetatik sortu ei da.

*Era bitakoak* dira:

a) Tragikoak ("Pasturalak"): curon gaia, edo cleizkoia (Bibliatikoa) edo historikoa (kondairako gizon handiak: Karlomagno, t.a.) da.

b) Barregarriak: Xaribari, Asto Lasterrak, Toberak... Baina trajikoetan be, beti sartzen dabez barre eragiteko zati batzuk (farsak).

Antzerki honek *idatzita* dagoz, baina doinuak, zinuak, egikera t.a. ahoz aho datoz gizaldiz gizaldi. Horregaitik, ahozko literaturaren barrutian sartu geinkez. Guztira, gaur 70 bat ezagutzen doguz, eskuz idatzita.

*Antzeztokia* (antzokia) herrietako plazak izaten dira. Ezetari-ko apainduria barik: upel batzuen ganean ohol batzuk jarri, atc bi atzean (batetik onak eta bestetik gaiztoak sartu-urten ibilteko). Jantziak nabarmenak eta ederrak; batzuetan astoak eta zaldiak be ataraten dituez antzokira.

Ekinaldi guztia (oso luzea beti: 5-6 ordu bai), *kantuz eta dantzaz* izaten da; dan-dana bertsoetan.

## 1.2. Teatro honen balioa

1.2.1. Hizkuntzaren aldetik: bai, euskera zaharra ezagutzeko. Handikiak-eta, erderatiko berba asko erabilten dabcez, "jakintsuago" agertzarren-edo; batzuetan, hizkera gordina be bai, barregarrietan.

1.2.2. Elertiaren aldetik: ez ci dauke poesia ugaririk (horren bila be ez dabiz). Hizkuntza mordoiloegia darabilelako, baztertua euki dabe teatro hau gure jakitunak; gaur, ostera, interes barria hartzen hasi da: joan dan udan, Donostian bertan be emon eben honongo pastoral barri bat: *Chiquito de Cambo*.

1.2.3. Kondairaren aldetik: Pastoral zaharrak ondo jatorkuz, historia ta Euskal Herriko gizon eta egintza asko ezagutzeko.

1.2.4. Antzerkiaren aldetik, barriz, bere sinpletasuncan, interesgarri agertzen jaku gaur: "su incesante coreografía, con un sentido de libertad escénica y de primitivismo, a los que hoy ¡oh paradoja! tiende la escenografía moderna, el teatro de vanguardia" (Labayen, 20 or.).

Bibliografia apur bat:

Georges Hecelle izan da teatro hau sakonen aztertu dauana. RIEVen eta beste aldizkari batzuetan argitaratu zituan bere lanak. Gai hau arin ikustekotan, hor dozun:

M. de Lekuona: *Poesía Oral Vasca*, Col. Auñamendi, Donostia, 1965, 45 zk., 141-146 or.

A.M. de Labayen: *Teatro Euskaro*, I, Col. Auñamendi, 42 zk., 17-25 or.

A. Irigaray: *Esbozo crítico con textos de Literatura Euscara Profana*, separata de Príncipe de Viana, Pamplona, 1965, 2-17 or. Irakurgai batzuk be badakaz.

A. Onaindia: *MEOE*, 158-169 or., sarrera bat, eta 5 pastoralen zatitxuak dakaz.

## 2. BERTSOLARITZA

Aztertu daigun orain gure herri-jakintzaren alderdi eder, berezi ta aberats bat.

## 2.1. Bibliografia

1. LM, 22-26 or. Labur, baina beti lez zorrotz eta zuzen.

2. Manuel Lekuona: *Literatura Oral Vasca*, Col. Auñamendi, 45zk., Donostia, 1965.

Egile beronen *Literatura Oral Euskérica*-ren argitalpen osotu bat dozu liburu eder eta jakingarri hau: beratu da, harenbaten, iturbururik onena, bertsolaritzaren balio ta sakontasuna non eta zetan dagon ikasteko.

3. Aita Onaindia: *Cure Bertsolariak*, Bilbao, 1964. Euskera —bizkaieraz— bertan aurkitu zeinke gai honetan gura dozun guztia.

4. Antonio Zavala: "Bertso berri hila Euskalerra zear", *Euskera*, I, 1956, 233-245 or. "Bertso berriak" aztertzen ditu, batez be.

5. Antonio Zavala: *Bosquejo de Historia del Bersolarismo*, Col. Auñamendi, 37 zk., Donostia, 1964. Aita Zavala aituaaren 4 hitzaldi dakaz, guztiz irakurgarriak.

6. Jautarkol (Jauregi'tar K.), *Xenpelar bertsolaria*, Kulixka Sorta, 25-26 zk., Zarautz. Bertsolari handi horren bertso-lorategi ederra dakar, ta ganera, bertsolaritzari buruzko gauza jakingarri asko.

Neure I.G-n be aurkitu zeinke zertxobait: 51, 74, 94, 114, 128 or.

Badira, jakina, beste liburu ta artikulua batzuk be. Onenetariko, Aita Zavala berorrek Auspoa liburutegian argitaraturiko hainbat bertso-liburu.

## 2.2. Historia apur bat (Cfr. Zavala, o.c.; Onaindia, o.c.)

Lehenago, beste herrialde batzuetan be baziran gure bertsolarien antzekoak (Onaindia, o.c., 13-40 or.): "juglarrak", "trovado-reak" (hau da, bertso-etsaleak eta bertso-egileak), t.a. Israeldarren artean be, holango zerbañ agiri zan: Job, Moises ta beronen arre-

ba Maria, Zakarias, Simeon, Ama Birjinea berbera. Gaur be, batbateko bertsoak esaten ei dabez Afrikako "tuareg"ak, Afganistaneko "duns"ak. Gure Europa honetan, ostera, Euskal Herrian baino ez dirau bizirik bertsolaritzak.

Zer honetan be, zoritxarrez, gure "atzea" edo historia ilun samar dago: Caribayk dinoskunez, XVgarren mendean ba ei ziran dohai hau euken andra batzuk be. Hor 'doguz Milia Lasturko (MEOE, 4 zk.) ta Alostorreko Usoa (MEOE, 7 zk.) "ercsiak". Aurreragoko agiririk ez daukagu, baina bertsolaritzak antxina-antxinakoa dirudi.

Bertsolari-gudu baten lehenengo albistea Juan Iñazio Iztuetak damosku, bere *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*-n: Billabonako plazan, 4.000 entzuleren aurrean, han neurtu ebezan euren indarrak Zabala amezketarrak eta Txabalategi ernaniarrak. Epai-mahaikoen artean, hor agertzen jaku gure Pernando Amezketarra ospetsua be. (Cfr. Zavala, o.c., 11-17 or.).

Harrezkeroko gauzak zehatzago czagutzen ditugu, ta Aita Zavala berorrek hainbat bertso batu ta argitaratu ditu Auspoa Liburutegian, etenbako lan txalogarri baten.

Urteokaz, Euskal Herri guztiko Bertsolari-Txapelketak be egin dira: Basarri ta Uztapide doguz azkenengo txapeldunak. Egunokaz sekulako Sariketa Nagusi bat be ospatu da Donostiako Anoeta frontoian, egundo baino sari ederragoak eskainiaz. Zenbat eta zenbat mila izaten ete dira bertso-saio horreik entzundakoak?

Bertsolaritzan, aro edo belaunaldi batzuk bercizten ditu Aita Zavalak. Hara:

—*Lehenengo belaunaldia*: Pernando Amezkettarrarena (1764-1823). Cizon *xelebre* hau benetariko bertsolaria be bazan (hor dozu, hori ikusteko, A. Zavalaren *Pernando Amezketarra Bertsolari*, Auspoa, 54 zk.); gero, gure herriak bereak eta inorenak —batez be, gauza zorrotz eta barregarriak— ezarri deutsoz Pernandori. Aldi horretakoak izan ziran Zabala ta Txabalategi, Ichentxuago aitaturikoak.

—*Bigarren belaunaldia*: Errenderiko Xenpelarrena (1835-1869): karlistadako gerrate bien bitartean. Oiartzun-Errenderi ingurua izan zan bertsolari-tokirik ugariena ta ospetsuena. Gazterik hil zan Xenpelar: 34 urtekoa zala. Bat-bateko bertsolari trebea, ta bertso barri egile ugaria izan zan (Bertso berriak, Xenpelarrek jarriak); bertso-mota asko erabili zituan, eta Euskal Herriak bihotz-bihotzean gordetan ditu oraindino Xenpelarren bertso eder asko (Jautarkolen liburua hor dozu; ganera, A. Zavala be ba ei dabil Xenpelarren bertso-bilduma eder bat gertau gurcan).

Aldi horretako beste bertsolari famatu batzuk: Iparragirre, Bilintx (Auspoa, 12 zk.); Bidasoaz handikaldean Otxalde ta Etxahunek izan dabe entzuterik handiena.

—*Hirugarrena*: Karlistadako bigarren gerrate ondoren, beste bertsolari mordo bat agertzen jaku Astcasu-Zizurkil aldean: Udarregi (Auspoa, 56 zk.), Pello Errota (ta honen senideak) (Auspoa, 32-33 zk.), Otañotarrak (batez be, Pello Mari haundia: Kulixka Sorta, 32 zk.).

Ameriketan bertan be izan dira gure bertsolariak: ezin ahaztu hemen Pello Mari Otaño, Mendiague, Patxi Bakallo, Pello Errota, Iparragirre. (Aldi horretan, euskaldun asko joan zan Ameriketa aldera, batez be Argentina ta Uruguayra).

—*Laugarrena*: Hernani-Errenderi da belaunaldi barri honen bihotza: hor agertzen dira Zapirain, Fermin Imaz, Gaztelu ta, batez be, Txirrita (Auspoa, 18-19 zk.). Bizkajian, aldi honetan (gure 1936ko gerra-aurrean), Kepa Enbeita muxikarra izan zan danen ganetik agertu zana (A. Onaindia: *Enbeita Oleskaria*, Kulixka Sorta, 59 zk.).

—*Gaurkoa*: Azkenengo gure gerra ostean, ixilaldi luze ta triste baten ondoren, bizkortu zan nozbait bertsolaritzta, ta nahinon —batez be, herri-jaictan—, hor dabiz bertsolariak, batetik bestera. Hiru-lau Txapelketa be egin dira, lehenengo probintzi bakotxaren barruan, eta gero Euskal Herri osoko onenen artean (azkenengo txapelketan 83 bertsolarik parte hartu eben, guztira!)

Nork ez ditu ezagutzen gaurko bertsolari ospetsuen izenak? Bizkaian, Balendin Enbeita eta beronen seme Abel; Azpillaga ta Mugartegi, J. Lopategi ta Abel Muniategi. Gipuzkoan, Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki, Lasarte, Lazkano, Agirre, Garmendia, Gorrotxategi, Lizaso... Naparroan, Arozamena ta Narbarte. Mugaz bestaldean, Mattin eta Xalbador.

Zein da onena? Nok jakin! Danok be ez dira makalak! (Bertsolarien Txapelketetako bertsoak argitaratuak dagoz: Auspoa, 10, 22, 43, 67 zk.; eta Kulixka Sorta, 43-44 zk. Gancra, Basarrik asteroko *Zeruko Argia*-n emoten ditu bertso asko, ta 4 liburu be argitaratu ditu: bat Auspoan, 55 zk. Uztapideri be eskaini deutso Auspoak liburu bat, 42 zk.)

—*Bertsolaritzaren gerokoa?* Nork daki gerokoaren barri? Dana dala, cuskerak dirauan arte, bertsolaritzak be bizirik iraungo dauala dirudi; gaur, behintzat, bertsolari bizkorrak doguz gaztecn artean: 40 urtetik beherakoak dozuz onenetariko asko. Ta herriak berak be zaletasun handia agertzen dau hondino: ezaugarrikerik ederrena hor dogu Anoetako betekadetan, Txapelketa bat ospatzen dan bakotxean.

### 2.3. Bertsolaritzaren (eta herri-literaturaren) ezaugarri batzuk

Liburu artean baino *kulturaz* jantzi ez dan batek, nokez ulertu leike badagoala idatzi bako elerti bat: ahozkoa, aspalditik datorren eta gaur be bizi-bizirik dagoan herri-literatura eder joria. Nekezago hondino ulertu leikez holango batek, herri-elerti honen balioa, edertasuna, jokerak, bideak...

Mundu aberats hau aztertu dabecnak, ostera, ohar hauxe egi-ten deuskue, batik bat, elerti horren barrutian sartu aurretik: gure eguneroko pentsakera alde batera itxi, ta begi barri batzukaz begiratzeko mundu barri honi.

M. Lekuona jakitunak ezaugarriok jartzen ditu herri-literaturaren oinarritzat:

2.3.1. Hizkera neurtua: neurri hau soinu, neurkera (*ritmo*), puntu (*rima*) edo dantzaren bitartez lortzen dau. Kantuaren neurriean sortzen dira bertsoak, eta kantuaren soinu ta neurriaren bitartez ikasten ditu buruz herriak. Bertsolariak, behin melodia baten menpean jarri ezkerro, ez dauka neurriaren ardurarik: berez neurtuko ditu bere bertsoak, kantuari zuzen-zuzen jarraituz. (M. Lekuona, o.c., 57 or.).

2.3.2. Holan, *gomutamena* bera be (memoria) indartu egiten da, ta ederlanda iraunkorrago bihurtzen: zenbat bider, gure artean, behin bakarrik entzuniko bertso eder asko herriak buruz ikasi dituzan! Ez dauke askok eta askok, horretarako, magnetofoi on baten beharizanik. (Lekuona, o.p., 52-57 or.).

2.3.3. Irudien bizkortasun harrigarria: "...el poeta *que canta* es como las abejas que vuelan y se agitan sin cesar sobre la flor que liban, y pasan de una a otra sin morosidades de engolosinado... El poeta *que escribe* posa y hace posar sus imágenes. El poeta *que canta* hace sus instantáneas en marcha" (Lekuona, o.c., 18 or.).

Ez dago hor logika hotzaren batasun astunik, irudimen ariaren bizkortasuna baino.

Hona hemen, Xepelarren bertso ezagun baten, ejemplu eder bat:

*"Gu gera iru Probintzi  
lengo legeari autsi;  
ez oraindikan etsi  
naiz anka bana autsi;  
jaioko dira berriak...  
Gu gera Euskal erriak!"*

(Cfr. Lekuona, 41-51 or.: hortxe aurkitu zcinkez beste ejemplu batzuk).



2.3.4. Bat-bateko etorria (*improvisación*): hauxe dozu gure bertsolaritzaren doerik harrigarrietarikoa: Euskal Herri osokoa, ta herriak berak be aintzat hartzen dauana. Bertsoak zelan edo halan betetea ez da ezer (hori ez da hain gatxa be, L. Mitxelcnak dinoskunez: “Improvisar versos en vascuence es algo relativamente no muy difícil, ya que la lengua —suficiente en lo fundamental— ofrece en ciertas terminaciones una serie ilimitada de consonantes y asonantes, y además pasan por válidas en caso de necesidad rimas muy pobres” (LM, 24 or.).

Baina, bertsoak bota ahala, zeozer esatea, ta sakon, zorrotz eta gordin esatea: horixe da harrigarriena.

2.3.5. Herri bat entzule: “sujeto pasivo del bertsolarismo” deritxo M. Lekuonak herriari:

“Ez dezute inoiz, bertsolaria dan bertsolaria, bakarrik kantari topatuko; nai ta naiezkoa du bere inguruan erria. Eta erria ere, bertsolaria balitz bezelaxe, adi-adi egongo zaio, azken bertsoa igartzen eta askotan berekin batean esaten edo kantatzen duela. Badaki ederki gure erriak, zeintzuk diran bertso egokiak, eta zeintzuk aldrebesak, zeintzuk baliosuak eta zeintzuk meritu gabe-koak, alajaña. Eta gero gure nekazariak eta erri xeak kulturarik ez dutela esango digute. Ba zeudek mundu zabalcan amaikatxo erri, orrenbesterako gauza ez diranak, bai orratik.

Bertsolaria, erritar uts-utsa degulako, ta erriarekin bat eginik bizi zaigulako, gure erriaren nai, asmo, buru-auste, amets eta bizicaren adierazlerik jatorrena degu. Euskal-Erriaren gogoazalpena eta biotz-kondaira, aritik mataza bezelaxe, bertsolarit-atik aterra genezazke.” (Jautarkol, o.c., 13 or.).

## 2.4. Bertsolaria ta bertsolari-motak:

Ikusi daigun orain, astirotxuago zer dan bertsolaria: Gizaku-me batek, *bertsolari* izateko, doe honcek behar ditu, batez be: iru-dimen bizi ta argia, etorri ugaria, bihotz samurra, pentsakera biz-

korra ta sakona, gizartearcn kezka, poz eta taupada guztiak abes-  
tutcko trebetasuna, gatza ta zorroztasuna, ta gauzen alderdi  
barregarria ikusteko zentzuna:

“un rasgo, quizá el más apreciado por el pueblo: el ingenio, la agudeza, la feliz ocurrencia, la oportunidad, la chispa. El pueblo ama sobre todo y consagra al poeta ocurrente, diestro en el manejo de la sátira; al poeta que sabe exponer su pensamiento con contrastes vigorosos; al que busca en las cosas el lado sorprendente; al que en su actuación es siempre oportuno, vivo, agudo. Una rara vis irónica que tiene al público en perenne regocijo, desbordado de vez en cuando en incoercibles explosiones de risa y carcajada.” (M. Lekuona, o.c., 62-3 or.).

Bitara, batez be, agertzen jaku bertsolaria:

#### 2.4.1. Plazagizona

Herriaren aurrean kantari, bat-bateko bertsoak errez ta ego-  
ki asmatu ta botaten (zein taberna-zulo baten, zein etxe barruko  
familia guztiaren aurrean; edota herrictako plazetan ta, gaur, an-  
tzokietan) dakianari deritxo *plazagizona*. Coian aitaturiko doeak  
ez dira nahikoa horretarako; ganera, beste batzuk be behar dira:  
eztarri ona ta patxada.

*“Bertsolariak, ona izateko,  
baldintza onek bear ditu;  
buru argia, biotz zabala,  
nai badau ondo jarraitu.  
Irugarrena, eztarri ona;  
neurriari ondo begitu;  
bertsolaria ona izango da,  
baldintza oneik baditu.”*

(Enbcita'tar Balendin:  
cfr.: A. Onaindia, o.c., 204-5 or.)

Bertsolari onak izan arren, ez dabe guztiak *plazagizon* izateko balio: edo *eztari bajua* (gaur, mikrofonoen bitartez, gauzak asko erreztu dira alderdi honetatik), edo lotsorra ta artegatsua izan. Holan, Pello Mari Otaño handia ez zan plazagizona izan, eztari egokirik ez eukalako. Hori dala-ta, *katarro* gatzizena ezarri eutsoen.

Plazagizona da, batez be, herriarentzat, benetariko bertsolaria. Holako baten izenak hots haundia izan ohi dau behin baino sarriago.

Era askotara ekiten deutsoe plazagizonak euren eginbeharrari. Hona hemen batzuk, azkenengo Txapelketatik hartuta:

—Hasierako *Agurra*, banan-banan: hau ez ohi da sartu puntuazinarako.

—Emondako *puntuari jarraitu*: bizkortasuna ta zorroztasuna probatzeko.

Irigoienek:        “Zerraldoan dijoanak / gero arte diyo  
Xalbadorrek:     *Zure esanak, Alfontxo, / jarri nau seriyo;  
                          jendea tristatzen da, / au dela mediyo:  
                          sortzeak iltzea du / beti ondoriyo.*”

—*Gai bat jarri*, ta *bi-hiru bertso* bota gai horri (bakarrean).  
Begira zelako bertsoa bota eutsan Uztapidek oheari:

“*Nere oraingo iru bertsotan / oiaren kontua dabil;  
badakizute ni erdi gaixo / eta naguala debil...*  
*Bere aurrian aurkeztutzen naiz / eta jarriko naiz umil:  
oi zuri baten jaiio nintzan da / oi zuriyan nai nuke il.*”

—*Ofizioak* emonda, alkarregaz teman edo burrukan: esate baterako, senar-emaztegai maintemindu bi —Gorrotxategi ta Xalbador— ezin dira ezkondu, pobreak dira-ta; entzun zer dinotson batak besteari (3 bertsoetatik 2garrena aukeratu dogu):

Andregaiak (Gorrotxategik):

*“Ai, andregaiá, sinistu zazu  
oraingo nere esana;  
bizileku bat erosi ezin,  
auxe da gertatzen dana;  
baino gu orren alkar maitiak,  
ene andregai lastana,  
maitasuna da munduko diruz  
inoiz ordaintzen eztana.*”

Senargaiak (Xalbadorrek):

*Gurezat dauden zoritxar denak  
Yaungoikoak badakizka;  
zorionak ta penak berarek  
banatzen ditu aldizka.  
Maitasunean balia zagun  
daukagun dirurik pixka,  
gabeziako ezbear oiek  
eginen tugu erdizka.”*

—*Lau puntuak emon, bertsolariak eurokaz bertso osoa egin daian:*

*“Lopategiri lau puntu, zortziko txikian bertsoa osatzeko:  
nekea, kea, pakea, eskea”.*

Lopategik berehalaxe:

*“Langileak daukie  
jornalen eskea,  
lortu arte ez jake  
elduko pakea;  
euren izerdiyakin  
goruntz doa kea,  
Jaunari sari eske  
azalduz nekea.”*

Batzuetan, bertsolari bi neurtu behar diran, bioi gai bardinak jarten jakez, ta bertsolariak ezin dabe batak bestearena entzun.

—*Bederatzi puntuko bertsoa* osotu beharra, gai bat emonda. Oso gatxa da, bat-bateko bertso-saioetarako, ta horregaitik azkenengo txapelketan kendu egin eben hau.

Basarrik, euskararen gainean:

*“Bederatzi puntuan  
dadukat sarrera:  
Irgoienek jarri  
digu karrera;  
probatuko gera gu  
emendik aurrera.  
Noiz nai ezta izaten  
olako aukera.  
Egin da billera  
guziok batera,  
kontuak atera,  
ez guaz gainbera:  
oraindik bizirik  
dago Euskera!”*

Bederatzi puntukook egokiagoak dira bertso berrietarako —hamaika holango egin zituan Xenpelarrek: ikusi “Betroi baten tratua”, *Xenpelar Bertsolaria*, 80-86 or.; ta bertsolarien txapelketan be ez datoz hain txarto, bakotxaren trebetasuna neurtzeko.

2.4.2. Bertso berri jartzailea (Cfr. Zavala, o.c., 50-56) or.

Bertsolari askok, bakardadean bertsoak asmatu, papercan jarri, ta gero herrian zabaltzen dabecz (bertso paperak). *Bertso berriak* izena emoten jake holango bertsoai.

Batzuetan, plazagizon ez diran bertsolariak jartzen dituez holango bertso berriak; beste batzuetan, plazagizona danak be

bai: lehenengoen artean, hor dozuz Zapirain, Matxain, Iñozenzio Olea (honeek biok sarri argitaratzen dituez curen bertso barriak *Zeruko Argia*-n), Xenpelar, Pello Errota, Txirrita, Basarri eta beste batzuk, plazagizonak izanaz ganera, bertso berri asko egindakoak dira.

Joan dan gizaldiaren erdi ingurua ezker, bertsolariak euren bertsoak irarkolara (imprentara) eroaten be hasi ziran, eta gero herririk herri zabaltzen: zabalkunde honetarako, azoka ta feriak ohi dira egokienak, eta hor agertuko da beti *bertso-saltzailea*, bertso barriak kantatuz bertso-paperak saltzen (cfr. Zavala, o.c., 57-60 or.) eztarri ona behar zan horretarako. Bai crosi be gure base-rritarrak! Erosi ta sarritan buruz ikasi, ta ondasunik handiena balira lez, arduratsu gorde be bai! (cfr. Zavala, o.c., 238-239 or.).

Honango bertso-paper asko ta asko betiko galduak izango dira, zoritxarrez; baina hor-hemen batutakoak be ez dira hain gutxi: 50.000 bat mila ahapaldi edo estrofa baeukazala berak, autortu cuskun, orain 12 urte, Aita Zavalak (harrezkero be ez da lo egon jesuita langile hau!). Hau be gogoan izan, ganera: XIXgarren gizaldia ezkerokoak baino ez ditugula gaur ezagutzen. (Orain, magnetofoiaren bitartez, bat-bateko bertso asko be gorde-ten ditugu, doinu ta guzti: zenbat holango bertso cte daukaz Donostiako Muxika jaunak!).

Era askotakoak dira bertso barriok: berba baten esateko, gure herriaren eguneroko bizitza osoa agertzen jaku hor. Aita Zavalak honelantxe banantzen ditu:

—Erlijinozkoak: ugari be ugari! Danetarikoak, ganera (cfr. Zavala, *Bertso berri billa*, 234-5 or.). Nork ez cban ezagutzen, gure zaharren artean, Xenpelarrekin Balendin Berriotxoari jarritako bertso-mordo ederra? Ez litzakigu txarto etorriko honango bertsoak sakon aztertzea, gure herriaren erlijino-sikologia hobeto ezagutzeko!

—Jolas-kirolak: cuskal jolas guztiak, batez be estropadak.

—Ezkontza galdutakoan bertsoak: benetan jakingarriak (cfr. Zavala, *Auspoa*, 15 zk., LG, 128 or.).

—Gizarte-gaiak: senar-emazteak; neskazahar-mutilzaharrak; nagusi-morroiak; behargin-ugazabak; gerra ta bakca, t.a.

—Abercak eta piztiak.

—Bizitzako ezbeharrak: esate baterako, itsuak (“Mutil koxkor bat...”)

—Ameriketakoak: hainbesteren artean, hor dozu P.M. Otañoren “Lagundurikan danoi...”

—Jan-edanari buruz egindakoak, t.a.

Zelan idazten diran? Batzuetan, bertsoak asmatu ta idatzi bertsolariak berberak egiten ditu (Altzoko Imaz ez ei zan sekula solora joango, papela ta lapitza aldean eroan barik! cfr. Auspoa, 68-70 zk.). Beste batzuetan, bertsolaria bera ezjakina bazan, besteren batek —semeak, emazteak...— idazten dituzan berak asmatutako bertsoak (horrelantxe, Juan K. Zapiainek, emazteak gauero-gauero irakurten eban liburutik entzundakoak, gogoan hartu, hausnartu ohean, ta hurrengo goizean bertsoetan emoten zituzan, ta emazteak paperean jarri: holan egin ei eban Bravante-ko Cenobeharen poema luzea —8 bertso 163 ahapaldi! cfr. Lekuona, o.c., 56 or.); Pello Errotari beronen alaba Mikelak laguntzen eutsan horretan. (Auspoa, 32-33 zk.).

## 2.5. Balioa

Ez dira dan-danak eretxi batekoak, ederraren aldetik behintzat.

2.5.1. Cure herriak, ikusi doguncz, maite-maite izan ditu beti bertsolariak eta bertso-papcrak: izan be, ez ete doguz ba eurok herri horren arnasa, gogo-azalpen eta bihotz zirkina? Ez ete deuskucz eurok arduraz jasoŕen herri horren asmo, gurari, samintasun, poz eta buruhausteak? Horregaitik, herriak, apala izan arren, berchalaxe igarten deitso bertsoen balioari.

2.5.2. Jakitunen artean, batek baino gehiagok huskeriatzat eta balio gitxikotzat euki dabe bertsolaritza, batez be, XIXgarren

gizaldiaren azkenalditik 1936ko gerratearen aurretxurarte. Cogoan izan, sasoi horretan garbizaletasuna zala nagusi gure literaturan:

—“Carácter irremediabilmente prosaico”.

—“Con la recopilación de las hojas volantes se formaría una colección enorme de simplezas y groserías, dichas de una manera eminentemente prosaica” (K. Etxegaraik: *erexi honek kalte handia egin eban*).

—Hizkeraren aldetik, *mordoiloegia* zala-ta, ezetsi egin eben batek baino gehiagok: hor dozu Domingo Agirre bera be: (cfr. *Garaa*, 4gn. argitaldia, Arantzazu, 1966, 101-2 or.): bertsolari batek *inportantzia*, *sustantzia*, *poltsia* ta *alegrantzia* erabili ditualako puntuetan, hara zer dinoan: “Etziran neri batere *alegrantzirik* eman aien aocetan euskereak zeukan gorniak” (gorriak).

—“Ez mamincz, ez neurritz, eztabe bear bada jagitasun andirik, poesi larregirik” (A. Onaindia, o.c., 293 or.).

—“los *bertso berriyak* constituyen ya que no un documento poético porque su nivel no se eleva muchas veces del de los más vulgares romances de ciego...” (LM, 25 or.).

2.5.3. Beste batzuk, ostera, bai lehen ta bai orain —ta geroago ta gehiago— badakie bertsolarion lana aintzat hartzen eta txalotzen:

—Oteizaren eretxiz, gure bertsolaria ei da estilorik garbiena, ta gure artean argitasunik kilikagarri ta handienekoa (*Quousque tandem*, 9).

—A. Antonio Zavalak, hainbeste bertso batu ta aztertu ondoren, hara zer dinoskun:

“Según nuestros cánones, no habrá quizá calidad literaria, pero personalmente estoy persuadido de su excelencia literaria. Creo, por ejemplo, que algunas de nuestras vidas de Santos no desmerecen de las de Berceo. Incluso encuentro entre ambas profundas semejanzas de fondo y técnica. Nuestro viejo euskera con-



vierte en literatos a los hombres sin cultura. Nunca tendremos capacidad de valorar el tesoro de humanidad y espíritu que entraña un idioma que hace de los analfabetos creadores de literatura. Aunque sólo este mundo de los bertsos peligrara en el País Vasco, salvarlo valdría el precio de todos nuestros afanes. Es demasiado bello y, sobre todo, supramaterial para dejarlo perder con nuestro desamparo. El nuestro es quizá el pueblo más literato de Europa y aún del mundo" (*Bertso berri billa*, 242-3 or.).

—“Es seguro que de la enorme masa de verso vasco se podría extraer un número suficiente de composiciones que no desmerecerían en absoluto en una antología de la poesía popular europea” (batez be, euskeraz irakurri ahal izan ezkeru!!!). “Los *bertso berriak* constituyen en sí una fuente de primer orden para el conocimiento de la historia profunda del pueblo vasco a partir del s. XVIII. En ellos se encuentra el comentario vivo e inmediato de lo religioso y de lo profano” (LM, 25-26 or.). Bertsoaritzaren balioa zelangoa dan eta zetan dagoan ikusten, ez dau gitxi lagundu M. Lekuona jaunak!

—Berbai bakarrik begiratu ezkeru, egia da bchin baino sarriago *mordoiologiak* agertzen jakuzala holango bertsoak; baina, euskerearen jatorrasuna ez dago bakarrik eta batez be hitzen garbitasunean, esaeretan eta joskeran baino: ta horretan bai badirala maixu gure bertsoaririk gehienak! Euron buru-bihotzak eskaldun huts-hutsak dira.

## 2.6. Zeri begiraten deutsoen epai-mahaikoak bertsolari-txapelketetan

*Gaia:* emondako edo harturiko gaia sakon eta bizi erabili, nahiz sentimentuzko, nahiz umorezko, nahiz maitasunezko giroetan; beti argi ta garbi ta indarrez jardun, gaiaren iderari ondo heldu ta sakonduaz.

*Euskera:* jatorra, hau da: esateko era aberatsa, hitzak eta esakerak ondo atondu ta horniduz.

*Joskera edo esaera* (composición): esanbeharrak ondo eratu, lotura baten barruan: sarrera — erdi aldea (ondo betea) — eta amaiera zorrotza, beti be jardun osoari gorputz bat emonaz: “asieratik azkencraño bertso mardul, giar, biribil, bikaiñak ontzen alegindu beitez bertsolariak” (A. Onaindia, o.c., 99 or.).

*Neurria*: soinuari ondo lotuta (horrelaxe neurtzen dira bertsoak, besterik barik), eta puntuan (riman) *potorik* egin barik eta, ahal dala, puntu aberatsez... (Honeexck izan dira Donostian, azkenengo Sariketan, epai-mahaikoak erabili dituzcan kriterioak; euron antzekoak, cfr. A. Onaindia, o.c., 299-302 or.).

## 2.7. Doinua

“Trebetasun handia azaltzen du bertso lanerako, gaiari dagokion doñua ondo aukeratzen duanak. Ta gauza jakiña badi-rudi ere, askok ez dute jakiten, gaiak azkartasuna, grazia ta zorroztasuna eskatzen duancan, obe dala bertso laburra edo puntu motza; ta gaiak arnasa, dotoretasuna ta biotzondoa eskatzean, berriz, mesedegarri bertso luze ta oparoa. Ta batez ere, gaiaren sentipenak duan kolorea bear du musikak ere: gai tristeak musika tristea, alaiak alaiia...” (Juan Mari Lekuona: I.G., 114-115 or.).

Bertso-doinuak ikasteko hor dozuz:

1. *Xenpelar bertsolaria*, Kulixka Sorta.
2. *Bertsolari Txapelketa*, 1967-VI-11, Auspoa, 67 zk.: txapelketa horretan erabilitako 27 doinuen musika dakar azkencan.
3. Disko bat be badago: *Bertsolarien doinuak*.

## 2.8. Bertso-neurtitzak

Gehienbat erabilicnak honeexck izango dira, harenbaten:

—*Zortziko txikia*: 8 puntu edo bertso ditu: 2-4-6-8gnak dabe amaiera bardina:

- Irigoien:           *“Bertsotan txit iaioa  
zera zu, Xalbador.*
- Xalbador:           *Ni baino hoberik ere  
gaur hunat badator.  
Ospea da haundiena,  
aizu, laguna, hor;  
lagun hoiek egun eni  
deus ez dirate zor.”*
- Irigoien:           *“Masaileko ederra  
zirriarengatik.*
- Lopategi:           *Etzera bildurtuko  
gaur zu horregatik;  
neskatxa banintzake  
zure aldamenetik  
bat hartuko zenduke  
nere alderditik.”*

—*Zortziko nagusia*: 8 bertso; 1-3-5-7gnak 10 silaba bako-  
txak (5/5), besteak, zortzi silabadunak (5/3). Irakurteko asperga-  
rri bada be (horregaitik Orixek ez eban maite, esan edo idazteko  
bertsoetan), katurako egokia da ta asko erabilia:

*“Zer balio dau / zuri, baltz, gorri  
edo nabar / izatiak,  
baldin ezpadau / zer ikusirik  
orraz euskera / maitiak?  
Alde batera / itxirik, bada,  
politika ta / nastiak,  
euskereari / danok zabaldu  
bear deutzaguz / atiak.”* (Enbeitia)

1967ko Txapelketan askok ez eben ontzat emon Xalbador  
azkenerako pasetia; horregaitik txistuka baten hartu eben, ta  
berak orduan bertso zoragarri hau bota:

*“Anai-arrebak, ez otoi, pentsa  
neure gustura nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik;*

(jenteak, txaloka, ez deutso aurrera egiten izten; gero, zerbait baretutakoan)

*zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik,  
txistuak jo dituzute bainan  
maite zaituztet orainik!” (Xalbador)*

—*Bederatzi puntukoak* (lehen be aitatu genduzan, ta begira orduan esandakoari).

—*Hamar bertsokoak* be badira: hor, esate baterako, Bilintxen “Domingo Kanpaña” ta Pello Mari Otañoren “Mutil koxkor bat”.

—Xenpelarrek asmatu rik “*Iparragirrenen doinua*” be ezaguna da:

*“Iparragirre abila dela / askori diot aditzen  
eskola ona eta musika / nori oyekin serbitzen.  
Ni enazu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
komeriante moduan.  
Debalde pesta preparatzen det  
gogua dedan orduan!”*

### 3. KOPLA ZAHARRAK (Cfr. M. Lekuona, o.c., 104-127 or.)

Holan deritxe, batez be, eske-kantai, edo eskale-kantai (hau da, Gabonetan, Santa Agedaz, San Juanetan eta beste honango egunetan, etxerik etxe eskcan ibiliaz, buruz kantetan diran bertsoai). Jakina, gaur buruz bota arren, norbaitek —bertsolariren batek— nozbait bat-batean asmatutakoak-edo dira.

### 3.1.Euron teknikea

Kopla zaharrak lau bertso izaten ditue, gehienetan, binan zatituak: lehengoko bertso biak, irudi ederren bat eskaintzen deuskue (izaditik harturikoa, batez be); hurrengo biak, eskalearen gogoia agertzen dabe zuzen-zuzenean. Itxura baten, zati biok ez dabe euron artean zerikusi handirik (logika hotzean, behinik behin); baina ezin ukatu badagoala, ederraren aldetik.

Asko ta asko dira holango bertsoak; hor dozuz, esate baterako, Gernika inguruko Gabonetako "Marijesiak" (Cfr. A. Onaindia, o.c., 170-173 or.). Hona hemen kopla zaharren ejenplu batzuk:

*"Larrosatxuak bost orri daukaz  
klabelineak hamabi.  
Gure haurtxua gura dabenak  
eskatu beio amari."*

*"Eder zeruan izarra,  
errekaldean lizarra.  
Etxe hontako nagusi jaunak  
urre gorritz du bizarra."*

*"Hau haizearen epela!  
Airean dabil orbela!  
Etxe hontako jende leialak,  
gabon Jainkuak diela!"*

*"Oramaiean sagua,  
haren begira katua.  
Etxe hontako okelarekin  
ez da beteko zakua."*

Guk ezagutzen doguzan euskal bertsoarik zaharrenak horrelaxe eginda dagoz:

*“Altzak eztu bihotzik,  
ez gaztanberak hezurrik.  
Enian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik!”*  
(“Bereterretxen kantoria”, MEOF, 8 zk.)

*“Sagar gorri gezatea  
Gerrian bere ezpatea,  
Domenjon de Andia da  
Gipuzkoako erregea.”*

Antzera eginda dagoz hain ezagunak diran “Itsasoa laino dago” ta “Goiko mendian”.

### 3.2. Trikiti-koplak

Kopla zaharren teknika bardina dabe gure *Bizkai dantza* edo *sasi-soinu* honeek (jatorriz erbestekoak, Arratia aldetik sartu ei ziran Euskal Herrian). Hona batzuk: (beste batzuk MEOF, 80 zk.)

*“Itxasoan ura lodi / ezta ondorik agiri.  
Neure laztana ikustearren,  
pasako neinteko handi(k).”*

*“Bedarrik ederrena / soloan garie  
Andrarik onena da / Birjina Marie.”*

*“Erreka bazterreko / lirio-lorea  
Enaz ederra baina / bai ederzalea.”*

*“Arin-arin eiten dau / soloan erbiek  
Utsik egiten ditu / punturik erdiek!”*

Agiri danez, gehientsuenak irri-eragileak edo satirikoak izaten dira.

*Oharra:* Gaurko euskal poeta aurrelari batzuk be teknika zabar hau erabilten dabe batzutan: ikusi B. Gandiagaren *Elorri*, 106 or.; G. Arestiren *Harri ta Herri*-n, “Egun da Santi Mamina” deritxon olerkia, 76 or. (gaur kanta bihurtu dabe).

#### 4. APAIN-POESIA

Herri-elertiaren arlo hau amaitzeko, aitatu daigun hemen, labur-labur bada be, M. Lekuonak *Poesía decorativa* (apain-olerkia) deritxona: maitasun haundiz eta sakon aztertu dau berak poesia mota hau, ta balio handia emoten deutso (o.c., 128-141 or.).

Honclango poesian berbak ez dabe ia ezertxo be esan gura izaten, agiri-agirian behintzat: soinu (ritmo) ta kolorearen bitartez —bokalak dauke honetan zeresan handia!— agertzen edo aitzen emoten dau olerkariak bere bihotzaren izkutua: neolitiko aroan agertzen dan arte haregaz ez ete dauko zerikusirik? (o.c., 139 or.).

Hainbat ejemplo daukazuz M. Lekuonaren liburu horretan. Ganera, Lekuonak berak be erabili dau teknika hau bere pocsietan; hor dozu, berbarako, *Zigor* euskal operako schaska-kanta ederra:

*“Ttunkurrunkuttuna / ttunkurrunkuttuna  
Neri ez galde aita nun degun.  
Ttunkurrunkuttuna / ttunkurrunkuttuna  
Ama tristerik dezu alargun.*

*Ttunkurrunku / ttunkurrunku // Nere semetxo maite kutuna!  
nork lekiken, nork lekiken / gaur zure etorkizuna!  
Zeruko Jaun onak / ttunkuttun-kuttun-kuttuna,  
zigor beza, zigor beza / zuri kalte naiko dizuna.”*

(Lehenengo Egintzako Vgarren Agertaldian).  
(Cfr. *Zigor*, E. Itxaropena, Kulixka Sorta, 54 zk.).

## ABELETXE ETA BERE GAZI-GAZAK<sup>2</sup>

Ondo pozik erosi neban *Gazi-Gazak* liburu barria; erosi ta irakurri. Eta, irakurri ahala, lehenengo gomuta gozoak eta barre osasungarria: ipuintxoak *Zeruko Argia*-n astero irakurten nituaneko irribarre alaia.

### Lehenengo liburua

Liburu lez, hauxe dau *Abeletxek* lehenengoa. Orain arteko lan guztiak —era askotakoak eta ugariak— aldizkarictan eta esku-idatzietan zabaldu izan ditu. Zorioncz, J. Oñatibia jaunak, Edili etxearen zuzendariak, Txindoki-Sorta deritxon bilduman batu ta argitaratu dau gure Manu Ziarsoloren izkirimiri ta ipuintxu txortatu bat, *Gazi-Gazak* izenagaz, euskal umorezaleon aho-gozagarri. Ez al da azkenengoa izango!

Ez, ez! —esan deust Manu gureak—. Bigarren liburu batek be laster urtengo dau, etxe bercean. Eta beste ipuin-liburu bat be gertau nahi neuke.

---

<sup>2</sup> *Redención*, 1975, Ekaina, 547 zk., VII. or.



Zenbat urtetan bialdu zenduzan zeure Gazi-Gazak Zeruko Argia-ra?

Seiren bat urtetan bai, gitxienez be, astero-astero, hutsik egin barik.

*Aspaldion, ostera, isildu egin zara, mututu. Zer jazo jatzu? Bota egin zaitue, ala?*

Ez, bota ez, gero! Neuk itxi. Hara: behin baino gehiagotan eskatu dcuste *Zeruko Argia*-koak, barriro be bialtzeko holako lantxuak eta. Baina, egia esan, azken urteotako saltsa garratzokin, gure arteko nahasteokin, eta urteak be gora, hotzitu egin naz eta, azkenean, mututu.

### **Euskaltzain baten cretxia**

Nik neuk, eta nire antzera beste askok eta askok, pozarren irakurten genduzan *Abeletxeren* ipuintxu arinok. Aldizkarietako beste lan "sakon" asko, irunsi ezinik edo, hurrengo baterako itxiko banituan be —sekula santan ez irakurtzeko!—, *Gazi-Gazak* ez.

Ilolantxe agertu deusat Manuri, eta euskaltzain baten autorpena adierazo be bai: Aingeru Irigaray jaunarena.

—Irigaray diñostak? (Hika egiten dcust gehienctan Manu adiskideak). Hara zer idatzi eban jaun horrek *Diario de Navarra*-n, joan dan abenduan.

Eta aldean eroian paper bat atara ta luzatu dcust: artikulu horren fotokopia bat da. Erderaz dago. Irigaray euskaltzainak beste euskal idazle batzuen artean gure *Abeletxe* be aitatzen dau. Aitatu eta txalotu. Baina, baita bere bihotz-mina agertu be, gure Manu Ziarsolo aspaldion isildu egin jakulako. Egundo baino gehiago behar ei dogu gaur euskaldunok holako umore argia, hainbeste hodei ilun eta éztabaida garratzen artean; Abeletxeren cuskera herrikoia ta jatorra cdozcín euskaldunek ulertzen ei dau, errezc ulertu be. Azkenezc, eskari bat egiten dau Irigarayk: izkiri-miri guztiok liburu baten batu cta argitaratzeko.

## **Kirikiño handiaren ikasle eta jarraitzaile**

Kirikiño be aitatzen dau hor Irigarayk; eta, izen hori entzute-an,

—Kirikiño! —esan deust bapatean Manuk—. Ha bai bazala gizona! Berari zor deusat nik euskal idazle izatea: berak eskatu custan, behin eta berrero, idazteko, ezereen bildur barik idazteko; hutsak eta okerrak berak zuzenduko custazala. Eta holantxe egin be! *Euzkadi* egunerokoan “Euskal Atala”ren zuzendari zuan orduan gure Kirikiño, eta hantxe hasi nintzoan neu be neure lehenengo euskal lantxuak argitaratzen, berak lagundu ta bultzaturik.

Kirikiñoaren izena ahotan, berarizko bizitasuna hartu dabe Manuren begiak. Zenbat gomuta eder! Zelako esker ona bihotz sakonean!

—Nik ondo jakiat Kirikiñoandik urrun nagoana; baina, inoiz edo behin, haren antzeko-edo nazala esan deustencan, ez dakik zelako poza nire barruan! Nok esango eustan niri, halakoren baten neure maisu handi horren beharleku berbera izango nebala, “Euskal Atala” horren zuzendaritzan, Lauaxeta olerkari ospetsuaren hurrengo eta beronen aginduz?

## ***Eguna* egunerokoaren zuzendari**

“Hire lana, bihartik aurrera, “Euskal Atala” eroatea izango dok”, esan ei eutsan bere nagusi zan Lauaxetak. Eta, hurrengo egunetik hasita, ez eban Abeletzek txalma arina hartu sorbalda ganean.

Bost hilabetez izan eban “Euskal Atala” bere ardurapean; baina, geroago, 1937garren urtearen lehenengo egunetik hasi eta bagilaren 19rarte, pixu astunagoa bota eutsoen ganera: *Eguna* critxon euskal egunerokoaren zuzendaritza.

—Ez zituan egun gozoak eta errezak! Gaurko beste aurrerapide izan bagenduan be! Baina, orduko denporetan, zer? Gauza bi onak, orraitino: gaztetasuna eta lanerako —aberri maitearen alde-

rako— gogo beroa. Goizaldeko hirurak arte lan egin behar izaten genduan, geure egunceroko hori atarateko.

Eta, emon deustazan laguntzaileen izenen artean, batzuk baiditut gogoan: Augustin Zubikarai ondarrutarra, Eusebio Erkiaga lekeitiarra, Motrikuko Alexander Mendizabal, Etxebarriko Jose Mari Arizmendiarieta (*Arretxiñaga*), Markinako M. Elisabete Aginaga (ETE), emakume apal eta maratza...

### **Ceroko gorabeherak**

Cero jazotakoak ez dira ipuintxu barregarriak, ez izkirimiri gordin-gozoak: dana bertan behera itxi eta iges egin beharra; erbesteko ogi garratza; noizbait etxeratu eta barriro hiru urteko “kerizpe”-aldi luzea...

—Baina, dana dala, hainbeste nahigabek eta nekek ez eutsuen, zorionez, zeure umore on hori ez garratzu, ez moteldu —esan deutsat.

—Ez horixe! Ilunaldi luzea, azkenbakoa, etorri zan, guda ostean, cuskal gauzetarako; baina, halakoren baten, lozorro ta bildurpetik itxartu, lagun batzuk alkartu, eta hemen hasi ginan, barriro be, euskal bertsoei ta antzerkiari bultzada barria emon gurean. Herririk herri ibiltzen ginan, teatru-lan laburrak emoten. Euskaldun bihotzen poza! Urte ederrak, benetan, eta guretzat oso pozgarriak, hainbeste euskaldunen bihotz jausiak barriro gora jaso ta berotzen genduzalako. Orduantxe idatzi nituan hainbat antzerki. Geroago, lehen esan dodanez, aldizkarietan emon ditut neure lanik gehienak —*Zeruko Argia*-n eta *Agur*-en, batez be—, eta eurok emon deuste entzuterik handiena.

### **Gizona ta beronen lana**

Cauza atsegina, benetan, Manu Ziarsologaz berba egitea. Ordubete luzea emon genduan alkarregaz; ni neu, pozarren, hainbeste jakingarri ikasten.

Amaitzeko, esan dagidan Manu Ziarsolo Bilbon jaioa dala, 1902garren urtean; aita, elorrioarra, eta ama, bermeotarra. Hazi, Ermuan egin zu, eta hangoxe baserri-etxe batetik hartu eban *Abeletxe* izenordea. Euskal aldizkari askotan argitaratu ditu bere lanak. Antzerkitxuak hainbat ditu, gehienak laburrak eta inon argitara bakoak. Euskaltzaindiaren urgazle edo laguntzaile da. Beti *Abeletxe* izenorde hauxe erabili ei dau; behin bakarrik izenpetu ei eban artikulu bat *Neu nok* ezizenaz.

### Hartu eta irakurri

*Eta Gazi-Gazak liburu barri hori, zer? Zer deritxazu horri? —esango deust, beharbada, irakurleren batek, liburua bera ez dodala aztertu-ta.*

Ba, hara: hartu eta irakurten hasi zaitetz. Itxi alde batera joserera, deklinabide ta horren antzeko beste “gramatikakeria” zorrotzen ardurak. Liburu hau barre eragiteko egin da, batez be. Ez ete dau bere asmo hori ondo baino hobeto lortu? Zer gehiago behar da, ba, txalogarri izateko? Baina ez da hori bakarrik: horrezaz ganera, hamaika euskal esaera aberats eta herrikoi aurkituko dozu hor, baita hiztegi ugaria eta zabala, alkarrizketa bizi-biziak eta jatorrak be.

### Herri-herriaren filosofia

Mikel Zaratek, *Bizkaiko Euskal Idazleak* liburuan, *Abeletxeri* be emon eutsan zor jakon lekua; eta, beste gauza batzuen artean, hara zer dinoan: “Kirikiñoren jarraitzailca da Abeletxe eta herri-herriaren filosofia unoretzuagaz egosten ditu bere idazlanak”.

Herri-filosofia hori ez da, ez, ustela: Bizkaiko euskal umore jatorra, Mogelek, Otxoluak, Kirikiñok, Zubikaraik, F. Bilbaok eta *Abeletxek* hain ondo jaso ta zabaldu daben herri-sen zorrotza eta alaia.

Zorionak, ba, eta eskerrik asko *Abeletxe* adiskideari; eta, bigarren liburuaren zain, laster arte!

## PEDRO PUXANA, ARABAKO EUSKAL IDAZLEA<sup>3</sup>

Aspalditxotik neukan nik Pedro Puxana adiskideari itaun-mordo bat egiteko gogoia ta asmoa; berak, ostera, hurrengo baterako luzatzen eustan erantzuna. Oraingoan, baina, lortu dot nahi nebana: Puxanak zehatz eta egoki erantzun deutse nire itaun guztiei; eta, euskal zalcontzat jakingarri izango dalako ustean, hemen joatzue gure autu-mautuaren barri:

*Non eta noiz jaio zinan zu, Puxana?*

Arabako herrialdearen goi aldeko musturrean, Olaeta deritxon herritxoan munduratu nintzan, 1915eko bagilaren 29garrean, San Pedro eguncz.

*Eta zure ikasketak, non?*

Nire abadetzako ikasketa guztiak Gasteizko Abadegaitegian egin nituan, Ichnengo urtetik azkeneraino.

*Baina zu leku askotatik ibilia zaitugu, ezta?*

Euskal Herriari bagagokioz, abade eginda lau urte geroago Eskoriatzara bialdu ninduen. Hurrengo, Angiozarren egin nituan

---

<sup>3</sup> *Redención*, 1975, Iraila, 549 zk., X-XI. or.

9 urte; handik Morgara joan nintzan, eta hemendik orain bizi nazan leku honetara —Arteagara— etorri. Herriz herri herbaldiak emoten be ibili ninoiatzun Bizkaiko ta Gipuzkoako herrietan, Garizuma aldian batez be.

*Jaiotzaz euskaldun garbia, herririk herri ibilte honek ez zinduzan gitxi aberastuko zeure euskera ederrean. Zenbat euskal liburu argitaratu dozuz ?*

Nire euskal lanak aitatzeakoak diranik be ez dot uste. Badot liburuxka bat bizkaierazko euskal aditzari buruz taiutua ta 1970garrenean argitaratua, *Euskal Aditza-Bizkaiera* dozu berorren izena. Morgan abade nintzala egin neban. Beste liburutxo bi badaukadaz, herri beratan nintzala urten ebenak: *Autortu... zer dala ta ?* (1972) eta *Bateoa* (1973). Dionisio Borobio jaunak gaztelera egin eta nik euskeratuak.

*Eta aldizkarietan, zer?*

Aldizkarietan idatzi, gaur baino sarriago idazten neban orain 8-10 urte. *Agirregabiria* nire bigarren abizenaz eta *Peillo Elizaldeko* izenordeaz agertzen ziran lanak.

*Geldi egotekoa ez zara-ta, beste zerbait be gertautu euki baietz zuk.*

Bai, egia esateko, bai. Olacta nire herriko aditza dala-ta lan bat eginda daukat; noz-edo-noz argitaratzea be balciteke, honcetariko lanak gitxi batzuentzat bakarrik izan arren.

*Gitxi batzuentzat bakarrik izan arren be, Olaetako euskerea zelakoa dan jakitea guztiz mesedegarri izango jaku. Arabako herritxu horretako hizkera hori, zein euskalkitakoa da?*

Olaetako euskerea bizkaiera huts-hutsa da. Badauz, izan, berezitasun batzuk, aditzari gagokiozala batez be. Hikako berbe-

tea askotan eta askotan erabilten da. Zukakoa beste, hortxe-hortxe. Nagusiak eta zaharrak be, euren artean eta gazteagoakaz, hika egiten dabe gehien baten. Eta hikako berbeta hau dala-ta berezitasun nabarmen batzuk dakuskuz. Hona adibide bat:

	<i>Olaetan</i>	<i>Bizkaieraz</i>
Ni etorri	nitza	nintzoan
Cu etorri	giña	gintzoan
Hareek etorri	zi(r)a	zoazen
Nik txakur bat ekarri	ñoa	najuan
Nik txakur bat ekarri	ñoaza	najituan

Euskal aditza zerbaít dakianak artez dakus jokoon artean dan aldea. Ta beste inon entzun ez dodazan adizkiak be badira Olactan: “hakutsu” (zuka) eta “hakuk/hakun” (hika), esate baterako. Hamaikatxu bider entzun neutsan nire aita zanari honako esaera hau: “Hakuk hori, hakuk hori”. “Hakutsu” ta “hakuk” zer ziranik (hau da, “ikusi” aditzaren jokoak ziranik) ez neutsen antzik emon, aditza ikasi arte.

*Zuk zeuk, zenbateraino aztertu dozu Olaetako euskera hori?*

Aztertu, aditza bakarrrik aztertu dot. Bizirik diran jokoak jaso, ta morfologia ta fonetika aldetik aztertu. Horixe besterik ez. Ta, halan ta guzti be, 128 orrialde haundi daukadaz idatzita.

*Ez da lan makala. Baina, horrezaz gainera, zure Euskal Aditza bigarrenaz argitaratzekotan ei zagoz...*

Aspaldion izan dodan eta gaur be badodan amesa dozu hori. Lehenengo argitaraldia amaituta dago. Bigarrenko hau osoturik letorke. Era honetan osoturik: hikako jokoak be agertuko litzakez, lehenengoan zukakoak baino ez nituan ipini-ta. Adizki-talde bakotxaren ondoren jardukizunak be ipini nahi neukez, ikasleei argibide ta lagungarri izan dakiezan. Bigarrenko liburu hau,

beraz, hiru bider edo lodiagoa izango litzateke lehenengoa baino. Liburua idatzi, osorik euskeraz idazteko asmoa dot. Lehenengoa baino onuragarriago ta erabilgarriago izango litzatekela uste dot ikastumentzat. Egin, baina, ez dakit egingo dodanik.

*Egin ez, ostera? Zergaitik ez, ba?*

Ba, hara; bizkaieraz gaur bizirik diran hikako jokoak nik neuk be ez dakidaz zehatz-zehatz. Hau dala ta, orri batzuk bialdu nituan, bizkaieraz berba egiten dan hegal guztietara, hikako aditz-jokook jasoteko asmoz. Erantzun, barriz, bik edo hiruk baino ez deuste erantzun. Ta lan hori nik bakarrik ezin egin. Laguntzailcak behar. (Parkatu, Puxana adiskide horrek! Neuri be bialdu zeustazan orriok; eta, beste askoren antzera, neuk be hurrengo baterako itxi, eta zor deutsudan erantzuna... gaur arte. Parkatu!).

*Bakarrik egiteko baino handiagoa da, beraz, esku artean dozun lan hori.*

Bai horixe! Arlo honetan bada zereginik, bada zer baturik. Behar litzakezan langilerik eta biltzailerik ez izan, baina. Hikako joko honeen inguruan hutsune haundia dogu, izan be. Ez daukagu jokook dakarzan libururik; ta galdu egingo dira, inortxok be jasoten ez badauz, betiko galdu.

*Ez galdu adorerik eta asmo onik, Puxana! Zure lehenengo Euskal Aditza-ren frutu eder hau lehenbailehen ikusiko al dozu!*

Lehenengo liburu horrek poza baino besterik ez deust emon: Oñan jesuitetan izan nintzan bitartean hasitako lan hori, Morgan amaitu ta taiutu neban gero. Atara nituan mila aleak saldu dira; banaka batzuk bakarrik daukadaz. Eta, gainera, jaso ditudan kritikak be pozgarriak izan jataz: Aita Villasantek kritikatzko polita egin eustan Aranzazu aldizkarian; Aita Lino Akcsolok idazlan eder bat argitaratu eban *Zeruko Argia*-n, liburu berori zala-ta.



Baita Martin Olazar adiskideak be beste horrenbeste egin eban *Agur*-en. Nahikoa dozu liburu kaxkar batentzat. Nahikoa ta lar.

*Orain beste zerbait itaundu gura deusut: nortzuk izan dozuz euskal maisurik handienak?*

Aditz kontuan maisurik handiena niretzat Arturo Campión izan da. Beronen *Gramática bascongada* harrobi aberats-aberatsa dogu aditzaren gorabeherak ikasteko. Luis Eleizalderen *Conjugación vasca sintética* be ondo baino hobeto etorri jatan. Oñan nintzala maisu biok erabili nituan, batez be. Gero, liburua idazten niharduala, Azkueren *Morfología Vasca* eten barik izan neban eskuetan, eta itzelezko mesedea egin custan.

Euskal literatura dala-ta, idazle zaharrak ez dodaz hainbeste be irakurri. Axular eta Moguel, honexek bai, hiru-lau bider irakurri dodaz. Oraintsuagoko idazle batzuk begi-begiko izan dodaz: Agirre, Orixe, Eguzkitza... Bizirik diran gaurko idazleen artean be badira euskeraz zoragarriri idazten dabenak, zein bizkaieraz, zein gipuzkeraz. Beste batzuen lanak, ostera, irakurri be ezin leitekcz; horrenbesteko euskera ganorabakoa ta aspergarria darabile.

*Eta amaitzeko, beste itaun bat: Olaeta ta Aramaio dira Araban euskerearen azken gordelekuak. Herri biotako euskereak badauka bata-besteagaz zerikusirik? Bardinak al dira?*

Olaeta Aramaiori dagokio herriz. Ez, baina, gogoz, bizikeraz, hartumonez, hizkuntzaz. Batetik bestera urrincgi, herri bat izateko. Oinez, mendiz joan ezkeru, ia ordu t'ardi. Eta 1040 m. daukazan mendi gailurra bitartean. Otxandio, ostera, Olaetatik herbertan egiten da. Hori dala-ta, Aramaio ta Olaetako euskera sakonean euskalki beratakoa izan arren, ezbardintasun haundiak be badaukaguz: fonetika arloan, esate baterako. Aramaioko euskera Lenitz harana (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza...) aldeko herbeta da. Olaetakoa, barriz, oso-osoan Otxandio ingurukoa.

Eta holantxe amaitu dogu, gaurkoz behintzat, gure barriketaldia. Eskerrik asko Puxana adiskidcari, bere lan sakon eta etenbakoagaitik, eta gaurko berba jakingarriok gaitik. Eta, nire aldetik, gurari bizi bi: bata, ekin deiola Puxanak aspaldiko euskal arlo horri, Arabako euskerearen hondakinok bizirik eta emonkor iraun dagien; bigarrena, gure Euskaltzaindiak ez dagiala luzaroagoan ahaztuta euki, arabar euskaldunen artean gorengo mailako euskal idazle dogun gizon behargin eta apal hau.

## MIKEL ZARATE, ELEIZ IDAZLE<sup>4</sup>

Hamar urte laster Mikel hil zala! Sinistu be ezin. Baina egia da: "tempus fugit", iges doaz gure egun laburrok.

Labayrukoak eskatu deusten artikuluari neurri estua emon gura deusat —Mikelen eleiz lanak—, beste arlo asko jakinaren ganean alde batera itxita. Badakit alderdi honek ez deusana Mikeli izen handirik emon, ez emongo; baina berak beti jorratu izan eban arloa da izan, eta horretan emondako orduak, egindako ahaleginak, ezin guk ahaztuta itxi.

\* \* \*

Erlijino-usaineko liburu bategaz agertu zan Zarate euskal letren plazan, 1960. urtean; *Cure Meza Deuna*, Pio Parsch-en *Sigamos la santa Misa*, euskera argi, herrikoi ta ugarian eskaini euskun. Apal-apalik agertu eban bere burua. "Parkeske" izeneko hitzaurrean behin ta barriri autortzen deuskuz bere bihozkadak: bere "adimen antzua", liburu barriaren "huts ugariak", "garbitasun" gitxiko hiztegia... Bere borondate ona ta ahalegin biziak be ez deuskuz ezkutauko: "Neure aldetik, behinik behin, ahal izan dodantxo egin dot".

---

<sup>4</sup> Derion, Udako Ikastaroak Mikel Zarate zanari egindako omenaldian, 1979. urtean, uztailearen 10ean giniko hitzaldia, zertxobait ikututa.

Oraindinokarren "filosofo" zala euskeratu eban bere lehenengo liburua; eta, hutsak huts, ondo baino hobeto erakutsi euskun zenbateraino eukan menperatuta herri-euskerearen jatortasuna.

"Teologiako" urteetan, ostera, euskal arlotik aldendu samar ikusten neban nik neuk Mikel. Zergaitik hori? Euskera kontuan bere lagunak baino gorago ikusten ebalako bere burua? Ala beste gai sakonetan eta ardura barrien kezka bizi zalako? Dana dala, bildur nintzan ni bihar-etziko euskal idazle on bat galduko ez ete genduan.

Abade egin barritan Mallabiko Ceria auzora bialdu eban parroko. Ez zan leku txarra Txorierriko euskera Markinaldekoagaz aberastuteko.

Bera han egoala egin neban nik neure lehenengo "lorategi" edo antologia antzekoa, bizkaierazkoa, multikopia apalez (Derio, 1965). Eta beronen azkenengo orrian, Bizkaiko idazleen artean, Zarate sartu neban. Zer dala-ta hori? Ordurako Mikelek liburu bakar hori —eta bera itzulpen soila— eukan eginda ta argitaratuta. Baina nik sartu egin neban. Sarreratxuan (zoritarrez, erderaz egina berau), neure barruko garratasuna agirian jarri neban: "Posteriormente, es una pena, apenas ha publicado más que breves artículos sueltos". Eta Mikel zirikatzearen, igarle itxurak harturik, neure itxaropenari leiho bat edegi neutsan: "Esperemos que, instruído en su actual "universidad" por tantos "Peru Abarka", se reincorpore a las letras vascas con nuevos bríos y singular maestría".

Zorionez, urtebete barru, bere bigarren liburua eskaini euskun Zaratek, "Geriako ama euskera eder eta kutunaren altzotik": *Gure salbaziño egintza — Alkartasun zarra* (Bilbo, 1967). Itzulpena hau be, baina euskeratu barik, *euskaldundu* egin eban Mikelek erderazkoa. Ez eban berak poz makala hartu D. Pedrok, bere herriko parrokoak, esan eutsanean: "Erderazkoa bera baino hobeto ulertzen da zurca".

Geriako egotaldi hori laburra izan zan, baina guztiz onuragarria. Laster ekarri genduan handik Derioko Seminaria, euskera

irakasteko (beste zeregin askoren artean). Harrezkeroko guztian, hamaikatu arrapalada eginak gara biok alkarregaz euskal gaitan! Beti alkarren lagun, bata bestearen miresle ta bultzatzaile, nok jakin zenbat aldiz lankide, euskal zaletasunean bihotz bateko, eretxietan antz-antzeko, asmoetan sutsu ta neurribako...

\* \* \*

Derion irakasle zala, barrero be mezcaren inguruan egingo ditu lan batzuk. Holan, birritan egingo dau liburutxu baten euskal itzulpena: *Meza-liburu txikia* izenez argitaratu eben, txukun eta dotore, argazkiz ondo horniturik.

Baina "euskal" mezeari emongo deitsoz bere ordurik onenak. Mezearen "Egunerokoa" euskeratzeko berarizko batzordea sortu zan Bizkaiko Eleizan, Aita L. Akesolo buru zala. Neure eskutan daukat Mikelek bialdutako itzulpena. Eskuz ezarritako ohar batek Zarateren betiko jokabide arteza adierazoten deusku: "Herriaren belarri eta bihotzerako gauza atsegingarri da-ta, bertso modura ipini dodaz, batez be, erantzun laburrak...".

Handik aurrera lan luzea, behar itzela egin zan euskaldunen artean liturgia osoa euskeratzen. Eleiz otoitzaren barrizatze-aldi honetan sarri ibili zan aurrenengo Mikel gurca, batzarrik batzar, hideak betean jo hona ta jo hara, ordu luze aspergarriak —baina ondo pozgarriak!— alkarlanean egiten. Lagun alai ta atsegina beti, itzulpenik gehienetan erakutsi eban bere euskal sena, gorengo lege horren barruan, baita euskerearen batasunari zor jakona be.

Liturgi sailean berarizko batzorde txiki bat sortu zan geroago —Olerkariena—, eta hortxe sartu genduan Mikel, bizkaitarren ordezkariatzat, J.M. Lekuona, B. Gandiaga ta beste batzuk lagun zituala salmo-kantak, goratzarreak eta eleiz abesti barriak egokitu ta sortzeko.

\* \* \*

Bere bizitzako azken aldian, Unibersidadeko ta Hizkuntza Eskolako ur handietan erdi itota ebilela, eleiz itzulpen-lanok

apur bat baztertu egin behar izan zituan. Baina hilgo zan aurretxoan be, holakoxe lan bi izan zituan esku artean: bata, "Mezaren Egumeroko" barria aztertu ta zuzentzea, gure meza-libururako; bestea, Juanjo Elezkano abade gaztearen doinu barrientzako cuskal herbak asmatzca. Bigarren hau izan zan, hain zuzen be, Mikelen azken lana. Gure egunotan hainbeste zabaldu diran kanta barriok Mikelen azken bihozkadaz eta itxaropenez beterik dabilz. "Gure Aita" gaz batera, ez ete da "Eskerriek asko, Jauna" gaurko eleiz kantarik erabalicna? Zenbatek ete daki gure herrian Mikel erdi gaixoaren oihartzun biziak joten dituala gure gogo-bihotzak, hori ta horren antzeko kantu barriok kantatzean?

Liturgiaren inguruko lanokin batera, aitatu daiguzan hemen Zaratek egindako beste itzulpen asko. Zirarda ta Añoveros jaunak Bilboko gotzain izan ziran artean, euren agiri asko ta asko Mikelek cuskeratu zituan. Gogoangarria, batez be, Zirarda gotzainak, Bilbora sartu zancan, Gurpideren hileta-mezan, katedralean egindako berbaldia: euskerazko itzulpena Zaratek egina da.

\* \* \*

Amaitzeko, eta neure arlo estutik urten barik, Mikel gurearen beste alderdi bat aitatu behar dot: berak eleizkizunci emoten ekian bizitasuna, euskal sen pozgarria (bardintsu egiten eban bere eskoletan). Bera zana eta berak eukana emoten eban holakoetan. Baekian zelan orctu ta gozoagotu bere "erretolika" ugaria; bertsoz, herri-csaeraz, ipuinez eta kantuz, zinuz eta umore oncz. Holantxe, domekero ta jaiero, Loiuko Lauroeta auzoan; holantxe, sarritan, Begoñako basilikan eta Bilboko cleiza askotan; euskaldunen (cdo cuskalzalcen) hiletak, lehencngo Jaunartzeak, ezkontzak eta jaiak zirala-ta, askotan Mikeli deia, eta Mikelek czetzik emoten jakin ez, laniez leporaino beteta ibili arren be. Ez jat sekula ahaztuko gure ama zanaren poza, etxeko atean sartu ordukoxe esaten custala: "Eztakizu gaur Begoñan mezie nok emon deuskun? Mikelek!" Herri-herriak gogokoak zituan Zarateren cleizki-

zun herrikoiak. Hau dala-ta, Lauroetara bertara be sarritan joaten ei zan jentea, Bilbotik-eta, Mikelen mezak euken euskal usain ederrak erakarrita.

Eta hurrengo hau be autortu dagidan: mezcagaz zerikusia eukan zer baterako berba egin neban azkenengoz Mikelegaz. Bilboko gotzain barriak, Larrea jaunak, Begoñan emongo eban meza baten, bertsoak botateko hots egin neutsan Mikeli, telefonoz. Pena handiaz, baina ezetza eumon eustan berak, makalik ebilela-ta, ondo lorik egin ezinda; bere ordeez, B. Enbeitari zein L. Zugazagari deitzea hoba izango zala. Lezaman egoan, gurasoengan, atsedeen bila joanda. Haren gogo urduriak, ostera, ez eukan inon geldiegi egoterik: "Lau liburu daukadaz ia amaituta, eta beste hogeciren bat, bai, erdi egosita buruan", autortu eustan alkarrizketa horretan. Ez jat ahaztu zer erantzun neutsan: "Mikel, primum vivere". Alperrik zan hari holakorik esatea. Handik lasterrera, horrenbeste buruhauste larregi zala esan eutsan, aurki, barruak (bihotzak? buruak?); eta gitxien uste genduanean, behingoa zabaldu zan albista negargarria: Mikel hil zala! Lotan egoala beragandu eban heriotzcek, Lezaman, gurasoen etxean, 1979. urteko Martitzen Santu goizaldean.

\* \* \*

Bai ederra, Mikel, zure hileta-mezea, Lezamako zeure parroikia maitean! Bilboko gotzain biak buru (Larrea ta Uriarte), altara inguru guztia abade lagunez beteta, herri osoa bertan, hainbat lekutatik batutako ikaste ta adiskideak negarrari eutsi ezinda, eleizea ta cleizpea jentez ganczka. Eta meza horren azkenerantza, altara ondotik, zek sortutako otoitza abestu eban, kitarra ta guzti, Juango Elczkanok, doinu-egileak berak:

*"Jaunaren Eguna / etor dadinean,  
guztiok poztasun betean / egongo gara  
Jaunaren ontasunean.  
Izango gara zoriontsu / betikotasunean".*

Harrezkero, Mikel, zure kantok entzun zein kantau orduan, gure begiok lausotzen badira, ez daukagu zetan lotsatu, maitasun-negarranpuluak dira-ta. Hako Orixek Lizardi adiskide kutunari esandakoa izan daigula gogoan:

*“Bego negarra, lurrindu bedi  
begian malko mingotsa;  
alere ez uke nik iregatik  
negar egitea, lotsa...”*

Eta olcrkari berak legez csango deutsugu, Mikel, maitasunik handienaz, inok ez ezek sekula epeldu ezineko maitasun beroaz:

*“Nere bigarren albo-aingeru,  
nere Jainko-erakusle,  
il arte lagun: ortik onera  
etxegok len ainbat bide.  
Bakar-bakarrik nakustenean,  
jendeak esan bezate:  
—Bekokian dik aren itzala,  
lagun dik oraindik ere!”*



## MIKEL ZARATE GIZONA ETA IDAZLEA<sup>5</sup>

Jaun-andreok:

Mikel Zarate zanaren lagun zahar eta adiskide maite izan nazalako-edo, neuri be gaur hiru-lau berba esateko eskatu deustie, eta ezin nik ezetzik emon, gure Mikeleri horrenbeste ta gehiago zor deusat eta.

Mikel Zarate, Txomin Agirre, Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea, Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta beste cuskal erakunde batzuk alkartuta ikusten doguz ospakizun honetan. Guzti honen inguruan, azal-azaletik bada be, neure gomuta eta gogoeta batzuk agertu gura neukez, guztion baimenaz, gure artean beti erabili genduan —eta Mikelek hainbeste maite eban— bizkaiera latz errimean.

Ondo gogoan daukat noiz eta zelan jakin neban albista pozgarria: Mikel Zaratek berberak emon eustan, Donostiako katedralean, Setien jauna gotzain egingo eben elcizkizumaren aurreaurretuan: “Txomin Agirre Saria emon deuste!”. Eztitan egoan bera, pozez ganczka bere adiskideok. Pozik egotekoa zan: lehenengoz aurkeztu sariketa batera eta lehenengo saria jaso! Euskaltzaindiak eratu ta Bizkaiko Aurrezki Kutxak ordaindutako


---

<sup>5</sup> Deustuko Unibertsitatea, 1979ko abenduak 3, “Mikel Zarate Saria” banatzean egindako hitzaldia.

nobela-sari bikain hau 1972garren urriaren 27an irabazi eban Zaratek, Erkiaga, Lafitte eta Lete epaimahaiko zirala. Biharamonean, San Simon eta San Juda eguncan, zabaldu zan barri hori euskaltzcon artean: "... joan zen uda, eta negua heldu da" dino euskal esaera zaharrak egun horregaitik. Miklentzat, ostera, eta euskerearentzat, bestetara izan zan: itxaropen alaiz jantziriko udabarri baten hasierea.

Hiru urte lehenago, Zarate, bere eguneroko irakasle-arazoak eta jaiegunetako abade-zereginak alde batera itxi barik, "Filosofía y Letras" ikasten hasi zan Deustuko Unibersidade honetan, gaueko eskoletan. Ez jakon ikasteko gogo berorik falta, ez horixe! Baina haren ondoan bizi ginanok ondo baino hobeto dakigu zelango aldasgora gogorra egin jakozan hemengo goi-mailako estudio sakonak, lehenengo urteetan batez be. Dancan bera zana eta berak cukan dana emoten ohituta egoan Mikel gau-ikasleari iruntsi-ezina egiten jakon holango ikasketa zehatz-sakonak ganorra handi barik egin beharra, ezetarako astimodu barik, beste ardura ta arazo guztiak ganean zituala. Horregaitik, aurrera egiteko gogo barik eta dana bertan behera ixteko arriskuan ikusita, behin baino gehiagotan adoretu genduan Mikel adiskideok, hartutako bideari azkeneraino jarraitu egion. Izan be, gehienetan begiko ta gogoko jakona bete artean bakerik ez atsedenic ez cukan gizona izan arren, noizik behincan gorabehera handikoa be bazan gure Mikel, zeru goi-goiko izarretatik urpera jausten zan gizon errukarria. Hau holan dala, "Txomin Agirre Sari" horrek adore ta kemen barri ta handiak emon eutsazan Zarateri, Unibersidadeko estudioak patxadaz amaitu eta euskerearen munduan sakonago ta bcte-betean sartzeko.

Ondarruko abade idazleagaz here izena behin ta betiko alkarretuta ikustcak ez eban gitxi poztu Mikel Zarate. Txomin Agirreren *Kresala* izan ci zan berak lehenengoz irakurritako euskerazko liburua. Ez dinosku ez noiz, ez non; harenbaten, Derioko Seminario Txikian izango zan, Don Manuel Estomba irakasle euskaltzaleak itxita-edo: berau izan eban Zarate gazteak lehenengo



Belokko eleizaren inaugurazio eguncan, 1975eko irailaren 7an. Ezkerretik hasita: Alberto Onaindia, Roger Etchegaray (Marseillako apezpikua), Mikel Zarate, Karmelo Etxenagusia.

zuzendaria euskal kulturaren bideetan. Zertxubait lehenago, han, Laukinizko herritxuan, udako arratsalde baten, erromeriari begira egoala, beste abade batek sartu ei eutsan barru-barruraino euskal zaletasuna: orduan sermolari txukun eta entzute handikoa zan Eutikio Zulueta bermiotarrak.

Gogoangarria Zaratek berak autortzen deuskuna:

“Eskuetan hartu nuen euskarazko lehenengo liburua Txomin Agirreren *Kresala* izan zen. Astun, gogor, ulergaitz egin zitzaidan. Banekian jakin euskaraz, nire herriko euskaraz; baina hitz, aditz eta esakera asko ez nituen konprenitzen, eta gaia ilundu, haria galdu, nekagarri ta aspégarri egiten zitzaidan *Kresala* zoragarria irakurtzea. Hala ere, behinolako elkarrizketaren bultzadaz (Zulueta gaz izandakoa) craberrituriko gogoia adoretzu nuen, ta Mendizabalen hiztegia erosi, hitz ezezagunen esanahia nobelako orrialde bakoitzaren barrenean jarri, ekin eta ekin, aurrerapide

handiak egin nituen berehala, irakurgai hura pozgarri ta bultzagarri izateraino aurrerapidetia" (*Euskal Literatura*, 1, 10. or.).

Euskaltzaindiak eratutakoa da, guztiok dakigunez, "Txomin Agirre Saria". Eta sari honegaz batera —handik lasterrera— Mikel Zaratek beste sari pozgarri bat be jaso eban: Euskaltzaindiak bere Urgazle edo Laguntzaile hautatu eban. *Haurgintza minetan* nobela horrek idazle barri baten izena zabaldu ebalako? Askoren ustez, ordurako be Zaratek ondo erakutsita eukan bere maixutasuna euskal letren munduan: hiru liburu argitaratuak, 6-7 urte euskera-irakasle, sermolari ta hizlari herrikoi ugaria hainbeste lekutan, eleiz liturgiarako itzulpen taldeetan lankide argi ta zentzun handikoa... Batek baino gehiagok esango eban, "baturantz"-bidetik sartu zalako aintzat hartu ebalu Euskaltzaindiak Mikel Zarate: hain zuzen be, *Haurgintza minetan* da Zaratek euskera baturako saio lez egiten dauan lehenengo liburua, eta "Baturantz" izen-ordeaz bialdu be egin eban sariketara. Dana dala, lagun eta laguntzaile ona bereganatu eban Euskaltzaindiak, eta Zaratek, Bergaran egindako batzarrean batez be, bere bihotzeko kezka eta itxaropenak, bere buru argiko jakintza ta zuhertasuna eskaini eutsazan Euskaltzaindiari, euskeraren batasuna argitu, sendotu eta zuzendu nahirik.

Baina, nire ustez, Zarate ez zan talde-laguna. Hara zer esan gura dodan:

—Alde batetik, edozeini laguntzeko prest egoten zala beti, baina bakarlana eban gogokoen; bere gogo urduriak, bere asma-men ugariak eskainitakoa zertzea ta argitaratzea.

—Beste alde batetik, baekian berak askozaz be erosoago zala beretzat talde itxi baten itsu-itsuan sartu eta lan egitea (alderdi bateko zein bestekoa izan talde hori), edota jokabide zehatz baten barruan. Baina gauzak ez zituan beti horren argi ikusten, egiaren aberastasunak han eta hemen aurkitzen zituan, eta, horregaitik, bere askatasuna ez eutsan inongo talderi ez erakunderi salduko.

Mikel Zarateren sari-zaletasuna aitatu gura dot orain. "Agirre Saria" irabazi ta gero, beste lau-bost sariketata bialdu zituan Zara-

tek bere lanak, eta gehienetan baita gorengo sariak jaso be: "Azkué", "Ciudad de Irun", "Arrese Beitia"... Zergaitik Mikel sari bila?

Bere ikaskide ta lagun askok laster emongo leukie erantzun bat: holakoxe izakcerca cukalako. Hasi ume-umetatik eta azknerainoko guztian, bere indarrak edonoz, edozetan eta edozeingaz neurtu-zalc beroa agertu jakun beti gure Mikel. "Ili bahaz, neu be banok", esaten cutsan bere buruari.

Ez dot nik izakera horren eraginik ukatuko sari-zaletasun horretan; baina, danen ganetik, beste errazoe sakonago bat dagoa-la uste dot: Zaratek, Unibersidade honctan, irakasleei entzundakotik eta libuructan irakurritakotik, asko be asko ikasi eban. Jakintza ta literatura mailan ikuspegi zabala ta ederra agertu jakon. Aldi ta alde guztietako idazleekin adiskidetu zan, bide barriak eta teknika aurrerakoi czezagunak ikasi zituan. Eta bcrak, herri xehegandik "Basarteko Unibersidadcan" azken barik ikasten ebana eta Deustuko honctan agertutakoa alkarregaz buztartu gurean, cuskera zahar herrikoia beronen ahalmen guztiak bilatu ta atera nahi deutsoz, kanpotiko gaurko teknikak ezarri, Lauaxctaren antzera *Bide Barri-jak* erakutsi, Lizardigaz batera cuskera laztana edcr, dotore, ikusi nahi dau, erdera guztien artean:

*"Baina nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunal ere noranaikoa..."*

Alde batetik, hizkera argia, herrikoia, bizi-bizia, gozotasunez betea nahi izango dau; bestetik, hizkera hori, morfologia zehatz baten bidez, eta mundu zabalean nausi dabiltzan literatur teknika barrien bitartez, gorengo gailurrera jaso. Baturantzako bidea hartuko dau, baina bere Bizkaiko euskerea lantzeari itxi barik. Baekian berak bere buruaren barri, eta zer ziran bere ahaleginak: geroago burutu nahi eban lan bikainago batcn lehenengo pausu apal badaezpadakoak, baina guztiz beharrezkoak. Astiro, hotz-hotzcan eta kontuzegi orraztuta egindako lanak barik, gogo-bero-aldi baten sortu ta zerturiko saio-antzekoak dira, nire ustez, Mikelen azken lanik gehientsuenak. Denpora gitxian arlo askotan

agertzen jaku lur barriak jorratzen : nobela, olerkiak, testu-azterketa, alegi ta ipuinak, morfologia, bertsolaritza, antologiak... Teatroari heltzeko be gogo beroa agertu eban behin baino sarriago. Hainbeste arlori ekin beharrean, bat edo bi hautatu eta eurok dotoreago lantzea hoba izango zala? Nik uste, horixe zala Mikelen asmoa be, saio batzuetan bere indarrak neurtu ta gerorako. Baina, azken urteotako gogo-irakinean, norik, zelan eta zertarako alperrik ipini harresi esturik haren barruko itsaso biziari?

Sortzaldi emonkor baten “haurgintza minetan” eta pozetan aurkitzen zan Zarate azken urteotan. Gauari ordurik asko ostu arren be, hainbeste helburu ezin batra hete. “Lau liburu daukadaz inprentarako prest, eta beste hogeiren bat hai buruan”, autortu eustan azkenengoz alkarregaz berba egin genduanean. Nik neuk, behin baino gehiagotan eskatu neutsan: “Danetara ezin zara heldu-ta, itxi egizuz alde batera beste askok emon leikeezan eskolak, eta zuk gorengo mailakoak bakarrik emon, eta, batez be, idatzi egizu, Mikel, sortu, eta idatzi.” Baietz esaten eustan berak, baina, gero, handik eta hemendik etorkozan deiei ezetzik emoten ez ekian-eta, lotuegi aurkitzen eban bere burua, ezertarako asti barik asmorik kutunenak bete ahal izateko.

Gehiago-gurea, ase ezina, barruko iturriaren bor-bor bizia Mikelen gorputz lerdan errimean baino indartsuagoak izan ziran, nunbait; eta holan, gitxiu uste ta nahi genduanean —euskaltzale askok beragan itxaropenik handienak geunkazan orduan, hain zuzen be—, haren bihotz zabal gartsua geratu ta hotzitu egin jakun betiko, lotan egoala, aspaldian ukatu izan jakon atsedena eskatuz edo.

Aurrerantzean, ez dozu, Mikel, sari barririk irabaziko, ez dozuz hoge liburu barriok zeuk burutuko. Baina ziur nago, zuk zeure berba ugari ta sutsuz hainbeste lekutan eta gogo-bihotzetan ereindako hazi ona ikasle askoren lur gozatsuan jausi dala, eta, bihar-etzi, gaur hemen ikusten dogunez, hazi horrek frutu ederrik asko emongo dauala —baita zeure izeneko sari barri honen bidez be—, zeuri eskerrak, Mikel adiskide.

## UNAMUNO ETA D'ABBADIE LORE-JOKOEN AURREAN<sup>6</sup>

Jaun-andreok:

Berbaldi hau egiteko Augustin adiskideak eskatu eustanean, gizon ospetsu bi etorri jatazan bat-batera burura: bestaldeko "eskualduna" bata, D'Abbadie Antoine jauna: bilbotarra bestea, D. Miguel de Unamuno.

Don Migelena gogoan dozue: mende honen lehenengo urtean Lore-Jokoak cratu zituan Bilbon bertako "Euskalerrria" alkarte euskaltzaleak eta, mahaiburu izateko, Salamancako Erretore jauna ekarri eben, ordurako izen handiko gizona.

Sarritan egin ohi ebanez, guztiz minduta ta hasarre bizitan itxi zituan gure Unamunok entzule guztiak. Euskercari "lorak" eskaini beharrean, gure berbetearen hileta-ordua iragarten hasi zan: Euskerea guztiz atsotuta egoala, ez eukala luzarorako bizirik, alper-alperrik zala gaixoari osasuna ekarten ahaleginik egitea; onen-onena, bihotz samurrekoak izan ezkeru, hauxe zala: amama zahar maitagarriari bizia luzatu beharrean, anestesía gozo baten bidez bizi hori laburtu, gorpua maitasun handiz lurperatu, "adio"

---

<sup>6</sup> Ondarroako euskal Lore-Jokoetan berbaldia, 1982-11-14.

esan, "adio sekulako!" eta erdercari emon haren lekua, euskal gogo-bihotzetan!

Nik gaur hemen euskerearentzat holakorik eskatuko banau, nekez urtengo neuke hemendik bizirik! Baina ez nik, ez zuotariko inok, ez daukagu holako asmorik, ez borondaterik.

Egia da, bai, euskereak gure artean daukazan eragozpen handiak eta arrisku ikaragarriak ikustean, behin baino sarriago tristura garratza sartzen jakula bihotz barrura, itxaropena bera galterainokoa, beharbada.

Baina holako ordu ilunetan, arrazoiak hileta-negarrera dei egiten deuskuncan, guk Abendatsek, Salbatorc Mitxelena-ren ahoz, Unamunori zuzendutako berbok esan behar geunke:

*"Arrazoiz! Arrazoiz pentsa eta joka! Zuri entzun bear ori. Ederra kontua, Erretore jaun. Arlo hontan arrazoi utsez joka bear guk; gaiñerontzean, biotzez eta griñez eta kirioz, arrazoi utsa mozkeritzat utziki. (...)*

*Euskera gaixoarentzakoxe bakarki eskatzen duzu arrazoilegea, zentzun praktikua; osterantzeko auzi-mauzi guziatarako iguin badiozu ere. Sarritzotan atsegin zaizu, ba, gogoratzea Pascalen ura: biotzak ere ba dituala bere arrazoiak, eta buruak ez aiñakoak...*

*Ez, Ero Aundi; ez, jaun martinkontra. Ontantxe eztizugu amor emango. Ez eutanasirik Ama xarrari. Don Migel euskaldun-berri pot-egin orrek Ama Euskera zapuzten diguzun arren, zeure filosofiak ezin sutsuagoki babesten baitigu. Ta aski digu" (Unamuno ta Abendats, 77-79 or.).*

Eta ez bihotzaren arrazoiak bakarrik. Azken urteotan, zorionez, egunsenti argitsu baten printzak uxatu dabe gau luzearen ilun astuna, gure bihotz jausiak barriro gora jasoaz.

Badakigu, ganera, argiaren eta ilunaren, heriotzearen eta bizitzearen arteko burruka luze gogor horretan, gu ez gareana ikusle soil, partaide baino: geure eskuetan be badago, neurri handi baten behinik behin, ama-hizkuntzaren etorkizuna!



Sarritan etorten jataz burura Mikel Zarate adiskide ahaztuezinak, alkarrri adore emoteko, esaten zituan herbok: “Gu geu bizi garean artcan, behintzat, bizirik iraungo dau euskereak!”.

Unamuno alde batera itxi ta goazen orain Antoine D’Abbadie jaunagana. Euskaltzale hau nor izan zan, zer egin eban, atzo bertan azaldu cuskun gure Augustinek *Deia*-n, eta horregaitik ez daukat nik luzatu beharrik.

Gauza bi aitatu gura dodaz D’Abbadieren ekintzan: bata, Euskal Herri osora zabaldu zituala bere Lore-Jokoak; bestea, herriaren euskal bihotz *osoa* bizkortu nahi izan ebala.

Hasi Lapurdiko Urruñan eta Bizkaiko ertzcraino, uri handicitan eta herri txikietan, erein eta zabaldu eban D’Abbadiek euskaltzaletasunaren hazi ederra.

Beste euskal lurraldeak baino beranduago sartu zan gure Bizkaia Lore-Jokoen giroan: aurton ehun urte ospatu zirala lehenengoak Bilbon; hurrengo urtean hementxe hurrean, Markinan; gerotxuago Durangon, eta, azken baten, larogeta hamaikan, non eta lurretan, orduan oraindik bere buruaren jabe zan neure jaioerrian, D’Abbadie bera, emazte ta guzti, bertara etorriaz.

Zabala, beraz —Euskal Herria bera baizen zabala— gure zuberotar honen euskaltzaletasun herrikoia!

Herri osoaren euskal sena ta bihotza astindu ta bizkortzea: horra hor D’Abbadiek sortutako Lore-Jokoen helbururik behinena. Herri-herriaren euskal gogoa, euskal kontzientzia. Herriari beronen nortasuna begien aurrean jarri, euskal herriak bere ondasunik ederrenak aintzat hartu eta maite izan egizan; eta, ezeren lotsa ta bildur barik, harrotasunetz, ondasunok jagoten eta zabalitzen ahalegindu eitean.

Ondasunon artcan, jakina, euskrea bera ederrena, gorengoa, baina ez bakarra. Lora bikain hori baratze jori baten erne, hazi ta bizi da, euskal gogoaren frutu gozoa izanik.

Horregaitik, D’Abbadieren Lore-Jokoetan, euskal baratze horretako lora ta landara asko landu ta jorratuko dira beti: hizkuntzea bera, aurrenengo, literaturcaren esparru zabalean; baina

baita euskal soinuak eta dantzak, kirolak eta antxinatiko ohiturak be. Eta hori danori, jai-usainean, herritar gogo-landuak eta ezjakinak alkar harturik, cuskaldun jokozalearen izakereak hain gogoko dituan norgehiagoka ta txapelketak eratuaz; meza nausiaren ostean —abeslari onak koruan, sermolaririk entzutetsuenak pulpituan—, auresku ta ezpatadantzak, olerki-sariketak eta bertsolariak, zantzolari ta irrintzilariak, eta cuskal kirolak: palankariak, pelota-partiduak, korrikalariak; ohitura zaharrak (gorularienak, esate baterako), abelgorri edo ganadu ederren erakusketak eta, hoba ez, bazkari ona.

Urte asko joan dira ordurik hona, eta gure Euskal Herria ez da gitxi aldatu. Euskereak berak ha zelako gorabeherak izan dituan! Aldi bakoetak bere berarizko preminak izan ohi ditu, bere jokabide ta erantzunak. Gure egunotan, cuskerearen arloan, ahalegin eta gurari bizi batzuk gailendu dira: cuskerea arau zehatzetan finkatzea, “euskara batu” bakar bat sortu eta lehenbailehen dantzan sartzea, hasi umetxuen ikastolatik eta goi mailako Unibersidaderaino, harako Lizardirena egi bihurtuz:

*“Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aumat ere noranaikoa:  
yakite-egoek igoa;  
soña zâr, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa”*

(Euzko Bidaztiarena).

Harrigarriro ugaritu jakuz, zorionez, haurtzaindegi eta ikastolak, ikastaro ta ikasturteak, gau-eskola ta cuskaltegiak, bekak, sariak, azterlanak, gramatikak, era askotako liburuak. Gitxi-asko, sartu da cuskerea herriko eskoletan, inoiz baino sarriago entzuten da irratictan, laster ikusiko ei dogu telebisinoan. Lege aldetik, herri-kontzientziaren aldetik, erakunde politikoaren aldetik, gauzak asko, bizkor eta sakonetik aldatu dira —euskerearen onerako aldatu be—, nahiz eta oraindik gure beharrian eta gura-

riak askozaz handiagoak eta biziagoak izan. Pozgarria, benetan, eta txalagarria egin dana, egiten dana, egin gura doguna.

Baina, hori eta guzti be, zenbatek ez ete daukagu bihotz-barruan arantza zorrotz baten ziztada mingarria? Benetako euskal gogoia indartsuago ete dabil gaur gure gogo-bihotzetan, gure etxe, lantegi ta kaleetan? Euskal ume ta gazte askoren ezpanetan, ez ete dogu euskerca asko makalduta ikusten, nahastuegia, motel-duta, gazbakotuta?

Euskera idatziaren eta ahozkoaren arteko etena ez ete da, Bizkaian behintzat, zentzun barik egina, eta horregaitik, luzarora kaltegarria?

Beharbada, barriren barri entzun beharko geunkez gaur behinola *Ibar*-ek eta *Altubek* egindako dei zoliak: euskal gogo osoari eusteko, bizitzatik hurbil (hur-hurretik) ibileko, hizkuntza baten bizi-legeak eta baldintzak ondo gogoan hartu eta ez alboratzeko.

D'Abbadieren *Lore-Jokoak*, eta gaur *Ondarroan* burutzen doguzanok, badauke, nire ustez, zer irakatsirik: euskal bihotz osoari kargu egin behar deusagula beti, gure herriaren preminak oso-osorik, ikuspegi zabaletik eta alderdi askotatik aztertu ta bete behar doguzala.

Pozez heterik, eta bihotzaren barru-barrutik, txalotzen ditut, guztion izencan, *Lore-Joko* honeen eratzaileak, sari-irabazleak, eta *Ondarroako* herria.

Pozez heterik, eta itxaropen handiz ikusten ditut hainbat lekutan egiten diran ahalagin handiak euskerearen alderako.

Baina ezin isildu barruko kezka larri hau: ahozko euskerea, herriko berbete hizi ta koipetsua, ez ete dogun galzorian jarriko.

Euskerea salbau ta indartzeko lanbide eder honetan dandanak gara beharrezko: zahar eta gazteak, cretxi batekoak eta bestekoak, herri-alkarteak eta crakunde publikoak: alkarrri lotsea ta begirunea zor deusagula, benetako demokrazia baten barruan, herri-arduradunen aginpidea ta ondasunak —guztionak dira-ta— danon alderako erabiliaz, euskerearen salbamenerako, gure Herri maite honen onerako.

Herri bateko semeak izan arren, D'Abbadie ta Txaho zuberotarrak guztiz ezbardinak izan ziran hainbat gauzatan eta eretxitan, baina alkartuta jokatu eben beti euskerearen buruketan.

Ikasbide ederra gu guztiontzat!

## BERRIO-OTXOA ETA LEKUONA<sup>7</sup>

Ia bateratsu heldu jatazan barri biok: bata, pozgarria, gure B. Berrio-Otxoa urtebete barru santu eginda ikusiko genduala; bestea, samina, Manuel Lekuona jauna gexorik egoala. Laster alkar hartu eben nire gomutan izen biok, eta lerro honeek egitea erabagi neban.

“Lekuona Zaharra” beti agertu izan jaku begi zorrotzekoa eta bihotz zabalekoa euskal gaietan. Bizkaitarrontzat daukan begirunea ez dau egundo isilean gorde izan. Eta Elorrioko Balentin Berrio-Otxoa hainbat bider agertuko jaku Lekuonaren lan eta bideetan. Hiru baino ez dodaz hemen aitatuko.

1922garren urtean, *Euskal Esnalea*-n, olerki luze samarra eskaini cutsan Berrio-Otxoari, Gipuzkoako usain gozorik galdu ezineko bizkaieran:

*“Bertso berriak kanteta-kanta  
dabil giputx bat kalean,  
ta zer dakarren jakin-gureak  
ez nau ni itxiten bakean...”*

Eta bertsolaritza hain ondo aztertu, ezagutu eta zabaldu dauan Lekuonak hortxe sartuko ditu, bere olerkian, Xenpelar handiaren bertso famatuak:

---

<sup>7</sup> *Deia*, 1987-7-5.

*“Baten bizitza kanta dezadan,  
—hau da bigarren bertsoa—  
Elorrioko naturala da  
Balentin Berriotxoa.  
Aita t’(i) ama Bizkaian daude,  
semea han hil da gaixoa...  
salbajietan kunplitu zaio  
heriotzako plazoa”.*

Xenpelarren hariari jarraituz moldatuko dau Lekuonak bere olerkia: entzun ditu Isidro (Berrio-Otxoaren aitak) kiputxaren bertsoak eta, negar garratzari eutsi ezinik, han doa etxera, Andra Monikaren ondora.

*“Sukalde-txokoan, alki banatan,  
biok han egongo dira,  
iztxo bakar bat ebagi barik,  
suari begi-begira.*

*Iluna da; ai! aiton-amonak  
ohiera oraintxe doaz,  
seme zanari Errosario  
luze bat errezatuaz...  
Ixildu dira, ia lo dagoz,  
Arratseko ixil-unean  
baserritar bi duaz kantari,  
urrin, han mendi-bidean:  
“—Aita t’(i) ama gurekin dagoz,  
semea an il da gazua...  
Elorriotarrok anaia dogu  
Balentin Berriotxoa” ».*

Geroago, bere *Literatura Oral Vasca* liburu ospetsuan, hor sartuko ditu Manuel Lekuonak oso-osorik Xenpelarren bertsoak,

Berrio-Otxoa martiriaren lehenengo "bizitza"; lehenengoa eta Euskal Herrian gehien zabaldua. Nok ez deitsoz entzun bere amari, oraintsura arte, bertso lastimagarriok? Ez da oindino hila-bete, monja bategaz berbetean nengoala —oiartzuarra berau, baina ia bere bizi guztian herritik kanpora ibili izan dana—, Berrio-Otxoaren izena aitatu neban, eta behingoan hasi jatan bera Xenpelarren bertsoak kantetan. Harriturik badinotsat: "Baina nondik nora dakizuz bertsoak?". "Haurtxo nintzela ikasi nizekion gure aitonari etxean", erantzun eustan. Sukaldeko eskolan ikasiko zituana, nonbait, Lekuonak be, beste askoren antzera.

Balentin Berrio-Otxoaren "bizitzen" artean badago bat, gitxi zabaldua eta gitxiago ezagutua, *Egarte*-k egina. Bilbon argitaratu zan, 1952. urtean, Verdesencan. Ez dozu liburu horren barririk aurkituko, ez Jon Bilbaoren *Bibliografia* oparoan, ez J.M. Torrcaldairan *Euskal Idazleak Gaur* (Jakin, 1977) liburuan, ezta Auñamendiren *Enciclopedia*-n be. *Egarte* hori ezizena da, jakina; baina ez idazle bakar batena, hirurena baino. Hiru abade eginbarri ezkututzen dira horren azpian: bizkaitar bat (Txomin Artetxe, gaur Ibarruriko parrokoa dana) eta kiputx bi (Patxi Epelde eta Xanti Garmendia). Euren etxeko euskerea landu ta sakontzeko egin ei eben liburu hau, Gasteizko Seminarioan ikaskide zirala. Behin Manuel Lekuonari erakutsi etsoen, beronen erretxia jakin gurean. Eta Lekuonak, beste barik, ondo egoala eta argiratzeko esan. Holantxe, Lekuonaren esanaren eta eraginaren bidez argitaratu zan liburu apal eta txalogarri hau; gerrosteko isilaldi luze-garratza astinduz, Gasteizko Seminarioan be euskal haize barriak zabaltzen hasita egozala iragarritz. Ikastetxe horretan "Kardaberraz" Akademiaren sortzaile izan zanak, zelan ikusi ez begi onetz eta bihotz barruko pozetz abadegaien euskal lana?

Bcharbada, geixorik dagoan don Manuelek ezin irakurri izango ditu lerro apalok; baina guk, Balentin Berrio-Otxoaren jai usainean, esker onetz alkatu daiguzan izen maitagarri biok: Balentin eta Lekuona Zaharra.

## AITA LINOREN LAN EZKUTUAK<sup>8</sup>

Han-hor-hemen erdi galduta dabiltz Lino Akesoloren idazlanik gehienak, hainbat aldizkaritan eta urtetan bananduta, nik dakit, ba, zenbat ezizen lotsorren azpian burua gorde gurarik. Zorionez, bere ordenako fraide langile batek laster argitaratuko ei deuskuz Linoren idazlanok (onentsuak, behintzat), eta horren zain gagoz euskalzaleok<sup>9</sup>.

Baina badira, Linoren bizitza luzcan, beti ezkutuan geratuko diran lan asko eta asko. Eta nik gaur honango lan batzuk aitatu gura dodaz hemen.

### Laguntzaile

Liburuen artean ordu asko emoniko gizon honek jakituria handia beregandu dau cuskal gaictan. Baina jakituria hori ez dau beretzat bakarrik gorde. Eurrez zabaldu izan dau bere inguruan, harrokeria barik zabaldu be. Zenbati ez ete deuto Linok liburu zein artikulu baten barri emon, idazlan apal bat zuzendu, ikerketa bat egiteko bideak zabaldu, itzulpen bat egin. Gogoan dot, esa-

---

<sup>8</sup> *Euskerazaintza*, 1989-7, 47-50 or.

<sup>9</sup> Zorionez, Aita Linoren lanok batu eta argitaratu ditu J. Urkiza karmeldar ondarrutarrak: *Idazlan guztiak* (3 ale), Karmel Sorta-1, Larrea-Zornotza, 1989-1992.



terako, urte askotan euskeratu zituala gure Misino-Idazkaritzak ataraten zituan paper guztiak, Bilboko parrokia batek asteroko orritxuan argitaratzen eban euskerazko artikulua. Eta horren antzeko beste asko. Ez deustoc holango lanak egileari izen handirik ez dirurik emoten; baina laguntza apal eta zintzo horrek euskal usainez bete ditu gure bazter batzuk. Eta holako gizon jakituna holako lan apalcan sartuta ikustea beti da harrigarri; izan bedi txalogarri be!

Niri neuri be ez deust gitxi lagundu A. Linok idazleen lorategi edo antologiak egiterakoan: idazleen barri emon, zatiak aukeratu, argibide aberatsak eskaini... Hau dala-ta, garbi ta argi autortu neban neure zorra, hitzaurre baten: "beste laguntzaile batzuen artean, argi-emoilrik mesedegarriena, Lino Akesolo. Eskerrik asko!" (*Euskal idazleak bizkaieraz*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1980, 13).

Lagun asko eta leku askotakoak hurreratu jakoz Linori laguntza eske: hitzaldiak, itzulpenak, hitzaurrak, hiztegia, t.a. Bere gogo-bihotzak hustuteko baino gehiago, holakoxe eskabideei erantzuteko egin dituala bere euskal lanak esan geinke. Neurri handi baten bai, behintzat. Eta horren frutu ederrak hor dagoz, gure begien aurrean.

### Liturgiaren euskeratzaile

Kontzilioaren denporetan etorri zan Erromatik mezcaren zati batzuk herri-hizkuntzetara bihurtu eta ospakizunetan erabilteko baimena. Itzulpen-lan hori aurrera croateko, berarizko batzorde bat eratu zan Bizkaiko Eleizan, Lino Akesolo buru zala (lehenengo aldi honetan, euskal eleizbarruti bakotzak bere aldetik jokatu eban, besteakazko hartuemon barik, zoritxarrez). Bizkaiko talde horrek euskeratu eban lehenengo zatia zera izan zan: *Mezaren Egunerokoa* (ez oraingoa, orduan erabilten zana baino). Pozarren hartu eban herriak hori, eta milaka ta milaka zabaldu ziran libururuak gure eleizetan, euskaldimon bihotz-pozgarri. Gogoan

izan, aldi hartan euskereak ate guztiak itxita eukazala gure eskolatan eta komunikabideetan. Irakurgaiak euskeraz egiteko, J. Kerexetaren *Meza-liburua* erabilteko baimena izan genduan Bizkaian, eta ez da makala izan Jaimerren liburu honek egin euskun mesedea bere euskera garbi, argi eta herrikoiaz.

*Irakurgaiak eta Erromako Kanona* (gaurko I Eukaristi Otoi-tza) euskeratzeko baimena heldu jakunean, eleizbarruti arteko taldea sortu zan Euskal Herrian, M. Lekuona buru zala. Beste bizkaitar batzuk be lan egin izan dogu talde horretan, baina urterik zailenetan gchien egindakoa A. Lino Akesolo dogu, duda barik. Urtean zehar, astean behin batu ohi zan taldea, Donostiako Seminarioan; uda partean, aparteko batzarrak egiten ziran, astebete-koak edo, lana aurrera eroateko asmotan, Estibalizen, Donamarian eta beste leku batzuetan. Gure Lino han izaten zan batzarrotan, berba gitxikoa baina zorrotza (lotsa handia eutsocn batzarkideak Linoren eretxiari), ontzat emoten zan itzulpena bere papercan jarten.

Itzultzaile-taldeak egindako lana handia (eskergea!) eta mesedegarria izan da Euskal Herriko Elcizearentzat, eta baita euskerearentzat be. Hutsak huts, guztiz txalogarria. Baina baita nekeza ta gogorra be! Sarri askotan aldagora pikea izaten zan danen gogoko ziran itzulpenak lortzea, euskaldun guztientzat argi eta gozo izan citekezan berba ta esacrak aurkitzea. Lankide guztiak ziran euskal gaietan jakitunak, baina euskalki ezbardineta-koak, eta bakotzak berea atara gura aurrera. Eroapen eta apaltasun handia behar da askotariko eretxiak aintzat hartzeko, amore emoten jakiteko, batasunak eta norberaren herrialdeak eskatzen dabena alkartzeko. Hamaitatxu ordu luze emonikoa dogu gure Lino holako talde-lanetan, urte askotan.

Taldean ontzat hartzen zana, gero bakotzak bere euskalkira egokitzen eban. Lehenengo urteetan, Bizkairako, Linoren eskuetan egon zan egokitze-lan hau. Egia esan, taldearen itzulpenak nasai samar aldatzen zituan bizkaierara, honen berezitasunak eta gure herriak behar dabena kontuan harturik. Jokabide hau ez zan

barria Linorentzat. Bardin antzera jokatu eban urte batzuk lehenago Iratzeder-Lertxundiren *Salmoak* bizkaieratu zituanean. Ez zan lanbide samurra hori egitea. Batetik, Iratzederren hizkerea eta Linorena nahikoa urruti bata bestecagandik; bestetik, zehatza eta estua Iratzeder-Lertxundik salmoen itzulpenari jarritako neurria. Berbak eta esaerak aldatu behar diranean, zelan sartu barriak neurri estu horren barruan? Horregaitik, Akcsoloren itzulpena nasaia da, ez da zintzoegia, azalari jagokonez behintzat; baina esanguran, bai. Eta, bizkaitarrentzat, bertoko usaina dariola dago Linoren itzulpena. Hona hemen zati bat, esaterako:

*“Zeruak dagoz / Jauna zein andi / dan esaten;  
 goiak, Ak cinak / iragarten.  
 Goizak goizari / emoten deutso / Aren barri,  
 bardin arratsak / arratsari.  
 Eurok dabilen / soinua eta / barbaroa  
 ez da, ez, ezin / aituzkoa.  
 Lur dana zear / zabaltzen da arein / aldarria,  
 urrun doa aren / durundia. (...)  
 Zeruko alde / baten dau bere / urterea,  
 ta alderik alde / osterea.  
 Ez da munduan / ez legorrik ez / itxasorik,  
 bere beroak / jo bakorik” (18. salmoa)*

Iratzederrena ikusi eta hau ikusi, badirudi sortze-lan bi, nahikoa ezbardinak, dirala.

Jokera bardintsua erakutsiko ducsku Akcsolok, liturgia barriko berbak bizkaieratzeko orduan. Ez deutso latinari, ezta beste euskaldunen itzulpenari be, hitzez hitz jarraituko; nasai samar, baina zentzun handiaz egokituko ditu gure Bizkaiko herriarentzat. Aste Santuko liturgiatic hartuko doguz ejenplu gitxi batzuk: Eguen Santuz, oinak garbitzerakoan kantetan diran antifonak (ebanjeliotik hartutako berbak) euskal bertso bihurtuko ditu Linok, kanturako dirala eta:

*“Pedrogana doa lenengo, / ta Pedrok diño zurturik:  
Jauna, Zuk niri oinak garbitu? / Sekulan ez olangorik.  
Eta Jesusek erantzun deutso: / Ez badot zu garbitzerik,  
zeuk bere, Pedro, ez dozu izango / nire lagun izaterik”.* (2. antif.)

San Pauloren berba sakonok be euskal gatzeta hartuko dabe  
Linoren bertsoan:

*“Gure artean bizirik begoz / fedea ta itzaropena;  
bizirik bego maitetasuna, / iruretan bikainena.  
Bai, sinismena, itzaropena / ta maitetasuna emen:  
euren artean maitetasuna / da, orraitino, bikainen”.* (6. antif.)

“Christus factus est” deritxon antifona zoragarria —Pazko  
misterio osoaren ardatza, gregorianoz hain dotorea— polito baten  
egokitu eban Linok kanturako, bertso bihurtuz:

*“Kristo gugaitik menperatu zan / eriotzea artzeraino;  
eta zelango eriotzea!: kurutzean ilteraino!  
Baina Jainkoak orregaitik dau / ezin gorago goratu:  
izen guztien gaineko izena / emonez dau sariztatu!”*

Hitz lauz edo prosaz egindako itzulpenetan be antzera jokatu  
dau sarritan Akesolok. Hor dozuz, dinodanaren lekuko, *Irakur-  
gai-Liburua* (A, B, C), urte guztiko domeka ta jai-egumetako Jau-  
naren berbea eskaintzen deuskuna.

Geroago, bai *Altarako Liburua* eta bai *Irakurgaiena* egitera-  
koan, kiputzak eta bizkaitarrok alkartuago egin dogu azken lana;  
eta, batasunaren izenean, ahal danik eta bardintasunik handiena  
lortu nahi izan da itzulpenetan, Erromako aginduak be bide  
horretara bultzatzen gaituala-ta. Autor dagidan jokabide barri  
honek min handia emon deuskula bizkaitarroi, behin baino  
sarriago: batasunak eskatzen eban testua zehatzagoa, zintzoagoa  
izango zan, bai; baina bazterrean izten genduan lehengoa (Linok

egokitua), ez ete zan legezkoa? Guretzako gozoagoa, bertokoagoa bai, behinik behin. Baina batasunaren bidean, bizkaitarrok sarri galtzaile. Holantxe doguz Linoren hainbeste itzulpen jator, euron ordez hitz lauzko berba hotzagoak, motclagoak, sarturik.

Ez, ostera, beti. Linok bertsotan jarria da "Ubi Caritas"-en itzulpena, *Meza-liburu* barrian be badatorrena:

*"Nun da maitasuna? / Antxe dago Jauna.  
Nun lagun urkoa? / Antxe Jaungoikoa. (...)  
Jaunak alkartuta / gaur batu bagara,  
bake txarrak jaurti / daiguzan sutara,  
auziak aldendu, / itxi gorrotoa.  
Bego gure erdian / Jesus Jaungoikoa". (zati bat).*

Latza ta gogorra da berez talde-lanean ekitea. Ganera, norberaren izen onarentzat ospe gitxikoa. Nok daki zeinek zer egin dauan? Holako lanik gchienak egilcen izen barik argitaratzen dira (liturgia-koak bai, behintzat); eta horretan egindako ahaleginak, emondako orduak, itxura baten sari eskasa emon ohi deutse egilcei.

Hori gitxi dala, zure atzetik datorren eskuak zuk borondaterik onenaz egindakoa aldatu egiten deutsu; aldatu nahiz baztertu, eta ez beti ganoraz eta zentzuncz. Holakoxe lanbide ezkutu ta apalctan emon dau Lino Akesolok bere bizitzako zati on bat. Bizkaiko Eleizeak, orain dala urte batzuk, bere esker ona agirian autortu eutsan, berari eta beste lau cleizgizoni, Urkiolan egindako omenaldian. Baina, jakin ez arren be, gure kristinau herriak egingo deutso, egunean eguncan, omenaldirik ederrena, euskal liturgiaren gozotasunak Jaungoikoaganako bidea zabaltzen deutsancan. Itzulpen mesedegarriok lagun askoren nekeak, ahaleginak eta jakituria zabaltzen dabe egunero Euskal Herri osoan, eta luzaroan zabalduko al dabe! Euron artean ezkutauta, hortxe dago Aita Lino be.

Eta amaitzeko, azkena. Mundu honctako gure ibilaldiaren azkena, heriotzea. Heriotza hori, fedearen argitan eta itxaropena-

ren pozetan, ospatu egiten dogu kristinauok, Kristoren Pazko misterioan bat eginik. Ederra, sarkorra benetan, cuskeraz egin ohi dan ospakizuna. Jainko-Herriaren Otoitza bertsoetan egiten da leku askotan:

*“Eskatu daigun hilaren alde,  
Kristo bitarteko hartuz;  
gure otoitzak asko dagike,  
Harenarekin alkartuz”*

hasten dau kantuz meza-cmoileak:

Eta herriak, doinu ederraren craginez, erantzuten dau:

*“Hartu Zuk, Jauna, hil hau zeruan,  
betiko bizi-lekuan”.*

Ezpadakizu, jakizu, irakurle, L. Akesoloren bertsoak kantetan dozuzala.

## EUSKERAZALEAK ETA MONTIANO<sup>10</sup>

Oraintsu joan jaku gure Montiano adiskidea heriotzearen besoetan, behingo baten joan be. Larogei urte luze sorbalda ganean, baina lanerako gogo moteldu barik. Gaztetan lez, zahartzaroran be besteen alde ekiteko beti gertu egoan gizona. Gaztetan, Katoliku Ekintzaren bultzegile, zuzendari ta zabaltzaile; zahartzaroran, hirugarren adinckoen laguntzaile. Asmo ta adore barriz betirik beti. Egile ta cragile. Ekintzaile sutsu azkeneraino. Txalogarriak honelango gizon eta emakumeak!

Nik gaur hemen Montianoren beste alderdi bat aitatu gura neuke: euskerea zabaltzeko egin zituan ahaleginak, batez be Euskera-zaleak alkartearen barruan. Horrenbeste ta gehiago zor deutsagu euskrazale guztiok, Bilbo inguruan eta Bizkai osoan behintzat.

Antxina ez dala jaso nituan, behinolako ikasle batek bialduta, "Letrakit"ek argitaraturiko liburuxka batzuk, euskal alfabetatzearen gorabeherak gaitzat zituela. Eurotariko batek izenburu hau daroa: *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990). Kronika laburra*. Bizkaiko barri Jose Luis Lizundia adiskideak emoten deusku.

Lizundiak ia hasieran bertan dinoskunez, "ez da erraza Bizkaiko alfabetatze mugimendu eta kanpainen historia egitea". Ha

---

<sup>10</sup> Zer, 1992ko otsaila, 160.zka., 12-13 or. José Antonio Montiano Leioan jaio zan 1910eko abenduaren 19an, eta Bilbon hil 1991ko azaroaren 23an.

ta guzti be, geroste luze ta ilun hatan, izen eta ekintza batzuk aitutzen ditu: egia danez eta zor jakonez, danen aurretik, Xabier Peña; hurrengo, Xabier eta Joseba Gereño anaiak, K. Rotaetxe, Jaime Coenaga... Baita D. Jose Etxeandia be ("abade frankista, baina euskaltzain urgazlea"). Cauza harrigarria bada be, Euskerazaleak alkartearenik, ez izenik ez ekinik ez dau aitatu be egiten Lizundiak! Jakineza? Ezjakin-gurea? Xabier Peñaren bidetik, eta beronen ikasbidea oinarritzat harturik, ez ditu, ba, ahalegin eta lan makalak egin alkarte honek euskerca, batez be Bizkaiko euskerca, irakatsi ta zabaltzeko!

Ez naz ni inor Euskerazaleak alkartearen joan-etorri luzea zehatz eta mehatz jakinazoteko. Zorionez, bizirik doguz beronen Zuzendari biak, Jesus Oleaga ta Iñaki Zubiri, eta bizirik, zorionez, alkarte a bera be, bere buruaren barri edozeini emoteko gertu eta lanari ekiteko gertuago, zarata handiegirik atara barik. Baina zeozertxu csan gura neuke, gure Montiano alkarte horretantxe eta horrexen bidez ezagutu nebalako.

Alkarte hori jaioparria zan eta euskerearen alde lan egitcko sutan egoan. Ikasbidca eratuta eukan: Xabier Peñarcna, baina ikasgai laburrago ta ugariagotan zatituta. Oker ez banago, samurtze ta errezpide lan hau Montianok berak egin zan, ikasleentzat mesedegarri zalakoan. Nondik edo handik diru-laguntzak be lortu zituan alkarteak (bazkideen harpidetzaz ganera), eta horra hor *Ikas. Método de euskera básico común* metodo barriak kalean! Kalean baino gurago eban Montianok lagun askoren eskuetan eta sakclean, edozein lekutan eta edozein ordutan irakurri ta ikasteko moduan. Eta, horregaitik, Euskerazaleak-en liburutxu guztiak, edo ia danak, sakel-liburuxkak izan dira, eta milaka zabaldu dira Bizkai guztian, ia beti doan! Ikasgaiak laburrak, argiak eta errezak, egunean bat ikasteko modukoak, ikasle hasibarraia poztu eitean. Hiztegitxuak, jardukizunen itzulpenak, irakurgai errez laburrak. Ba ete daki inok zenbat bider argitaratu zan liburutxu hori, zenbat ale zabaldu izan diran ordurik hona?



Hasiera-hasieratik izan genduan gure Montiano alkarte horren barruan: ia beti, idazkari lez; behin edo birritan, lehendakariorde lez. Baina J. Oleaga lehendakariak behin baino sarriago esan eustancz: "Euskerazaleak Montiano da!". Ez eban gure Jose Antoniok euskere berba egiteko bestean ikasi, baina ekian apurra besteei zelán irakatsi, ikasbide erreZ eta barriak nondik nora sortu ta zabaldu, euskereari legegizonen eta agintaricn aurean bidc barriak zelán edegi, ikasle ugari sortu eta ikasleoi, behin sortutakoan, eustea: horra hor Montianoren asmoak eta ahalegin biziak hainbeste urtetan.

Ikasle barriak irakurgai samurrak eta arinak izan egiezan, berak jarri zituan gure eskuetan inglesetik itzulitako liburutz egoki batzuk, berba urriz eta esatera laburrez jantziak, guk cuskeratu gengizan. Holantxe argitaratu ta zabaldu zan "Irakurgai erreZ politik" deritxon bilduma hori. Eurotariko lehenengoak, behintzat, Xabier Peñak eta biok euskeratu genduzan.

Peña adiskideari eta bioi eskatu euskun laguntasuna, beste asmo eder bat aurrera eroateko: hiztegiarena. Erderazko berben zerrcnda berak hautatu eban, ez dakit nik nongo ereduari jarraituz. Eskuarteko hiztegi labur, zuzen eta argia lortu nahi eban, berba gitxitan baina egokitan gure inguruko euskerec ulertzeko ta crabilteko lagungarri izateko modukoa. Ez eukan beste asmorik sakel-hiztegitxu apal honek. Egilcaren izena daroa harrezkero hiztegiak; zenbat ale argitaratu diran? Ez da gauza erreza izango.

Beharbada, hiztegi honexek gordeko dau ondoren Montianoren izena. Baina ez da berau haren lan bakarra, ezta handiena be.

Orduko denporetan euskereak ez cukan ezelango lekurik gure ikastetxeetan: ez herriko eskoletan, ez fraide-monjen ikastegietan, ez goiko ez beheko mailetako ikastoletan. Politika-giroa zertxobait samurtzen hasita egoalakotan, Euskerazaleak, euskereari gure eskoletan ateran bat edegiteko asmotan, izen-batze zabal bat egin eban Bizkai osoan. Baita milaka izen eta eskari batu be! Madrilerá eroan, ministroaren berba onak entzun, eta etxera. Orduan ez zan, agirian behintzat, gauza handirik lortu. Baina kanpaina horrek euskal sena ta zaletasuna asko bizkortu zituan

gure artean. Gure Montiano aurrelari sutsu izan genduan ekitaldi horretan be.

Bestrik ezinean, alde batetik, eta euren buruak kristinau zintzotzat hartu gura zituelako, bilbotar askok San Antongo cleizan erakusten eta berotzen eben orduan euren euskalzaletasuna, Don Klaudio handiaren ondoan eta inguruan. Hortxe zertu ta sortu zan beste ekitaldi bat be: euskerazko cleiz kantak batu, argitaratu, zabaldu eta crabiltea. Jaiero-jaiero San Antonen batzen ziranentzat eta Bizkaiko kristinau askorentzat guztiz mescedegarri izan zan. *Alkartu danok* deritxo liburu horri. Horretan be, Euskerazaleak eta Montiano ez dira lan gitxi egindakoak.

Eta beste barik amaitzen dot idazlan ezerez hau. Ondo baino hobeto dakit beste askok eta askok ezagutu ebela Montiano nik neuk baino hurragotik eta hobeto. Eurok bete begicz, hurrengo baten, nik ezjakinez itxitako hutsune guztiak.

Bizkaian euskerearen alde, batez be euskal alfabetatzearen barruan, ahaztu ezinak dira, bai horixe, Montiano jaunaren antzeko gizonak eta, batez be, Euskerazaleak alkartea. Zelan ahaztu, esate baterako, alkarite honen diruzain zorrotz eta euskalzale sutsu izan zan gure Jose Maria Makua? Euren lan ederra isilik eta apalik eginagaitik, txalogarriago dira. Nire txalo beroen omenaldi apala izan begie guztiok. Eta curon hideari ekinez, gaurko euskaltzaleok be lan ona egin daigula, euskerearen eta gure herriaren onerako.

## EUSEBIO ERKIAGA IDAZLEA<sup>11</sup>

Jaun guztiz agurgarri hori,  
Erkiaga jauna,  
Jaun-andreak eta adiskide guztiok:

Noizbait norbaiti entzuna: gaur egun, bape luzaro samar bizi danak, ziur asko eskuratuko dauala zelako edo halako omenaldiren bat.

Gure Eusebio Erkiaga jaunak ez dau lehenengoa, zorionez, gaurko omenaldi hau, eta ez al da azkenengoa izango! Bi baino ez aitatzekotan, horra hor heronek oraintsu aitatutakoak: bata, Derioko Ikastaroan Labayru Ikastegiak egindakoa; bestea, Lekeition, bere jaioterrian, hango Udalak eskainia.

Orain omen-hartzaile dogun hau, lehen behin baino sarriago izan da emoile edo eskaintzaile. "Nik zuri, zuk niri, / agur eginez alkarri" ez ete jakuz, ba, ibili azken urteotan Erkiaga ta Zubikarai, holako egun atseginetan? Deriokoan, Augustínek Eusebiori —bere behinolako "komandanteari"—; eta hementxe bertan, lekeitiarrak ondarrutarrari, Bizkaiko Aldundiak Augustini honen moduko omenaldia eskaini eutsanean.

---

<sup>11</sup> Bizkaiko Foru Aldundiak egindako omenaldian berbaldia, Bilbo, 1992ko maiatzak 22.

Adiskide, lagun eta gaztetan lankide izandako idazle prestuok beti alkarri "txopin"-ka ibilte hori larregitsu be izan leitekela-ta, gaur niri dei egin jat, aurkezpen labur hau egiteko. Eta honetarako gogo ta astimodu handirik cuki ez arren, nok ezetzik emon holako dei bati, Erkiagaren onerako bada?

\*\*\*

Eta nik zer esango? Aita Lino Akesolo adiskideak esandakoa ez ete da egia handia?

"Eusebio Erkiaga jaunak ez dau gure artean aurkezteko inoren beharrik. Gaurko idazlecn artean goi-mailakotzat dagoala edozeinek daki."

Han-hor-hemen irakurritakoak batu, laburtu eta guztion aurrera berba gitxi ta ondo neurtuetan ekartea, ezina da benetan niretzat. Azterketa sakonagoak hurrengo baterako itxi daiguzan, bada, eta goazen orain beste barik omenaldi honen aurkezpenera.

Benetan pozgarria, Eusebio, zure adiskide guztiontzat, gure Foru Aldundiak eskaintzen deusun omenaldi hau. Izaeraz isila ta apala zarean horrek badozu, beste inok izatekotan, merezimenturik horretarako. Zentzun onez jokatu dau gaurkoan Aldundiak, eta hartu begiz gure txalorik heroenak erabagi eder honegaitik.

Merezimentuon artean batzuk baino ez ditut aitatuko, laburregi bada be:

1. Lehenengo ta behin, *nobelagintzan* egin dozun lan ugaria ta bikaina: 6 elebarritan, hor aztertu ta crakutsi deuskuzu herrien eta herritarren bizimodua, euren grina, zaletasun, egocra latz eta pozgarri, jokabide oker eta zuzenakin. Hain zuzen be, elebarriak dira zure idazlanik ezagunak, osperik handiena emon deusucnak. Eurotariko hirü orain dala urte mordotxua egin eta argitara emon zenduzan: *Arranegi*, 1958; *Batetik bestera*, 1962; *Araibar zalduna*, 1962. Gero, isilaldi luze samarra. Eta, zeure bizitzako udaguen emonkorrean, barriren barri ekin deusazu nobelagintza-

ri, eta beste hirukote eder bat eskaini deusazu euskal literatura urriari: *Jaioko dira*, 1984; *Txurio txoria*, 1986; eta *Iribarrea galtzen danean*, 1987.

Gure literaturan, ba etc dago beste idazlerik, zuk haina elebarri ugari egin dituanik? Egitea da bat, eta ganoraz egitea beste bat. Kritiku ugari eta era askotakoak izan ditucz zure nobelok: Mitxelena eta Lino Akesolo, esaterako, zaharragoen artean; gaurko gazteen artekoak dozuz beste batzuk: Gotzon Garate, Iñaki Sarriguren, Igone Etxebarria, Jon Kortazar.

Egitura aldetik, klasiko usainekoak ei dira zure idazlanok, gehien baten; baina azkeneko hirurak, batez be, gaurko joera barrien bideak be erakusten ei dituez. Zeure herriaren eta aldiaren lekuko agertzen ei zara beti (Lekeitio zeure jaioterriaren eta Bilbo zeure bizitokiaren testigu jator): giro uritarra ta gaurkotasuna, zure nobelonek ezaugarri bi. Epai-mahaikoen begi zorrotzak be merezimenturik asko autortu deusue, 6 nobelotatik lau, gixienez, gorengo sariak irabaziak dira eta.

2. Baina, dancan gantzik, zu *olerkaria* zara, benetako poeta fin eta txukuna. Hamazortzi urteko mutil gaztea zinala sartu zinan arlo honetan, eta, zarata handi barik bada be, baratze eder hori jorratzeari aspertu barik ekin deusazu.

Zein euskal aldizkaritan ez dituzu txitean pitean zabaldu, eten barik, azken hirurogei urteotan, zure bihotz samurraren fruiturik maiteenak?

Euskaltzaindian sartu zinaneko hitzaldi sakon luzean, Eusebio Maria Azkueren poesia aztertzerakoan, zeure barrua hustu ta agirian jarri zeuskuzan ondo zeureganatutako eretxiak: "gizona ta olerkaria ez dagoala zertan banandu bata besteagandik; olerkaria, besteentzat bitarteko dala, agertzaile, sarri askotan iragarle; ez gauzen asmatzaile, erakusle baino; poesia ez dala kanpoko musika soila, barrutikoa dala: "arimearen dinamika ta eragina, espirituaren dardara ta indarra, ibilia, kemena, goratasuna ta goragurea; mundukoa izan behar dauala olerkariak, bere aldikoa, bere

lurrekoa ta arokoa, inguruan jazoten danaren barri jakin behar dauana; "ta bere sentimena ez gorde ta ez saldu, agertu egin behar dauana, lagun urkoentzat argi ta itxaropen-emoile izan dedin"; erantzupena, eta ez urria, dauala poeta batek, bai Jaunaren aurrean eta bai gizartearen aurrean, eta, horregaitik, olerkariaren lana "zintzoa ta arteza izan bedi, ez zurikerizkoa, ez guzurrezkoa; lekukotasuna emotea dagokiolako, testigantza ziurra." "Zer kantauko leukce gazteek, umceek, herriek, olerkaririk ez baldin balitz, eta izan ez baldin balitz? Makineri ta kimika-mundu barri honetan Olerria behin betiko galduko ez etc dan, itandu izan dabe. Baita zera be! Poesia, mundua mundu deino izango da; bizitzea ta heriotzea direno".

Izenik bako olerkariaren azpian, ez ete zenduzan zeure olerkari-laneko pozak eta nahigabeak adierazoten berba egokiz eta sarkorrez:

"Amak umea egitean lez, olerkariak be, sorketan, umegintzaminak ditu zelanbait beragan. Eta gero, ama barria pozez gertzen danean, poeta minberatsua, ostera, gehienik ez da nasai eta atsegin osoz lotzen; eta zergaitik? Begira: ames-egin ebana, sentizandakoa, nahi baizen argi, gura eban aina samur, fin eta eder jaio ez dalako. Baina esanak esan, olerkaria sortze-nekeak hartzeko, barriro be, gertu izango da. Ez dau etsiko poeta batek. Ez dau bere lana bertan behera isilduko. Ez da inoiz zahar; beti da gazte. Ta minaroa ta ilunaldia, adore ta kemen barriciz garaituko ditu."

Eta Unamunoren berbok be zeure lez hartu zenduzan:

"Olerkaria zenbat eta bere herrikoago ta aldikoago izan, edonungoago eta edonoizkoago dateke. Ta ezin poeta haundia izan, darabilen hizkuntza hori umetatik jakin ez baldin badau".

Luzecgia, behar bada, egindako aitamena, baina ez ete deuskuz beronek argitzen; beste ezerk baino hobeto, zure izakerea, olerri-bideak, asmoak eta ekintzak? Zure poesia-lana aztertzerakoan, zure ikuspegi hau be kontuan euki beharrekoa da.

Zure olerkiak beti be, kontuz landuak, barruko sentimentuen espilu zintzoak jakuz: amodioa, herrimina, gure bizitza honen garratzasunak eta itxaropen-bidea, aberri kutunaren nekeminak, adiskide maiteen heriotza negargarriak, berba baten, gizonaren bizitza osoa izan dozu kantagai, askotariko neurtitz finen bidez.

Kritiko gazte baten eretziz, Lauaxetaren lan postsinbolistaren hurretik ei dabil, eta Juan Ramon Jimenezegana ei ditu bere estetika-oinarriak zure poesiak, lehenengo aldikoak behintzat. Aita Onaindiak inor mintzeko bildur handi barik autortzen dau;

“Nik sarri idatzi dot bera [Erkiaga] dogula Bizkaian euskal olerkaririk onena.”

Hainbeste lehiaketatan gorengo sari ugari jaso dituzun olerkari horrek epaile askoren oneretxia zeuregandu izan dozuma argi ta garbi dago.

Baina olerkietan bakarrik ez, zure lanik gehienetan agertzen ei da ‘olerkaritasun’ eta ‘lirikarako ixuri’ hori; baita zure nobeletan be. Nik dakidala, Koldo Mitxelena izan zan usain gozo hori aurkitu ebana zure lehenengo elbarrian (*Arranegi*). Harrezkero, kritikurik gehienak aho batez errepikatu dabaz maisu handiaren berbak. Ederzale izan zaitugu, eder-erakusle berbaz eta musikaz: musikagile bati baino gehiagori eskaini deusazuz hitzak (horra hor, esaterako, zeure herriko Andra Maria Antigoakoaren erceserkiarenak); behin, gixienez be, zu zcu izan zinan hitzen eta doinuaren egile eta, hoba ez!, sari-irabazle: 132 kantaren artean 6 aukeratu ziran Euskal Abestien III Jaialdian, eta 6 horreetariko bat, zeuk oso-osorik asmautakoa:

*“Itsasondoan, / mendi oinetan  
dagoan herri txiki / zoragarria;  
ene sehaska, / neure Lekeitio,  
herri guztietan / maitiena...”*

Ez da, ez, mira egitekoa, holako gizon batek opera-libreto bat be idaztea, Bilboko ABAOrentzat, hain zuzen be, bere herritar eta maisu handi Don Resu Azkuceren bideari jarraituz.

Gaur, zoritxarrez, urte askotako aldizkari gehiegitan daukaguz sakabanatuta zure olerkiak (10 sartu zituan —baina orain dala 40 urte!— Aita Onaindiak bere Antologia ezagunean).

Gaurkoz, bi aitatzekotan, azken aldiko biok egingo ditut, adiskide ta lankide biri eskainiak: bata, Lauaxetari (*Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta*); bigarrena, Jose Mari Arizmendiarrirta abadeari (*Gizonaren handia!*). Poema luze sarkorrek biok; 1969. urtean “Gipuzkoa Saria” irabazi eban *Aritz jeikian* poema luzcagaz batera, onenetarikoak.

\*\*\*

Zure *kazetaritza-lan* isila, aitatu baino besterik ez bada be, egin daigun. Gazterik hasi zinan *Euzkadi*-n zeure lehenengo lanak argitaratzen; gero, *Eguna* egunerokoan hainbeste lan gogor egingakoa zaitugu. Ez daukazu, ez, ahaztuteko orduko “esperientzi birginea”

*“Ai, EGUNako egunak, eta gau luzeak,  
kezkaz eta lanez beteak!”*

Bada euskal aldizkarien mundutxuan bat, guztiz berzia: *Boletín Informativo del Banco de Vizcaya* deritxo, eta banku ospetsu honek argitaratu eban, 1964. urtean hasi eta 1970. urtearen erdirarte, (guztira 28 zenbaki). Hegazkinez bialtzeko moduko paper mehe ta finez egiten zan. Lehenengo zenbakiak sarrera labor bat dakar gaztelaniaz, eta generako dana, bai zenbaki horrek eta bai hurrengo guztiak, cuskera hutsean dakarre (20. zenbakian hasiko dira ingelesaz artikululu bat sartzen zenbaki bakotxean, “for English speaking Basques”). Lehenengotan Ipar Ameriketako cuskaldunentzat zan aldizkaria, gero Australiakotentzat be zabalduko da, eta azken zenbakietan Nafarroako euskaldunak euren orria izango dabu. Zer zan hori? Dirua cuskerearen alde? ala euskerca diru-ekarle? Dana dala, herriminez erbesteetan itotako hainbeste euskaldunen bihotz-bizkortzaile!



Abade euskaldun baten izena agertzen jaku beti *Boletin* horretan, bere txoko ta guzti: Santos Rekalde, Idahon bere abadelana croiana. Erkiagaren izenaren bila alperrik hasiko zarce aldizkari horretan. Nik baino begi zorrotzagorik edo suberte hobarik ez badaukazue, 17. zenbakian, 1967. urtean (badira 3 urte aldizkaria sortu zala!), Lekeitio herriko barrien artean aurkituko dozue, lehenengo aldiz, Erkiagaren izena, apal eta lotsor, lehen aitaturiko kanta-saria irabazi dauala-ta. Erkiaga hori Lekeitioko semea dala bai, baina beronek aldizkari horregaz zer zerikusi daukan, holakorik ez! Hurrengo aitamena, 27. zenbakian (azken-aurrekoan!), 1969. urtean, azken orrialdearen behelaldean, lauki txiki baten barruan, "Gipuzkoa Olerti Saria" irabazi dauala-ta. Oraingo honetan, horraitino, hobeto horniduta dator albistea: "gure betiko lankidea" dala dino. Lankide baino ez, zuzendari, egile, oker eta huts-zuzentzaile eta guztia dan gizona, ordurako euskaltzain osoa, gure idazlerik onenatarikoa!

Gai arruntez beteriko aldizkari horrek (herrietako eguneroko bizimodua eta, batez be, kirolak dira nausi) Erkiagaren euskera txukuna munduko bazter askotara zabaldu eban. Ahal danik eta argien, errezan, egiten ahaleginduko jaku, baina sekula santan euskeraren jatortasunari kalterik egin barik. (Eta Santos Rekalde horrek be euskeraz argitaratu euskun urte batzuk geroago bere nobela bakarra (*Deunor*), Ameriketako artzain euskaldunen ganean euskera hutsean egin dan bakarra, nire ustez. Egileak berak autortu eustan, orain dala hamabosten bat egun, bera orain bizi dan Granadan, Erkiagak emon cutsala azken orrazketa on bat bere nobela bitxi horri!)

\*\*\*

Esan dagidan *antzertia* be landu izan dauala Eusebiok eta, hoba ez, horretan be sari ederrak jaso: hor doguz horren lekuko *Kanpaien atsekabez* (1959) eta *Sinisgogorra* (1951).

*Itzulpenen* mundu ilunean be hamaikatxu ordu sartutako gizona dogu Erkiaga. Batzuetan, idazlan literarioen itzulpenari

ekingo deutso: G. Simenon-en *Aspaldiko Maigret*, Platon ospetsuaren *Parmenides* (lapurteraz) eta oraintsu oraindino Bernardo Arrizabalagaren *Bizkaia barrutik* (hau be itzultzailearen izenik barik argitaratu ei dabe!). Sarri askotan, gai arruntak: berba cgin begie honetaz, esate baterako, Euskerazaleak alkarteak, Indautxuko Karmengo parrokiak, Bizkaian ospatu zan eleizbarrutiko Batzar Nagusiak...

Itzulpenok ez deutsoe egileari ez izen ospetsurik, ez diru handirik cmon; euskereari, ostera, eta hainbat lagun eta erakunderi, laguntasun ederra bai.

Eta azkenerako itxi dot onena, guztiok aho batez autortzen doguna: Erkiaga jauna euskerearen maisu handia dogula, bikaina, eredu. Holantxe agertzen jaku ia hasiera-hasieratik, eta bere bizi guztian landu izan dau, —begi zorrotzez, gogo biziz, zentzun handiz, frutu ugariz— euskerearen arlo hau.

Ez dira atzo goizekoak Koldo Mitxelenaren berbok: “Eztio batere zorrik Domingo Agirri” (*Egan*, 1958).

Bigarren goresle hau be giputza dogu, goi-mailako cuskal irakasle ta nobelagilea, Gotzon Garate: “Erkiagaren euskera gu guztiontzat lorategi ederra da. Joskera zuzena, esaldi cgokiak, atsotitz jatorrak. Badugu non ikasi Bizkaiko euskera bizia, batik bat.”

Bere Bizkaiko euskalkia ondo beraganduta, gazterik ckin eutson gipuzkera ta lapurtera ikasi ta erabilteari: holan, bere bigarren clebarria, *Araibar zalduna*, gipuzkeraz emongo deusku, eta lapurtera klasiko cztia nahi izango dau olerki batzuetarako (horra hor horren lekuko Azkue bere herritarrari eskainitakoa —*Azkueren heriotzan*— eta Platonen *Parmenides*-en itzulpena).

Zein euskera erabili euskal literaturan? Izan ditu horretan bere kezkek eta ezbaiak gure Eusebiok: “Orain, dakuskeczumez, euskal idazkera klasikoen bidez nabil, harako Krutwig eta Villasanten Aitaran asmoen iarrai”, autortzen deutso “Aita Jakoba

agurgarriari” (Onaindiari) 1958. urteko eskutitz baten. Baina orduan be ez dauka segurantza handiegirik: “...ioera nagusi bi ditugu oraingoz: gipuzkera eta lapurdiera. Zeintzuk errazoitsua-go? Geroak esan begi”. Geroko horretan, Erkiagak zabal jokatu dau, bere euskalkian itxiegi egon barik; baina bere bizkaiera maitea erabili izan dau, gehien baten, bere sortze-lanetan, gure euskalki honen onerako. Gogoangarriak dira hemen Lino Akesoloren berbok, Erkiagaren *Jaioko dira* nobeleari egindako sarrera luze ederrean:

“Bizkaikoa itxita beste euskalkietara jote au ez da, ezlan be, Bizkaikoari traketsago cristegaitik. Izatekotan, bizkaitarrak beste euskaldunakanako gogo zabalagokoak diralako izan leiteke. Beste-akandik erantzun bardiñik artzen ez daben arren. Azkuek eta D. Agirrek ez eben traketsago idatzi bizkaicraz idatzi ebencan, gipuzkera idatzi ebenean baiño. Bear bada, au be esan bearrekoa da”.

Nik, neure aldetik, euskera sakon ikasi nahi daben ikasleei, beti erakutsi deuset Erkiagaganako bide zuzena. Baina zure euskereak, Eusebio, akats handi bat dauka: ez zareala zu alperren lagun ona! Gauzak berez berez eta neke handi barik ikasi nahi izaten ditu ikasle alperrek, eta zuk holakoci erruki gitxi: zeugandik dakizu, inok baino hobeto, hizkuntza baten ondasun harrigarriak ikasgurcak zenbat eta zelako ahalegin, neke, irakurketa ta azterlan eskatzen dituan.

Inok maite izatekotan, maite izan dozu herria (zeure Lekeitio) eta aberria (Euskal Herria). Lekeitioko herriak kitutu eban zorcutsun zorra. Gaur, Bizkaiko herri osoaren izencan, Foru Aldundiak eskaintzen deutsu omenaldi atsegin hau. Pozarren eta esker onez hartu egizu, irribarréz, —“irribarrea galtzen dancan gizartea bera da-ta galtzaile”—, zeure azken nobelan erakutsi deuskuzunez.

Eta gaurko omenaldi hau atsegina bada —zuretzat eta zure adiskide guztiontzat—, ez cte dau honek, betegarri lez, beste zer-

bait eskatzen? Hainbeste bidar eskatu izan danez, zure olerki guztiak batu eta argitaratuak izan daitezela lehenbailehen? Astia behar dala horretarako? Eta ganera dirua? Eukiko al dozu Iño Akesolok azkencan izandako zori ona, eta sortuko jatzuz horretarako laguntzaile egokiak!

Eta eskari hori gitxi dala, beste hau be egingo nuke, amaitzeko: Zuk egindako azterlan eta hitzaldi ederrak be aldizkarietatik batu eta batean argitaratu daitezela, gure euskal kulturako gizon handiak hobeto ezagutu ahal daiguzan (Azkue aita-semcak, Etxeita, Basabe, Mikel Arruza, Augustin Zubikarai, Tomas Agirre "Barrenoro" ta beste batzuk)<sup>12</sup>. Besterik ez gaurkoz. Zorionak zuri, zorionak Aldundiari, zorionak euskaldun guztioi. Eta azken guraria: Jaioko al dira ugari zure antzeko idazle barriak!

Oharra: Berbaldi honen biharamonean, sekulako istripu gogorra izan nuban, Begoñan: neure kotxe barruan nengoala, bide nagusira noiz sartuko, mozkortuta etorren batek jo ninduan bere berebilaz, eta, erdi hilda, hantxe euki ninduen, Basurtuko ospitalean, hilabetean. Gure Eusebio ez zan gitxi arduratu nire egoera larriaz. Ni osatu nintzan, harrigarriro osatu be. Bera, ostera, handik lasterrera hil egin jakun, eta neuri eskatu eustan haren alargunak Eusebioren hileta-mezca Begoñan emon eta berbaldia egitea.

Hona hemen orduan nik esandako berba batzuk<sup>13</sup>.

---

<sup>12</sup> Zorionez, eztenkada honek izan dau bere fruitua, horra hor *Berbalauaren kulunkan*, Andres Urrutiak batu eta Labayru Ikastegiak argitaratu deuskuzan liburu mardul biak.

<sup>13</sup> 1993ko maiatzaren 31an hil eta hileta ekainaren 2an izan zan.

Anai-arreba maiteok:

*“Gure arteko gertakizunak  
ezbehar asko dakarte...”*

Eta ezbeharrik handiena heriotzea: hain zuzen be,

*“Herio-jasak desegiten dau  
bizi-lekua munduan...”*

Hau danau edo zcinck dakiana da, egumero ikusten doguna. Haize azkarrak, behin handik, behin hemendik —alde guztietatik— jo ta jo darabilen oihal-txabolatxu baten antzekoa dala gure lurreko bizitza hau, esan deusku San Paulok. Edo zcinck dakiana, guk sarritan ez-ikusi eta ahaztu egin arren.

Beste olerkari sakon askoren antzera, gure Eusebiok be aurrez aurre eta barruko esangurea bilatu nahian begiratzen eutsan bizitza honi. Berak esana dogu: “...zer dogu gure bizitza, gure izate osoa, eskutapen hutsa besterik? Ulertuezina dogun amaibako poesia baino? Beti misterio, eta dana misterio”.

Gure bizitza osoa holakoa bada, zer ez ete da heriotzea? “Gizonaren bizitzako misterio nagusia” dala dinosku azken kontzilioak. Gehiago: gure irudimenak, gure asmakizunak, porrot egin dabela heriotzaren aurrean, gizonaren beti bizi izateko gurari bizia ase ezinik.

Emauseko ikasle bion antzera, nor ez da triste jartzen, nok ez dau burua makurtu eta bere barruan hausnartzen heriotza lotsagarriaren ulertuezina?

Baina orduko ikasle biak lez, fededunok beti dogu bidelagun Jesus hil eta biztua. Bera dogu “munduko argia”. Gure fedeari custeko, Berak jarri deuskuz gaurko ebanjelioan aurkitzen doguzan bideok:

—Bata, Jaunaren Hitzza, Liburu Santuetan Jaungoikoak eskaini deuskun berbea.

—Bestea, ogi-zatitzea, anaiarteko Eukaristia, maitasun-ezau-  
garria.

—Hirugarrena, apostoluakandik jatorkian fededunen alkar-  
tea, komunitatea.

# JAIME IÑAZIO KEREXETA GALLASTEGI<sup>14</sup> (ELORRIO, 1918-1998)

## SARRERA

Joan zan abuztuaren 4an hil zan Elorrión Jaime Iñazio Kerexeta abadea, aspalditik euskaltzain urgazlea (1964). Hiru bat hilabete lehenago, apirilaren 24an, Ohorczo Euskaltzain egin eban Euskaltzaindiak, eta izendapen hori guztiz pozik hartu eban Jaimek. Baina ez eban berak etxe honetara etortarik izan, Agiria hartzeko: bezperan buruko ondocza agertu jakon, eta gatx horrekek eroan euskun gure artetik, aste gitxi barru.

Jaimerén omenez her balditxu hau egiteko eskatu eustenean Euskaltzainditik, ezin nik ezelan be ezetzik emon: aspaldiko laguna eta sarritan lankidea neban Kerexeta jauna, harcñ lan eskergearen txalotzaile izan naz beti, beragaz batera eta egun beren jaso neban Euskaltzaindiagandik ohorezko izendapena, eta ganera neuk emon behar izan neutsan azken agurra, Eleiza Amaren ize-nean, Elorrioko parrokiari, joandako abuztuaren bostean.

---

<sup>14</sup> Euskaltzaindian egindako hitzaldia, *Euskera*, 1999, 1, 727-734 or.

Kerexetaren gainean beste idatzi bi ditu Karmelok lehendik eginda: "Kerexetaren 22gn. euskal liburua dala-ta" eta "Kerexeta, eleiz-idazle". Hona ekarri dogun hau osoena da, eta beste bietan esandakotatik hainbat gauza honetan be agertzen danez, azken hau baino ez dogu sartu edizino honetan.

## 1. BIZITZA

Elorrión jaio zan Kerexeta, 1918. urteko uztailearen 31.ean, Aita San Iñazio Loiolakoaren jaieguncan, hain zuzen be. Mutiko zala, abadetzarako bidca hartu eban eta hainbat ikastetxetan burutu zituan bere ikasketak: Gaztelu Elexabeitian, Comillasen, Burgos, Sevilla eta Galiziako Tui-n. Azken hiru uriotan musikarako eukan trebetasuna be crakutsi eban. "Schola Cantorum"eko zuzendari Burgosen, organujole Sevillan, musika-irakasle Tui-ko Seminarioan: hementxe egin zan abade, 1947. urtean, eta katedraleko organujole izatea irabazi eban, norgehiagokan, benefiziadu lez. Urte bi lehenago, pianu-titulua be eskuratu eban Bilboko Musika Konserbatorioan.

Bere etxean eta herrian ikasitako euskerca ez eban guztiz galdu erbesteko egotaldi luzean. Nik dakidala, urrutian bizi beharrak biziagotu egin eutsan herrimina, eta batez be Tui uri apal bakesuan zaletasunik handicnaz ekin eutsan euskerca ikasteari, Resurrección María de Azkueren *Morfología Vasca* eta Scher Altuberen *Erderismos* gidari zituala. Bere bizitza guztian ez dau Jaimek ukatuko, ez isilduko, maisu handi bioi zenbat zor deutsen.

1952. urtean Galiziako lurralde gozoak itxi eta bere Euskal Herri maitera bihurtuko jaku Kerexeta betiko. Urkiolako Santutegian emongo ditu 4 urte, 1956. urtean Elorriora jatsi arte. Harrezkeroko bizitza guztia Elorrión emongo dau: San Agustín eta Sortzez Garbia eleizetan abade (urtebete labur baten Iurretako abade laguntzaile be izan zan). Berrogeta bi urte luze, Elorrión, amaibako laucan.

## 2. EUSKAL IDAZLEA

### 2.1. Olerkaria

1954. urtean agertzen jaku Kerexeta euskal idazle lez, *Euzko Gogo*a aldizkarian, *Arantzibia* izenordepean bere burua lotsor



estaltzen dauala, 15 olerki argitaratzen ditu. Gero, *Euzko Gogoa* eta *Olerti* aldizkarietan argitara emoniko olerkiak liburu bitan batuko ditu: *Orbelak* (1958) eta *Bitargi* (1960). Hogei urte gero-ago liburu biei barri bat erantsi eta *Orbelak*, *Bitargi*, *Udazken* (1980) liburua argitaratuko dau, gaztelaniazko itzulpen eta guzti ("versión castellana revisada por Luis de Castresana").

Bere burua, poeta lez, apal agertzen dau hasiera honetan Kere-xetak: bere olerkitxuak "xume ta mengel" dirala autortuko dau, "cdonok egin daikezanak". Ez zan hori *Euzko Gogoa*-ren zuzen-daria zan *Udalaiaperen* (Jokin Zaitcgiren) eretxia: "Belarri-biotze-tan samur, goxo eta gogor iosi ta itsatsi oi diran olerki errex, arin eta bigunak. Orainaldi ontan bizkaieraz nabarmentzen diran oler-kari gorengoen artean gorengoetariko bat dugu *Arantzibia*, non-bait: dana neurri, dendu ta musika". (*E.G.*, 1959, 294-6 or.)

Kerexetak hasiera-hasieratik autortzen deusku bere euskal-tzaletasun bizia be: "Euskeraganako maitasunak erabilli nau; bai, aldarrika diñot: argitara damodazan lerro oneik, arek sortu ta cra-giñak dozuz." (*Orbelak*, Hitzaurrea, 9). Geroko ahaleginak eta lan ugariak argi eta garbi erakutsiko deuskuc benetako bizkaita-rra izan zala honetan, "corto en palabras, pero en obras largo", "hitzetan urri, egintzetan ugari".

Poesiaren munduan murgilduta ibili zan lehenengotan. Baina *Euzko Gogoa*-ren urtcotan, beste alderdi bi be erakutsi euskuzan: bata, musikazalcarena; bestea, berak "mazmarroizti" deritxonak, erderazko "heráldica". Hori bai: gai biok be euskera hutsean era-biliko ditu eta prosaz.

Musika gaiari hiru artikulu eskainiko deutzaz:

1. *Ereslari batzuen oldozkunak* (itzulpena, 1954).
2. *Frederic Chopin* (1954).
3. *Ereslari erromantikuen aldia* (Schubert, Mendelssohn, Schumann) (1955).

Chopinazale dala autortzen dau. "Ez diñot besteak baiño geia-go balio dauanik, atsegiñen izango yatzula baiño. Bein baiño geia-gotan esan dot neurekotan: Al izango ba'ncu nik Chopin'en an-

tzerakoa izan, aren eskuak euki, aren adorea lortu!" (*E.G.*, 1954, 9-10 z., 151)

Mazmarroiztia dalako horri 11 artikulua labur eskaini eutsotzan *Euzko Gogoan*, hiru urtetan (1956, 1957, 1958). Bere bizi guztian ekingo deustso gogotsu gai honi eta hainbat liburu eskainiko deustsoz, gaztelaniaz: *Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco* (5 tomotan, 1970-74); *Casas solariegas de Bizkaia* (tomo bitan, 1987, 1989), *Linajes y Casas solariegas de Elorrio* (1988), *Linajes y Casas de Gipuzkoa* (1993), *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII* (1992).

Gramatikazale zorrotza be, agertzen jaku Kerexeta, *Euzko Gogoan*-ren aldi horretan, Aita Pi karmeldarraren *Kristoren Antzibidea* eta J.B. Ibargutxiren *Otoia* liburuei egindako kritika laburretan (*E.G.*, 1957).

## 2.2. Euskal Biblia

Bibliari eskaini eutsan Jaime Kerexetak bere bizitzako ekitaldirik luzeena eta emonkorrena. Hamabi liburu, gitxiezez, argitaratu ditu gai honen inguruan. Itun Barriagaz hasiko da eta Biblia osoa Bizkaiko euskerara itzuli arte ez dau bakerik izango. Bere *Euskal Biblia* dau Kerexetak lanik ospetsuena, Bizkaian hutsune luzea ederto bete dauan liburu txalogarria.

—*Jesu Kristo gure Jaunaren Barri Ona* (1960) da lehenengo liburua gai honetan. Ebanjelio alkartuen itzulpen honek zabal-kunde handia izan eban: aspaldiko egarri bizia asetzeraren ur garbia zalako. Ebanjelioak bizkaieraz irakurteko ez geunkan besterik *Argi Donea* baino, eta honek domeketako ebanjelioak baino ez ekazan. Bai abadeok, bai kristinatu herriak pozarren hartu genduan Kerexetaren itzulpen hau: edozeinek ncke handi barik ondo ulertzeko euskera garbian egoan bizkaieratuta. Gerora be birritan ekingo deustso Jaimek gai beroni: *Ebanjelio alkartuak* (1973 eta 1989, baina azken hau *Biblia Interconfesional-etik euskeratua*).

—Langile amorratu honek aurkitu dau gai egokia eta ez da lotan egongo: hurrengo urtean *Apostoluen Egiñak* (1961) kalera-tuko deusku eta lau urte geroago *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (1965). Ez jako gauza handirik falta Testamentu Barri osoa euskeratzeko. Hurrengo urtean lau ebanjelioak osorik itzuli eta *Jesukristoren Barri Ona* (1966) argitaratzen dau. Zatika egindako lana batu eta *Alkartasun Barria* (1972) eskainiko deusku, lehenengo aldiz Bizkaiko euskeran.

—Behin Testamentu Barria egin ezkeru, Zaharra zergaitik ez? Lan gogorra eta luzea da hori itzultzaile bakarrarentzat. Baina lan eskerge hori osotzeko eskatzen deuskie, behin eta berru, hainbeste adiskidek, baita Bilboko gotzaina dan Antonio Añoverosek be. Liburu barriaren edizinoa ta zabalkundea aurrera eroateko lagun-aldra batek Batzorde bat sortu dau eta dirua aurrerratu. Baina, buztarri bakarrek idi indartsuaren antzera, testuaren itzultze-lan ikaragarri hori Jaimek berak bakarrik egingo dau. Oharrak, abade talde batek euskeratuko deusoz eta liburuaren Sarrera guztiak Lorentzo Zugazaga abadkak. Holan, inok uste izango eban baino bizkorrago ikusiko dau argia *Euskal Bibliak* (1976). Urte bian egin dau Kerexetak Testamentu Zaharraren itzulpena. Harrigarria, benetan, eta eskertzekoa lan eder hau. Baina han bere etxeko ganbaran edo “txoritokian” sartuta, egunero bederatzi ordu lan egiteak ez deusko mesede handirik egingo Jaimeren osasunari.

Dakigunetz, Kerexetaren aurretik beste bizkaitar batek be euskeratu eban Biblia osoa: Arrigorriagako semea zan Aita Uriarte frantziskotarrak. Duvoisin kapitainak lez, honek be Luis Luziano Bonaparte printzearen aginduz egin eban, eta egin be, ez bizkaieraz, gipuzkeraz baino, printzearen aginduari jarraituz. Bonapartek, ostera, Duvoisinena baino ez eban argitara emon; Uriarteretik Bibliaren lehenengo liburu batzuk baino ez, Otaegi gipuzkoarrak zuzenduta. Printzeak, antza, langile sutua aurkitu eban Aita Uriartegan, baina bizkaitarraren gipuzkeraz orrazteko langilerik ez eban aurkitu, nonbait. Horregaitik-edo gcratu zan Uriarteren Biblia argirik ikusi barik.

Batzordeko lagunak “Eskintza”n autortzen dabenez, eurak “bizkaierazko Biblia osoaren bearritzana somatzen” eben, eta ganera “gaurko gure erriarentzat, gaur bizkaieraz egiten dauan erri onek erraz-eraz ulertuko leukean eraz” (*Euskal Biblia*, V). Aita Olabideren *Idazteunak* ez zituan beteten egarriok: gasteiztarren euskerca ilunegia zan gure herriarentzat. Eskatzen jakon helburua lortu ete eban Kerexetak? Baietz uste dogu. Lehen be bere maisutasuna ondo erakutsita eukan horretan. Bibliaren itzulpen barri honen zabalkundeak be beste horrenbeste dinosku: lehenengo edizinoa urte gitxitan agortu zan, eta harrezkero beste argitalpen bi egin dira (1993, 1994). Dana dala, apal eta bihotz-zabal agertzen jakuz batzordekoak Kerexetaren Biblia eskaintzerakoan: “Zabalik geratzen dira —dinoskue— ekinbideak, zabalik eginbideak; Biblia-arloan diarduen jakitunak jarraitu daikeoe euren lanari, euren arazoari, Biblia jakintza-aldetik obetzen, apaiñagotzen, bikaiñagotzen, eta bide-zidorrak argiagotzen... Ekin dagiola bakotzak bere lan-arloari!” (Ib. V).

Horixe lortu nahi izan dau oraintsu Euskal Herriko jakitun talde batek: Kerexetak bere Biblia-itzulpena gaztelaniatik egin badau, talde honck jatorrizko hizkuntzetatik egingo dau zuzenean, gaur egin ohi dan legez. Ganera, azken urteotan Euskara batua nagusitu da gure artean, eta eskabide barri honi erantzun nahi izan jako, *Elizen arteko Biblia* (1994) argitaratzean. Itzulpen barriaren arrakasta handia ikusirik, hurrengo urtean, *Itun Berria* be argitaratu deuskue, hiru hizkuntzetan hatan be (grekoz, latinez eta euskeraz), Biblia barriaren itzulpen ekumenikoaz baliatuz. Holan, bai Bizkaiko kristinaiak, bai beste euskaldun kristau edo girstino guztiak badoguz orain Biblia osoa geure hizkuntzan irakurteko erea eta poza.

### 2.3. Liturgia euskeraz

Danok dakigunez, Erromako Eleizeak, azken Kontzilioaren aurretik, latina erabili izan dau bere hizkuntza bakartzat otoiiz



Jainc Kerexetari omenaldia Derioko Udako Ikastaroan, 1991eko uztailaren 12an. Ezkerretik hasita Igonc Etxebarria, Karmelo Etxenagusia, Jainc Kerexeta, Lino Akesolo eta Ander Manterola.

ofizialetan: mezarako, sakramentuetarako, Orduen liturgiarako... Mende luze askotan horrelantxe.

Baina herriak latinik ez ekian eta, hainbat eleizgizon arduratu zan latinezko testuen itzulpenak egin eta herriaren eskutian jarten, batez be mezako testuenak.

Euskeraz be hutsune hori beteteko ahalegin batzuk aspalditik egozan eginda: letra handiko esku-liburu edo debozionario zaharrek gogora ekarri daiguzan, baita Argi Donea mescedegarria be. Oraintsuago, 1949.ean, Orixek euskeratutako *Urte guziko Meza Bezperak* zabaldu zan gure artean, latinaren parean euskerazko itzulpena ekarren liburu dotorea. Nik neuk ez deusat gitxi zor liburu honi. Mezearen beste euskal itzulpen bat be ezagutu neban, Jon Gurutz Ibargutxi abadeak bizkaieraz egin. Argitaratua izateko eleiz baimena be lortu ebala uste dot Bilboko gotzaitegian, baina ez

eban argirik ikusi. Ez dakit zergaitik. Orixerenaren itzulpen soil ete zan? Non ete dabil orain ubidetarraren itzulpen hori?

Orixeren eta Ibargutxiren bidetik ekin cutsan gure Kerexetak. Bere *Eguneroko Meza* 1963. urtean argitaratu aurretik, domcka eta jaiegunetako mezen itzulpenak orri solteetan argitaratzen zituezan Aita Onaindiak eta Jaime Kerexetak. Hau dala eta, *Eguneroko Meza*-k argi dinosku liburu barri hau “Kerexeta’tar Jaime’k eta Aita Onaindia’k eginda, ta Kerexeta’reñ ardurapean atonduta” dagoala. Baina egiari berea zor jako eta, csan daigun meza-liburu honen cgile nagusia Jaime izan zala.

Jaimek, jakina, Orixeren *Meza-liburua* ondo ezagutzen ebanez, behin baino sarriago izango eban begien aurrean haren itzulpena. Baina *Eguneroko Meza* ez da, ez, bestearen bizkaieratzea: alde batera itxiko ditu haren Bezperak, latina, goratzarretako doinuak. Rituala eta azkeneko eleiz abestiak. Apalago eta laburrago dator Kerexetaren liburua Orixerena baino, ahal danik eta merkeen eta Bizkaiko kristinau askoren eskuetan lagateko borondatez edo.

Sekulako harrera ona egin jakon Bizkaian, honen antzeko meza-liburu baten premina gorria cgoalako gure artean. Izan be, *Argi donea* zaharra laburregi ta estuegia zan orduko eskabidcentzat; Orixerena, ostera, agortuta egoan eta, ganera, ilungia zan bizkaitarrik gehientzat, bere nafar usaineko euskera bereziagaitik. Kerexetak ondo hartuta eukotsen bere neurria Bizkaiko euskereari. 5.500 ale argitaratu ei zituan, eta, urtebeteren barruan, dan-danak egozan salduta edo zabaldua. Egilea bera ibili zan, herririk herri, Bizkaiko cleizarik gehienetan bere “ume” barria aurkezten.

Beranduegi etorrela *Eguneroko Meza*? Alde batetik, halan dirudi: argitaratua izan zan urtcaren azken aldian, hain zuzen be, Kontzilioko Curasoak ontzat emon eben Erroman liturgia barriztatzeko agiria. Laster hasiko ziran loratzen eta frutuak emoten liturgia barriaren lanak.

Esan daigun, horraitino, Kerexetak bere meza-liburua euskeratu ebanean inongo inok ez ekiala etorkizun barri horren

barririk. Artean, Kontzilioa iragarrita egoan, bai, baina batzeko. Eta nok jakin orduan handik lasterrera zer etorriko jakun? Beste hau be esan daigun: liturgia barrirako lehenengo baime-nak eta aldaketak etorri ziranean, zorionez guk hageunkala Bizkaian Kerexctaren liburu hau. Esaterako, meza irakurgaiak —ordukoak, ez gaurkoak— herriko hizkuntzan egiteko baime-na heldu zanean, Bizkaiko Elcizeak erraztuta eukan bidea: Kerexctaren itzulpena erabilteko bainena emon eban gotzainak eta danok pozik. (Bizkaitarrok baino estu ta larriago ibili ziran orduan gure auzoko beste euskaldunak, itzulpen egokirik ez eukela eta).

Domeka ta jaiegunetako irakurgaiak hainbat urtetan entzun izan dituz Bizkaiko gure elciztarrek Kerexctaren hizkeran; astegunetako eta santuen mezetako irakurgaiak, ostera, oraindino luzeroago, *Irakurgaiak* deritxon liburu lodikote ofiziala 1988. urtera arte ez zalako Bizkaian argitaratu. Horra hor zelan, Kontzilioari eskerrak, Kerexctak elciztarrendako asmatu eta egindako meza-liburu txikia, gero Altarako liburu bihurtu zan urte askotan Bizkaiko abade euskaldunontzat.

Kontzilio ostean, urteak joan urteak etorri, mezeak aldaketa asko eta sakonak izan ditu: egituran, otoitzetan, irakurgaietan, ohikune edo rituetan. Hau holan dala, Kerexctaren *Eguneroko Meza* be, beronen antzeko beste liburu asko lez, alboratu egin behar izan da, liburu ofizialei lekua emonez. Baina esan daigun, testu eta liburu ofizialok argitaratu eta gero be, gure arteko abade batck baino gehiagok jarraitu izan dauala Kerexctaren liburu txikia erabilten, honen berbetea argiago, samurrago, bertokoago egiten jakolako-edo, hizkera horretara belarrira eginago eukalako-edo.

*Eguneroko Meza* da, liturgi arloan, Kerexctaren lan nausia, baina ez bakarra. Hor doguz, beste batzuen artean, *Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko-Erriaren Otoitza* (1977), *Elizearen otoitza* (1982), (Orduen liturgiako Gorespenak eta Bezperak, era laburrean), *Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak, Abade bagarik* (1982) eta *Fededunen Otoitza* (1988).

Eleizbarrutiarteko itzultzaile-taldean be partaide izan genduan, lehenengotik hasita. Baina geroago eta gitxiagotan etortzen zan talde-batzarretara: Jainek erosoago aurkitzen eban bere burua bakarlanean jo ta ke, taldelan gogaikarrietako eztabaida luzcen artean baino. Berak argi ikusten eban bere bidca, arau jakinak eta zehatzak zituan euskera-gaictan, eta nekez aldenduko eban inok bere erizpide ta jokabideetatik, taldelanetan behin baino sarriago egin behar danez, norberaren hizkeraren berezitasunen kaltetan, batasunaren mesedetan.

Hutsuneak betetca: horixe izan da bcti Kerexetaren asmoa, Bibliaren eta liturgiaren arloetan. Testu barrien itzulpen ofizialak astiroegi etozala? Gure eleizetan horreen premina handia egoala eta, berak, bere kontura, inok esanaren zain egon barik, behingotan euskeratu eta argitaratuko zituan.

## 2.4. Beste erlijino-gai batzuk

Biblia eta meza-liburua dira, duda barik, Kerexetaren lanik behinenak, gure Herrian eraginik handiena izan dabenak. Euskerazko zenbat liburu irakurriago eta, batez be, entzunago gure Bizkaian mende honetan? Eta, Jaimeren meza-liburua bazterrean itxi behar izan badogu be, *Euskal Bibliak* mesede handia egingo dau luzaroan be, nik uste.

Baina etzan horretan itota gelditu Kerexetaren ahalgina. Erlijino-gaien artean, ezin guk aitatu barik itxi beste itzulpen batzuk:

—*Didaché eta Apostoluen Siniskitza* (1965), *Eliz-Guraso apostolikuak* (1975) eta *Kunran-cko eskuizkribuak* (1989), antzinakoak.

—*Gure Salbaziño-egintza* (Alkartasun Barria) (1972), *Kristau-Ikasbidea* (4. maila) (1974), katekesi-arloan.

—*Berrio-Otxoa* (1988), *Kenpis* (1989), *Kristau-Gaiak* (1995) eta Escrivá de Balagner-en *Bidea* ospetsua (1995).



### 3. GAI PROFANOAK

Olerkiak alde batera ixten baditugu, Kerexetaren euskerazko lana, ia oso-osorik, itzulpenari eskainita dago, erlijino-gaien itzulpenari, ikusi doguncz. Baina gai profano batzuk be euskeratu zituan, curon artean: Luis de Castresanaren *Iparragirre'ren Bizitza* (1978) eta *Gernika'ko beste Arbola* (1979); Behórquez-en *Bolibar* (1984). Euskal idazle batzuen euskerazko lanak zerbait orraztu eta eratu be bai: Aita Basaberen *Gogarteak* (1963), Bustintza'tar Errose "Mañariko"ren *Ipuinak* (1990) eta Xabier Goitiaren *Eusko-Umeak Atzerrian* (1991).

Hiztegitintzan be lan egindakoa dogu. Horra hor, adibidez, bere *Diccionario Euskérico* (1977) eta *Diccionario AMAYA de la Lengua Vasca* (1991).

Nire ustez, ondo mereziduta eukazan Jaime Kerexetak Euskaltzaindiak berari egindako izcndapenak: lehenengo, urgazle; aurtan, ohorezko. Berrogeta hamar euskal liburutik gora egin eta argitaratu dituan langile nekaezin honi horrenbeste eta gehiago zor deusic Herriaren eta Elcizearen ordezkariak.

Kerexetaren lanik gehientsuenak itzulpenak baino ez dirala, eta itzulpen soilak ez deusala ospe handirik emoten, ez egilcari berari, ez euskercari, literatura ederraren aldetik, behintzat? Holan uste izango dau batek baino gehiagok. Baina Kerexetaren lan luze eta ugaria guztiz dogu aintzat hartzekoa eta txalogarria:

—Alde batetik, Bizkaiko Elcizcaren —hau da, bizkaitar asko ta askoren— beharrizanei erantzun egokia emoten jakin daualako, beste inok baino lehnago, gehiago eta hobeto.

—Eta bestetik, azken berrogei urteotan beste noren euskerea izan dogu hemen irakurriagoa edo, behinik behin, entzunagoa? Ilizkera argia, gheiegikeria bako garbia, zuzena, arau zehatzez ondo hornidua, zentzun handiz landua eta txukuna, gure herriak eguncro ahotan erabiltzen dauan herbetatik hur-hurrekoa... Gogoangarriak dira, duda barik, gure idazle "klasikoen" lanak, hori ezin ginei ukatu. Baina euron artean, zeinek izan dau bizkaitarron gogo-bihotzetan Kerexetak hainako cragin luze ta sakonik?

Amaitzeko, Juan Mari Lekuonaren bertso dotore bat jatort gogora. Behin Urkiolako Santutegian, Bizkaiko Elcizeak omenaldi apal bat egin eutsen 5 eleizgizoni, cuskeraz eleiz gaietan egindako lan ederragaitik; boston artean, han zan gure Jaime be. Bakotxari bertso bana kantau eutsan Juan Marik. Kerexetari hauxe:

“Elorriotik dator  
Jaime Kerexeta.  
Nok du sendoagoa  
idazteko seta?  
Bizkaicra hotsegin  
gogor lau haizeta...  
Euskaran bere pare  
gaur askorik ezta.”

# LORATEGIAK-ANTOLOGIAK\*

## LORATEGIA<sup>1</sup>

Hemen dozu ba, halakoen baten, Lorategi ta Hiztegitxu hau. Zeuretzat eginak dira, maitasun haundiz, gure euskera zaharra sakonago ezagutu dagizun. Idazleak, izan be, euren lanetan eza-gutu behar dira.

Bertsoetarako, hor dozu A. Onaindiaren *Mila Euskal Olerki Eder*; harrezkero agertu diran bertso-lanik gorengoenak (zelan ez aitatu A. Gandiagaren *Elorri?*), liburuetan eta aldizkarictan aurkitu zeinkez: *Egan*, *Euskera*, *Karmel*, *Oleriti...* Hitz-laugilecn Lorategirik ez geunkan orain arte gure Bizkaian. Badagoz, bai, hiru Antologia eder: A. Villasantek bere *Euskal Gramatika labur*

---

\* Gitienez 5 antologia egin eta argitara emon ditu K. Etxenagusiak, bostok bere ikasleentzat lagungarri izan eitezan.

Guztiok daroe euren sarrerca: hortxe erakusten deuskuz egileak bere asmoak, ikuspegia, erretxiak.

Bata bestecaren atzean eskaintzen doguz, bai gaiaren aldetik eta baita idazkera aldetik be egilearen ezaugarri ona direlako.

Lorategien arlo hau gchiago jorratzeko, egilearen beste berbaldi bat be emoten dogu, gehigarritzat: "Elerti ikasketak eta Lorategiak".

<sup>1</sup> *Euskal-idazleen lorategia (Bizkaiera-Itz lauz) Antología de prosistas vizcaínos*, Seminario de Derio, 1965.

Conyelo Egozajusa Urbe 9/10

EUSKERTZAZ

ZORATEGIA

(Pezkeraz itelaz)

ANTOLOGIA DE PROSISTAS VIZCAINOS

Seminario de Deria - 1965

liburutxuaren azken aldian eta S. Omaetxebarriaren *Euskera*-n argitaratu dabezanak, eta P. Lafittek argitaratua (*Eskualdunen Lorategia*). Egia esan, Bizkaiko idazleak ez dauke eurotan toki haundirik; baina, dana dala, A. Villasanteren Lorategietan behin baino sarriago bilatu izan dot argitasuna ta iturria.

Lorategia? Bai ta ez! liburutxo hau egitean, ez naz beti eder bila ibili; sarritan neure euskera-zko eskoletarako gai hila be bai. Horregaitik, ederrinak eraginik sartzen bazara baratze honetan, harenbaten ez dozu holango edertasunik aur-

kituko hainbeste ta hainbeste orritan. Parkatu! Beste batzuetan, ostera, harrituta geratuko zara, zeuk uste zenduan baino bitxi ugariago idorotcan, bai idazle zaharretan, bai gaur egumekoetan.

Beste hutsune bat be badagoala konturatuko zara; idazle batzuri ez jak e mon behar eben eta merezi eben tokirik. Kerexeta batek, Erkiagak, Zubikaraik... orri ugariago merezi ebezan honc-lango Lorategi baten. Baina idazleok, alde batetik, oso ezagunak dozuz; ta ganera, astiroago ta sakonago, curen liburutetan, ezagutu behar doguz.

Idazle bakoxtxaren aurretik jarritako zertzeladak, gehienak, A. Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca*-tik hartuak dozuz. Liburu honetantxe, edo L. Mitxelencanean, osotu zcinkez ohar laburrok.


Ortografia, ahal dala, gaur egunean gehien bat erabilten dana ipini deusut, beharbada ez beti, zuzenegi.

Beste gauzatxu bat: Lorategi honetan ez dozu aurkituko hari zuzen bat. Izan be, orriok egiten hasi nintzanean, ez neukan Antoljia bat egiteko asmorik. Hauxe zan nire ardua bakarra: irakurle barriai euskal irakurgai errez eta atseginak eskaintzea. Gerora etorri jatan burura orriok osotutca, bai lehenagoko idazlecn atalakaz, bai oraingoenakaz be. Holan gure euskal idazlerik gehienak ezagutu zeinkcz, apurtxo bat behintzat: ganetiko lana —zehatza-go ta sakonago ezagutzea— zure ahaleginari dagokio, idazlecn txatalak barik liburu osoak sarri-sarri irakurriaz.

Zer gehiago? Hauxe bakarrik: AURRERA ta gure Otxandioko santugin eta olerkariak abesturiko bertsoak:

*Euskaldun jaió nintzan  
euskaldun hazi;  
euskera hutsik amak  
eustan irakatsi.  
Euskera maite-maite!  
zabiltz nigaz beti;  
euskera hil ezkeró  
ez dot gura bizi!!! (F. Arrese Beitia)*

## BIGARREN LORATEGIA<sup>2</sup>



Abadegei euskera-ikasle hori:  
Badira urte bi onak, neure  
lehenengo *Lorategia* (Bizkaie-  
razko prosista euskaldumena)  
eskaini neutsuna. Barrero nator-  
tzu gaur bigarren honengaz: le-  
hengoa osotuteko, gipuzkeraz  
hitz lauz idatzi daberen autoreak  
dakartsudaz oraingo honetan.  
Danetarikoak dozuz: lehengoak  
eta oraingoak, hildakoak eta  
biziak, jokera batekoak eta bes-  
tekoak (edota bien bitartekoak).  
Badago, bai non aukeratu! Eta  
hor gabiz gero gu zer hori za-  
baltzen: euskeraz ez daukagula  
liburu-modurik! Beharbada, ezin  
geintekoz, ez, harrotu inguruko

herrien aurretan; baina, gure betiko egoera negargarri ta larria  
gogoan izanik, zetan lotsaturik ba ete daukagu?

<sup>2</sup> *Euskal Idazleen Lorategia (itz lauz) II. Gipuzkeraz, Derio (Bilbo)ko Semi-  
narioan, 1967.*

Zelako asmoz nabilen? Hara: zu lango gazte burujantzi batek, erbesteko literatura ez eze, geure-geurea dogun euskerazkoa be sakon ezagutu behar leuke; ta ezagutu bere, ez gero edozelan, hurhurretik baino: hau da, idazlerik onenak irakurriaz eta euron idaztietan aztertuz. Baina, zer jazoten da gehienetan, zoritxarrez? Batetik, liburu egokirik ez (batzuk, agortuta dagoz, eta beste asko, gogor eta ilun egiten jakuz, inongo laguntasunik ez-eta); bestetik, ostera, salgai dagozan liburuak zeureganatzeko edo irakurtzeko, asti handirik ez, eta dirua bera be, harenbaten, urriegi. Hori dala-ta, honetarakoxe egin dot bigarren bilduma hau: zuri gauzak errezago jarri ta zure bihotz gaztean euskal elertiaren egarri biziagoa sortu gurcan. Lehengoan baino batasun gehiago aurkituko dozulakoan nago; gauza barriren bat be bai: sarrerak, euskera hutsean; hiztegitxua, era bitakoa: bata, sarri be sarri erabilten diran hitz batzuen esanahia dakar (gipuzkerazko liburuak irakurtzeko, behar-beharrezkoa dozu horko hitzik gehienak buruz jakitea); besteak, hitz zailenen esangurea damotsu, herbok orrialde bakotxean agertu-ahala.

Lorategi hau —ez ahaztu!— idazleena da: *Lorategi* izena baino hobeto jatorri, harenbaten, *bilduma* izena, baina lehengorari ezarritako izen berbera erabili dot oraingoan be. Idazle asko sartu nahi izan ditut, euskal literaturaren kondaira hobeto ezagutu daizun. Aukeratutako zatiok edo atalok ez jatzuz beti hain ederrak irudituko, edertasun hutsaren bila bazabiltz; baina honetarakoxe lagunduko deusue, behinik behin: gipuzkerazko maisurik garaienak zelan idatzi ta idazten daben ikusteko; horrezaz ganera, orrialdeok, arretaz irakurri ezkeru, gai jakingarri asko erakutsiko deusue, zeure burua aberastuteko. Gure Elertiaren zatirik bikainenak bakarrik aukeratzekotan, ez nituzan, ez, honenbeste autore sartuko; ta asko sartu badituz be, hauxe izan dot —garbi dinotsut— neure buruko minik txarrena: zein baztertu? Neure gogoz, pozik be pozik sartuko nebazan (merezidu be ba dabe-ta) beste euskal prosista asko, bai zaharrak, bai gaur egunekoak; baina liburu honek bere neurria behar, eta guztien-

tzako lekurik ez!<sup>3</sup> Hurrengo hau be garbi itxi gura dot: hemen agertzen dirala-ta, ez uste izan idazle guztiok neure gogo beteko diranik, ezta beti idazlerik onen-onenak be; baina danetik emon gura izan deusut, era guztietakoak, danon barri izan daizun, eta gero zeuretzat onenak zeuk aukeratu daizuzan. Bere eretxia ikasleai ezartea, ez deritxot erakusle edo maisu baten eginbearra danik.

Honclango liburu bat egiteko —geroago ta argiago ikusi dot hau— gizontxu baten indarrak eta ahaleginik bizienak ez dira nahiko: talde alkartu baten lana izan behar leuke honek (horregaitik, betor lehenbailehen Euskaltzaindiak agindutako *Euskal Idazle Zaharren Lorategia*, Juan San Martin behargin sutsuaren ardurapean egitekoa dan hori). Bien bitartean, zerbait egin behar, eta egin dot nik neurea: ahal nebantxua, tarteka-marteka, eta pozik handienagaz. Izan dot honetarako laguntasun ederra, eta ezin hemen ixildu laguncn izenik: A. Juxto Mari Mokoroa, A. Lino Akesolo, Anai B. Berriotxoa (gure Bitaño) eta Juan San Martin; lauoi neure *eskerrik askorik* bihotzekoena!

Lehendik be badoguz Antologia eder batzuk: P. Lafitten *Eskualdunen Loretegia*, *Lehen Zathia* (1645-1800); I. Villasanteren *Idazleen pusketa autatuak* eta *Euskera* liburuari ezarri eutsana; S. Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* (bere *Jolasketa* be antologia antzekoa da), eta A. Irigarai jaunaren *Esbozo crítico con textos de Literatura Euscara profana*; nire barri honek ez deuse ezer kentzen aurreko horreei, ta eurokaz batera izango al da laguntasun barri bat gure euskal eskoletarako!

Amaituteko, hauxe bakarrik opa deusut: bide batetik edo bestetik —zeuk bidezkoena deritxazun horretatik—, baina zeugan be izango al dabe, abadegei on hori, jarraitzaile zintzo ta jakintsu

---

<sup>3</sup> Bilduma honetan alde batera itxi ditut, sartu barik, olerki, bertso ta teatro-lanak.



bat, Bizkaiak emon deuskuzan abade jator ta euskaltzaleok: Mikoleta, Olactxea, Kapanaga, Arzadun, Astarloa, Mogel osabalobak, Domingo Agirre, R.M. Azkue, Zamarripa, Eguzkitza, Z. Arzubiaga... ta oraindik bizi diran beste ez gutxi.

Parkatu! Sermolari txarrarena jazo jat neuri be: berbatxu bi agindu ta entzuleak lokartzeraino luzctu.


Agur, ba, eta hurrengorarte, Jaungoikoak gura badau gura!

*Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
jakite-egoek igoa;  
soña zâr, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa. (X. Lizardi)*

“Sinis-nazazu: ercille gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soilla ta utsa. Alabañan gutxi daki bere jayeterriko cuskeraren erdia, eta alperrak diraden bezala, ez dute ikasi nai geiago, ta ezte nai beren buruai atsekaberik eman. Baña onetatik zer gertatzen da? Dakiten piska arkin, itzmoltso eskumen baten diña eztanarekin, nola eziñ adierazo dituzten beren esakariak, badaratsate pulpitan itzera naasi bat, beñ erdera, beñ latiñera, guzia lerdatur, zikindua, barautua, zcñean dirudien igo dirala gaiñ artara entzule guzien buru egitera: ta arritu oi naiz, nola asko ta asko, bultzaka, ordu gaistoan ayentzat, botatze ezfituzten andikan bera.” (Aita Larramendi).

“... haur da nik nahi nukcien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutzia, bertze enseiu hobeago baten egitera eta ene emengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke cuskara hain labur, eskas eta ez hertsu, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela.” (Axular).

## HIRUGARREN LORATEGIA<sup>†</sup>



Euskalazale asko ta asko hileta joten be zalcak izan dira ta gaur be badira. Ez dot nik hemen ukatuko, horretarako errazoerik ez dagoenik. Ez horixe! Baina, zorionez, azken urteotan ez da giro txarra sortu gure hizkuntza zahar honen inguruan. Ikastolak, aldizkariak, irratiak, seminarioak, abeslariak, antzerkiak, Alfabetizatze Kampainak... itxaropenaren argi gozoa biztu deuskue gure bihotzetan, eta, bide batz, hau be bai: gure kulturearen preminarik larrienak agiri-agirian jarri, euron artean, batasuna ta liburu gokiak.

Batasuna ta liburuak! Badago bion artean zrikusirik: alde batetik, behar-behärrezkoa dogu literatura-batasuna, gure liburuak zabalduko badira; bestetik, liburuetan dogu orain arteko

<sup>†</sup> Karmelo Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia itz lauz*, Donostia, 1969.

batasunik haundiena: geroko batasuna, ez ete dogu lehengo idazleetan? Edo, behinik behin, batasunerako biderik egokiena ez ete dogu hauxe: geure dialektua ondo ikasi, ta besteena be, gitxienez, ondo ulertu? Antologia honek, nire ustez, bide horretan zerbait lagunduko deusulakoan nago.

Lehendik be badozuz honen antzeko Antologia batzuk: P. Lafitteren *Eskualdunen Loretegia*, *Lehen Zathia (1645-1800)*; L. Villasanteren biok: *Idazleen Pusketa autatuak* eta *Euskera* liburuari ezarri eutsan Antologia ederra; S. Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* (idazle honen *Jolasketa* hera be, antologia antzekoa da), eta Aingeru Irigarai jaunaren *Esbozo crítico con textos de Literatura Euscara profana*. Nire barri honek ez deuse aurreko horreei ezer kentzen, eta eurokaz batera izango al da laguntasun barri bat gure euskal bihotzak asetuteko!

*Bilduma* bat dozu liburu hau: batetik, neure lantxu bi batu ditudalako hemen (urteokaz neure ikasleentzat polikopiaz egindako Antologia hi, *Euskal Idazleen Loretegia* izenarekin: bata, bizkaierazko prosistena; bestea, gizpuzkerazkoena); bestetik, gure prosistarik onenen zatikkin osotutakoa dalako. Danetarikoak dozuz idazleok: zaharrak eta oraintsuagokoak, jokera batekoak eta besteakoak, edota bien bitartekoak. Egia esan, badago, bai, non aukeratu! Ta hor gabiz, gero, gu zer hori zabaltzen: euskeraz ez dala ezer idatzi! Beharbada, ezin geintek ez asko harrotu inguruko herrien aurrean; baina egundo inongo eskolatan irakatsi ez deuskuen hizkuntza zahar honek horrenbeste idazle sortzea, ez ete da harrigarria? Ni neu baiczkoan nago. Neure gogoz, pozik be pozik sartuko nituzan hemen —merezidu be badabe ta— beste euskal prosista asko; baina liburuak bere neurria behar, eta guztientzat lekurik ez!

*Hutsune* asko ditu bilduma honek: bertsoak, olerkiak eta teatro-lanak alde batera itxi ditut, eta, holan, gure idazle handi askoren barririk ez dozu hemen aurkituko: bertsoentzat, hor dozu Aita Antonio Zavalaren *Auspoa* Liburutegia, eta olerkientzat A. Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder*. Beste hutsunea ez da txi-

kiagoa: Bidasoaz handiko idazlerik ez dot hemen sartu, Axular haundia izan ezik (hau be, naparra zalako). Zergaitik hori? Antologia hau ikasle barrientzat da, batez be, ez ikasientzat; eta, hau holan dala, geure inguru honetako dialektuak baino ez ditut sartu. Baina niretzat hutsunerik penagarriena beste hau dozu: gaur bizi diran idazleak hemen sartu ezina, eurok sartu ezkeru liburu hau astunegia ta luzeegia zala-ta. Hurrengo baten beteko al ditut oraingo hutsuneok!


*Zelango asmoz* nabilen? Hara: gure gazteak, burua landu nahi badabe, erbesteetako literatura ezeze, geure-geurea dogun euskerazkoa be sakon ezagutu behar leukie; ta ezagutu bere, ez gero edozelan, hur-hurretik baino: hau da, idazlerik onenen lanak irakurri ta aztertuz. Baina, zer jazoten da gehienetan, zoritxarrez? Edo liburu egokirik ez (asko ta asko, agortuta dagoz, eta beste asko, laguntasun barik behintzat, ilun eta latz egiten jakuz irakurteko); edo, salgai egon arren, ikasle askok dirurik ez erosteko, ta, sarritan, asti handirik be ez oso-osorik irakurteko. Horretarakoxe egin dot Antologia hau: gauzak errezago jarriaz (hor dozuz *Hiztegitxoak*: bata, idazle bakotxaren ondoren; bestea, luzeagoa, liburu honen azkenean), gure euskal elertiaren zati handi bat hobeto ezagutu daizun. Sarreratuak erakutsiko dutse, labur bada be, idazle bakotxa nor ta nongoa zan, eta zer egin dauan euskal arloan; horko zertzeladarik gchienak, liburuotatik jaso ditut: L. Mitxelenaen eta L. Villasantaen *Historia de la Literatura Vasca* liburuetatik; N. De Cortázarren *Cien Autores Vascos*-etik eta, gaur eguneko idazle askorenak, Juan San Martinek eskainitako fitxetatik.

*Ortografia* gaurkotu egin dot eta batu, fonetismoak alde batera itxirik: batek baino gehiagok eskatu eustan honetaraxe egiteko, bestela anarkia hori kaltegarria dala-ta ikasle barrientzat; ez dot kezka gitxi izan hori egiteko, baina, aditzean izan ezik, besteetan batasunera jo dot ortografian; hortik kanpora, ez dot ezer aldatu, ta, behin baino gchiagotan, fonetismoak eurak be ontzat emon ditut (ta hori holan danean, "ezer aldatu barik" jari

dot zati bakotxaren ondoren), gaiak berak holantxe eskatzen dauanean.

Honango Antologia bat egiteko gizon baten indarrak ezeze, talde haundi batenak behar lirateke. Nik neuk garbi ikusten dot hau. Zorionez, izan ditut laguntzaile onak eta ezin ditut hemen ixildu lagunon izenak: Juxto Mari Mokoroa, Lino Akesolo, Aingeru Irigarai (Nafarroako idazlecna beroni zor deusat), Anai Berriotxo eta, batez be, Juan San Martin: guztioi neure "eskerrik askorik" bihotzkoena!

## BIZKAIERAZKO LORATEGI BARRIA<sup>5</sup>



Eskuetan dozun liburu hau zer dan eta zertarako egin dogun jakiteko, irakurri, arren, irakurle, hurrengo oharrok:

1. Derioko Ikastaroko ikasleen lagungarritzat da, batez be:

—Ikastaroko gure ikasleak, ia danak, bizkaitarrak dira eta bizkaierca dabe euren etxeko herbeta kutuna. Ikastaroaren betiko jokatibeari jarraituz, lehenengo ta behin geure euskalkia ezagutu ta sakondu gura dogu, beti be euskearearen ikuspegi zabala begien aurrean dogula: hau holan dala, lehenengo hiru mailetan, bizkaierazko idazle ta idazlanen barri

emon gura deutsegu ikasleei, euren jaioterriko hizketan sendoro oinarriturik gorengo mailetan euskera zabalago ta batuagora heldu daitezcan, badaezpadako pausorik emon baga.

<sup>5</sup> K. Etxenagusia, J. Kortazar, A. Etxebarria, *Euskal Idazleak Bizkaieraz, Antologia, Testu azterketak, Ariketak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1980.

—Ikastaroan egin ohi danez, biderakusle edo gidari baten laguntza eskatzen dau liburu honek, hemen pilatutako gai ugari ta askotarikoak noiz eta zelan erabili jakiteko; behin laguntza hori izan ezkerro, aurrerantzerako lana norberak be errez egin daike, albo-lagumen premina handi barik.

2. Lorategi edo Antologia dozu, gehien baten, liburu hau, baina euskalki bakar baten —bizkaieraren— idazleen lanak baino ez deusuz erakusten, oraingoz. Neurri estu horren barruan, ostera, ikuspegi zabala erakutsi nahi izan deutsegu irakurleei: aldi ta alde guztietako idazleak, jokabide ta idazkera askotarikoak, hainbat eskolatakoak, gure euskalkiaren batasuna ta ezbardintasuna, lehengo ta oraingo gorabeherak argi ta garbi ikusi dagiczan. Errezago ta atseginago izango zan guretzat, beharbada, geure gogokoak baino ez hautatzea, edota guztiak geure eretxiaren neurrira bateratzea; baina nor gara gu inori bide estuegirik erakusteko, besteri geure gurariak eta aukerak ezarteko?

Liburu hau egiterakoan, beste hesi estu bat be jarri deusagu geure buruari: orain arteko Antologietan argitaratutako zatiak alde batera itxi, ahal dala, eta zati barriak bilatu ta sartzea. Badakigu, bai, zenbat galdu leiken horregaitik gure liburu honek, baina uste dogu cuskal kulturearentzat mesedogarri izango dala idazlan barriak argitara emon eta zabaltzea.

3. Testu azterketa eta ariketak: Antologia soila baino gehiago egin nahi izan dogu, ikasleen gogo-bihotzak argitu ta aberasteko asmotan. Horregaitik, irakurgaiak aztertze bide batzuk erakusten dira; eta, gero, aztertze-lan horren lagungarritzat, ariketa mordo eder bat eskaintzen da.

4. Aurkibideak: Antologia honen orrietan ezkutaturik dagozan aberastasunak ahalik ondoen aurkitu ahal dagizuzan, hirulau aurkibide be jarri deusuguz, irakurle. Izan be, honelango liburu bat ez da egiten, eskuetan hartu eta jarraian irakurteko; era askotara erabili daiteke eta erabili behar da, bakotxean zer lortu nahi dan eta horixe bilatuz, irakasle argi baten zuzendaritzapean, ahal bada.

5. Hiztegitxoak: Hiztegitxo bi daroaz gure liburu honek: a) Idazlan baktxaren ondoren, zati horretako hitzik ezezaguncu hiztegitxoak; b) Azken aldean, bizkaieraren hitzik berezienena (Hau, egia esan, euren lehenengo hizketea bizkaiera ez dabeneztat egin dogu, batez be). Baina, hiztegiok egikeran, oinarri bat izan dogu: gure artean zabaldurik dabiltzazan esku-hiztegitan (*Ikas hiztegia*, esaterako) datozan hitzak ez doguz hemen sartu.

6. Zatiketa: Antologia bera lau zatitan banandu dogu:

—1go zatian, *Herri-literatura* sartu dogu: antxinako erromantzeak, herri-kantak, atsotitz edo errefrauk, ipuinak, jazoera barregarriak, bertolaritza...

—2garrenean, gure *Idazle zaharrak* edo klasikoak sartu doguz: guztiak ez, baina bai gehientsuenak, idazlanetan euskal kulturaren aberastasuna hiltuz.

—3garrenean, joan dan gizaldiaren azken aldiko Berbizkundetik hasi eta gure gerrara arteko testuak, idazle baktxaren ezau-garririk argienak erakusteko asmoz.

—4garrenean, geroosteko idazleak batu doguz: asko dira, baina beste asko itxi behar izan ditugu sartu barik, danentzat lekurik ez eta.

7. Mikel Zarate adiskide maiteari eskaini deutzagu liburu hau. Hilgo zan aurretxean, bere eskuetan euki eban Antologia hau, eta beronen Ariketak egitea bere ardurapean hartu eban; zorixarrez, asmo hori beteteko asti barik joan jakun, asmo ederrez eta lan astunez leher eginda, gure Mikel. Baina gure adiskide ta lagun handiaren eretxia nahinon aurkituko dozu orriotan; gainera, haren *Bizkaiko Euskal Idazleak* liburua guztiz egokia dozu antologia honi onura gchiago aterateko. Bizkaiko beste euskal idazle askok legez, Zaratek be beste euskalkien edo "euskara batua"ren bideari ekin eutsan, azken urteotan. Gure euskalkia bizkaitar ez diran askok maite izan dabe; landu, oso gitxik. Bizkaitarrok, ostera, geurea alde batera itxi eta euskera zabalago bat ikasten eta lantzen ez gara izan motelenak, ez azkenengoak. Gaurko euskal pausoak Bizkaiko euskeratik urrutu dabiltz; baina, orain arteko bizkaiera latz




errimearen nondik norakoa ezagutu nahi dauanak aurkituko al dau, gure izerdien Antologia honetan, bere egarria non asetu! Aurrerantzean, literatura mailan behinik behin, bizkaicrea ez dala landuko? Halan dirudi; baina, bihar-etziko gorabeherak zeintzuk eta zelakoak izan leitekezan, batek badaki!

Amaitzeko, liburu hau talde baten lana dan ezkerro, esan daigun bakotxarena zer dan: idazle ta idazlanen hautatzca hiruron artean egina da, J.A. Etxezarraga be tarteko zala; Azterbideak eta Ariketak, Jon Kortazarrek eta Aitor Etxebarriak egin ditue; gainerako dana, eta zuzendaritza, Karmelo Etxenagusiarena da; akulari ta bultzegile, Ander Manterola ta Adolfo Arejita; eta, beste laguntzaile batzuen artean, argi-emoilerik mesedegarriena, Lino Akesolo. Eskerrik asko!

Bilbon, 1980, apirilaren 10ean,  
Mikel Zarate hil jakun urtebetetze egunean.

## IPARRALDEKO IDAZLEEN LORATEGIA<sup>6</sup>



Euskal arloan, badirudi nire egitekoa argi ta garbi dagoala: euskal idazleen “lorategiak”, antologiak, egitea. Hamasei urte lanbide horretan sartu mintzala, eta behin bide bati heldu ezker, ezin atzerarik egin, antza, aurre-ra jo behar. Lehenengo, beharri-zanak bultz eginda, Bizkaiko eta Gipuzkoako idazleen Lorategiak emon nituan, multikopia apal eta lotsorrez, Derioko Seminarioan (1965, 1967). Gero-txuago, Ermuko batzar haretan euskaltzale lagun batzuk eskatuta, aurreko biok bat egin, zerbait osotu, eta *Euskal Idazleen*

*Lorategia* — Itz lauz argitaratu eusten Donostian (1969). Igaz-gure Udako Ikastaroaren lagungarritzat, hiru irakasle lagunek *Euskal Idazleak Bizkaieraz* eskaini genduan. Orain, urtebetega-

---

<sup>6</sup> Karmelo Etxenagusia, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1981.

rranean, hona hemen bosgarren hau, urrutiagoko idazleen "lili" ederrez egindako sorta lodikotea.

ESKAINZA. Gure Ikastaroko ikasleentzat egina da, batez be: urtean-urtean udako atsedean aldiari hamabost egun kendu eta bosgarren mailaraino —gorengo mailaraino!— heldu zareen adiskideontzat. Zoritzarrez, uda barruko ikastaroan ezingo doguz eskolan liburu honetako zatirik gehienak irakurri ta aztertu, horretarako astirik ez eta. Baina, zuen cuskaltzaletasun sutsuaren barri ondo dakigunok ziur be ziur gagoz aurrerantzean be pozez bcterik hurreratuko zariela, behin baino sarriago, gure elertiaren ur gozoetara, jakingurca ase ezinik. Horregaitik, idazle asko ta askotarikoak sartu ditugu antologia honetan, mugaz handiko "eskualduncn" apur gozoak dastatzcak gehiagoren cgarria biztu deizuen, zeuon onerako.

Uste dogu, beste cuskal ikasle askorentzat be mesedegarri izango dala, beharbada, antologia hau, cta asmo zabal horrexegaz emoten dogu argitara.

IPARRALDEKO EUSKERA ETA EUSKAL IDAZLEAK. Guztiok dakiguncz, *Eskual Herrian* 4 euskalki bereizten zituan L.L. Bonapartek: Lapurdikoa (L), Baxenafarroan (BN) bi (mendebaldekoa eta ekialdekoa) eta Zuberokoa (S). Eurotarik, euskera idatzian, Lapurdikoa izan dau beti osperik handiena: berau dogu, hain zuzen be, gchien landua, *eskola* zabal bat sortu dauana, Axular handiaren inguruan, batez be. Beranduago eta apalago agertzen jakuz literatura idatziaren plazara beste euskalkiak; baina, astiro-astiro, Baxenafarroako idazleen eraginez, lapurtera *klasikoa* nahastu egin ci da, cta, P. Lafitte jakintsuaren ustez, beste euskalki barri bat nausitu ei da hango liburuetan: "navarro-labourdin littéraire" deritxona. Horregaitik, antologia honetan idazlan bakotxak bere euskalkie zaugarria daroa (L, BN, S); baina euskalki barri horren menpcan idatzitako zatiei ez deutsegu ezctariko ezaugarririk jarri.

Hona hemen, laburregi bada be, *Iparraldeko euskal literaturaren ezaugarri batzuk*: a) Gure aldekoa baino ia 200 urte lehenago *jalgi* zan *plazara*. b) Sekula ctengo ez dan hari nausi bati

lotuta dago beti, bere *maixu handi* Axular dauala: hau da, tradizio jakin bati lotuta egon da eta dago gaur be. c) Kanpotarren aurrean eder agertzea baino, bertoko euskaldunak erraz irakurria izatea gehiago bilatu izan dau (eta oso ondo lortu!): horregaitik, herriagandik hur-hurrean bizi izan da beti —hizkeraz, esaeraz, asmoz, pentsakeraz...—, gure arteko *ameskeria* usteltan galdu barik. d) Leizarragaren bide kulteranista alde batera itxi, eta Axularren bide herrikoiari jarraitu izan deuto (jokabide biok izango zirean mesedegarri, bakotxa bere mailan). e) Eleizgizonen eskuktan egon da, ia beti eta guztiz, eta hori holan dala-ta, gairik gehientsuenak erlijiozkoak izan dira; baina badira osterantzekoak be, eta ez horren gitxi. f) Hemendikaldeko euskal literatureagaz ez dau hartuemon handirik ez esturik izan, ezta gure artekoaren gorabehera eta goi-egarririk be. (Ikus L. Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, 1960, 17-19 or. Baita Ibar, *Genio y Lengua*, Tolosa, 1936, 141-155 or.).

CURE ASMOA. Derioko Ikastaroak 5 maila ditu, eta maila bakotxean toki berezi bat dauka literaturak. Lehenengo hiru mailetan, ikasleak ia danak biztaitarrak dira-ta, bizkaicrazko idazle ta idazlanak erabilten dituez, irakurri ta aztertzeo; laugarrean, gipuzkeraren barrutian aurkitzen dabe euren eder-egarria non asc; gorengo mailan, bosgarrean, Iparraldeko literatura eta oraintsuko *euskara batua*-rena eskaintzen jakez ikasleei. Zoritxarrez, Ikastaroko 12 eskoletan ezin gauza handirik erakutsi, baina, besterik ezinean, gainbegiratu bat eta bultzada bat emon bai, gero ikasleok, eurok eurotara, gaiok sakonagotik aztertu eta bihar-etziko ikasleen gogo-bihotzetan crein dagiezan.

Hau dala-ta, antologia honetan be *ugaritasuna* bilatu dogu: a) Ugari idazleak, 40tik gora, aldi, euskalki, idazkera guztietakoak. b) Ugari idazlanen zatiak (ia 100 guztira), askotarikoak, eta literaturaren barruti zabaletik hartuta: eresiak, erromantzeak, bertsoak, olerkiak, irakaskintza, ipuin eta gertacrak, alegiak, teatroa, t.a. Baina ugaritasun honek bere neurriak ditu, halan beharrez; ez dogu hemen *itzulpenik* sartu, banakaren bat baino, nahiz

eta itzultzaileen artean euskeraren maisu handiak egon (esaterako, Materre, Haraneder, Maister, Chourio...); gaur bizi diranctatik be gitxi batzuk baino ez doguz sartu: batetik, danentzako lekurik ez egoalako; bestetik, eta batez be, holakoen idazlanak erazago aurkitu daitekezalako, bai euren liburuetan, bai berarizko antologietan (horra hor, esaterako: J. San Martin, S. Basauri, *Hegatsez*, Zarautz, 1971; J. Sarasola, *Gerraondoko Euskal Poesiaren Antologia 1945-1964*, Donostia, 1973; J. San Martin, *Uhin Berri*, 1964-1969 bilduma, Donostia, 1969).

*Herri-literaturan* be irriegi ibili nazana badakit, eta ez, egia esan, neurc barruko pena handi barik. Hain da, izan be, aberatsa Iparraldeko herri-literatura hori! Zorionez, gaurko abeslariak-eta edonon zabaldu deuskucz hango kanta gozo xarmagarriak, Zuberokoak batez be; eta badoguz horretarako bilduma egokiak be. Batzuk aitatzekotan: F. Michel, A. Irigaray, *Poesías populares de los vascos*, 2 tomo, Auñamendi, San Sebastian, 1962; *Kantuz*, "Aintzina", Bayonne, (urte barik); P. Etchemendy et P. Lafitte, *Kantuz*, 120 kanta, musika ta guzi, Donostia, 1980; *Kantu, Kanta, Khantore*, Ed. Ezkila Baiona, 1967, t.a.

LACUNGARRI BATZUK. Ceuk ikusita dakigu zein gogor egiten jaken ikasle askori Iparraldeko idazleen uretan ezetariko laguntza barik murgiltzea: hitz asko arrotzak, esaera bizi bihurriak, aditz-joko ezezagunak... eragozpen handia izaten dira, lehenengotan behintzat; gero, behin bidea erraztu ezkeru, ondasuntegi harrigarria aurkitzen dabe, euren gogo-bihotzen pozgarri. Gitxi ta apalak dira hemengo lagungarriok: a) Idazle bakotxari jarritako *sarrera laburrak*. b) Idazlanen ondoren emoten diran argibidcrik beharrezkocnak. c) Azkenean eskaintzen dan *Iliztegi Tipia*, antologia honetan agertzen diran Iparraldeko berba berezi gehientsuen esanahia argitzeko. d) Gai batzuen eta *idazleen aurkibidea*.

Antologia honetan ez dogu Testu Azterketarik jarri. Aurrekoan erakutsitako bideak betiko balio dabe; gainera, bosgarren mailara orduko, gure ikasleok badakic azterketa hori zer dan eta zelan egin behar dan.

Zoritxarrez, mugaz bestaldeko literatura ederra badanik be ez ei dakie gure arteko euskaltzale askok eta askok: hauxe inoan, 1936 urtean, penaz beterik, Justo Mari Mokoroak (Ibar, *Genio y Lengua*, Tolosa, 1936, 143-144 or.). Gaur alkarregandik hurrago ez ete gagoz? Antologia honek zubi bat izan nahi leuke, Bizkaiko CRTZetik bardinbako Zuberorainoko zubi anaikorra, gure arteko euskaltzaleak iparraldekoen aberastasunak ezaguturik harrituta eta "bozkarioz loriatuak" gelditu daitezana.

Bilbon, 1981, Urkiolako San Antonio gaztearen jaicguncan.

# ELERTI IKASKETAK ETA LORATEGIAK<sup>7</sup>

## 1. SARRERA

Berbaldi hau egiteko eskatu eustenean, behingoan emon neban baietza:

Batetik, Euskerazaleak Alkartearantzat zalako: ezin nik sekulan ahaztu Alkarte honetan emondako hainbat eskola. Bestetik, nok eta Martin Olazar abade lagunak egiten eustan eskabidea, nik euskeraren arloan izan dodan lehenengo maisuak, maisu bakarrak.

Danok dakigunez, baietza emotea izaten da errezena; emondako berbeari eutsi eta leporatutako eginbcharra betetea nekeza goa izan ohi da, beti lanpetuta bizi garcanontzat, behinik behin. Dana dala, gauzca behar dan astiaz eta patxadeaz gertatuko modurik ez dodala izan autorturik, hemen naukazue, ahal dodantxua egiteko borondaterik onenaz.

Berbaldi honetarako jarri deusten gaia "Elerti ikasketak eta lorategiak" da. Neure azkenengo liburuari jarritako Sarreran, hurrengo berbokaz hasi nintzan: "Euskal arloan, badirudi nire egitekoa argi ta garbi dagoala: euskal idazleen "lorategiak", anto-

---

<sup>7</sup> Euskerazaleak Alkarteak erabakitako "Bizkaieraren Astean" egindako berbaldirako gaia. Bilbo, 1985eko maiatzak 8.

logia, egitea. Hamasei urte lanbide horretan sartu nintzala, eta, behin bide bati heldu ezker, ezin atzerarik egin, antza; aurrera jo behar...” (K. Etxenagusia, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, 7 or.).

Hau dala-ta eskatu deust Aste honen zuzendariak gai honeri ekiteko; eta alperreko barriketak alde batera itxita ekin deiogun jarritako gaiari.

## 2. EUSKERAZKO LORATEGIAK

2.1. Olerkari ta beste idazleen testu hautatuen txorta edo bildumei izen asko emoten deutsiez erdaldunak: antología, florilegio, crestomatía, corona poética, trozos selectos, flor de poemas, cancionero, romancero, t.a.

Dakianak dinoanez, ez ci dira atzo goizekoak idazleen antologiak. Holan, gerkeraz ezagutzen dan lehenengoa, Kristo jaioko zan baino ia berrehun urte lehenago egin ei eban Melcagro eritxon siriar batek. Harrezkeru, munduko hizkuntzarik gehienetan egingdako antologiak asko be asko dira, zenbatu czin beste, eta, jakina, era askotakoak: beti be, batzailcaren cretxiaren araberakoak. Guk geuk be, latin zaharra irakatsi euskucenan, holakoxe “Selecta”-k erabilten genduzan eta euron bidez ezagutu genduzan behinolako idazle ospetsuok: Virgilio, Ciceron, Ovidio, Horatio, Tito Livio, Salustio...

### 2.2. Eta euskeraz zer egin da arlo honetan?

2.2.1. Joan zan gizaldira arte, ez dot ezagutzen euskerazko antologiarik. Gizaldi horretan egindako bilduma batzuk antologia antza daukccnik ezin ukatu: F. Michel-en *Le Pays Basque* eta J. Salaberryren *Chants populaires du Pays Basque* (biok, herri-eler-tiaren arlokoak), eta Gipuzkoan José Manterola gazteak argitara emondako *Cancionero Vasco* (1877-1880).

2.2.2. Gure mende honetan, P. Lafitteren *Eskualdunen Loretegia* (Baiona, 1931) izango da, harenbaten, lehenengoa. Gerros-



tean, Txileko erbestean, gure Aita Justo Mari Mokoroa hasiko da, hango *Euzkadi* hilerokoan, euskal idazleen lorategia argitaratzen. (Zoritxarrez, ez dot nik lan hori ezagutzen; baina autortu dagidan, Aita Mokoroari zor deusezala nire antologia bik euren zatirik ederrenetariko batzuk).

Gero egindakoak ez dira horren gitxi izan: bertsolarien antologiak alde batera itxita, nik neuk ezagutzen dodazan zelako edo halako euskal antologiak 40 inguru dira. Guztien izenburuak aitzeko astirik ez daukagu hemen, baina dan-danen zerrenda luzea daukat eginda. Esan dagidan asko ta askotarikoak direala. Hara:

a) *Gaiaren aldetik:*

- Gehienak gai orokorra darabile, hau da, olerkia eta hitz laua nahaste edo batera, eta, ganera, era askotako gaiak.
- Bostek hitz lauzko idazlan-zatiak baino ez dabez eskaintzen.
- Gehiago dira (ia hamar) olerkian mugatuak.

b) *Norentzat* egin dira kontuan badogu:

- Gehientsuenak elerti-ikasleentzat, batxiler mailakoentzat, egin dira (beste hizkuntzetan be ohi denez).
- Badira, baina, ikuspegi zabalagoa daukeenak, eta edozein euskaldun buru-jantzirentzat eginak dirudienak.
- Gauza harrigarria bada be, badago erdaldunentzat egindako Antologia bat bat: G. Díaz-Plaja, *Literatura Vasca*, in *Tesoro breve de las letras hispánicas*, Aita Villasanten zuzendaritzapean. (Euskal Herri osoko eta aldi guztietako hainbat euskal idazleen zatiak, erderatuak, euskerazko testu barik).

c) *Euskerearen aldetik:* gehienak edozein euskalki ta alditako idazleak sartzen dabez. Baina nire hiruk eta Derioko Ikastaroko beste batzuk euskalki bakarra sartzen dabe: bizkaiera, gipuzkera... edota eskualde bateko euskal idazleak. Holan, nire *Iparraldeko Euskal Idazleak; Euskal Idazleen Lorategia — itz lauz*, Donostia, 1969; Ikas-en euskal alorretik, Zarautz, 1979. Eta, azken aldi honetan, batek edo bestek Euskara Batuarenak baino ez.

d) *Zelan argitaratu direan*: irarkolan liburu lez argitaratuak dira gehienak; bi, aldizkarietan; eta ezin alboratu multikopia apa-  
lez egindakoak: nire lichenengo biak eta gero Derioko Ikastaroak  
egindako beste lau-bost.

e) *Elerti kondaira ala idazlanak?*

- Ez dira horren gitxi, idazlan hautatuak huts-hutsik emoten dituenak, beste ezertariko lagungarririk bago (ez sarrerarik, ez hiztegirik, ez oharrik).
- Bederatzik, idazlan hautatuekin batera, kondaira apur bat eta beste lagungarri batzuk eskaintzen dabez, baina idazlanak dira behinenak.
- Erderazko eskola-liburuetan ohi dan antzera, gure hainbategi be elerti kondairari edo azalpenei indar gehiago emoten deutse idazleen testu hautatuei baino.
- Hiruk, euskerazko testuak erderatu be egiten dabez (holan, Auñamendiren *Literatura luze dotoreak*) eta, gorago esan dodanez, batek erdal itzulpena baino ez dakar.

### 3. IRAKASKINTZA BEGIEN AURREAN DOCULA, GAUZAK ZEHATZAGO AITATU DAIGUZAN:

#### 3.1. Ikasleen eskuetan jartekoak:

##### 3.1.1. *Lorategiak*:

a) *Bizkaierazkoak*:

- K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia — Itz lauz, Bizkaieraz*, Derio, 1965 (multikopiaz).
- K. Etxenagusia, J. Kortazar, A. Etxebarria, *Euskal Idazleak Bizkaieraz*, Bilbo, 1980.
- Igone Etxebarria, M. Asun Elorriaga, Klara Iturrat, José Mari Kortazar, Karmele Unzueta eta Lourdes Unzueta, *Literatura II. Oinarrizko Testu ta Azterbideak*, Udako Euskal Ikastaroa, Derio, 1984.

b) *Orokorrak*:

- I. Omaechevarria, *Euskera...*, Zarauz, 1959, III zatia (Crestomatía), 145-317 or.
- K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia — Itz lauz*, Donostia, 1969 (Ilemendikaldekoak baino ez).
- S. Basauri, J. San Martin, *Hegatsez*, Zarautz, 1971. Hitz lauz. Gaurko idazleak baino ez.
- S. Onaindia, *Milla Euskal Olerki Eder*, Amorebieta, 1954.
- M. Zarate, *Literatura III*, Udako Euskal Ikastaroa, Derio, 1973, multikopiaz. I zatia: Olerkiak; II zatia: prosistak.

c) *Aldi edo euskalki batekoak*:

- J. San Martin, *Uhin Berri* (1964-69 olerki-bilduma), Donostia, 1969. Orduko olerkari gazteena.
- I. Sarasola, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia* (1945-1964), Donostia, 1973.
- Erakasle, *Euskal Alorretik...*, Zarautz, 1979. Bestaldekoa.
- K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia — Itz lauz. Gipuzkeraz*, Derio, 1967 (multikopiaz).
- M. Zarate, *Euskara Batuaren Antologia* (argitara bakoa).
- K. Etxenagusia, *Iparraldeko Euskal Idazleak*, Bilbo, 1981.

3.1.2. *Euskal elertiarren kondairak* (idazleen testu hautatuekin):

a) *Bizkaierazkoak*:

- M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Derio, 1970.

b) *Orokorrak*:

- J. Erzibengoa, P. Ezkiaga, *Euskal Literatura*, Bilbo, 1972.
- S. Onaindia, *Euskal Elertia*, Amorebieta, 1978.
- E. Zabala, *Euskal Literatura (alfabetatzeko)*, Lazkao, 1979.

### 3.2. Kontsulta-liburuak:

#### 3.2.1. Lorategiak:

- P. Lafitte, *Eskualdunen Loretegia... Lehen zathia (1645-1800)*, Baiona, 1931.
- L. Villasante, *Euskal Gramatika Llabur eta Idazleen Pusketa Autatuak*, Bilbo, 1956.
- J. Gorostiaga, *Antología de la Poesía Popular Vasca*, San Sebastian, 1955.
- F. Michel, A. Irigaray, *Poesías Populares de los Vascos*, 2 vol., San Sebastian, 1962-63.
- S. Onaindia, *Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca*, Bilbao, 1975. Erdal itzulpenagaz.
- A. Irigaray, "Euskal literaturaren bilduma laburra", *Egan*, 1956-1959.
- A. Irigaray, *Esbozo crítico con textos de Literatura Euscarra Profana*, sep. de *Príncipe de Viana*, 98-99 zk., Pamplona, 1965.
- J. de Riezu, *Flor de Canciones Populares Vascas*, Buenos Aires, 1948.

#### 3.2.2. *Euskal elertiaren kondaira* (idazlan hautatuekin):

- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, *Literatura*, 5 ale, San Sebastian (Añamendi).

## 4. LORATEGIEN INCURUAN, NERE ERETXI, ASMO ETA COCOETAK (ALKARRIZKETARAKO)

### 4.1. Zertarako lorategiak? Zergaitik ez idazleen lan osoak eskaini?

- Begiak zabalduazoteko eta gehiago irakurri gurea sortuazoteko (bazkari eder baten aurreko bizkorgarriak!)

- Euskal literaturaren ikuspegi osoa ta zabala izan dagien:
  - idazleen izenak eta idazlanak
  - gure elertiaren noiztik norainokoa
  - gure elertiaren aldiak, gorabeherak, asmoak, egarriak, kezkek, arazoak
  - eder-zaletasunaren lilura gozoa sortuazoteko: “Euskeraz be gauza cderrak esan dira, esan daitkeez, eta NEUK BE ESAN BEHAR DODAZ!” (horretarako, idazlan ederrak be eskaini behar dira, elerti-gai guztietakoak)
  - gramatikako azterketetarako gai biziak izan dagiezan (euskalkiak, aldaketak, hiztegiaren gorabeherak, adizkerak, joskera...)
- Euskal bizitzako alderdi asko eskainiz, ikasgurea, iker-gurea eta eztabaida aberasgarria sortuazoteko ikasleen artean. Gai asko, era askotakoak.
- Beti be, irakasleak idazlan osoak irakurtera bultzatu behar-ko ditu ikasleak.

#### 4.2. *Norentzat dan argi ikusi:*

- Perikori latin irakasteko, lehenengo Periko bera ezagutu behar da, gero latina.
- Nire Lorategietan, ondo baino hobeto nenkian nortzuk eta zelakoak zircan ikasleak: bizkaitarrak, hain mailatakoak, honenbeste dakienak, honako edo holako eragozpenak eta zaletasunak daukeezanak.
- Pedagogia arteza crabili: dakigunetik ez dakigunera, geuretik euskera zabalagora (mailaz maila, ganoraz eta zentzuz, gauzak erreztuz, bideak erakutsiz).

#### 4.3. *Irakasle on baten beharrizana:*

- Lorategiak ez dira beste barik zuzencan irakurteko, lehenengo orritik hasi eta azkeneraino.

- Irakasleak berak ikusi beharko dau eskola bakotxa ta ikas-taldi bakotxa zelan eratu: aroak, gaiak, literatur motak... Horregaitik, nik Aurkibideak eskaintzen dodaz beti.
- Irakasleak *erakuste* izan behar dau, bere eretxia inori gogo-rrean ezarri barik. Horregaitik, bere gogo-gogoko ez diran gaiak eta idazleak be aurkeztu beharko leukez, urteak joan urteak etorri gogo-aldaketa sakonak eta ugariak izaten dire-alako.
- Testu azterketak eta Ariketak dauken balioa: lagungarriak dira, sarreeratu eta hiztegiekin batera.

#### 4.4. Neurriak:

- Egile bakarra (talde baten lana)
- Arrapalada antzean egin beharra.
- Subjetibismoa: norberaren eretxiak, aldian aldiko ardurak...
- Gaiaren eremu zabalgoria: hautatu beharra.
- Ahal dala, hoba danetik eskaintzea (olerki, prosa, t.a.)
- Autore bakar bat sakontik aztertzea ala asko azaletik egi-tea, zein hoba?
- Idazlearen arteko ezberdintasuna: bakotxari emoten jakon neurria.

III  
ELEIZ GAIAK\*

---

\* Karmelo Etxenagusia, euskaldun garbia jaiotzaz eta bihotzez, abade egin-  
da gero (1955), erdaldun giroan bizi izan da bere bizitza guztian: Derioko Semi-  
narioan, Comillasen eta Bilboko Begoñan. Baina sarri bilatu izan ditu euskeraz  
berba egiteko bideak eta egokierak, baita eleizetan bc, Bizkaiko hainbat herritan  
eta Bilboko eleiza batzuetan, Karmengo eleizan eta, eta gure irratietan, "Bilbo  
Herri-Irratian" eta "Bizkaia Irratian". Euskerazko eleiz berbaldirik gchienak ez  
ei ditu idatzi. Baina banaka bat bai, horraitino. Eskuratu ahal izan doguzaneta-  
tik gitxi batzuk aukeratu doguz hemen argitaratzeko.



## BARRI ONA GAURKO MUNDUAN

### JEREMIAS PROFETEAREN AIENEAK<sup>1</sup>

Aleph.            Oi ze hutsik gelditu dan  
                      behinola jentez beteriko uria!  
                      Alargun bat dirudi  
                      herri guztien jabiak;  
                      erki-buru zana  
                      zergapean jausi da.

Beth.             Negar ta negar gaucan  
                      ta malkoz beterik begiak.  
                      Ez dauka pozkilerik  
                      hainbeste maiteren artian;  
                      lagun zaharrak ezetsi dabe  
                      ta bere aurka jarri dira.

Gimel.            Erbestera joan da Juda,  
                      saminez eta buztarripean;  
                      arrotz artean bizi da,

---

<sup>1</sup> Lan hau lehenengotakoa dogu bilduma honetan, Gasteizko Seminarioan, 1951an egindakoa da. Testua-Bibliakoa da, Jeremias profetaren liburuaren eraskina, erostak edo negar-kantak deritxona. Aste Santuan, Eguen Santu bezperan, hiru 'nocturno' edo 'teinolak' (tinieblas) abesten ziran liburu horretatik. Testuok alfabeto hebreoaren letrei jarraituta osatuta dagoz, eta horko lehenengo sei estrofak dira, euskeraz jarrita, itzulpen-sorkuntza ariketa moduan.

ta atsedenik ez dauka.  
Bere jarraitzaileak harrapatu  
Ta alde guztietatik estutu.

Daleth. Itun dagoz Sion-bideak,  
inor ez dator bere jaietara.  
Bere ateak lurrean,  
antsiz bere abadcak,  
bere neskak kolorga  
ta bera saminez betea.

He. Berc etsaiak burua jaso dabe  
ta aberastu dira berc gaizkinak.  
Jainko berberak oinazez bete dau,  
bihotz gogorra izan dau-eta;  
bere umetxuak, etsai-aurrean  
erbestera croanak izan dira.

Vau. Galdu dau Siongo alabek  
bere edertasun guztia;  
bere Nagusiak, larra bako  
orcinak lez, indar barik,  
igcs egin dabe etsaien aurrean.

## ALDATUZ DOAN MUNDUAN BARRI ONA ZABALTZEA<sup>2</sup>

Oharra: Igaz lez, aurtan be eratu ta argitaratu dau Bizkaiko Eleizeak urtoko Egitaraua. Erderaz, eta osorik, Urriko Boletinean agertu zan. Gaur guk hemen, euskeraz, Egitarau horren aurkezte antzeko bat eskaintzen dogu, gure Bilbo Herri-Irratiaren bidez "Jaunaren Hitza" irratsaioan ekinaldi bitan emondakoa batuaz. Alkarrizketa cran dago, eta erantzunak K. Etxenagusiarenak dira.

### **Ez da gauza barria**

*Urriko Boletinean ikusi dogunez, Bilboko Eleizbarrutiak aurtan be Pastoral Egitarau barria atera dau. Zer da Pastoral Egitarau hori?*

Ez da gauza barria, orain asmautakoa: aurreko urteetan be, zelan edo halan, Bizkaiko Eleizeak beti izan ditu jokabide nausi batzuk, asmo jakin batzuk. Egia csan, Pastoral Plan bat ez zan argitaratu 1973 urterarte. Orduantxe egin zan Ichenengoa, luzca,

---

<sup>2</sup> Bilbo Herri-Irratian alkarrizketa, "Jaunaren Itza" irratsaioaren barruan, 1975-76 urterako Pastoral Egitarauaz, 1975eko zcmendian. Itaunak Adolfo Arejitak.

urte askotarako asmotan. Gero, Plan nausi hori sekula ahaztu barik, urtero-urtero Egitarau zehatzago bat egiten da, urteko ekitaldi bakotxean indarrrik gehien zeri emon behar jakon, zelako ekintzak aurrera croan behar dircan-eta argi jakiteko.

*Orduan, aurtengo Egitarau hau, igazkoa legez, 1973ko Plan horren barruan sartzen da. Baina, Plan horrek zeintzuk ditu asmorik behinenak?*

Hiru:

1. Barri Ona zabaltzeari (ebanjelizatzeari) bcrarizko indarra cmotea.
2. Batasunari aurrera eragiten ahalegin guztiak egitea.
3. Cure pastoral erakunde ta egiturak barriztatzea.

### **Aurtengo Egitarauaren izenburua**

*Aurtengo Egitarau barri honek bere izenburu ta guzti urten dau.*

Bai, holantxe da, izan be: "Aldatuz doan mundu honetan Barri Ona zabaltzea", horra hor izenburua.

*Eta, zer dala-ta aukeratu izan da izenburu hori?*

Ba, hara: gaurko mundua, ezer bada, aldakorra da, bizkor eta sakon aldatuz doana. Horrek, beste gauza askotan legez, zerikusi handia dau sinismenagaz, erlijinoagaz. Eleizeak *oraintxe* eta *hementxe* zabaldu behar dau Barri Ona; eta, edozeinek ikusi lei, gure mundu hau ez da gure asabena, gure gurasoena, *gaur-gaurkoa* da, guztiz, eta bizkor aldakorra.

*Eta Egitarau hau, norik egin dau eta zelan?*

Gotzain jaunaren aginduz eta zuzendaritzapean, askok aztertu, eztabaidatu eta aukeratu dabez Egitarau honen alderdiok; Bikarioak, abadeak, erlijiosoak, laikoak (curen batzordeen bidez,

batez be), batzar askotan aztertu dabe igazko Egitaraua eta aurtengo erabagiak hartu.

### **Aurtengo Egitarauak zati nausi bi**

*Ikusten dodanez, zati bi ditu Pastoral Egitarau honek.*

Bai. Bizkaiko Eleizeak aurtan berariz egin nahi dituan gauzen artean, era bitako ekintzak dagoz:

1. Kristau alkarte osoak egitekoak (1go zatia).
2. Berarizko lagun edo alkarte batzuk egitekoak (2garren zatia).

### **Lehenengo zatia: Kristau Herri osoak egitekoa**

*Zeri ekin behar deitso, ba, aurtan, berarizko ahaleginez, Bizkaiko kristau herri osoak?*

Hiru gauzari. Labur esateko, haxe esango neuke egin behar dauala:

Fedean bezi eta hazi, fedea behar dan lez ospatu, eta fedea bizi.

*Lehenengo ekintza, orduan, kristau herri osoa "fedean hazi eta hezte" dala esan dozu. Zer da horregaz lortu nahi dana?*

Nahikoa argi dagoala uste dot; baina hobeto zehatu ta argitu daigun:

• Gure fedea *norberarena* izan behar dau, hau da, *neuk* sinistu behar dot (ez beste inork nire orde), gure borondatez, askatasun guztiaz, ondo jakinaren gainean; ez, gero, gurasoak eta abadeak eta irakasleak horixe irakatsi deustelako bakarrik, ezta nire inguruko gehien-gehienak be beste hainbeste egiten dabelako, ezta *euskalduna* beste barik *fededuna* balitz legez. Norberak, bakotzak berak, hautatu behar dau egiazko fedea, gauzak ondo aztertu ta zintzo erabagiaz.

• Baina fede hori, *norberarena* izan arren be, ez da bakotzak berak bihotzean gorde ta bihotz barruan bizi izatekoa bakarrik:

alkartean egiten gara fededun, alkartean argitzen eta hazten da gure sinismena; alkartean berotzen, sendotzen, edota makaltzen eta galtzen. Hori holan dala, kristau fedea *alkarte*agaz daukan zerikusia, lotura ta hartucomon estuak eta beharrezkoak, czin guk sekula ahaztu.

• Gaur beste gauza bat be egundo baino argiago agertzen jaku: gure fede hori eguneroko bizitzan eta eguneroko gorabchera guztietan sartu ta crakutsi behar dogula; gure kristau fedea geure bizitza osoagaz bat eginda egon behar dauala.

*Nahikoa argi dago, ba, lehenengo ekintza horregaz zer lortu nahi dan. Bigarren ekintza, zein da?*

Esan doguncz, *fedea behar dan lez ospatzea*, hau da: fededunok sarritan batzen gara geure fedea ospatzeko (horra hor, gure domecktako mezak, sakramentuak, hainbeste eratako eleizkizunak, etxeko edo lagun arteko otoitzak...). Hori danori ondo dago, jakina; baina gure fede-ospakizun guztioi ardura bizi bat sartu behar deutsegu: gure sinismen jatorraren eta bizikera zintzo ta zuzenaren espilu ta iturri izan daitezala, batera.

*Eta, sakramentu guztien artean, zeintzuk hautatu dira Egitarauan?*

Danak dira garrantzi handikoak, jakina; aurtengo, baina, biri emon gura jake berarizko eragina ta argitasuna: Penitentziari (sakramentu hau ospatzeko era barriak patxadaz sartu behar diralako), eta Ezkontzari (gaurko egunotan hainbeste nahaste ta eztabaidatan crabilten dan sakramentu honi).

*Hirugarren ekintza, zein da?*

Fedea bizi izatca, hau da, geure fedea eguneroko bizitzara eroaten ahalegindutea; herbaz eta egitez, kristinau guztiok Barri Onaren zabaltzaile ta misiolari izan behar dogu. Asmo eder hau

zabala da, zabalegia dan-dana batera lortu nahi izan ezkerro. Horregaitik, aurtengo Egitarauak, asmo horren barruan, alderdi bi baino ez ditu hautatu, eurok ganoraz eta arduraz jorratzeko:

a) Kristau alkarteen artean ondasunak anaia lez banandutea, eta, holan, gure Eleizeak diru aldetik daukan morrontzapetik askatasun osoa lehenbailehen lortu dagiala.

b) Gaurko bizimoduak eskatzen dauancz, pastoral-arazoei erantzun egokia emon ahal izateko, parrokien gainetik beste artzain-erakunde zabalagoak sortzea: Pastoral-aldeak edo Sektoreak, herrialde bakoitzean eleiz indar guztici batasun bat emoteko, eta abade, erlijioso ta laikoen ahaleginak batu ta bizkortzeko.

#### AURTENGO PASTORAL-EGITARAU (2. ZATIA)

Gaur hamabost, gure asteroko alkarrizketa honetan, aurtengo Pastoral egitaraua erabili genduan, baina ez genduan dana amaitu. Eta, behin hasitako gauzea amaituta ixtea behar-beharrezkoa dogun ezkerro, barriro be Karmelo l'txcnagusia abadeari dei egin eta berari eskatu deusagu, azaldu deiskula egitarau horren bigarren zatia.

Egunon, Karmelo.

Egunon, Adolfo, zuri ta entzule guztioi.

*Gaur hamabost zuk aitzen emondakoa, laburtu zeinke, mesedez, hiru-lau berbatan?*

Laburtu, laburtu... ez da gauza erreza izango; baina, tira! zeuk laguntzen badustazu, zeozer egiten hasi geintekoz.

*Pastoral-Egitarau horren izenburu edo titulutik hasiko gara. Zein zala esan zenduan?*

Hauxe: "Aldatuz doan mundu honetan barri ona (Ebanjelioa) zabaltzea".

*Bai. Eta, gaurko mundu bizkor eta aldakor honetan Barri Ona zabalteko asmoz, Egitarau horrek zati bi dituala esan zenduan, ezta?*

Ba, bai: zati bi ditu. Orduan ikusi genduan, Bizkaiko Eleizeak aurtan aurrera eroan nahi dituan gauzen artean, gauza edo ekintza batzuk kristau herri osoak egin behar dituenak dira (eta horixe da lehenengo zatia).

*Eta bigarren zatia, zein?*

Beste gauza edo ekintza batzuk, kristau herri osoak barik, kristinau batzuk edota alkarte batzuk eroan behar dabez aurrera, eta hauxe dozu aurtengo Egitarau horren bigarren zatia.

*Eta, lehenengo zati horretan —hau da, Bizkaiko kristinau guztiok egin behar doguzan gauzen artean—, zer sartzen da, batez be?*

Hiru gauza:

—Fedea hazi ta hezi (hau da, era guztietako katekesia!).

—Fedea ospatu, eguneroko bizimoduari erantzun egoki bat emoten ahaleginduz (sakramentu biri emon gura jak e berarizko indarra: Penitentzia eta Ezkontzari).

—Fedea bizi ta zabaldu (bakotzak berak ahal dauan neurrian, beti be ondo alkar hartuta jokatuz, behartsuekin arduratuz...).

*Honaino, labur-labur, Egitarau horren lehenengo zatia. Goazen orain bigarren zatira. Zer sartzen dau Pastoral-Egitarau horrek bigarren zatian?*

Lehen esan dogunez, kristinau alkarte batzuk —ez herri osoak— egin behar dituezan gauzak edo ekintzak; edo-ta, argiago nahi badozu, gaurko mundu aldakor honetan berariaz jagon eta jorratu behar doguzan aparteko arlo batzuk.



*Bai. Gu baserritar artekoak be bagara-ta, beharbada "jorratu" ta "arloak" hobeto ulertuko doguz. Zeintzuk dira, ba, berariaz jagon eta jorratu behar direan arlo horreik?*

Lhencengoa, gazteria.

*Zergaitik gazteria?*

Ba, hara: Eleizca familia haundi bat da, eta seme-alaba guztiak dira maitagarri: umetxuak, gazteak, gizon helduak, zaharrak. Baina, hain bizkor aldatuz joakun gaurko munduan, gazteriak sekulako indarra dauko, eta baita arriskurik asko be. Orduan, gizarteak eta Eleizeak gazte zintzoak, bihotz handikoak, mundu zuzenago baten sortzaile izango dircan gazte adoretsuak behar dabez.

*Gazteriaren arlo zabal-eder horretan, zeri emoten jako ardurarik gehien Egitarauan?*

Gauza biri:

—Bata: gaztcon fedea aberats eta egoki hazi ta hezteari.

—Bigarrena: gure artean gazteakaz egiten dircan lan, ahalegin eta ekintza guztiak alkartu ta indarbarrizcari.

*Lehenengo arloa, gazteriarena, esan dozu. Bigarrena, zein?*

Langileena, beharginena. Behargin guztiak sartzen dira hemen: lantegietakoak, bascritarrak, arrantzaleak...).

*Ondo zabala bigarren arlo hau be, ezta?*

Bai horixe! Zabala ta zaila. Inork ezingo dau esan Bizkaian beharrik egiten ez danik. Eta, dakigunez, Jesusen Barri Ona, behartsuentzat da, lhenengo ta behin; baina, zoritxarrez, eta guztion erruz, sarri askotan langileak Eleizatik urrin bizi dira, geure artean be, eta hori lotsagarria da Jesusen ikaslearentzat.

*Langileei Barri Ona eroateko, zer egin nahi da?*

Asmoak haundiak dira, izan, baina indarrak laburrak eta ondo neurtuak. Hau holan dala ikusita, Bizkaiko Eleizeak apalik jokatu gura dau, gaurtik hasita ahal dauana eginaz, asmo ederrak begien aurretik kendu barik. Aurtengo Egitarauak, dana batera ezin dala egin-da, ekintza batzuk, behinik behin, croan nahi ditu aurrera: langileen alde lagun, parrokia eta alkarte batzuk egiten diharduezan ahalegin guztiak alkartu ta indarbarritu...

*Lehenengo arloa, gazteriarena; bigarrena, langileena... Hirugarrena, zein da?*

CURE HERRIAREN BALIOAK ETA ABERASTASUNAK AINTZAT ETA ONTZAT HARTU, JAGON ETA AURRERA ATERATEN AHALEGINDUTEA.

*Zer dala-ta hori?*

Jesusen Barri Onak eta Jesusen Eleizeak Herri bakoitza bera dan letxe hartu behar dabe, herri horren balio ta aberastasun guztiak aintzat hartu, garbitu, aurrera croan... Gure Euskal Herriak, herri lez, baditu bere-bereak direan gauza batzuk: izakerca, hizkuntza, jakintza, kondaira, kezak eta amesak, gurari biziak... Bizkaiko eleizeak bertako izan gura dau; eta, horregaitik, bere borondaterik onenaz eta berak ahal dauan neurrian, esandako guzti horren alde dago.

*Hori, aurrera begira; baina, orain artean ezer egin dau Bizkaiko Eleizeak guzti horren alde?*

Ez da itaun samurra zure oraingo hau, Adolfo. Erantzun egoki bat emoteko, denpora gehiago beharko geunke, eta hurrengo baterako itxi beharko dogu. Zeozer aitaturko deusut, gaur egiten diran gauzen artean:

—Liturgian eta Katekesian, lan haundia egin eta egiten da euskercraz be.

—Ikastetxetan be .ez da gitxi egiten: horra hor, Derioko Seminario Txikia, irakasle Eskola (edo “Escuela de Magisterio”), parroketako ikastolak eta cuskal katekesiak, gure Herri-Irrati honen lan ederra...

*Entzun dodanez, euskal arazo honeri kargututeko, Gotzainak abade bat izentau ei dau oraintsu, ezta?*

Ba, bai, holantxe da: Ander Manterola abadea izango da, aurrerantzean, Bizkaiko Eleizan cuskal jakintza guztiaren ardura nausia izango dauana. Zuk neuk bestean ezagutzen dozu Ander gurea, eta badakizu zenbat lan eder egin dauan horrek arlo honetan, Seminarioko Liburutegiaren eta Udako Euskal Ikastaroaren bitartez, batez be.

*Behin barriketan hasi ezkeru, haria luzatu ta luzatu egiten jaku beti, eta halakoren baten amaitu be egin behar. Amaitzeko, ba, esaiguzu zein da Egitarau horren azken arloa.*

Abadeak eta erlijiosoak, gaurko mundu aldakor honck eskatzen dauanez jokatu ahal dagien, gogo-bihotzez gaurkotu, egokitu, bai euren fedean, bai euren artzain-ekintzetan.

*Abadeak eta fraide-monjak baino ez? Eta laikoak zer? Ez ete dabe, ba, eurak be, fedearen zabaltzaile ta ereile izan behar gaurko munduan?*

Bai, izan behar dabe; eta, hori holan dalako, gure Egitarau honek ez ditu laikoak baztarrean ixten, erdi-abaztuta. Laikoen laguntasuna beharrezkoa dau beti Eleizeak, eta gaur batez be. Horregaitik, laikoen mobimentuctarako zuzendari zintzoak bilatu nahi dira; bilatu ta sortu ta ondo eratu, euren bidez laikoen apostolutza alde guztietara zabaldu daiten. Izan be, laikoen laguntza barik, ezer gitxi egin leike Eleizeak Bizkajian eta gaurko munduan, batez be laikoak curak bizi direan leku ta crakundeen barruan,

hau da, familietan, lantegietan, jokas-lekuetan, jakintza-arloan, ekonomia-gizarte ta politika gauzctan...

*Ikusi dogunez, ez da gitxi egin gura dana.*

Ez horixe! Dana lortuko ez bada be, guk hasi egin behar dogu; hasi ta hazia erein, borondaterik onenaz: gero, frutua ekar-tea, hori Jaungoikoaren eskuetan dago...

*Hauxe da, ba, aurtengo ekitaldirako gure Bizkaiko Eleizeak egin gura dauan guztia, beste berba batzukaz esanda, Pastoral-Egitaraua. Eskerrik asko, Karmelo, eta hurrengora arte.*

Zeuk nabi dozun arte. Agur!

## KRISTINAUAK GAURKO ELEIZAN ETA GAURKO HERRIAN<sup>3</sup>

*Gaur, gure artean eta gure inguruan, gauza batzuk arin eta sakon aldatu dira, eta, harenbaten, aurrerantzean ez dira gixiagi aldatuko. Hori holan dala, zer dino Eleizeak, zer dinoe gure gotzainak?*

Itaun egokia.

Askoren eskaria: Eleizeak berba egin dagiala! Baina, egindakoan, bakotxa bere lekuan.

Gure gotzainak, joan zan abenduan batuta, agiri labur eta zehatz bat argitaratu eben. Zoritxarrez, askok eta askok ezagutu be ez dabe egiten.

*Ba horixe da, guk hemen nahi doguna: gure Eleizeak gaur zer eskatzen deuskun jakitea.*

Lehenengo ta behin, gauza bat dinoskuc: unc honetan, aldi honetan, kristinauok czin geintkezala lotan egon: itxarrik eta ardura biziaz baino, gaurko Eleizeak eta gure Herriak zer eskatzen deuskuen ikusi eta zintzo erantzuteko asmoz.

---

<sup>3</sup> Bilbo Herri Irratian alkarrizketa, 1976-II-06.

*Orduan, ezetan ez sartzea ez dago ondo, ezta?*

Ez horixe! Beste gauza guztien aurretik, hara zer dinoskuen gure gotzainak: "Kristinaua ezin daiteke bizi bere munduko arazoetatik aldenduta; kristinauak asko emon leio, eta emon behar deutso, gure gaurko mundu honen". Horregaitik, ba, lotan eta ameseta gozotan barik, barruraino sartuta bizi behar dau benetako kristinauak, gaurko munduko arazo astun eta larri guztietan.

*Sartuta, bai, baina zein bidetatik? Ez ete dauke kristinauak askatasunik, zer egin behar daben eta zelan egin behar daben erabagiteko?*

Ez da txarra zure oraingo itaun hau be. Gauzea artez ulertu daigun:

Alde batetik, Eleizeak argi ta garbi dinosku: eleiztarrak, mundu hau hobetuteko eskaintzen direan bidetan, askatasun handia dauke, bide bat zein beste bat aukeratzeko; Elcizeak berak ez dau bide bakar bat ezarten. Bakotzak berak ikusi behar ko dau zein dan biderik zuznena ta egokiena, herriarentzat mesedegarriena.

Baina, beste alde batetik, askatasun horrek baditu bere baldintza edo kondizino batzuk, fedeak eta Ebanjelioak eskatuta; laster ikusiko dogu zeintzuk direan. Orduan, kristinau batek askatasun haundia dauka, bai; baina bere fedeak jokabide batzuen neurriak jarten deutsoz. Ez gaurko agintariak, ez gaurko agintarien aurka dagozanak, ezin leic Eleizea euren alderdira ekarri eta euren menpeko egin: Elcizeak barik, Herriak berak ebatzi ta aukeratu behar dau, askatasunez, berak gura dauana, berak ondoen deritxona.

*Fedeak eta Ebanjelioak eskatzen dabezan jokabideak aiatu dozuz, askatasunaren neurri lez. Zeintzuk dira jokabideok?*

Gure gotzainak, batzuk aiatzen deuskuez, gaurko beharrezkoenak diran jokabide garbiak. Hona hemen zeintzuk diran:

—Egia maite izatea: egia lagunen eta taldeen artean, egia albistak zabaltzean, ordezkariak hautatzean; egia ekonomiarazoetan, eta baita erlijio-bizitzan be.

—Zuzentasuna (justizia) nausi: legcetan, epaitzean edo jui-zioetan, langintza-arazoetan, aberastasun eta ondasunen banatzean, jakintza ta kulturca danen eskuetan jartzean.

—Artez eta zuzen jokatzca, kristau moralaren bideetatik: scndian, ogibidean, arte-gauzetan, bestccn aurrean.

—Herri-arazoetan parte hartzeko gogo bizia.

—Herri-arazoak fedearcn argitara eta geroari begira aztertu ta erabagiten jakitea.

—Beste eretxi batekoa danari lotsea ta begirunea zor jako; alkarrizketarako bideak zabaldu, eta eretxi bateko eta besteko-ei legc-bideak emon, euren pentsakerea agertu ta zabaldu da-gien.

—Herriak euren izakeran eta kulturcn daukeezan ezbardin-tasunak aintzat eta ontzat hartzea; eta ezbardin izan arren alka-rregaz bakez bizi izateko bideak zabaltzea, eta euren burrukara bultzatu leiken cdozer baztertzea.

—Eta azkera: bakearen alde jokatzca; horretarako, bihotze-tik indarkeria kendu eta, aitu-ezinetan, alkarregaz ondo aituteko borondatea sortu.

### *Zortzi baldintza edo kondizino ez dira gitxi be!*

Ez, ez dira gitxi; baina benetako kristinau batek, askatasun haundia izan arren be, hor csandako guztia ezin dau begien aurre-tik sekula kendu, ezin horren kontra jokatu, ezin horren kontrako bidetik doazan gizonak eta mobimentuak ontzat emon.

*Eta, zer gehiago dinoskue gure gotzainak, oraingo une honetara-ko?*

Beste hainbat gauza, baina gure gaurko jardunaldiak be bere neurria dauka-ta, gaurkoagaitik hementxe amaitu beharko dogu.

Hurrengo baten, beharbada, gotzainen Agiri horren azkenengo oharrak eta argibideak be aitatu geinkez, benetan jakingarriak doguz-eta.

*Eskerrik asko, gaurkoagatik, eta hurrengorarte!*



## LOIOLAN ERROMES<sup>†</sup>

Anai-arreba maiteok:

Azken urteotan legez, aurten be hementxe etorri gara, Bizkaiko Durango aldetik, Loiolako eleiza eder honetara erromes, gure Aita San Inazioaren bederatziumen honetan:

a) *Esker onez* beterik gatoz: badakigu, eta aho batez autortzen dogu, Bizkaiko herri osoak eta, batez be Eleizcak, eta Bizkaiaren barruan Durango aldeak, asko be asko zor deusala Loiolako santu handiari; beronen otoitz gartsuari eta irabaziei; gogo-jardunen bitartez emondako argibide ta bihotz-eragin onurakorrei; Inaziok sortutako Lagundiaren ekinari ta hainbat eratako lan txalogarri.

b) *Senidetasunak* be ekarten gaitu gu hona: odolez, amaren jatorriz, Likonatarra genduan Loiolako Inazio, bizkaitarron artekoa, beraz; antxina-antxinatik hartu eban Inazio bere zaindaritzat Bizkaiko herriak, eta gipuzkoarrokin batera “gure Patroi handia” deitzen deusagu, maitasun handiz; gaur berton, bizkaitarra dau Jesusen Lagundiak bere Aita Nagusia, Aita Arrupe maitagarria; eta durangoarra, Loiolako komunidadea honck bere burua, Aita Oñate adiskidea.

---

<sup>†</sup> Loiolan, San Inazioaren bederatziumenecan homilia, 1980ko uztailak 28.

c) *Premina biziz eta eskari sutsuz* beterik be bagatoz, fedea eraginda, Aita San Inazio bitarteko dogula, Jaunaren laguntza eske:

—San Inazioaren denporan bezela, gure herriak badaki, gaur be, zer dan barrutiko zatiketa: zer diran oinaz eta ganboatar barriak; zenbat odol errugabe ixurtzen dan gure kale ta bidcetán, anaien arteko gorrotoz; zenbateraino sartu dan herritar askoren bihotzetan bildurra, etsipena, etorkizunaren aurrean itxaropenik eza. Badaki gure herri maite honck zer dan gazteen eta gurasoen arteko alkar aitu ta konpondu ezina; zer, lanik ezak dakarzan buruhaustea eta larriminak.

—San Inazioaren aldian legez, gure Eleizeak, Kontzilioaren ondoren, ate barri asko ditu zabal-zabalik, Kristoren Barri Ona ta salbamena munduan zehar iragarri ta eskaintzeko; baina, hori ta guzti be, ezin guk itsuarena egin, eta gure Eleiza honen premina gorriak ahaztuta itxi: gazte askok eta askok iges egin deuskuela; munduko ondasunetz liluraturik, Jaungoikoaren gauzetarako gormutu ta itsuturik gabiltzala; hainbeste bokazino ederren iturburu izandako gure Euskal Herrian, bokazinoak izugarri urritu jakuzala. Eta beste preminua asko.

\* \* \*

Aurreko hitzotan, gain-gaintik eta azaletik bada be, gure egoera ilunaren alderdi batzuk aitatu doguz, San Inazioaren laguntasuna eskatu nahirik. Baina gure santuak crakutsi ederrik emoten deusku guztioi, gure gaurko une larri eder honetan Jaunari behar danez erantzun deiogun. Gure bizitza osoa bidekurutze baten antzekoa da: cdozein ordutan eta lekutan, beti daukaguz aukeran bide bi: bata, gorakoa, aldapatsu ta estua, baina gailur zoragarrietara eroaten gaituana; bestea, bcherakoa, zabala ta itxura baten nekerik bakoa, baina ezaren leza sakoncan amiltzen gaituana.

Cu aurkitzen garcan etxe honetantxe, Iñigo gazteak be bide biok izan zituan aukeran: hementxe egoan bera, hankako zauria

noiz sendatuko zain, eta, liburu santuak irakurri ahala, Jaunaren dei bat entzuten eban bihotz barruan: "San Frantziskok eta Santo Domingok hau ta hori egin zutela? Neronck ere beste horrenbeste egingo det, ba!": gorako bidea zan hori, zoragarria alde batetik, baina aldakuntza gogorra eskatzen cutsana, bestetik. Eta han eukan beste bidea be: bere anaiak, bere haragiak, geroago Najerako kondeak erakusten eutsena; lehengo bidea, apur bat hobea nahi badozu, baina gehiegikeri gabea. Badakigu zcin bide aukeratu eban Iñigok: latzena, gogorrena, dan-dana bertanbehera itxi eta bere burua oso-osorik Jaungoikoari eskaintzeko eskatzen eutsana. Eta bere bizitzako bidekurutze horretan, bide horretatik abiatu zalako, begira zelako aldaketa haren izate guztian, begira zenbat mesede etorri jakozan hortik Eleiza osoari eta munduari. Zer izango ete zan bera, lehengo bide hari jarraitzekotan? Jakingo ete genduan bere izenik be? Behinik behin, ez ginan gu orain hemen egongo, otoiizerako hatuta, Loiolako Inazio bitarteko dogula.

\* \* \*

Gure gaurko herriaren eta Eleizaren gorabherak eta premina larriak gogora ekarten ditugunean, asko gara hileta jotzen hasten gareanak: "Nora ete goaz? Zer da, baina, hau? Bestelako bizimodua lehengoa, gure gurasoena, edo txikitan geuk ezagutu gendua-na." Eta horren antzeko beste esames negarti asko. Baina ez da hori Jaungoikoak gaur guri eskatzen deuskuna, ez da hori Loiolako Aita San Inaziotik erakusten deuskuna. Hitzak alde batera itxita, egintzak eta ekintza behar ditugu. Herriak eta Eleizeak guztion beharrezana daukela-ta, gutako bakotxak, Jaunaren aurrean bihotza zabal-zabalik, hauxe esan behar deusagu: "Jauna, nik zer egitea nahi dozu?" Hauxe izan zan Pauloren galdera, zalditik botata Jaungoikoagana bihurtu zanean. Hauxe berau Jesusena, mundu honetara sartu zanetik: "Hementxe nozu, Aita, zure borondatea egiteko gertu!". Eta ez besterik Iñigorena: "Omnia ad maiorem Dei gloriam": "Dan-dana, Jainkoaren aintzarik handie-

nerako!” Bihotz handiko gizon eta emakumeak behar ditu gaur gure Eleizeak, gure Herriak; epelak, bildurriak, badaczpadoakoak, ez deuskue ezer onik ekarriko. Inazioaren antzekoak behar ditugu: behin Jaungoikoaren nahia zein dan jakin ezker, nekeak neke, *baietzik* berocna ta biribilena esaten dakienak. Bai egoki erakutsi euskula Aita San Inaziok bere gogo-jardunetan zelakoak izan behar eban gure erantzunak, Jaunaren graziak bihotza jotzen deuskunean: norbere burua gauzarik bikainenetarako eskaintzea, Jesus Jaunaren bidetari jarraituz.

Arrisku handitxo bat daukagu guztiok, batez be Eleiza inguruan jarraitzen dogunok: geure ingurura begiratu ta esatea: “Tira, ez nabil ni horren oker, ez naz ni horren gaiztoa; itxura baten ona ta zuzena naz; federik ez dot ukatu, ez naz odol eta gorrotozale, Eleizeagazko betebeharrak betetzen ahalegintzen naz...” Eta ez dogu beste goragoko pausurik emoten. Ez gara Jaunaren aurrean bihotz-bihotzez jarten eta ez deusagu zintzo esaten: “Hemen nozu, Jauna, zer eskatzen deustazu? Zein da orain niretzat zure borondatea?”

Gaurko Meza santuan, Jesusen Pazko oparia barritzen dogu: maitasunik handienaren ezaugarri argia dan meza honek egin gaitzala geu be Jaunarentzat benetako eskaintza ta opari.

# BARRI ONA HAUSNARTUZ<sup>5</sup>

## 1. BARRI ONA

Barri Ona zabaltzen hasi zara, Jauna,  
Galilatik hasita, hatan be.

“Jentilen Galilea” horretan  
hor zabilz Zu, herririk herri,  
“epea bete dala”  
eta “Jaungoikoaren erreinua heldu dala”  
iragarten.

Jonasen antzera, jentilen artera  
bialdu zaitu Aitaren borondateak,  
guztiok jakin daigun  
Aitaren Erreinua ez dala onentzat,  
curen buruak fedcdun eta ontzat daukcczanentzat bakarrik:  
mundu guztira, gizaldi guztietara  
zabaldu behar dala zure berbea, zure deia,  
zure Barri Ona;

---

<sup>5</sup> Begoñako Basilikan, Euskal Telebistaren bidez emondako mezan berbal-  
dia, Urtean zeharreko IV. domekan, 1998.

Jaungoikoa danen Aita dalako,  
guzticentzat daukalako bihotz on eta errukiorra,  
mundu osoa salbatzeko bialdu zaitualako Zu,  
bere Seme Bakar eta kutuna,  
ez mundua kondenatzera,  
salbatzera baino.

...

Barririk Onena, ostera, Zeu zara, Jesus:  
Aitak deuskun maitasunik handiena,  
samurrena, zintzoena  
—“bere Seme bakarra bialtzeraino  
maite izan dau Jaungoikoak mundua...”—.  
Zure berbak, “egia eta bizia” dira,  
“Zuk betiko bizitzako berbak daukazuz.”  
Zu ikustea, Aita Bera ikustea da;  
Zugan sinistea, betiko bizitzea eukitea.

Zatoz, gaur egunean be, gure artera, Jesus,  
eta iragarri zure Barri Ona.  
Aukeratu egizuz gure artetik  
zure erreinua iragarriko dabon gizon eta emakumeak,  
zure adiskide izan eta munduari zure askatasuna  
ekarriko deutsoen bialduak.

Betor, Jauna, zure erreinua gugana,  
zure Aitaren erregetza,  
egiarene, zuzentasunaren, bakearen  
eta maitasunaren erreinua,  
zeure erreinua, oraingo ta betikoa. Amen.

## 2. BAGOAZ...

Bajoaku mundu honetako gure ekitaldia.  
Bajoaku, bai, eta gitxien uste dogunean joan be.  
Gazte batek, zentzun handi barik,  
uste izan leike  
bere ekitaldia luzea izango dala,  
ez dagoala oraindino prisa handirik;  
baina gure edadean,  
lepo bete urte daukagunean,  
zelan galdu burua holako ames zoroetan?  
Gure ekitaldia, mundu honetan,  
azkenetan dago.  
Cauza ziuerra da hori.

...

Baina Jaunak bizia emoten deuskun artean,  
ekin egin behar deusagu  
eskuetan daukagun eginbeharrari,  
Erreinuko balioak eguneroko bizitzan  
zabaldtu, sustraitu eta aurrera eroaten.  
Hona hemen Barri Onaren mamina,  
Jesusek bere otoitzean erakutsia:  
—Aitaren izen santua,  
—Zeruko Aita santuaren borondatea  
eta Erreinua,  
—eguneroko jan urriaz nahikoa izatea,  
eta gerokoa Aita Jakitunaren esku onetan ixtea,  
—geure artean, anaitasunik estuencan bizi izatca,  
alkarri parkatuz eta lagunduz,  
maitasunak oinarritutako alkartean;  
—arriskuetatik iges egitea,  
Gaiztoaren sarretatik askatuta  
Espirituaren askatasuncan bizi gaitezcan.

...

Ez, ez daigun sekula santan ahaztu  
Jesus Bera dala "Barri Ona",  
Jaungoikoak munduari bialdu deutsan  
azken Berbea,  
betiko bizitzako berbak daukazana,  
Aitaren maitasun azken bakoaren espilurik garbiena.  
Huskeriak eta kaltegarri jakuzan gauza guztiak  
alboratu, bazterrean itxi,  
eta bihurtu gaitzean  
"Bidea, Egia eta Bizia" dan Jesusegana;  
beronen deiari baiezkoa emon  
eta, apostoluen antzera,  
dan-dana bertanbehera itxita,  
jarraitu deiogun azkencraino,  
bere Barri Ona mundu guztira zabaltzeko,  
Jaungoikoaren Erreinura herrialde guztici dei egiteko,  
mundu zabalean diran guztiak  
familia barri bakar bat egin dagien,  
Espirituaren lokarri bigun eta gozoetan.



### 3. ZAKEORENEAN

Zelan zenkian Zuk, Jesus,  
Zakco hori nor eta zer zan?  
Berak, behintzat, Zu ez zinduzan ezagutzen;  
Zu lehenengo aldiz ikusteko gurari bizitan egoan gure gizona.  
...

Zek sortzen ete eutsan gurari hori?  
Ez zan ba bera ondo baino hobeto bizi?  
Ogibide ziurra, alde batetik, zerga-batzen;  
dirua ugari, bestetik,  
bere lanaz eta lapurreteaz bereganatutako dirua.  
Eta diruak zer ez dakar mundu honetan?  
Atseginak zenbat gura, lagun piloa inguruan,  
etxe dotoreak eta jan-edan gozoak,  
izen handia eta entzutea,  
txaloak eta gorrotoa.  
...

Baina ez zan guztiz pozik bizi  
gure gizontxu hau, Zakeo Txiki.  
Baeukan bihotzaren barru-barruan  
halako kezka bat, halako egonezina.  
Lapurra zalako?  
Hemengo atseginak garrastu egiten jakozalako?  
...

Jesusen entzutea izango eban, hoba ez!  
Baina bere begiz ikusi nahi eban,  
eta hainbeste jenteren artean ikusteko,  
Zakeo Txiki horixe izan: txikiegia!  
Joan zan aurrera, igon eban pikondo batera,  
eta mutiko baten antzera  
hantxe egon zan,  
Jesus handik noiz igaroko zain.  
...

Zelan zenkian Zuk, Jesus,  
pikondo ganeko gizontxu ha Zakco zana?  
Aberatsa ta pekataria zana?  
Zuk beti dakizu  
gizon bakotxaren bihotzean zer dagoan.  
Ez dozu hori inok esan beharrik.  
Eta, pikondopetik igarotean,  
begiak gorantz jaso  
eta han ikusi zenduan gure gizontxua:  
“Zakeo, jatsi zaitez hortik,  
gaur zuenean hartu behar dot ostatua.”  
Zakeoren poza ta harrotasuna!  
Nor eta Jesus eurenera!

Ez dinosku Ebanjelioak,  
baina tamaina batekoa izan zan,  
Zakcok Jaunari gertautako bazkaria.  
...  
Eta bazkaritan, zeri ckin eutsoen?  
Zetan jardun ete eben?  
Iiau be isilik gorde dau Ebanjelioak.

Jesusek, harenbaten,  
bere Erreinuua zer eta zelakoa zan,  
zer eskatzen deutsan gizonari  
azalduko eban beste behin be...

Eta Zakeok, Jaunaren graziak jota,  
bere bihotzeko erabagi garbiak  
agertu euskuzan:  
lapurretarik ez aurrerantzean;  
ordurarte ostutakocn ordez,  
bateko lau ordainduko ebazala;  
eta, ganera, bere legezko ondasunetatik

erdia behartsuentzat emongo ebala...

...

Benetan heldu zan etxe haretara  
Jaungoikoaren salbamena:  
buru barria, bihotz garbi ta zabala  
emon eutsozan Jesusck gure Zakcori.  
Salbatzaileak salbau egin eban.

Salbau gagizuz, Jesus Jauna,  
atara gagizuz  
gure bihotz estutik,  
gure lukurreriatik,  
gure bide okerretatik.

Eta emoiguzu, Jauna,  
zure Espirituaren lege barria.



Ricardo Blázquez Bilboko gotzaina eta Karmelo Etxenagusia, Begoñan, gotzain-ordenazainoko egunean, 1995eko azaroaren 9an.

#### 4. JAUNAREN IZENEAN BAKEA

*Zure izenean, Jesus Jauna,*  
berba egin gura neuke egun honetan.

Berba leun eta garbia,  
cdozeinek aitzeko moduko berbea.

Eta berba hori zein izango  
eta zeure jaiotzan aingeruak iragarritako berbea bera baino ezin  
izan.

#### **Bakea!**

Zer gauza ederragorik guretzat?  
Dan-dana eukita be,  
bakerik ez dogunean,  
gure bihotzak zulo handi bat cukiten dau,  
inok ez ezek bete ezindako zuloa.

#### **Bakea!**

Guztion aho-mihinetan dabilen berba gozoa,  
baina bakotzak bere crara aitzen dauan berba errukarria.

Oinarri sendoak izan begiz  
nik iragarri nahi dodan bakeak, Jauna:  
*egia*, alde batetik;  
*askatasuna*, bestetik;  
*zuzentasuna* be beharrezkoa bakerako,  
eta *anaitasuna* laugarrena.

**Laurok batera** badabiz,  
orduak ez dauka bakeak  
kili-kolo ibilteko arriskurik,  
ez horixe!

Baina bake hau geure indarren eta ahaleginen frutua bada be,  
lehenengo ta bchin  
zeure doea dogu  
eta Zeuri eskatzen deusugu apalik,  
Bakearen Erreginea,  
Andra Maria geure Ama  
bitarteko dogula.

**Emon, Jauna, bakea, zeure bakea,**  
eta erruki zakiguz orain eta beti.

## 5. SEME GALDUAREN AITA

Ederra benetan, seme galduaren parabola ezagun hau.  
Ederra, sakona, agortu ezinezko aberastasunetz betea...

Baina ez da, zorionez, ipuin hutsa, asmakizun polita. Ez.  
Jesusen bizitzan, Jesusen berbetan eta jokabide guztian,  
eguneroko egia izan zan parabola honen gune sakona.

Berez ikusi ezina dan gure Jaungoikoa  
bere Seme bakarra dan Jesusegan agertu jaku guri:  
*"Ni ikusten nauanak, Aita ikusten dau"*, esan euskun Jesusen berak.  
Gure Jaungoikoa zelangoa dan jakin gura badogu,  
ez daukagu bide ziurragorik, beste biderik, hauxe baino:  
Jesus jarri geure begien aurrean  
eta ikusi zelangoa dan,  
zer egiten eta zelan jokutzen dauan.

\* \* \*

Ezin guk parabola hau ondo ulertu  
beronen sarrerako berbak gogoan hartzen ez badoguz:  
*"Pekatariak pilaka hurreratzen jakozan Jesusi  
eta farisearrak eta idazlariak marmar egiten eben:  
—Honek pekatariak hartu egiten ditu, eta baita eurakaz jan be..."*

Jesusek, pekatarien artera badoa, eurakaz jaten badau,  
guztien Aita dan Jaungoikoaren errukia ta parkamena adierazoteko  
egiten dau hori:  
—geixoak osatzeko etorri dan sendagilea dalako;  
—ardi galduak bilatu eta batzeko etorri dan artzain ona dalako.

\* \* \*

Euskaldun fededunok, gaur be, badogu zer ikasirik parabola honietan:

sarritan esana da, euskaldunok hizi izan dogun erlijimoan,  
Jaungoikoa, bai, Handi, Ahaltzu, Jaun eta Zuzen lez agertzen  
dala, batez be;  
eta hori danori egia izan arren,  
horren ganetik dagoan Aita On eta Errukiorra  
ez dala horrenbestean agertzen.

Ez ete deuskue horixe adierazoten Xalbador bertsolariaren ber-  
bok?

*"Fede haundiko burrasen ganetik sortu bainintzan mundura,  
Jainko legean hezi ninduten, jitean adimendura:  
hain zen beroa denbor hartako eleiz gizonen khar hura,  
ziotelarik gaizki eginak zeramala iferrura,  
muinetaraino sartu zitzautan Jaungoikoaren beldurra".*

(Jainkoa eta ni, 1)

Eta, bihotza minduta, autortuko deusku bertsolariak:

*"...etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen;  
heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,  
zeruko edertasunak berak hotz-hotza ninduen uzten,  
gastiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten".*

\* \* \*

Zoritxarrez, sarri askotan, gogoan izan behar geunke  
Pascal jakitun handiak esandakoa:  
gure Jaungoikoa ez dala filosofo eta jakintsuen Jainkoa,  
Abraham, Isaak eta Jakobena Jaungoikoa baino;  
edo, hobeto esateko, "Jesukristo gure Jaunaren Aita",  
Aita on eta errukiorra, benetan maitagarria:  
"erruki hutsa dogu Jauna, errukia ta maitasuna".



Seme galduaren parabolan agertzen jakun Aita zelangoa da?  
 —bere umeen askatasuna aintzat hartzen dakiana,  
 —ondasunak banatzen deutsezana,  
 —seme galduaren zain, etxeko atak zabalik  
 (besoak eta bihotza zabalago) bizi dana,  
 —barrero etxera datorren seme galduari  
 arineketan bidera urten,  
 samatik heldu, mosuka jan  
 eta seme-duintasun osoa bihurtzen deutzana;  
 —barruko pozari eutsi ezinik, hori ospatzeko,  
 jairik handiena, bazkaririk horniduen, agindu ta egiten dakiana.

\* \* \*

Bai, holakoxea da gure Jaungoikoa,  
 Jesusegan hain argi agertzen jakun Zeruko Aita ona.  
 Baina, ez! Hori baino gehiago be bada:  
 —ez da geratuko etxe ondoan,  
 aldendutako semea noiz bihurtuko zain,  
 harako “Hator, hator, mutil, etxera” bihotz barrutik deika;  
 —“Artzain On” bihurtzen da,  
 eta, beste ardiak itxita, horra non doan galduaren bila,  
 tontorrik tontor eta trokarik troka;  
 eta aurkitutakoan, bizkarrean hartu, etxera ekarri, auzokoci dei  
 egin,  
 eta, poz-giro alaian, jai handia ospatzen dau.

Zer besterik egin eban Jesusek, herririk herri ebilela,  
 pekatarrickin mahaian jarri eta eurakaz jaten ebancan?

\* \* \*

Hauxe da gure benetako Jaungoikoa:  
 maitasun hutsa, erruki neurribakoa.  
 Beronegana bihurtzen bagara, gure bertsolariari lez, geuri be  
 ondasun handiak etorriko jakuz:

parkamenaren bihotz-poza, konfiantza bete-betea,  
nekerik eza, benetako bakearen ur garbia:

*“Nehoz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,  
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,  
ur on guzien Jabeak berak emanikan negurria.  
Horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria:  
haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria”*

(Xalbador, 1.b., 6)

Danok holango Jaungoikoagana bihurtzen bagara,  
gure kristau alkarteak be “etxeko gozotasuna” izango dabe:  
anaitasun samurrez ganezka,  
ateak eta bihotzak danentzat zabalik beti;  
sekula sartu ez diranak edota gure artetik aldenduak  
bilatzen eta Aitaren etxera ekarten ahaleginduko gara.

\* \* \*

Jesusen parabola honetan hirugarren lagun bat be badago,  
guk sarritan erdi ahaztuta ixten doguna:  
seme nausia, anaia zaharra: farisear harroak.  
Beti Aitarean etxean bizi izan arren,  
gauzarik behinena ez dau ikasi seme horrek Aitaren ondoan:  
maitasuna, errukia, inor ez kondenatzea, parkatzen jakitea...  
Jesusek, oster, gure Anaia Nagusiak,  
bere bizia arriskuan jarri eta cmon egingo dau  
ardi galduok Aitarenera ckarteko.  
Eta ez hori bakarrik:  
Eukaristian, neurribako maitasunaren agiritzat,  
bere Gorputz-Odolén afari pozgarrira dei egiten dcusku.  
Zorionekoak gara, bai pekatariok,  
Jaunaren mahaira dcituok.

Parabola honetako familian hutsune handia ikusten dot nik:  
Ama falta da hor.  
Jaungoikoaren familia barria dan Eleizeak, ostera,  
badauka ama bat be, Jesusek berak kurutzetik emona:  
Andra Maria, here ama laztana,  
erruki samurrez betea,  
andra ta ama guztien artean bedeinkatea,  
maitasun ederraren ama,  
batasun-lokarri gozoa.  
*“Pekatoriok ama, Birjina, zaitugu,  
zuga gure bihotza guk ipinten dogu”.*  
Honetan be gure kristinau bizitzako egia  
parabolako asmakizun ederra baino bikainagoa da,  
Jaungoikoari eskerrak.

## LANIK EZAREN ARAZOA<sup>6</sup>

Euskaldun fededunok, gizaldiz gizaldi, belaunaldi askotan, beti aurkitu izan dogu hemen, Urkiola ganeko eleiza maite honetan, Jaungoikoari geure beharrian eta preminarik handienak agertzeko lekurik aukerakoena, San Antonioak bitarteko doguzala. Aberats izan zein pobre, gazte zein zahar eta sasoko, gizona, gizona dan neurrian, beti da behartsu, zetan edo hatan, Jaungoikoaren aurrean: osasunik eza, bihotz barruko neke ta nahigabeak, bizitzako estura ta larrialdiak, honen edo horren beharria. Egia da, bai, gizonak, Jaungoikoaren borondatez, bere ahalegin guztiak egin behar dituala beti, horretarako Jaunak emondako buru argiaz eta indar guztiekin, bere ezbehar eta preminei erantzun eta urtenbide egokia bilatzen. Baina badaki fededunak, horrez ganera, Jaunari dei egin behar deusala, zeruko Aita onari laguntza eskatzeko; alkarri laguntzen jakin behar dauala, gure maitasun-agindua gogoan harturik.

Baserritar, arrantzale nahiz kaletar izan, gure asaba zaharrak, gure guraso fededun sutsuak, Urkiolarako bidea erakutsi euskuen, eta hemen gatzogatu be, beste urte baten, euren atzetik, asmo bardinagaz, antzerako preminakaz, kristau fede beraren argitan, itxaropen bardinaren pozetan.

---

<sup>6</sup> Urkiolan, San Antonioen eleizan herbaldia, 1936-6-20.

Gutariko bakoetak berak daki bere buruaren eta bizimoduaren barri eta, horregaitik, bakoetak eskubide osoa dauka, San Antonioren hitartez Jaungoikoari otoitzean bere preminak agertzeko. Guk geuk be, guztiok bat eginda, alkarren alde otoitz egingo dogu elcizkizun honetan.

\* \* \*

Baina Urkiolako elciza honen ardurca dauken abade txaloga-riok, azken urteotan, gure Euskal Herri maitearen premina handiren bat jarri ohi deuskue begien aurrean, kristau alkarte lez hori gogo-bihotzetan hartu eta, gaurko egun honetan eta aurrerantzean, premina hori gure otoitz sutsu eta jokabide bihurtu daiten. Aurten, gure arteko lanik ezaren arazo larria jarri nahi izan deuskue aurrean. Esan beharrik ez dago, guztiok ondo dakigulako, lanik-ez hori zenbaterainoko problema sakon larria dan mundu zabalean eta, batez bere, gure artean.

Badakit nik arlo hau zabalegia dana hiru-lau berba laburretan azaldu ta argitzeko. Parkatu egidazue, ba, horren zati bati baino ekiten ez badeutsat: *gazteak lanik aurkitu ezina*, eta hortik gure gizartean sortzen dan *bakerik eza*.

Edonoz eta edozeinen ahotik entzuten doguz honelako edo antzerako berbak:

“Gure gazteok beharrik aurkitu ezin badabe, zer egingo dabe, ba? Nora goaz holan?” Bai, gurasoak hainbeste ames gozo egin eta horrenbeste diru ta neke cralgi ondoren, gazteak curak, azkenik bako urte luzeetan, liburuak beti besapean, eskolarik eskola ikasten ibili ondoren, zelako etorkizun baltza gehientzat! Zetarako horrenbeste estura, ikastordu ta ahalegin, gero alper-alperrik badira?”

Ez hori bakarrik: hemcn urtenbiderik ez, eta kanpoan be antzera samar. Nora joan gure gazteok lan bila? Orain ehun, berrogeta hamar urte, Euskal Herriitik gazte askok eta askok alde egin behar izaten cben erbestera, urinctara, lan bila: Ameriketara, Australiara, itsasora..., gure hainbeste kanta zaharrek aitatzen deuskuenez:

*“Amerikara noa neure borondatez,  
hemen baino hobeto bizitzeko ustez...”*

Caur, oster, urrincrako biderik gehienak, ia danak, zarratuta dagoz, leku guztietan antzerako problemak daukaguz eta.

Gure Aita Santua, geroago ta zahartuago, hor jabilku batetik bestera, gizonaren duintasuna ta bakea beti aho-bihotzetan darabilzala. Oraintsu egin dauan bere azkenengo oster laburrcan, Suitzako Cinebran izan dogu, mundu guztiko lan-erakundeak dei eginda. Lanaren inguruko arazoan ardurarik handiena dauken mundu guztiko ordezkari ta jakitunak Aita Santuari be dei egin deutsie, heronen berbearen argia ta laguntza lortu nahirik. Eta Aita Santuak ordubeteko berbaldi luze mamintsua eskaini deutse, entzule guztiak adi-adi eukazala. Beste gauza sakon askoren artean, hara zer esan dauan Joan Paulo bigarrenak:

1. Gure gizarte honek ezin daike bakerik izan, gazteen guriak aintzat hartu eta beharlekuetako, lantegietako, ateaq cdegiten ez badcutsez gazteoi. Benetako bakea nahi badogu, hauxe da aurrenengo konpondu behar doguna.

2. Arazo hau, egia esan, nahastua da, zaila ta gatxa; horren urtenbideak ez dira, ez, errezak, ezta bardinak be alde guztietan.

3. Baina, halan ta guzti be, urtenbideok bilatu beharra daukagu, eta horretarako hauxe izan beharko da beti begien aurrean:

a) Giza-lana eginbehar eta eskubide dala gizon guztientzat.

b) Giza-lana gizonaren duintasun eta aurrerapidearen espilu ta ezaugarri dala.

c) Benetako urtenbideak bilatze hori, danakazko alkartasunean egin behar dala.

d) Alkartasuna, alkar hartzea: hauxe da lanik ezaren arazo larriaren giltza. Neure indar guztiakaz dinotsuet, barriro be: bai herri bakotxaren barruan, bai nazino artean, danentzat —baina, batez be, gazteentzat— lana aurkitu nahi badogu, herritar guztien eta nazino guztien alkartasuna behar da:

· Bakotxak prest egon behar dau, horretarako behar diran nekeak eta sakrifizioak ontzat hartzeko.

· Dan-danok lagundu behar deutsegu alkarri, ekonomi ta gizarte mailtako politikan egiten diran egitarau eta akordioak alkartasun horren czaugarri argi izan daitezcan.

· Alkartasunaren bidetik, gizarte-ordena barri bat jasoteko behar diran erakunde egokiak sortuarazoten dan-danok lagundu behar dogu.

e) Eta, hau guztiau gauza gatxa bada be, hara zer dinoskun Joan Paulo bigarrenak: Ezin nik sinistu gaurko gizarte honek —jakintza ta teknika gauzetan horrenbesteko aurrerapide harri-garriak egin dituan gure gizarte honek— ezin daikeanik problema larri hau konpondu, horretarako guztion ahaleginak batu eta alkartu ezkeru, beti be gizona oinarritzat eta helburu nausitzat daukala.

\* \* \*

Gure Euskal Herriko gotzainak be, alkar hartuta, badakizue zelako dei zoliak egiten deuskuezan, lanik ezaren beharrizanak gogotan hartu daiguzan laguntza eske. Euskaldunon erantzuna, diru arloan, oso ederra izan da: egundo ez da, beste ezetarako, horrenbeste diru batu izan gure eleizetan. Baina ez da hori bakarrik gure artzainak eskatu deuskuen. Gogora ekarri daiguzan, labur-labur, eskatu deuskuezan beste gauza batzuk be:

1. Egiten diran diru-eskabideetan, bihotz eta eskuzabalak izan gaitezala.

2. Familia bakotxak, hilero, egun bateko alogera edo etorria lanbakoentzat emon dagiala.

3. Lanpostu barriak sortuarazoteko ahalmenik edo eskurik daukeenak, hori egiten eta lortzen ahaleginu daitezala: lantegi-jabeak, alkateak, politikoak.

4. Lanpostu bat baino gehiago daukeenak, batgaz bakarrik bizi izateko lain irabazten badabe, beste lanpostuak lanik ez daukeenentzat itxi daitezala!

5. Langile guztiok alkartasunean jokatu daigula: lantegi-barrukoak euren artcan, beste lantegi batzuetakoekin, lanik ez daukenakaz, beste nazino batzuetakoakaz.

\* \* \*

Urkiolan gaur egun on eta atsegina igaro daigula. Baina kristinau zintzo lez jokatu nahi badogu geure eguneroko gorabehera guztictan, hemen entzun doguna ez daigula ahaztuta itxi. Izan daiguzala horretarako geure bitarteko Urkiolako San Antonio maitagarri biak.



## JULITA BERROJALBIZEN HILETAN<sup>7</sup>

Anai-arreba maitcok:

“Heriotzeak descgiten dau bizi-lekua munduan...”

Heriotzea, zcin bapatcan, usterik ezean, etorri, zein gaixoaldi luze baten ondoren gancan dogula jakin, beti jaku, gogorra, iluna, garratza. Edozein heriotza, baina, batez bc, geurca eta baita gure guraso, senide ta lagun maiteena be. Holantxe izan da beti, holantxe izango da, gizona gizon dan artean. Gure olerkariak, udaguenaren tristurea gogoan eukala, berba egokiz agertu euskun bihotz-min hau:

*“Oi zein dan ituna / bêtarear au!  
Nik ez nai eguna / biurtzerik gau!” (Lizardi)*

Azken Kontzilioaren berbak dira:

*“Gizonaren bizitzako ezkuturik ezkutuen heriotzea da...  
Gizonari min handia emoten deutso oinazeak  
eta bere gorputzaren hondatze geldi-ezinak.  
Baina bere bihotz-minik larriena zera da:  
betiko galduko ete dan bildurra...”*

---

<sup>7</sup> Julita Berrojalbizen hileta mezako homilia, Bilbon, 1998ko zemendiaren 3an, Bilboko Aita Agustindarren eleizan.

Hauxe da gaurko ebanjelioan entzun doguna: hor doaz etxera Jesusen ikasle biok, Kleofas eta bestea.

Euren Maisu maitearen heriotza lotsagarriak lurra jota itxi dauz; eta, burua makur eta aurpegia ilun (bihotza ilunago!) arin doaz euren etxera, ordurarteko ames gozoak eta asmo ederrak bertanbehera itxita.

Baina, zorionez, bidelagun barri bat hurreratu jake eta curakaz berbetan hasi. Jesus biztuaren hitzak eta ostatuko ogi-zatitze harrigarriak argitu ta poztu egin deutsez gogo-bihotzak; eta lehengo bizi-poza ta itxaropen argia eurakanaturik, ahal danik eta bizkorren bilhurtzen dira Jerusalemenera, gau ilunaren eta ezcren bildur barik, apostoluen artera, bidean entzun eta ostatuan ikusitakoaren barri emotera.

Ze besterik egiten dan gugaz Eleiza Ama gurcak? Maite doguzanen heriotzekak minaz joten gaituanean, Jaungoikoaren Berbearen eta Euskaristiaren mahai inguruan batzen gaitu bere seme-alabak; eta Apostoluakandik jatorkun barri on pozgarria iragarten deusku: "Biztu da Jauna!"

Eta guk kantuz aurtortzen doguz geure fedea ta itxaropen sendoa:

*"Jainkoak baitu / gaur Kristo biztu, aleluia!  
bere indarrez / biztuko gaitu, aleluia!"*

Emausko jazoera hau eukan gogoan gure olerkari gazteak, Gasteizko espetxean, hilgo eben aurretxean:

*"Neurekin gel zaitte / arrats-begi da-ta...  
Ene Josu maite, / gel zaitte!"*

*Neure egun argia / berantz azkar doa,  
itzalak jotzen dau / artadi ondoa.  
Arrats onen otza / biotza!*

*O Bidazti deuna, / sar zaite neurera,  
bertan dozu, bada, / maitasun-arrera.  
Bekidat bizitza / zure itza...!*

*Ta barne guztia / berotan dodala  
argi biur bekit / eriotz-itzala.  
Dana jat atsegin / Zurekin!" (Lauaxeta).*

Eukaristian Jesus Jaunaren Pazko Misterioa ospatzean, argi barria biztuten dau fedearen izarrak gure gau baltzean, adore barria hartzen dau gure bihotz jausiak, eta, Kristo Berbiztuaren irudi dan Pazko Zuziaren aurrean, fedez eta poztasunez abesten dogu:

*"Hil eta biztu zarala, Jauna / sinisturik gagoz egiz.  
Gaur misterio bizigarri hau / ospatu nahi dogu berriz.  
Lagun hau beti / argitu bedi / zure Pazkoaren argiz".*

Gure Julita ama on eta samurra izan da seme-alabontzat; andra argi, eragile ta ekintzailea ezagutu dogunontzat; euskaltzale txalogarria, euskeraren alde hainbeste lan eta burruka egindako emakumea, euskaldun zintzoen eta euskal erakundeen esker ona irabazitakoa... Hori danori aintzat harturik, guk orain hemen Jaungoikoaren alabea dogu gogoan, Kristogaz bateo santuan hat egin zana, Beronegaz betiko bizitzaren jabe izateko. Horregaitik guk Hirutan Bakarra dan Jaungoiko Aitarean besoetan ixten dogu:

*"Zeruan goien Irutasuna, / Jaungoiko andi ta maite,  
besoak zabal, zuri begira, / atsegin ederrez beite.  
Bera izan zendun mundu onetan / izan guztien izaite.  
Aren besotan, menderen mende, / zorionez bizi zaite". (Orixe)*

Emoiozu, jauna, betiko atsedena eta betiko argiak argi egin begio. Agur, Julita, Egun Haundirarte!

# IPARRAGIRRE ETA URKIOLA<sup>8</sup>

## 1. Eleizea, katoliku eta bertako

Berarizko garrantzia dauka gaur eguncan arazo honck: zelan alkartu Eleizaren “mundu zabaltasuna” eta beronen “bertakotasuna”.

—Alde batetik, lehenengo lehenengotik, kristinauak argi ta garbi ikusi dabe alkarte handi bakar bateko dirala, mundu guztian eta aldi guztietara zabaldua dagoan Eleiza bateko semealaba. “Eleizea —dino Paulo VI.a Aita Santuak— unibertsalada: ez dauka beste mugarik, gizon pekatariaren gogo-bihotzena baino”.

—Bestetik, Eleiza unibertsal hori lekuan lekuko eleizetan bizi da; hau da, euren hizkuntza, kultura, kondaira, izakera berezia dauken herrietan.

Hau holan dala, lekuan lekuko eleiza bat, bere borondatez, Eleiza unibertsaletik aldenduko balitz, Jaungoikoaren asmotik kanpora legoke, eta urritu ta murriztu egingo leuke bere eleiz neurria. Beste aldetik, oster, “mundu guztian zabaldua” dagoan Eleizea ameskeria hutsa izango litzateke, lekuan lekuko eleizetan zertu ta biziko ezpalitz.

---

<sup>8</sup> Urkiolako eleizan, Iparragirrerri egindako omenaldian berbaldia, (haria baino ez) 1981eko ekainaren 21ean.

Hauxe da Aita Santuak aitaturako agiri eder horretan irakasten deuskuna.

## 2. Iparragirre

2.1. Euskalduna: bertan jaio ta hazia, bertoko arazo, ames, gurariak, alderdi on eta akatsak erakusten deuskuzana. Euskaldun Euskal Herrian, euskaldun hemendik kanpora. Herri baten, bere aldiko herriaren, espilu eta abots zoli ta errimea: euskaldun soilaren herri-mina, maitasuna, umore gordina, negar-zotinak kantatzen jakin ebana.

2.2. Mundu guztira zabalik: ume-umetatik, bere jaioterritik kanpora: Zerain, Gasteiz, Madril... Gero, umetatik urten orduko, soldadu gerran; eta gerrosteko saritzat, atzerria: Frantzia, Italia, Ingalaterra. Geroago, Portugal, Ameriketa. "Atzerrian lurra garratz, oiña ibenik baratz" (esacra zaharra). Horixe Iparragirre-arentzat be: gosea..., baina baita gauza barriak ikasteko erea be: doinu barriak, esaterako. Herri guztiok begi garbiz eta harriturik ikusiko ditu, eta garbiro autortuko deusku:

"Egiya, alde guztietan toki onak badira...!"

## 3. Gaurko Urkiola: euskal misiolarien eskuetan eta gidaritzapean.

3.1. Bertoko Eleizearen espilu: herri-herrian barru-barruraino sartuta, gure herriaren morroi eta zerbitzari, Euskal Herri osoaren ames, egarri, gurari bizi, neke-minen eta bihozkada sakonen barri dakiana; fededun dan Euskal Herriaren bihotz eta arnas barri.

3.2. Mundu guztira zabalik: misiolari, fedearen barri ona esku zabalez edonora croateko eta gizon guztien bihotzetan ereiteko beti prest.

—Euskaldunok, aspalditik, kanpora-bidean:

· Batzuk, euren borondatez, bizimodu erosoago baten bila:

*“Amerikara nua / neure borondatez,  
hemen baino hobeto / bizitzeko ustez...”* (Herri-kanta)

· Beste batzuk, lur barriak ezagutzeko asmoz edota barruko urruti-min horrek liluratuta:

*“Ai, urruti-miña, / gaitz senda-eziña,  
baiña ala ere ondo atsegiña!  
Min izkutu orretzek / beti eragiña,  
euskal kondaira doa / itxasoz aitzina.  
Egonak pozik ez du. / Boga alegiña!”*

(Salbatore Mitxelena)

· Badira, eta ez gitxi, urre ta zidarren bila barik, euren ondatsunik ederrena erosten doazanak: gure *misiolariak*. Holantxe, behinola, Xabierreko Frantzisko, holantxe Balentin Berriotxo, ta Igokundeko San Martin, eta Aita Santuak aurten altaretara jasotako kiputz biak, Erkizia ta Aozaraza. Iparragirrek Cernikako Arbolari eskatutakoa beteten joan ziran: *“Eman da zabal zazu munduan frutua.”*

· Gure bertsolariagaz abestu ditue, negarrari eutsi ezinik, Iparragirreren bertso ezagunak:

*“Lur maitea emen uztea / da negargarriya,  
emen gelditzen dira / ama ta erriya...  
urez noa ikustera, / bai mundu berriya:  
oraintxe, bai, naizela, / urrikalgarriya.*

*Agur, nerè biotzeko amatxo maitia!  
laister etorriko naiz, kontsola zaitia!  
Jangoikuak nai badu ni urez joatia  
Ama, zertarako da negar egitia.”*

• Lekurik urrinenetan, gure misiolariak bertako egiten ahale-  
ginduko dira, hango hizkuntza, ohitura, izakera eurakanatzen,  
lekuan lekuko izaten. Baina, bihotzaren gumean, cuskaltzaletasu-  
na, herri-mina ezin anatau, itzali:

*“Egiya, alde guztietan toki onak badira,  
baina biotzak diyo: Zoaz Euskalerrira!”* (Iparragirre)

• Eta halakoren baten, etxerako bidia hartzen badabe, Euskal  
Herrira hurreratzean, ha zelango bihotz-taupadak:

*“Ara nun diran mendi maiteak, / ara nun diran zelaiak,  
baserri eder, txuri-txuriyak, / iturri eta ibayak.”*

Euskal bihotz zintzo batentzat, ez European, ez mundu zaba-  
lean, ez dago lur hoberik:

*“O Euskalerra eder maitea,  
ara emen zure semea,  
bere lurrari muin ematera  
beste gabe etorria...”*

AZKEN ESKARIA. “Gernikako Arbolaren” bertso batzukaz,  
azken bertsoekin amaitu nahi neuke neure berbaldi hau, gure  
gaurko egoera honentzat be egokiak eta berebizikoak dira-ta:

*“Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko,  
eta biotzetikan Jaunari eskatzeko.  
Gerrarik nai ez degu, pakea betiko,  
gure Lege zuzenak emen maitatzeko.*

*Erregutu deiogun Jaungoiko Jaunari  
Pakea emateko orain eta beti:  
bai eta indarra ere zedorren lurrari  
eta bendizioa Euskal-erriari”. (Iparragirre)*

(Damu-otoitzerako: neuk moldatutako bertso biok erabili ncbazan, "Iparragirren bozian").

*Iparragirre Euskal Herriak  
aurten dau pozik goratzen;  
Urkiolako eleiza ere  
soka horretan da sartzen...  
Anai-arrebok batzen,  
maitasunez alkartzen,  
ikasi daigun gaur mezan...  
fede-testigu ta zabaltzaile  
munduan izan gaitезan.*

*"Iparragirren bozian" nator  
senideok agurtzera,  
meza santua behar bezela  
entzuteko eskatzera...  
Apaizaren hitzera  
Jesus gure artera  
dator argi ta bizi lez...  
Pekatoriok, prestau bidea  
damu-negar zintzoenez.*



## JAUNGOIKOAREN MISTERIO SAKONA<sup>9</sup> (ITZULPENA)

### Jaungoikoaren heriotzea eta horren ondoren negargarriak

Ez dozue sekula behinolako zer hau entzun, hako zoro harena. Egun argitan linterna bat ixiotu eta herriko plazara joan zan, deadar baten: “Jaungoikoaren bila nabil, Jaungoikoaren bila nabil?” Han egozantzariko askok eta askok Jaungoikoagan ez eben sinisten-eta, barre-zantzoka hartu eben zoroa. “Galdu egin dok, ala?” esan eban batek. “Umetxu baten antzera, galdu egingo zan!” inoan beste batek. Eta beste batzuk: “Ezkutau egingo zan... Cure bildur izango da... Kanpora joango zan...” Eta danak barre ta burla egiten eben.

Zoroa euren artera sartu eta danai begi-begira, deadarka esaten hasi zan: “Jaungoikoa nora joan dan? Neuk csango deutsuet: Ilil egin dogu, hil, bai, zuok eta neuk hil dogu. Guztiok gara Haren hiltzailc. Bai, baina pentsau daigun: zer egin dogu? Zer egin dogu, hurra bere eguzkiagaz lotuta euken loturak ebagi doguz-eta? Orain, zuok eta ni, nora goaz gu? Ez etc gabiz aurretantza ta atzerantza jausten, alde batera eta bestera jausten? Ba

---

<sup>9</sup> Ignacio Larrañagaren OFMCap., *Muéstrame tu rostro* liburutik hartutako testu-zatien itzulpen libre samarra.

ete dago honezkero goirik eta beherik? Ez ete gabiz, azkenbako ezerezean, hara ta hona galduta? Ez ete daukagu ikaragarritzko hotza bihotz barruan? Ez ete gabiz beti gaupean, ilunetan? Ez ete doguz argiak ixiotu behar egun argitan?"

Isildu zan zoroa eta barriro begitu cutsen bere entzuleei. Honeck be isildu egin ziran, eta harrituta begituten cutsoen zoroari. (*Holantxe berba egin eban Zaratrustak, Nietzsche*).

### **Jaungoikoa, hondo bako itsasoa**

Ilan agertu zan Frantzisko koba aurrean. Ikatz goriak lez argi egiten eban haren arpegiak. Otoitzaldiak haren haragia janda eukan, baina eukan apurrak suaren garrak lez argi egiten eban. Zorion-poza erion haren arpegiari. Eskua luzatu eta esan eustan:

—Hara, Leon anaia, prest zagoz esango deutsudana entzuteko?

Bildurtu egin nintzan. Burutik eginda ete egoan Frantzisko? Nire bildurra igarri eta hurreratu egin jatan:

—Leon, orain artean, izen asko erabili izan doguz, Jaungoikoa zer dan adierazoteko. Bart beste izen batzuk aurkitu dodaz. Jaungoikoa leza bat da: neurtuezina, azkenbako, aseezina, arimeari "Nahikoa dozu!" sekula esaten ez deutsana.

Hurrago etorri jatan, eta beste mundu baten balego lez, barru-barrutik esan eustan:

—Sekula be ez nahikoa! Horixe da Jaungoikoak hiru gau ta egumotan koba barruan esan deustana: Sekula be ez nahikoa! Eta bustinaz eginda dagoan gizontxuak erantzuten deutso: Gehiago ezin dot! Eta Jaungoikoak: Bai, oindino gehiago al dozu.

Sama-zarratua lez egin jakon Frantziskoren abotsari. Erruki handia hartu neutsan. Zorakeriaren bat egingo ebalakoan nengotan. Hasarraturik esan neutsan:

—Eta zer gehiago gura dau Jaungoikoak orain zugandik? Ez ete zeuntsan lepradunari mun egin?

—Ez da nahikoa! —erantzun eban Frantziskok.

—Ez ete zenduan bertanbehera itxi zeure ama, hainbeste maite zenduan amatxu laztana, mundu guztiko andrarik maitagarricna?

—Ez da nahikoa!

—Ez ete zinan lotsagarri gcratu, herri osoaren aurrean biloztu eta erropak aitari emon zeuntsazanean?

—Ez da nahikoa!

—Baina... ez zara ba zu munduko gizonik pobreena?

—Ez da nahikoa! Ez egizu ahaztu, Leon anaia horrek, Jaungoikoa zer dan: Ez da sekula nahikoa. (Nikos Kazantzaki)

Oi, betiko Hirutasun santu hori! Hondo bako itsasoa zara zu: ni barrurago sartu, eta gehiago aurkitzen zaitut; eta zenbat eta gehiago aurkitu, gehiago bilatzen zaitut. Zugaitik ezin guk sekulan esan: Nahikoa! Zure sakontasunean ase ta bete egiten dan arimca, beti dago zure gose ta cgarri, beti zure gurariz. (Sienako Santa Katalina)

## BRASILEN BIZKAITAR BAT GOTZAIN<sup>10</sup>

Joan dan irailaren 29an, gotzain egin dabe Brasilen gure abade bat, Santurtziko semea, Jose Maria Liborio Camino Saratxo. Eleizkizun horretan gure arteko batzuk be parte hartu dabe, Bizkaiko Eleizearen izenean: euron artean, geure gotzain laguntzaile dogun Karmelo Etxenagusiak. Berari eskatu deusguz barri batzuk.

*Brasiletik etorribarri zaitugu. Zertara joan zinan hara?*

Jose Mari Camino gotzain barriaren ordenazinora. Santurtziko semea dogu bera, Derioko Seminarioan hezitzaile izandakoa, eta gero azken 30 urte baino gehiago São Paulon abade lez zerbitzen dagoana. Bere deiari baictza emonez, Bizkaiko gotzain bat egun horretarako hara jotea legezkoa zan.

*Eta zergaitik zeu eta ez beste gotzaina?*

Ba... hara: ni Jose Mariren aldikoa naz, batera ikasi genduan Gasteizko Seminarioan, batera izan ginan Deriokoan irakasle ta hezitzaile; horregaitik, neu joateko eskatu eustan Rikardo gure gotzain jaunak. Ez neukala ezertariko eragozpenik, crantzun neutsan, eta joan be, pozik joango nintzala.

---

<sup>10</sup> *Alkarren Barri*, Bilboko Eleizbarrutiko aldizkaria, 1999-azaroa, 13-15 or.

*Eta joan egin zinan. Baina ez bakarrik.*

Adiskide onak lagun nituala joan nintzan: Jose Mari Delclaux bikarioa eta Iñaki Etxezarraga, —biok São Paulon bertan gotzain barriaren abade lagun izandakoak urte askotan—, eta Felix Artxaga, Durangoko parrokoa. Laurok aspaldiko lagun onak; Iñaki eta Delclaux, ganera, bide-crakusle ezin hobeak. Cero São Paulon Jose Mariren senide ta adiskide batzuk be aurkitu genduzan, eta danon artean alkartasun ederra sortu zan.

*Zelangoa izan zan eleizkizuna?*

Gutziz ederra: ondo gertauta egozan gauza guztiak, hogeï gozainetik gora altaran, Brasileko Nuntzio jauna buru zala. Bilboko eleizcak aparteko lekua izan eban eleizkizun osoan: han egozan lehen aitaturtako abadeok eta, ganera, Brasilen dagozan beste bizkaitar bi: J. Ibarra eta J.A. Losada (Sanz eta Alava, geixorik, ez ziran etorteko gauza izan). Bilboko Eleizearen ordezkari lez, ni Nuntzioaren ezkerrean jarri ninduen, bertako gotzainagaz batera konsakratzaile nagusi nintzala. Iñakik be leku ta eginkizun bereziak izan zituan. Katedrala ganezka eginda egon zan, asteguna izan arren. Benetan harrigarria herriak zelan parte hartu eban kantu eta otoitzetan. Han ez dago, antza, hemengo prisarik: eleizkizuna hiru ordukoa izan zan —arratsaldeko 7etatik 10etara—, baina luzaroago egoteko be hango kristinauak ez dauke eragozpen handirik. “San Miguel Paulista” da Jose Mari Caminoren eleizbarrutiaren izena, eta horregaitik Goiaingeru horren jaieguna aukeratu eben eleizkizunerako (nik gure lurretako “Aita San Migel” be ondo gogoan izan neban, hoba ez!). San Miguel Paulista São Pauloko bazter baten dago. Eleizbarruti hau oso gaztea da: hain zuzen be, aurton ospatzen dauz bere lehenengo 10 urteak. Lurraldeztikia da izan, baina 3 milioi eleiztar ei ditu. Gehienak Iparraldetik oraintsu etorritakoak, lan eta bizimodu bila eta etxe apaletan bizi diran langile pobreak.

### *Zelan aurkitu zenduen gotzain barria?*

Oso ondo, patxada eta ganora handiaz. Guztiz lanpetuta egon arren, ez jakon larritasun handirik igarten. Hain inguru guztian etxeko dabe, 30 urteotan bertako abade lez ezagutu izan dabela-ko. Canera, azken 10 urteotan Bikario Nagusi eta katedraleko parroko izan da. Katedrala bera egokitu eta apaintzeko ardurarik handiena bere lepo ganean eroan dau. Don Fernando Legal bere gotzainak aparteko laguntzaile izan dau, eta izango, gure santurtziarra. Hau be esan dagidan: gugaz hobeto ezincan jokatu ebalu. Berak urten euskun aireportura, gotzain-etxean emon euskun ostantua, eta, hainbeste arduratan itota egon arren, ataraten eban astirik gugaz egoteko, guretzat “txurraskoa” berak egiteko. Ez ekian gugaitik zer egin.

### *Eta zelan ikusi dozu hango herria?*

Ai ene! Hamar eguneko egotaldi labur baten, zelan ezagutu hain handia ta zabala dau Brasil? Guk gehienbat ikusi genduana, geure abadeen lantokia izan zan. Orain dala 30 urte inguru, hainbat abade joan zan Bizkaitik São Paulora. Gehienak, luzaroan lan egin eta gero, barrero bihurtu ziran gure artea. Beste batzuk oraindino Brasilen jarraitzen dabe abade-lanetan: J. Ibarrek São Pauloko uri barruan, J.L. Alavak eta J. Sanzek, alboko Mogi das Cruces deritxon urian, J.A. Losadak Belho Horizonten... Sanz eta Ibarra-ren parrokiak ikusi genduzan, haita gure abadcen beste eleiza batzuk be. Badira, ganera, São Paulon beste lau bizkaitar, bertan abade izandakoak eta gaur be, beste bizimodu baten, Eleizcaren laguntzaile onak diranak: I. Campo, J.J. Gracia, I.M. Unzueta, J. Zumalde. Laurak ikasle izan nituan behinola Derioko Seminario-an. Ondo baino hobeto hartu ginduczan euren etxeetan eta borondaterik onenaz lagundu euskuen hara ta hona ibiltzen hango bide luze ta itoetan. Ordu onak emon genduzan alkarren ondoan. Unzueta “Coral Anchicta” abesbatzaren zuzendaria da, eta bere taldea izan zan abeslari nagusi katedraleko eleizkizunean.

### *Eta Brasileko Eleizca?*

Azal-azaletik ikusi dodana esaten ez naz ausartuko: Eleiza bizia da, nire ustez, hainbeste arazo larriri erantzun guran bide barri bila dabilena. Arazo batzuk aitatzekotan, horra hor edonon agiri diran bi: bata, geroago ugariago diran behartsuak; eta bestea, sekten propaganda ikaragarria. Erantzuna emoteko orduan, ez dirudi eleiztar guztiak cretxi batekoak diranik: batzuk, “askapen-teologiaren” bidetik “alkarte txikiak” ugaritu ta sendotzeari ckin nahi deutsoe; beste batzuk, ostera, sekta ugaricn indar handiari custeko, “barrizatze karismatikoaren” bidetik jo dabe. Jokabide ezbardin biok indartsu agertzen dira, beharbada alkarricrasoteko arriskuaz. Itxaropen-iturri bat, leku batzuetan, bokazino barricn loratzca izan leiteke. Azken egunean, San Miguel Paulistako Seminario Nagusian egon ginan, Nuntzioagaz eta bertako gotzain biakaz: meza nagusia eta bazkaria. Harrituta geratu nintzan ikusirik 60 abadegai daukezala Seminarioan. Ez da gehiegi, hango premia handietarako, baina gure arteko urritasuna kontuan izanik, ez da gitxi.

### *Orain dala urte gitxi Angolan izan zinan, orain Brasilen...*

Bai, halan da. Eta bietan, gauza bardinerako: adiskide biren gotzain-ordenazinarako. Angolan, Luis Mari Pérez de Onraita, arabarra, Malanjeko gotzaina; Brasilen, Jose Maria Camino, San Miguel Paulistakoa. Biok kurtso berekoak, neure aldikoak Seminarioan. Ordenazino biak, zein baino zcin cderragoak, ahaztu ezinak: luzeak, bai, (Caminorena, 3 ordukoa; Onraitarena, 5 ordukoa! Malanjeko baltzen dantzak eta kantak ez euken azkenik), kristinau herriarentzat guztiz pozgarriak. Bai Angolan eta bai Brasilen oso nabarmena da jenterik gehientsuenaren pobretasun negargarria; baina Angolakoa larriagoa, sinistu be czinezkoa. Zenbat bidar jatortan gogora cgunotan Malanjeko gotzaina! Bere azken eskutitzean esaten eustanez, han dago bera, bere herriaren ondoan beti, azkenik bako gerra zitalaren ondoren negargarriak

jasaten: bonbak, tiroak eta, batez be, gosea, gosc anker eta hiltzailea.

*Turismo apurren bat be egingo zenduen, horraitino.*

Bai. Harunzkoan, Rio de Janeiron emon genduzan egun bi eta erdi, uri ospetsu honen edertasun ugari eta zoragarriak ikusten: Corcovado, Azukera-Ogia, plaiak, katedral zahar eta barria, eleizak eta kaleak... Maracan futbol-zelaira be sartu-urten bat egin genduan: agure baltz batek ondo baino hobeto emon euskun zelai horren barri. Gure Athletic zer eta zelakoa zan be polito ekian, eta baita gure Zarrak zein atetan sartu cutsan Inglaterrari hako gol entzutetsual! Beste leku eder batzuk ikusteko be izan genduan deia, baina astirik ez, zoritxarrez. Hurrengo baten izango al da..., bizi bagara.



## AMERIKAN, “EUSKAL ARTZAINEN” ARTEAN...<sup>1</sup>

Dakigunez, gure gotzain laguntzailca, Karmelo Etxenagusia, Ipar Ameriketara izan dogu aurtengo udan, hango euskaldunen artean. Ikusi ta egindakoaren barri eskatu deusagu *Alkarren Barri*-ren irakurleentzat.

*Antxina ez dala egon zinan Ameriketako “artzainen” artean. Zer galdu jatzun han, barriro be hara joateko?*


Caldu... ezebez. Baina zor bat neukan Boiseko euskaldunekin, eta “zor zaharra, zor txarra” dan ezkeru, zorra ta biok zahartu orduko, zor hori ordaintzea nahi izan dot.

*Zor hori zein zan jakin ete geinke?*

Ez dago ezer isildu beharrik: orain dala urte bi, ni hara joan nintzanean, Winnemucca (Nevada) izan zan orduko euskal jaiaren bihotza, hantxe ospatzen zalako NABOren batzar nagusia (Erakunde horrek Ipar Ameriketako Euskal Etxe guztiak batzen ditu). Hango euskaldunen *apez* arduraduna dan Martxel Tillousek dei eginda joan nintzan orduan Winnemuccara; eta, bide batez, beste Euskal Etxe batzuk be ikusi nebazan lau Estadutan.

---

<sup>1</sup> *Alkarren Barri*, Bilboko Eleizbarrutiko aldizkaria, 2000-urria, 24-26 or.



Petaluma-San Frantzisko (Kalifornia), 1998ko ekainean. Euskaldunekaz mezea.

Boiscko euskaldunen artera be joan nintzan, eta eurontzat meza bat be emon neban, uriko elciza baten, astegunez. Orduan esan custen: “Eskerrik asko, gure artera etorri zarcalako. Zcu zara Euskal Herritik hona etorri dan lehenengo euskal obispoa. Baina, behin etorriko eta astegun buru zurian? Zer da hori? Guk ez ete dogu gehiago merezidu? Erdu, mesedez, hemendik urte bira, guk hemun *Saniñazioetan* handikiro ospatu ohi dogun Jaialdi ederre-  
ra. Guretzat poz handia izango litzateke, jai horretako meza nau-  
sia zeuk emongo bazendu, bertoko gotzainagaz batera.”

*Eta zuk baietza emon, zeuntsen.*

Emon edo, hobeto csateko, emonarazo egin eusten: udea zala, oporretan egongo nintzala, euskaldunak —eta, batez be, bizkaita-  
rrak— ikusi gura banebazan, orduantxe hatzen dirala Boisen ingu-

ru guztietako gure herritarrak; urteroko jaia ederra izaten bada, bost urterik behin ospatzen dan Jaialdi hori zoragarria izaten dala... Osasunak laguitzen baeustan, joateko ahalegin guztiak cgingo nituala agindu ncutsen, eta eurak cz dira ahaztuta egon: hango gotzain barriak, Aita Tillousek eta Jaialdi 2000-ko batzordeak hainbat bider eskatu deuste joateko eta joateko, eta joan cgin naz.

*Oraingo honetan laguna be eroan dozu.*

Bai, eta guztiz ona: Mikel Urresti abadea, Misinoen Arduraduna gure eleizbarrutian, neure herritarra. Lehengo ibilaldian argi ikusi neban adiskide baten laguntasuna mesedegarria dala atzerrian ibilteko. Ondo baino hobeto konpondu gara, eta Mikelek eta biok adiskide onak egin doguz Ameriketako hainbat lekutan.

*Meza ederra Jaialdikoa?*

Ederra, benetan, ahaztu ezina: Boiseko katedralcan, zapatu arratsaldeko zazpiretan, uztailaren 29an, eleizea ganezka eginda, bero galantagaz, Boiseko gotzaina, Michael Driscoll jauna, buru zala, ingelesez eta cuskeraz, beste hamarren bat abadek be parte hartzen ebela altaran (eleizgizonon artean, lau bizkaitarrak ginan). Ingelesezko zatiak Boiseko gotzainak zuzendu zituan, jakina; baina zatirik gchienak eta behinenak —berbaldia be bai— neuri itxi custezan, cuskeraz cgiteko. Boiseko euskaldunen abesbatzak abestu eban mezea, eta dantzariak be parte hartu eben, ganoraz egin be. Ha lako meza ederrik emon cte zan aurton gure Euskal Herri osoan San Iñazioaren omenez? Beste hau be esan beharra dago: meza horretan batu zan dirua (2.800 dolarretik gora) neure eskue-tan itxi eban Boiseko eleizeak, Bizkaiko ume behartsucndako.

*Mezemoileen artean, lau bizkaitarrak izan ei zinien. Euron izenak jakin geinkez?*

Hoba cz! Juan Mari Caratea, lekcitiarra, ia 40 urte luzetan Idahon abade dagoana; Juantxu Zarragoikoetxea, aulestiarra,

gaur Lezamako parrokoa, han hainbat senide ta herritar daukana; ganera, aitatutako Mikel Urresti eta biok.

### *Besterik zer egin zenduen Idahon?*

Jaialdiko zer batzuk ikusi, batez be bariku arratsaldean uriko teatro baten egindakoa. Ilango euskal dantza, kanta, bertso eta abarrek jente guztia ahoa zabalik itxi eben. Australiatik etorritako euskaldun bik autortu eusten, denpora guztian negar eta negar egon zirala, barruko pozari eutsi ezinik, aspaldiko ordezkari ikusten eta entzuten ebena sinistu ezinik. Boiseko Euskal Etxe ondoko kalea euskaldunei eskaini deutse, eta haxe be bedeinkatu neban. Hainbat hartuemon pozgarri izan genduzan bertako gotzainagaz, leku askotatik etorritako hainbeste euskaldunegaz eta hemendik joandakoekin. Zoritxarrez, eguraldia beroegia zan, eta hango jentetza handia (50.000 inguru, guztira), batera inon sartzerik ez egoan; gu, ganera, ez ginan Boisen bertan bizi, handik 40 kilometrorra dagoan Nampan baino, euskaldun batzuen etxean, Frank eta Helen Berriarenean.

### *Turismo apurren bat egiteko astia be atarako zenduen, horraitino.*

Egia esan, bide batez hainbat gauza ikusgarri ikusi dogu: gure artzainak ibilitako mendiak (Stanley eta Sun Valley, Idahon; Ruby Mountains-eko Lamoille, Nevadan; Neguko Joko olimpiarrek ospatuko diran Utah-koak...), Salt Lake City eta San Frantzisko uri dotoreak, Simplot Company-ren 120.000 buruko aberetegia Idahoko Grand View-n, 8.000 esne-behiko korta itzela Kalifornian, urre-meatze handi bat Elko ondoan, Monterey eta Carmel Misinoa Kalifornian, eta abar. Ikusitakoa ikusi eta gero, hobeto jabetzen gara non eta zelako bizimodu gogorraz aurrera egin daberen gure artetik hara joandako euskaldun "artzainak". Gaur gehienak polito baten bizi badira be, han inok ez ei deutse ezker erregalau, egin dabena euren nekez eta izerdiz egin ei dabe.

*Amaitzeko, beste zer bat: zelan ikusi dozu hango erlijinotasuna?*

Amaitu daigun, bai, bestelan zeri ekin badaukagu. Hara, egun gitxitan hainbeste lekutan ibili naz eta, ezin nik gehiegi esan. Hemen go antzera, han be danerik izango da. Baina gure eleizkizunetan jenteak polito parte hartzen izan dau, euskal abadea asko maite dabe (gelditu barik dabil gure Martxel Estadu batetik bestera, hainbeste deiri erantzun ezinik) eta ez leuki galdu gura; eguneroko kristau bizimodua bakotzak bertako eleiztan egin ohi dabe, euskaldun asko parrokietan aurrengo arduradun dirala. Uste dot, gchien baten, Ameriketan gure artcan baino "erlijino" gehiago dagoala gaur, hau da, euren erlijinoa autortzeko lotsarik ez dabela agertzen eta Eleizcari edozetan laguntzeko prest dagozala. Baina han be gazteria Eleizatik urruntzen ei doa, bokazinoak asko urritu dira, eta ezkontzako sakramentuak sendotasun handirik ez ei dauko.

*Eskerrik asko. Hurrengoan gehiago.*



# GABON ETA ASTE SANTUKO MEZUAK

## BAKEAREN URTE SANTUA<sup>1</sup>

Anai-arreba maiteok: Urte zaharra be bajoaku. Zelangoa izan dan? Hori bakotxak berak baino ez daki. Batzuentzat ona, besteentzat txarra; danetik eukiko eban, harenbaten, guztiontzat. Ekarri deuskuzan onakaitik, Jaungoikoari eskerrak emon deioguzan; txarrakaitik, eta, batez be, geure erruz eta kulpaz etorri jakuzanakitik, bere errukia eskatu deiogun zeruetako Aita onari.

Gabonzahar arratsaldeko meza hau Urte Barri egunekoa da, eguna eleizearentzat bezperatik hasten da-ta. Eta Urte Barri eguncan Eleizeak Andra Maria Jaungoikoaren Ama ekarten deusku geure bihotz-begien aurrera. Baina, azken urteotan, beste asmo ta gurari bizi bat be agertuten deusku: Bakarcena. Aita Santuak urtero egiten deusku dei zoli bat "Bakearen Egun" honetarako; aurten be bai, benetan dei ederra ta gogoangarria; eta, gugandik hurrago eta Aita Santuaren berbak argituaz, Donostiako eta Bilboko gotzainak, alkar hartuta, beste dei bat egiten deuskuc egun honetarako.

Hauxe dinosku Aita Santuak: "Bakea gizon guztien goi-guraria da. Bakea beharrezkoa da. Bakea betebchar bat da. Bakea mesedegarri da. Mundua bakerako egina dago."

---

<sup>1</sup> Berbaldia Gabon Zahar arratsaldeko mezan, Ariz-Basaurin, 1973-12-31.

Baina ikusten doguna eta munduaren bake-egarria, alkarren aurka dagozala dirudi. Alde batetik Gabon-deia entzuten dogu: "Bakea borondate oneko gizonei"; baina, geuk be uste izan dogu, beharbada, bestetara dala; Aita Santuaren berbak eurak erabiliaz, "gizonak bere bihotzean daroala anai-arteke burrukarako jokerea".

Holan ta guzti be, bakea lortu daiteken gauzea dala sinistutera behartuta gagoz; honetaraxe bakarrik lagunduko dogu, geure ahalegin osoaz, bake hori egiten, irauarazoten eta egunerik egu-nera sendoagotuten geure artcan.

### **Bakea geure gain hartu behar dogu**

Gutariko bakotxa bake-egile izan daiteke, danon artean eta bakotxak siniste hau sortuten badau: zuzentasunean oinarritutako bakearen alde egin behar da; baina gutariko bakotxa bake-hondatzaile be izan daiteke, maitasunaren eta bata-bestcaren begirunearen kalterako diran eretxi ta jokabidecakaz, eta lagun hurkoaren eskubideen aurka jokatuz.

Oker gagoz, bakea emon edo kendu egiten deuskuela uste badogu, guk geuk horretan zerikusirik ez bageunko lez. Argi be argi dinosku Aita Santuak: "Bakea, daitekera da, gutariko bakotxak bakea maite badau, bere pentsakerea bakean hezi ta eratu-ten badau, bakearen alde ahalegin guztia egiten badau".

Geure hartuemon guztietan egiaren, zuzentasunaren eta maitasunaren alde lan egiten dogun neurrian, geu be bake-egile gara. Ostera, egirik eza, zuzentasun eta maitasunik eza, berehalaxe eztabaidak eta burrukak sortuten ez badabez be, bakearen aurka-ko dira berez. Guztiok izan geintekoz, ezkutuan, bake-hondatzaile, egiaren, zuzentasunaren eta maitasunaren aurka jokatzen badogu.

Horixe gogoratzen deusku Aita Santuak: "Gutariko bakotxak entzun behar dau bere bihotz-barruan dei zorrotz hau: "Bakea zcure eskutan be badago!". Berba astunak dira Aita Santuaren berbok, eta ezin guk curoi entzun-gor egin!



## **Bakea ez da gogorkeriaren fruitua**

Gizonen artean ordena zuzena jarteko bide ziuerra ta bakarra gogorkeria dalako esana, guk ezin onartu daikogu. Gizonak beste bide batzuk bilatu behar ditu bakerako.

Bakea ez da sekula gizonakana etorriko, indarra ugaritzetik bakarrik, nahiz Estaduen nahiz taldeen indarra izan hori. Bakcak bide bakar bat dauko: geure gogo-bihotzen aberastasuna, hau da, zuzentasuna maite izan eta jagotca, baina, egian, askatasunean eta maitasunean. Horregaitik dinosku Aita Santuak, bakea ez dala *makaltasuna*, ezta benetako eskubidea ta zuzentasun arteza alde batera ixtea be.

## **Bakea zuzentasunaren fruitua da**

Gure kristinau fedcak gizon guztiei eta bakotxari euren balioa emoten lagundu deusku, gizon bakotxagan Jaungoikoaren seme bat ikusi behar dogu-ta. Guk ezin geinke ontzat hartu, gizonaren nahi herrien aurrcapidea, gizona diruaren zein politikearen tresna lez erabiltetik datorrela esaterik. Nolan jokatzca eta, bide batez, gizon guztiok anaiak gareala esatea, geure egiteakaz berbaz dinoguna hondatzca izango litzateke.

Horregaitik dinosku Aita Santuak: “Orainsu ospatu dogun Gizonaren Eskubideen Agiriaren XXVgarren urtebetetzeak gauza bat dakarsku gogora: benetako bakea gizonaren duintasuncan oinarritu behar dala, eta hortik hausi-ezineko eskubide ta betebeharrak sortzen dirala”.

“Lege zuzenari eta legezko aginpideari men egitea ontzat hartuko dau” bakeak, dino Aita Santuak. Hain zuzen be, agintariak horixe egin behar dau: lege zuzenen bitartez guztien laguntasuna lortu, guztionak diran eginkizun eta arduetarako. Eta ganera, beste hau be egin behar dau: guztien onaren aurka dabilzan indarretatik herria jagon.

Beste alde batetik, gizonaren oinarritzko eskubideak aintzaketat hartu behar dira benetan, eta habestu euron erabiltea;

horregaitik, herritarrei politikan eta gizartean parte hartzeko jokabideak eskaini behar jaketz, gogorkeriazko burrukak kendu gura badoguz: holako burrukak, nahi ta nahi ez, zuzentasun-asmoak hondatu egiten dabez, eta, eurokaz, gizona bera be bai.

### **Bakerik eza pekatutik dator**

Hau holan dala, kristinauok Jesukristogan ikusten dogu gizonen Salbatzailea, gure bakearen egile benetakoa. Bera da gure bakea, pekatutik askatu eta gizon guztiok alkarren anai-arreba egin gaitu-ta.

Hauxe da egunokaz Gabon-misterioaren aurrean ikasi doguna.

### **Urte Santua eta bakea**

Gaur hasten dogun Urte Barri honek bakearen urte santua izan behar dau. Lehenengo ta behin, eta hainbat arinen, Jaungoikoagaz egin behar doguz bakeak; baina, Ebanjelioak berak dinosku, altara aurrera geure oparia ekarri aurretik, anaiagaz be bakeak egin behar doguzala.

Baina ez dogu bakerik egingo, geure bihotzetan benetako maitasun eta parkamen-asmo sendoa sortuten ez badogu; gorrotoak, ikusiezinak eta mindurak alde batera itxiaz.

“Zeuon gotzain lez dinotsuegu: gertau zaiteze bakearen Urte Santu hau ondo ospatuteko; eta itxaropen bat be eskaintzen deutsuegu: salbamena ez dator geure gizon ahaleginetatik, goitik baino; eta goitik datorren salbazino horrek anaitasuna ta bakca gchitu egingo ditu gure artean.

Gaur Jaungoikoaren eta geure Ama lez ospatzen dogun Andra Mariari eskari hau egin deiogun: bata-beŕtca benetako anai-arreba lez hartu ta maitatu daigula!

Guztioi, urte barrirako geure guraririk ederrenakaz batera, Jaunaren berbak esaten deutsueguz: Bakea izan daitela zuokaz.”  
(Gure gotzainaren berbak)

—Andra Mariak Eleizeari bakea eta batasuna emon deiozala.

—Andra Mariak, Bakearen Erreginak, gure herriari ta mundu osoari benetako bakca lortu deiola.

—Gure artetik eta herri guztietatik guzurra, gorrotoa, indarkeria, askatasunik eza aldendu daitezala.

—Urte zaharra Jaungoikoaren erukian amaitu eta barria bere bakean hasi daigula.

## ADISKIDETU, BAKEAK EGIN!<sup>2</sup>

Anai-arreba maitoek: Gaurko berbaldi honetan gure Aita Santuaren dei zoli bat aitatu gura neuskizue, labur-labur bada be.

Zuotariko askok ikusiko zenuen Paulo Vigarrena, Gabon gabea, Urte Santuko atea zabaltzen. Urte asko ta astunak bizkar ganean, ardura handiak bihotzean, pausoa narras samar, baina gogoa ta bihotza beti bizkor, gure Aita Santu honck sekulako aha-lerinak egiten ditu Eleizea bide zuzenetik eroaten.

Oraintsu oindino, Ama Sortzez Garbiaren egunean, dei luze ta bizi bat egin deusku eleiztar guztioi, Urte Santuaren asmo nausia zein dan erakusteko.

*Adiskidetu* gaitezala, *bakeak egin* daiguzala!: hauxe da Aita Santuaren asmo nausia, egarririk biziena. Jaungoikoagaz adiskidetu, lehenengo, gutariko bakotxa, Beragana bihotzez bihurtuz eta barru-barrutik barriztauta; eta bata-besteagaz be adiskidetu, geure artean be bakeak egin.

Cabon-jaiotan, Barri On bat entzun dogu, albista pozgarri bat emon jaku: Jaungoikoak, Jesukristoren bitartez, adiskidetu egin gaitu gizonok Beragaz, Bere erruki neurribakoak eraginda.

Baina bake hau, adiskidetasun hau, ez da geuretzat bakarrik: geuk be zabaldu egin behar dogu, gizon guztiei eskaini behar

---

<sup>2</sup> Berbaldia Begoñako basilikan, 1974ko abenduaren 30ean.

deutsegu Jaunaren doe haundi hau. Kristogan adiskidetuok mundu guztiaren adiskidetzaille izan behar dogu; Jaunagaz baketuok, mundu guztira zabaldu behar dogu bake hau.

Gure Aita Santuak, esan deutsuedan dei horretan, Eleizea bera dauko, batez be, begien aurcan; eta, beste ezer baino lehenago, Elcizearen barru-barruko bakca lortu nahi leuke.

Zergaitik? Ez ete dabiz ondo eleiztarren arteko hartuemonak? Ez ete daukagu bakcrik geure artean?

Paulo Vigarrenaren berbak, maitasun beroak eragindako berbak, garratzak be badira. Nahiago izango leuke berak holarik ez aitatutca, aitatu beharrik ez eukitca. Eta bardin dino-tsuet neuk be orain; baina Aita Santuak, gauzca ikusten dauan lez agertuten deusku, eta inok baino hobeto daki berak Elcizearen barri. Arrisku handi bat ikusten dau gaur eguncan, han-horhemen:

—Arrisku hori Elcizearen barruan dago.

—Hainbeste seme-alaba zintzoren aldean, oso gitxi dira okerreko bidetik dabilzanak.

—Gancra, Elcizearen barruan iraun nahi dabe, baina Eleizearen batasuna barrutik haustekotan.

—Euron jokabidea, eleiz agintarien aurka doa: esanik egiten ez dakic.

—Elciz artzainen salatzaile dira, baina ez hau edo hori, holan edo halan egin edo egiten dabelako, ez; eurak dinoenez, elciz artzainok, Kristok nahi ez eban sistema baten zaindaria direalako baino eta beste barik.

—Elciztarren artean nahastea sortzen dabe holakoak, eta baita Kristok nahi ez dabon burrukea be.

—Ebanjelioko berbak erabilten dituez, baina berbon esagurea aldatuta.

Arrisku honek min haundia emoten deutso Aita Santuari, baina, San Pauloren antzera, adore haundiz jokatuko ei dau berak beti jokabide kaltegarri honen kontra. Halanda guzti be, otoitz egiten dau beti euron alde, eta bihotz-bihotzean ei daroaz.

Eta kristinau guztioi be dei hau egiten deusku: ez gaitetzela bildurtu, ez daigula okerreko bidetik hartu, zoritxarrez okerreko bidetik dabilzanon eraginez.

Eta, horrezaz ganera, azken Kontzilioaren berbak bereganatuz, argi ta garbi autortzen deusku: Kristoren Eleiza bakarra Eleiza katolikua dala, Pedroren ordezkioak eta Beronegaz bat eginda dagozan Artzainak zuzendua, nahiz eta Eleiza katolikotik kanpora be santutasun eta egi-zati asko egon.

Azkenean, esandakoak esan ondoren, eskari bero-bero bat egiten deusku Eleizcaren seme-alaba guztioi: Elcizea maitatu, jarraitu eta egin daigula, San Agustinen berbok geureganatuz: "Maitatu egizue Eleiza hau, iraun egizue Elciza honetan, Eleiza hau izan zaitze".

Nire berbokaz ez dot inor salatu nahi izan, Aita Santuaren gogoia betetan ahalgindu baino. Bide zuzenetik bagabilz, esker-rak emon deioguzan Jaungoikoari; okerreko bidetik jo badogu, zuzenera etorri gaitzean. Eta Jesukristo bihotz-bihotzez maite badogu, here emazte garbi ta maitagarri dan Elciza Ama be bihotz-bihotzez maitatzen ikasi dagigun.

Zeure eskuktan jarten doguz gure gurariak, eskari bihurtuz, Jesusen eta Eleizcaren Ama zaitugun Andra Maria, Begoñako Ama on-ona!

## BAKEAREN ALDE<sup>3</sup>

Sarrera:

Anai-arreba maiteok:

Ez da niretzat gauza erreza gaur zuoi berba egitea. Zergaitik holan? Hara: alde batetik, hainbeste gauzari ikutu gura neuskio gaur lango arratsalde gomutagarri baten, eta ezin gura dodan guztia ezelan be csan, aspergarri ta luzcegi izan ezik. Bestetik, ostera, ondo dakizue guztiok zelango egunak direan gure aspaldiko egunak: eguraldia bera hotza, iluna ta gogorra bada, bihotzetan be ez daukagu aspaldion beste gauzarik: bildurraren dardarea, alkarren arteko aitu-czinak, bata besteaganako berba garratz eta zorrotzak, nahiz ta atzo bertan errukiaren argi-izpi batek gure bihotzetan poza ta itxaropena biztu. Ez da, ez, gauza erreza, honango eguncetan zuzen, argi, zintzo, egoki, berba egitea, ezta entzutca be. Parkatu, ba, aurretiaz, guztion gogoko ez banaz. Eta jakizue, nire gurari bizia hauxe baino besterik ez dala: danon bihotzetan kristau egiaren argia ta itxaropena zabaltzea.

### **Urte zaharrari agur, Begoñako Amaren aurrean**

Aspaldiko ohiturca edo ekandua ei da, bizkaitarrok eta, batez be, bilbotarrok, Gabon Zahar arratsaldean Begoñara igotea,

---

<sup>3</sup> Gabon Zahar arratsaldeko mezan berbaldia, Begoñako Basilikan, 1976.

Andra Mariari agur egiteko. Ohitura ederra benetan. Ez ete dogu egunokaz, bestetan baino biziago, geure etxe barruko gozotasunaren egarria sentiduten? Ahal dogun guztiok, geure etxean ospatu gura izaten doguz honango jaiak, aitaren eta amaren ondoan, geure anai-arreba ta senideakaz bat eginda. Horregaitik, kristinau bihotzak horixe berori eskatu deusko beti fededunari: Amaren ondora joateko, Andra Mariaren aurrean aztertuteko laster amaituko dan Urte Zaharra; eta, hori azertuaz batera, eskerrak emon, parka eskatu, asmo barriak sendotu, laguntza barria eskatu. Txalogarria, bai, zuen ohitura eder hau; aurtan legez, urte askotan iraua dagiala!

### **Andra Maria, Jaungoikoaren Amaren jaieguna ospatzea**

Gaurko Ebanjelioan entzun dozuenez, Jaungoiko gizon egina Andra Mariaren besoetan aurkitu eben artzainak; eta, Ebanjelioak beste leku batzuetan dinoskunez, hortxe —Andra Mariaren beso bigunetan— aurkitu eben, Jesusegana hurreratu zirean guztiak: Santa Isabelek eta Joanek, Maguak, Simconek eta Anak. Izan be, umetxu batentzat non leku beroagorik eta egokiagorik, bere Ama maitearen besoetan baino? Eta begira zer dinoan Ebanjelioak: Mariak bere bihotz barruan gordetan zituala artzainen berba harrigarri guztiak. Zer esan gura deusku horrek? Andra Mariak misterio bat hausnartuten ebala beti: bere sabeleko frutua, bere besoetako Umetxu hori nor eta zer zan, zetarako gizon egin zan. Eta horixe gura dau Eleizeak be guretzat: Umetxu horregan Jaungoikoaren Semca ikusi daigula, Jesus gure Salbatzaile bakarra.

Jesus izenak horixe esan gura dau: Jaungoiko Salbatzaileca. Izan be, gizonok ez daukagu beste Salbatzailerik: ez Ihen, ez gaur. Alper-alperrik gabilz, gure askatasun osoa, gure salbamen betea beste nunbaiten edo beste norbaitegan bilatu gurcan bagabilz. Eta bai atzo, bai gaur, eta bai bihar eta beti (Eleiza Amak argi ta garbi irakasten deuskunez), Jesus gure Salbatzaile hori aurkituteko biderik ziurrena, laburrena, gozoena, badakizue zein



dan: bere Ama, Jaungoikoaren eta geure Ama maitea, Begoñako Andra Maria. Horregaitik, Urte Barriko Mezea bezperatik ospatzen dogula, Eleizcak Beroni, Jaungoikoaren Amari, eskaintzen deutsu Urteko lehenengo eguna. Eta geuk be, Gabon Zaharrez eta Urte Barriz, eta geure bizitzako egun guztietan, Beroni eskaini behar deusguz geure bihotzak: geure pozak, negarrak, usteak eta makaltasunak, itxaropenak eta beharrianak. Ez gaitu Berak, ez, sekula bertanbehera itxiko.

### **Bakearen aldeko eguna**

Amaituteko, beste gauza bat be aitatu behar dogu. Azken urteotan Aita Santuaren gurariz, Urte Barriko lehenengo egunean *bakea* erabili behar dogu gure otoitzetan, gure asmoetan. "Bakearen aldeko eguna" da hau. Eta, nik esan beharrik ez dago, guztiok dakizue, ondo baino hobeto, bakerik eza zer dan, eta bakearen preminca ze gorria dan gure artean egunotan. Gure artean eta mundu osoan. Halan dinosku Aita Santuak. Bere berbak aitatuکو deusuedaz, laburtuaz:

—Mundu osoa hondatu eban gerrearen ostean, zabaldu zan halako bake-gurari bizi bat; baina, 25 urte igaro ta gero, zer ikusten dogu? Hor-hemen, gerrak bizi-bizi, sekula osatu ezin daitezkezan zauri handi batzuen antzeko, geroago ta handiago egiteko arriskuan. Gizonak, geroago ta gogorrago, alkarren kontra, gizarte, arraza edo erlijino-erraziakaitik. Barriro biztu dira atzoko demoninoak: dirua beste edozeren ganetik; makalak oinazpiratu; gorrotoa lege eta giza-mailen arteko burrukea; nazino artean eta barruan, gerrak beti; nor gehiagoka, harrokcriaz beterik; "ni neu ondo, ta besteak hor kupon"; torturak eta terrorismoa; lege-zapaltzea ta indarkeria, surik onenak eurok balira lez, baina hortik etorri leiteken kalteari jaramonik egin barik. Bakea, zer? Batak bestecaren indarrari ta armai deusden bildurretik datorren zer bat baino ez; eta, norbaitek zorakeria bat egingo baleu, guztiok bildur baten. Zer da hau? Nora goaz? Zer dabil

txarto edo zer falta jaku? Gauzak bertanbehera itxi? Ez ete dago ezer egiterik?

—Aita Santuak baictz dino. Ezin nik hemen Haren berba guztiak aitatu: Bakeak baditu cragozpenak, enbarazuak; baina bakea aurrera doa, behar-beharrezkoa dogu. Gizonok batasunera goaz; eta batasuna ta bakea ahiztak dira, askatasunak batuten baditu. Alkarregaz bizi gaitезan; geure arteko hartuemonak ugaritu daiguzan; bata-besteaz arduratu gaitезan.

Baina, batez be, *gizona*: gizonaganako *maitetasuna*, adiskidetasuna. Egiazko bakearen oinarriak: zuzentasuna, gizonaren duintasunari zor jakon lotsea ta begirunca, guztiok bardinak gareala jakitea, gizon guztiok anaiak garcala autortutea. Hau da, edozein gizonenganako errespetoa, maitasuna: gizon dalako ta beste barik. Edo, beste berba eder honegaitik: anaia dogulako. Neure anaia, geure anaia. Hauxe da gure deia aurtengo Bake-Eguncrako: “Gizon guztiak neure anaia dira”.

Eta, gaur gizonen jakituriak gailur honetaraino igon badau, guk, fededunok, beste gozotasun bat emon gcinkio ganera: Kristo gure Maisuak esandako berbak: “Zuok guztiok anaia zarie”; eta beste hau: “Beste gizonak zeuoi egitea gura dozuena, egin zeuok be horixe berori beste guztiai: hauxe da profeten legea ta irakatsia”. Guztiok anaia gara, zeruetan Aita bakar bat dogulako. Ezin gcintcekez altarara hurreratu, geure anaiakaz bakeak egin barik. Bakezale ta egile bagara, zorionckoak gara.

Hauxe da gure fedeak emoten deuskun argia, indarra, eragina.

Eskatu deiogun grazia hau Bakearen Erregina dogun Begoñako Amari, eta bere aurrean, bihotz barru-barrutik, agindu deiogun: geure berba, asmo ta egite guztietan bakezale izango garcala, alkarren anai-arreba izango gareala. Eta Urte Barriak Urte Zaharrak baino egun zoriontsuagoak ekarriko al deutsoz gure Herri honeri eta mündu zabalari.

## ZORIONA TA BAKEA GUZTIONTZAT<sup>4</sup>

*Aurreko urteetan lez, aurtengo Gabonetan be gure gotzainak euren agurra ta deia egiten deuskue Bizkaiko kristinauoi. Hemen dogu geure aurrean Karmelo Etxenagusia, gure gotzain laguntzailea. Beronek azalduko deusku ondoen zer esan gura deuskuen gure gotzainok. Egun on, Karmelo, eta ondo etorria barrero be Bizkaia Irratira.*

Egunon, bai, Irratiko lagun guztioi eta Bizkaiko gure entzulei. Egun on eta Zorionak.

*Zer da gotzainok esan gura deuskuzuena?*

Lehenengo ta behin, Gabon jaiak jai handiak dircala danontzat: era batera zein bestera, gure inguruan danon bihotzetan sortzen dira egunotan maitasuna ta anaitasuna, poza ta zorion-egarria, alkarrentzako gurari on eta samurrak, behartsuakanako bihotz eta esku zabalagoa. Hori danori ondo dago, ondo baino hobeto, eta ez dogu galdu behar, bestelan gure kulturearen alderdi ederrenetariko bat galduko geunke. Baina, horrezaz ganera, fededunok, ikuspegi zabalagoa ta begirada sakonagoa dogu jaiotan; guk, isilik eta guztiz harriturik, misterio handi bat adoratzen dogu: Jaungoikoak bere Seme bakarra bialdu dauala mundura,

---

<sup>4</sup> Bizkaia Irratiak alkarriketa, Gabonetan, 2000. urtean.

eta bere Seme hori Ama Birjinearen bitartez sortu eta jaio jakula Belenen, orain dala bi mila urte. Urtero ospatzen dogu hau, baina aurton aparteko indarraz, amaitzear dogun Urte Santuan.

*Eta ze opa deutsezue gotzainok gure kristinauei eta gure Herriari?*

Lau gauza, beste guztien ganetik.

*Hasi gaitzan lehenengotik.*

Lehenngo ta bchin, hauxe: aurtengo Gabon jaiok apalez, barruko poz handiz, eta geure eguneroko arazoetan geldiuinc bat eginez ospatu daiguzala, eta Belengo misterioak argi barriaz lagundu deizula geure bizitzako alderdirik behinenak zeintzuk direan ikusten.

*Hori lehenengoa. Eta bigarrena?*

Salmo baten berbok erabilten dauz Eleiza Amak egunotan: "Zu neure Semea zara, Neuk sortu zaitut gaur". Jaungoikoa aparteko Aita da Jesus Umcarentzat, baina, Jesusi esker, geure Aita be bada, ama baten bihotz samurra dauan Aita maitagarria. Hortik gauza bat ikasi behar gcunke: edozein gizon eta emakumeren duintasuna ta handitasuna aintzat hartzen, edozein umetxu Jaungoikoaren antz eta iruditzat eta Jesusen anaiatzat hartzen. Jaungoikoa alde batera itxi dauan gure gaurko gizarte honek ez etc dau galdu, hibe batez, umeak maitatzea, gaixoak eta zaharrak behar dan lez estimatzea?

*Hirugarren gauza bat be aitatzen dozue gotzainok: familia.*

Bai. Gabonak familian ospatzeko egun berebizikoak dira. Jesus Umetxua familia baten jaio zan. Inoiz izatekotan, Gabon jaiotan doguz gogo-bihotzetan geure etxckoak: aitarene eta amarene ondoan batzen gara, urrin bizi diranakaz hartuomonean jarten gara, bestetan baino sakonago agertzen jaku familia ondo alkar-

tuaren gozotasun paregabea. Horregaitik, gaur galzorian dogun familia estimatu, jagon eta sendotu egin behar dogu danon artean; apurtuta eta descginda dagozan familien hur-hurrean egon, maitasunez, eta benctako familiaren balio handien alde jokatu, gaur izen horren azpian sartu nahi diran beste sasi-familiak ontzat hartu barik. Sendia da, izan be, gure gizartearen oinarririk sendoena, fededunontzat "etxe barruko cleizea" be bai, fedemintegirik ziurrena.

*Goazen laugarrenera. Zein da?*

Gure anai-arrebarik behartsuena gogoan eta bihotzean aintzat hartzea, oraintsu gure Caritasek gogora ekarri deuskunez. Josek eta Mariak ez eben ostaturik aurkitu Jesus Umearentzat. Gaur be hainbat eta hainbat dagoz, geure artean be, horren antzera. Jaiotan zelan ez gogora ekarri umetxuak, txiroak eta gaixoak, curen hizitzarako sentidu-bila dabilzan hainbat gazte, lanpostu barik dagozan guztiak, nok lagundu ez dauken zaharrak, bakarrik eta itxaropen barik bizi dan hainbeste lagun...

*Hori da guztia, ala beste zeozertxu be esaten dozue gotzainok?*

Belengo aingeruek artzainei esandako berbak gogora ekarriz, geuk be harri on bat emon gura deutsegu elciztar guztiei, Eleizbarrutiko Bigarren Ebangelizatzeko-Egitariaren haritik: Belenen jaio zan Jesus horixe dogula gure Salbatzailea, Berorregan bete jakuzala Jaungoikoaren agintsari guztiak. Gure Gabon-kanta eder batek dinoskunez: "Mesias sarritan agindu zana, aingeru artian dator gugana: Gloria zeruan, bakea hemen..."

*Eta aurtengo mezu eta dei honetan bakerik ez dozue aitutzen?*

Иоба ez! "Bakcaren Eguna" Urtebarriz ospatzen dau Eleiza Amak eta geuk be holantxe egingo dogu. Horrezaz ganera, Euskal Herriko gotzainok dei zolia egin deutsegu geure elciztar guztiei,

bakearen alde otoitz eta lan egin dagien. Ekitaldi honen gailurra datorren urtarilaren hamahiruan izango da, Gasteizen: hantxe batuko gara, Naparroa, Gipuzkoa, Araba ta Bizkaitik etorritako mila fededun, guztiok bat eginda gure Herri maite honentzat bakea eskatzeko, bakearen alde batera otoitz egiteko, bakezale ta bakegile izateko adore ta kemen barria geuganatzeko. Hantxe ikusi nahi zaituegu ahal dozuen guztiok, hotzaren, euriaren zein edurraren bildur barik, bakeak horrenbeste ta gehiago merezidu dau-ta.

*Besterik ez zuen mezu horretan?*

Bai, otoitz labur bat, gure Aita Santuak egina eta Andra Mariari zuzendua:

“Ama, zuk ondo dakizu zeintzuk diran Eleizearen eta munduaren min eta atsekabeak, baita itxaropenak be; lagundu zeure seme-alaba guztiei euren eguneroko arazoetan. Salbazinoaren Egunsentia zaitugun Horren eskuetan jartzen dogu gure bidea, milanario barrirako bide zuzena; Zcu zuzendari zaitugula gizon-emakume guztiok aurkitu daigun Jesukristo, munduaren argia ta Salbatzaile bakarra”.

*Otoitzari “Amen”; zuri, Karmelo, eskerrik asko ta zorionak. Eta hurrengo batera arte.*

## GABONETAKO ONDASUNAK<sup>5</sup>

### **Zoriona, osasuna ta bakea:**

hona hemen egunotan alkarri opa deutsaguzan ondasunik ederrenak,  
neuk be zuotariko bakotxari  
bihotza betean opa deutsuedana:  
bakea, osasuna ta zorion betea.

Cabon-jaiak dira, izan be;  
eta triste egoteko ta negar egiteko mila errazoe egon arrcn,  
poztu gaitzezan, poza ta alaitasuna erein eta zabaldu daiguzan,  
geugandik hasita, alde guztietan.

Barrero entzungo al doguz aingeruaren berbok:

"Hara, poz handi baten barri dakartsuct,  
poz handia herri guztiarentzako:  
gaur, Dabiden urian,  
Salbatzailea jaio jatzuela, Mesias Jauna..."

Horregaitik aurton be abestu daigun:

*"Kanta dagigin danok, / Hau da egun alaia,  
Jesus jaio da-eta, / kanta: Aleluia!"*

---

<sup>5</sup> Gabonetako mezua, Bizkaia Irratiaren bidez, 2002. urtean.

Izan be, bete dira abendu luzeetako agintsariak,  
bete dira iragarritako denporak eta aldiak:

*“Epea bete zanean,  
Jaungoikoak bere Semea bialdu euskun,  
emakume bategandik jaioa.”*

Cure cleizetan aspalditik kantetan dan lez,

*“Mesias sarritan agindu zana  
aingeru artean dator gugana.”*

Harrezkero, Gabonak,  
gure artean negu ilunaren bihotzean ospatu arren be,  
Argia dira fedcedunontzat. Hori dala-ta, kanta daigun:

*“Argiak argiz bete gaitu, / Salbatzailea jaioko jaku”.  
“Aleluia! Egun pozgarri, egun santua  
guri argitu jakuna!  
Etorri hona, herriok, eta  
gurtu egizue Jauna:  
argi handia zerutik behera  
jatsi jaku gaur lurrera, Aleluia!”*

San Joanen ebanjelioko berba sakonok be iragarriko jakuz:

*“Jaungoikoaren Berboa (Berbea) zan  
mundura datozen guztiak argitzeko benetako argia.  
Argiak ilunetan argi egiten dau,  
baina ilunak ez eban hartu.  
Hartu eben guztiei, barriz, —Haren izenean sinisten dabenei—,  
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emon eutsen.”*

Hementxe dago fedcedunontzat Gabon-misterioaren bihotza,  
gure itzaropen pozgarriaren iturri garbi eta agortu ezina.

\* \* \*



Gabon-jaiak Familia be badira,  
 etzeko guztiok, ahal dala, aitaren eta amaren ondoan batu  
 —“*Hator, hator, mutil, etxera, aitaren t'amaren ondora*”—,  
 eta alkarren arteko maitasun sendoa sakonagotzeko ordu eta egun  
 gozoak;  
 gaur alde guztietatik hain astindua ikusten dogun sendia da, izan be,  
 herriaren oinarririk sendoena,  
 fededuncen “*etxe barruko Eleizea*”.  
 Hau holan dalako,  
 jaiotan inoiz baino gehiago doguz gogo-bihotzetan  
 gure etxean falta jakuzanak:  
 hain hutsune handia itxi deuskuen hildako maite-maiteak,  
 curen etxe ta herritik urrun bizi diranak,  
 ospitaletan eta espetxetan dagozanak,  
 bananduta aurkitzen diran senar-emazteak,  
 curen gurasoakandik aldendu ziran umcak,  
 eta, hoba ez, gorrotoaren amenazupean  
 bizimodu garratza daroen guztiak.  
 Belengo eta Nazaretoko Familia Santuak emongo al deusku guz-  
 ttoi  
 gure familiak kristinau fedean eta maitasuncan alkartuago ikus-  
 teko grazia.

\* \* \*

Bakca be badira Gabon-jaiak:  
 “*Gloria zeruan, bakea hemen,  
 kantari aingeruak dagoz Belenen...*”  
 Urtcbarri eguna, Bakearen eguna dogu azken urtcotan.  
 Hain preminazkoa dogun bakea  
 izan bedi gure betiko cgarri aseezina,  
 gure bihotz barruko gurari bizia,  
 Bakearen Erreginea dan Andra Mariaren bitartez etenbako eskari  
 sutsua,  
 gure eztarrietako irrintzi zorrotza,

Jaungoikoak bere Seme Jesusegan eskaintzen deuskun docrik  
cderrena

eta gure eguneroko ekinaren eta ahaleginen frutu gozoa.

Bakca geugan, gure buru-bihotzetan;

bakea, baita, gure etxe ta auzoetan,

gure herrian eta mundu zabalean.

Ez, horraitino, cdozelango bake ustela,

lau oinarriok sendo daukazana baino:

egia, zuzentasuna, askatasuna eta alkar maitasuna.

Bai, adiskide, entzule maite, zuretzat, eta guzticndako,

bakea, osasuna, zoriona, ondasunik maitagarrienak,

Gabon-jaiotan eta gancan dogun Urte Barrian.

## BARIKU SANTUA, GAUR<sup>6</sup>

Bariku Curen, Barixaku Santu, Jaunaren Nekaldiko Ostiral Santua.

Geugaz batera, mundu zabalean, era askotara, milioika kristinauk Jesusen Nekaldia, Kristoren Kurutzeko Heriotzea ekarten dogu gaur gogo-bihotzetara, esker onez beterik, eta ospatzen dogu geure eleizkizunetan, Kurutze-Bideetan.

Bera daukagu bihotzaren erdi-erdian: Nazaretoko Jesus, Mariaren Semca, Galileako Igarlea. Heldu jako ordua: Aitagana joateko ordua. Eta, bere bizitza guztian lez, azkenengo ordu honetan be, Aitaren horondatea gogorik sutsuenaz beteko dau, bere maitasun neurribakoa erakutsiaz: "Aita, ez bedi egin nire borondatea, zeurea baino!" Kristinau zintzoak Jesusen Nekaldiko gorabehera guztiak ekarten ditu gogora gaurko egunean: hasi Getsemaniko ortuan eta Kalbarioko tontorreraino, Jesusen ondo-ondotan egon gura dau, bere Jaunari lagun egiten, maitasunez eta esker onez, fedearen argitara. Eta, Jesusen neke-minak bere gogo-bihotzetan hausnartzean, sinismenak berarizko sakontasuna emoten deutse Pasimoko joan-etorri, neke, irain, oinaze, kurutze ta heriotzeari:

---

<sup>6</sup> Bilbo Herri-Irratian mezua, 1981.

—“Jaungoikoak bere Semcari ez eutsan parkatu” —dinosku Jaunaren Berbeak, San Pauloren ahoz—; “gu guztion alderako heriotzara emon eban!”

—“Jesukristok maitc izan gaitu, eta, bere odolaz, gure peka-tuetatik garbitu gaitu.”

—“Kristo gugaitik menpeko egin zan heriotzaraino, kurutzeko heriotzaraino gero!”

\* \* \*

Baina gaurko egun hau ez da antxinako Nckaldi bat gogora ekarteko bakarrik. Gu ez gara atzera begira bizi. Jesusek Berak erakutsi deusku misterio sakon baten argi barria: gaur bertan, geure ondoan, edozein preminatan, edozein neke-minetan aurkitzen dan bere “txikiotako bategan”, Jesus Berbera daukagu Nckaldia igaroten. Hau ez da geuk asmatua: argi ta garbi dago hau Maisuaren berbetan, eta, hain zuzen be, hauxe izango da, azken eguncan, epai-gaia edo juizioko hari nausia: Zuk zer egin deustazu Niri? Zer ez deustazu egin?

Horregaitik csan eban hain ederto fededun sakon batek: Mundua mundu dan artean, Kristo hiltzorian, agolinan, daukagu.

Egi eder honen argitara zuzendu deuskue gure Euskal Herriko gotzainak aurtengo Garizumako deia: “Behartsuak Elcizeari deadarka!” Behartsuak, preminan daukaguzan anai-arrebak, horra hor Kristo biziaren aurpegia gure artean.

Eta, holako bakotxagan, Jesusek barriro bizi dau bere Pasi-noa:

·Barriro dago, Getsemaniko ortuan, lurrean luze etxunda, etsipenak eta tristurcak bihotza janda, ezetarako gogo barik, dandanak bertanbehera itxita, hiltzainoko barruko burrukan: holantxe gaur, gure artean, hainbeste zahar, seme-alabak bazterrean itxitako guraso, ezkontide laztana galdutako alargun, guraso bako umezurtz, lagunik bako bakarti. Gure euskal poeta batek esan euskunez:

*“Olatuak hondar tristean  
ahaztu daben txirlea baino tristeago.”*

·Eta Judasen mosua, laztan traidorea. Zenbat “Beti-beti maiteko zaitut” gozo ahaztuta; zenbat zintzotasun-berba janda; zenbat maitemindu bihotza zaurituta, amesik gozoenak garrastuta, biziteko poz barik. Bai, gure olerkariaren antzera:

*“Bihotzeko gaztelu zaharrean  
kantsazinoaren hauts grisa dago.  
Amaraunak leihoetan.  
Nik maitatu ditut,  
nik desira ditut,  
nik laztandu ditut,  
nik gozatu.  
Nik gozatu nituen...  
gero  
nik madarikatu.  
Zelan engainau nintzan,  
desesperazinozko irribarrez  
konfesatu behar dot.” (J. Azurmendi)*

·Eta zauriak, eta heriotzea. Zigorkadak, erruki bako azoteak, gorputzari ohostutako odol baltzitua: buruan indarrez sartu deustoen arantza zorrotzezko koroia; kurutzcan josi daben untze zorrotzak; agolina osteko azken arnasca ta heriotzea.

Eta gaur Kristo neke-minez ondo ase ta betea: espetxeetako tratu txarrak eta torturak; gizonak gizona, anaiak anaia, aurretiaz eta hotz-hotzik zelatan egon ondoren, defentsarako astirik emon barik kale bazterrean nahiz kale erdian tiroka hiltza (eta zenbat holako heriotza aspaldion gure Euskal Herri kurutzera hone-tan!); min biziak nahiz edozein gcixok ohean josita eta aienaka daukazan hainbeste lagun. Bai, holako bakotxagan, Kristo agolinan dago gure artean, gure noiz lagunduko zain.

·Eta ez daiguzan ahaztuta itxi lehengo fede gozoa galdu dabenak edota sekula euki ez dabenak: iges egindako ikasleak, Emauserako bidean goibel doazanak: “guk uste genduan, baina...” bihotz barruan garratz hausnartuaz. Ez dira gitxi gure artean —eta gazteak, batez be— gure olerkariagaz bihotz-bihotzez dinocnak:

*“Bakarrik nago nire fedean”*

Caur, Bariku Santuz, Kristori begi-begira (orain bi mila urte hil zanari; oraintxe bertan geure ondoan neke-minetan dagoanari), geure ezaren eta ezinaren leza sakonetik, geure itxaropenak adoreturik, geure fede argi-ilunaren pozetan, behin eta barriro esan daigun Eleiza Amagaz:

*“Zure kurutzea gurtzen dogu, Jauna,  
eta zure Biztuera santua goresten:  
Kurutze honen bidez etorri da poza mundu guztira.”*

*“Kurutze, Zeu poz bakarra,  
Pasino-aldi honetan;  
gehitu zintzoen grazia,  
gaitza kendu gaiztoengan”.*

Eta, euskal olerkari fededunagaz esango dogu: *Heriotza garratza da (II, 121)*

\* \* \*

Jesusen kurutzaren ondoan, gure negar eta nahigabcen ondoan, emakume bat, Ama bat dago beti: Jesusen Ama, geure Ama; errukizko ama; martirien erreginea, Ama Doloreetakoa; Jesusegaz batera, gure bizitza, gozotasun eta itxaropena.

## ZUZENTASUNA ALA ERRUKIA?<sup>7</sup>

Entzule maiteok: Jaungoikoak egun on! Urtero izaten ei dira Bilbo Herri-Irratian Garizumako edo Aste Santuko berbaldiok, eta aurten neuri eskatu deuste mesede hau egiteko. Hemen naukazue, ba, barriro be zuen ondoan, borondaterik onenaz argitu, poztu eta adoretu gurarik. Baina ez dozue neure berbarik entzuingo: ez neuke holakorik egin gura. Berbaldiotako haria ta jostorratza ez dira neurcak izango, Jaungoikoarenak eta Eleizearenak baino. Ni josla edo jostun baten antzekoa izango naz, eta ziur nago, behin baino gehiagotan ez dodala jakingo jostorratz eta hari horreek patxadaz eta ganoraz erabilten, baina beste honetan be ziur nago: zuek nire borondate ona ikusita, parkatuko deustazuela.

Eta beste barik, goazen harira.

Eguen Santu gaba zan. Afalostea. Jesusek, berbaldi luze ta gozo haretan, hainbeste bider aitatu cutesen ikasleei Aitaren izena. Aitaren izen gozo samur hori ezin eban, antza, ezpanetatik kendu. Eta, halakoren baten, badinotso Felipek: “Jauna, erakutsi eiguzu Aita, eta nahikoa dogu”. Badakizue zein izan zan Jesusen cran-tzuna: “Horrenbeste denporan nago zuekaz, eta oindino ez nozue czagutu? Ni ikusi naueñak, Aita ikusi dau!”

---

<sup>7</sup> Bilbo Herri-Irratian, 1982, Aste Santuko berbaldia.

Jaungoikoa espiritu hutsa da, eta, horregaitik, ikusi-ezina, ikutu-ezina. “Jaungoikoa ez dau egundo inok ikusi”: berbok ez ditu esan fedebako batek, ez; San Joan Apostoluarenak dira. Baina Apostolu beronek eskaini deusku, bere Ebanjelioan, lehen aiatu dogun Jesusen erantzun sakona: “Ni ikusi nauanak, Aita ikusi dau”.

Jaungoikoa nor dan, zelakoa dan jakiteko biderik onena, ziu-rena, badakigu zein dan: bere Seme Jesukristo. Berak esana da: “Ncu naz Bidea”. Hau holan dala, nire berbaldiotan, Jaungoikoaren berba santua izango dogu beti gidari ta argi-emoile, eta, batez be, Jesusen berbea. Gure Jaunaren berba honen lagungarritzat, gure Aita Santuaren entziklika edo agiri bat be erabiliko dot sarritan.

Aita Santuak, Joan Paulo bigarrenak, entziklika luze bat eskaini euskun, orain urte bi, izenburu honegaz: “Dives in misericordia”, hau da, errukiz aberats. Errukiz aberats dogun hau badakizue nor dan: Jaungoikoa.

“Erruki hutsa dogu Jauna, errukia ta maitasuna”, entzun dogu salmo-kanta honetan. Horixe da guretzat gure Jaungoikoa: errukia ta maitasuna.

Aita Santuak, lehenengo orrietan, hara zer dinoskun: gaurko gizon askok ez dabela aintzat hartu gura errukiaren Jaungoikoa; ez hori bakarrik: errukiaren izena ta izatea bizitzatik eta gizonaren bihotzetik kendu egin gura dabela. Gaurko gizonak ez dauala *errukirik* gura:

—Alde batetik, gaur gizonak, bere jakintzaren bidez, aurrerapide ikaragarriak cgin ditu, eta mundu osoa bere menpean jarri dau. Jauntasun honek ez ei deutso lekurik ixten errukiari. Gaurko gizona errukarri? Ez horixe, hori baino harroago dabil munduan zchar iretargiraino heldu dan gizona!

—Beste alde batetik, errukia barik, zuzentasuna (justizia) eskatzen dau, eta zelango garrasiz eskatu be, gaurko gizonak: gizon bakotxak, giza-mailak edo klaseak, herriak, gazteak, emakumeak, langileak, dan-danak ez dabe, edo ez dogu, *zuzentasuna*



baino besterik eskatzen: gure eskubideak aintzat hartuak izan daitezala. Gcure-geurea dana eskatzen dogu, ez inok limosnatzat emondakoa!

Aita Santuak oso egoki darabil lehenengo puntua: gaurko gizonaren egocrea. Hainbeste bider eta lekutan aitatu deusku berak gai hau. Egia da, bai, aurrerapide handiak egin dituala gaur gizonak; orain hogeï-hogeta bost urte sinistu be ez genduan egin-go holakorik:

- Gizonaren buru argiak eta eskuetako lanak aldakuntza itzelak lortu dabez jakintza eta teknika-mailetan, gizarte eta kultura-bizitzan.

- Gauza guztien jaun eta jabe egin da gizona, eta bere mcnpetan dauka egindako dana.

- Gizonak eta herriak alkarregandik hurrago bizi dira, eta gcroago ta argiago ikusten dogu mundu guztiaren batasuna eta alkarregazko hartuemon eta zerikusia.

- Orain artean lortutakoa horren harrigarria bada, aurreran-tzean lortu leitekena zer eta zenbaterainokoa dan, nok esan?

Badirudi, bai, alde horreri begiratu ezkerro, gaurko gizonak badaukala zegaz harrotu, ez jakula *errukarri* eta inoren laguntza-beharrean agertuten.

Baina hori ete da dana? Ez ete dauko gaurko gizon honek beste alderdi bat be? Baietz dinosku Aita Santuak, azkenengo Kontzilioari jarraituz. Artega ta bildurtuta agertzen jakula gaurko gizona, eta ez errazoi barik:

- Herrien arteko bakea bildurrak baino ez dau gaur jagoten, zaintzen. Badakie munduko nazinorik handienak zenbaterainoko indarra dauken euren eskuetan: arerioak bakarrik ez, mundu osoa hondatzeko besteko indarra ta gehiago. Eta, jakina, bildur dira, arerioak hondatzean, euren buruak be ez ete dabezan batera hondatuko... betiko! Zoro baten edo gaizto baten eskuetan ei dago mundu osoaren eta gizon guztien ctorkizuna. Gure jakituria eta aurrerapide guztiak hara zetara ckarri gaituen!

· Beste bildur bat: gizon bakotxa, herri osoak, beste gizon bazuen eta herrien menpeko bihurtu daitezke oraingo aurrerapideak. Alperrik da, aho beteko berba koipetsuz gizonaren eskubideak ezin gorago jasotea, gero gizon askok eta askok, hainbeste herri zoritxarrekok, inoren menpetik urten ezinda bizi behar badabe. Hau holan dala ikusteko ez da begietan argi handirik behar!

· Gizonak bere bihotz barruko askatasuna galtzeko bildurra be badauko gaur: egia autortuteko, bere fedea agertu ta zabaltzeko, norbere kontzientziari jarraitzeko hainbeste eragozpen jarten deitsoz gizonari gaurko munduak.

· Eta beste har bat be badauko barrua jaten gaurko gizonak: zer gura ta haxe dauken herri banaka baten ondoan eta alboan, ez zer janik, ez zegaz jantzirik, ez beste holakorik ez dauken hainbeste ta hainbeste lagun eta herri bizi dala munduan! Sekula baino garbiago ikusten dau gaur gizonak, dan-danok bardinak garena; baina egundo baino ezbardintasun nabarmenagoak agiri dira gizonen eta herrien artean.

Berba baten esateko, *errukia* aitatu deion gura ez dauan gizon honek, badauka zegaz harrotu, bai; baina baita zegaz eta zergaitik bildurtu eta artega egon: alde batetik handi agertuten jaku, baina bestetik txiki, petral eta errukarri!

\* \* \*

Jaungoikoa, Jesukristogan, *errukiaren Aita* lez agertuten jaku. Baina, esan doguez, gure aldi honetan, gizon askok eta askok, *errukia* alboratu, eta *zuzentasuna* nahi dabe, lortu gura dabe lehenbailehen.

Cuk, kristinauok, zeren alde egon behar dogu? Errukiaren alde, ala zuzentasunaren alde?

Sarritan egiten jakuz horren antzeko itaunak. Erantzuna hau-xe da: bion alde. Errukia ta zuzentasuna; edo, nahiago badozu, zuzentasuna ta errukia: Biak alkarregaz, ez bata bestea barik.

Honetan be luze ta sakon berba egiten deusku gure Aita Santuak:

• Lehenengo ta behin, Eleizea bat datorrela gure aldiko gizonakaz zuzentasun-gurari hori bereganatzen, zabaltzen, indartzen, gizonaren hartuemon guztietarako zuzentasuna eskatzen. Hone-tan, aspalditik, Elcizeak eten barik eskatu dauala zuzentasuna, gizonen artean bake sendoa egon daiten. Zuzentasun barik ez dago gizarte onik. Kristinauok, puntu honetan, aurrenengo jokat-u behar dogu beti: gizon lez eta fededun lez. Ez deigula inok arpegira jaurti: “Bai, kristinauok errukizko egintzak egiten dozuez, baina zuzentasunaren alde ez dozue zirkinik egin gura!”

• Baina zuzentasuna, behar-beharrezko eta alboratu ezinez-koa bada be, ez da bera bakarrik nahikoa gizonarentzat eta gizar-tearentzat. Zuzentasun hutsa erabilten danean, errezt sartzen dira bitarteko beste indar gaizto batzuk: gorrotoa ta gogorkeria. Behin baino gehiagotan, zuzentasunaren izenean, lagun urkoa oinperatu egiten da, hil be bai; askatasuna ukatu egiten jako, gizonaren eskubiderik behinenak kendu egiten jakoz. Lehen eta gaur iku-siak argi dinosku, zuzentasuna, bera bakarrik, ez dala nahikoa, gizonen hartuemonetarako: maitasuna behar dauala lagun, mai-tasunaren koipe gozoa behar-beharrezko dauala.

Gaurko gizon honen barru-barruko preminci erantzun egokia emoteko, horra hor non dogun Jesukristok erakutsitako Jaungoi-koa: “errukiz aberats dan Aita”, “erruki hutsa dogun Jauna, erru-kia ta maitasuna”.

Hauxe da, Jaungoikoa lagun, bihar erabiliko dogun gaia.

## URTE SANTUKO PAZKO DEIA<sup>8</sup>

*“Kanta dagigun danok,  
hau da egun alaia!  
Kristo biztu da eta  
kanta ALFLUIA!”*

Anai-arreba maiteok: Barruko pozari cutsi ezinik,  
gure Eleiza Amak ez daki ze berba erabili  
eta mila eratako kantuari ckingo deutso,  
Pazko Gaubela ederrean hasi eta Pentckoste jai handirarte.  
Bere poz garbia sartu nahi dau  
bere seme-alabon gogo-bihotzetan  
Pazko jaiotan:

*“Kanta, Eliza; kanta, zeru-lurrak,  
kanta, biziak eta hildakoak!”*

Kristo gure Jaunaren biztuereak  
danontzat ekarri daualako itxaropenaren argi pozgarria:

*“Kristo, munduaren pozbide,  
Aitaren argi eder;  
bedeinkatua, munduari zure diztira  
zabaltzen deutsan eguna”.*

---

<sup>8</sup> Bizkaia Irratiaren bidez egindako deia, 2000.



Iurretan, jaioterrian omenaldia, gotzain egin barritan, 1995eko abenduaren 3an.

Bai, Pazko-egun guztien artean,  
Jaunaren Eguna da, domekea, dominica dies,  
zapatuaren ordeztu kristinauok geure egun santutzat eukiko doguna:

*“Hau eguna, hau, Jaunak egina,  
gure poza ta gure atsegina”.*

Bart, Pazko Gaubela zoragarrian,  
Kristo biztu zaneko gau santua goratzen eban Eleizeak:

*“Hau da gaua,  
Kristo, heriotzaren kateak hausirik,  
hilen arteatik garaile urten ebanekoa.  
Hau, bai, benetan, gau zoriontsua:  
beronek bakarrik jakin zutuan  
Kristo hilen arteatik biztu zaneko garaia ta ordua.  
Hau gau santua:  
gorrotoak uxatu, bakea sortu  
eta haundikiak menperatzen dituan gaua!”*

Gaur goizean be Eleiza Amaren poz-atseginak ez dauka neurririk:

*“Gugaitik hil-eta  
Kristo biztu da-ta:  
Aleluia, aleluia!  
Danok alai kanta: Aleluia!”*

Garizuma luzean isilik gordeta euki dogun “Aleluia” kanta alaiak  
bazter guztiak beteko dauz orain Pazko-jai luzcan  
bart abadcaak, herri guztiaren aurrean,  
hiru bider abestutako “Aleluia” pozgarriak.

Eta kanta honegaz batera,  
hor izango doguz Pazko-zorionaren ezaugarri,

jantzi zuriak, bateoko ura,  
 danon begien aurrean jarrita dagoan Pazko-zuzi ederra, loraz  
 apaindua,  
 eta, batez be, eta danen gainetik, Eukaristia,  
 Pazko Misterioa bete-betean  
 gure artean gaurkotzen dauan  
 sakramenturik bikainena,  
 Eleiz bizitza osoaren iturria, gailurra eta bihotza.  
 Eukaristia ospatzen dogun baktotxean,  
 meza-emoileak eta herri fededunak  
 aho batez autortuko dabe:

*“Hau da sinismenaren misterioa!  
 Hil eta biztu zarala, Jauna,  
 Zu barriz etorri arte,  
 hau dogu, hau, barri ona”.*

Urte Santu bercezi honetako Pazkoetan  
 goratu daigun Hirutan Bakarra dan Jaungoikoa:

*“Gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri,  
 ahuspez agur, eskerrak Zuri...”*

Esker onez goratu daigun Jesus Jaun Berbiztua.  
 —“Victimae Paschali laudes inmolent christiani”—  
 eta biztu ondoren beti ahotan eukan “Bakca”,  
 Berak bakarrik emon leiken bake hori  
 eskatu deiogun gure bihotzentzat,  
 gure familia eta herriarentzat.  
 Euskal Herrian Aberri-Eguna ospatzen dan domeka honetan,  
 gure herri maitea zatituta,  
 aldendu ezineko indarkeria zitalez gogait eginda,  
 benetako bake-egarriz ikusten dogu.

Jesus Jaun berbiztuaren ikasleok  
bakezale eta bakegile izan gaitzala aspertu barik:  
gogoz, inorentzat gogo txarrrik ez,  
mihinez, inori minik ez;  
egiaren eta alkar maitasunaren armak baino erabilten ez doguzala,  
Bakearen Erreginea dan Andra Mariaren bitartez  
Jaunaren doerik ederrena eskatu daigun:  
bere Espiritu Santua,  
gure zahar eta geixoen, gure behartsu ta espetxeratuen bihotzetan  
itxaropenaren argi gozoa zabaldu dagian.

*“Hil eta biztu zarala, Jauna,  
sinisturik gagoz egiz.  
Gaur misterio bizigarri hau  
ospatu nahi dogu berriz.  
Kristaua beti argitu bedi  
zure Pazkoaren argiz”.*

Zorionak, adiskideok, eta Jaunaren bakca bego beti zuekin.



# JARDUNALDIETARAKO GAIAK

## JESUSEN BARRI ONA GAURKO MUNDUAN<sup>1</sup> (GOGO-JARDUNETAKO GAIAK)

### I. Eguna

#### 1. Sarrera

—Abestia.

—Agurra eta otoitzerako deia. Espiritu Santuari eskaria  
(*Gora Jainkoa*, 152 zk.)

—Nire asmoa: Gaurko Elcizearen preminarik larriari eta  
dei zoliar jaramon egitea, Aita Santua eta geure Gotzainak bide-  
erakusletzat harturik, azkenengo Kontzilioaren bidetik.

Bide batez, gure gaurko Euskal Herri maitca bihotz-bihotze-  
an eta begien aurrean dogula.

#### 2. Gaurko Eleiza Amaren preminarik larrienak

—Aita Santuak, eguaztenetako berbaldietan, sarri egin izan  
dau itaun larri hau: Zer behar dau, batez be, gaurko Eleizeak?

---

<sup>1</sup> Billbon, Santiago katedralean eta Karmengo elcizan emondako gogo-jardu-  
netako gaiak, Garizuman, 1976.

—Igaz, dakizue, Urte Santua ospatu genduan, eta Urte Santu honi helburu bikotxa jarri eutsan Paulo VI.ak: Barriztatzea eta bakeak egitea (betiko helburuak!)

—Aurten, Urte Santua amaitzerakoan, beste dei bat egin deusku: Maitasunaren zibilizazioa. (Euskal abestia: “Ez, ez dut nahi / ez, ez, ez, / ez holako zibilizaziorik!”).

—Ikusten dogunez, Paulo VI.ak *maitasuna* ikusten dau gaurko munduaren eta Eleizcaren preminarik larricna lez.

3. Ez da oraintsuko asmoa ta ardurea: Kontzilioan bertan ondo ederto agertu euskun hauxe berau Paulo VI.ak:

• “Gauza handia, benetan, Eleiz Batzar nagusi hau!” (hiru-lau aldiz)

• “Cure ardurarik biziena: Espiritu Santuak Eleizeari zer esaten deusan entzutea; Espiritu Santuaren deia entzutca; Espiritu Santu horri gure bihotzetan maitasunaren sua ixiotuten ixtea, maitasun hori gure jakituria bihurtu daiten: Jaungoikoagandik datorren maitasuna, Jaungoikoagana doan maitasun bihurtzen da.

• “Maitasun-jokabide honexek izan behar leuke Kontzilioaren ezaugarria. San Agustinek hain argi esan euskunez: “Ezer be ezin dogu ondo-ondo ezagutu, aurretik ondo-ondo maite ez badogu”.

4. Bihar-etziko gizonak azken Kontzilioaren aurcan egingo dabon itauna ta crantzuna: “Zer egiten eban Eleizeak Kontzilio denporan?” Izan bedi crantzuna: “Maitatu!”

5. Maitasun horren arpegiak edo alderdiak:

5.1. • Jaungoikoagandiko maitasuna: “Cure erlijino guztiz eder hau ez da gizonok asmautakoa, Jaungoikoak berberak crakutsia baino. Eta hãra zein dan gure erlijinoaren mamina edo guna: Jaungoikoak, gure Aitak, bere Seme eta gure anaia dan Kristoren bitartez, maitasuneko hartuemon harrigarria sortu dauala gizon guztiekin, Espiritu Santu bizi-emoileagan”.

· “Nos credidimus charitati!”: Guk maitasunari sinistu deusagu, guk maitasunean sinisten dogu!

5.2. Eleizea bera, fedcaren batasunean eta neurribako maitasunean eregia:

· “Gaurko gorabeheren nahaste honetan; bihar-etzi sortu leitezkean gorabeheren artean; gizonak euren artean gaur eta bihar hasarreak eta burrukak sortzen dituezan aldi honetan; herriak, nahi ta nahi ez, batasunerako bidean doazen ordu honetan, guk, fededunok, gauza bat ikusi gura izan dogu (Kontzilioan), gauza bat agertu nahi izan dogu geure begien aurcan: *Geure batasuna*, guztiok Jaungoikoaren sendi edo familia eta eleiza, Kristoren Gorputz Mistiku egiten gaituan batasuna; alkar ikusi, alkarregaz batu eta bata-bestearen anaia lez sentitzeko beharrezana geunkan, alkarreri maitasuneko lastana emoteko premia bizia; berba baten esateko: *Kristok gu maitate izan gaituanez, geuk be alkar maitatzeko beharrezana.*”

· Maitasun hori zelan agertu dau Eleizeak Kontzilioan:

a) *Artzain-bihotzez* maite dau Eleizeak: “Maite nozu? Zaindu nire ardiak!” Eleizearen oinarria maitasuna da, eta Eleizearen agintaritza bera be maitasuna da!

b) *Mixiolari-bihotzez* maite dau gaurko Eleizeak: benetako katoliko danak apostolu izan behar dau; eta apostolu-gurari bizi horrek ez dauka neurririk: gizon guztiak, arraza guztiak, herri guztiak, gizamaila guztiak; maitasun horrek arerioak eurak be barruan hartzen ditu, eta danon alde geure bizia emoteraino bultzatzen gaitu.

c) *Ekumeniko-bihotzez* maite dau Kontzilioko Eleizeak: bihotz zabalez, apalik, bihotz beroz: geure kristau anai-arreba guztiak, oindino Eleiza Katolikoaren batasun betetik aldentuta egon arren be.

5.3. Gizadi (Humanidade) osoarentzat da Eleizearen maitasuna:

a) Eleizea ez da bizi bere buruaz harrotuta edo itsututa, bere buruari bakarrik begira, beste inoren ardura barik Jaungoikoaren

Herrian sartu barik dagozan hainbeste ta hainbeste gizonaz ahaztuta.

b) Ez, ez da hori holan. Gure batasunaren kinu zorrotza dan *maitasuna* ez da gizonakandik aldenduten, maitasun horrek ez gaitu geurekoi edo cgoista itsu bihurtzen. Guztiz bestela baino: Jaungoikoagandik datorren maitasuna da-ta, gizon guztiakana zabaltzen gaitu. Gizon guztien arduradun gara, danen morroi edo zerbitzari. Elcizea, mundu honetan, ez dago beretzat; ez da bere buruaren helburua, ez dau bere interesik bilatuten: gizon guztien zerbitzurako dago, guztiei Kristoren maitasun bako-cgilea ekarte-ko beharturik aurkitzen da.

c) Kontzilioak *mundu osoa* jarri dau Eleizearen begien aurrean. Zer besterik egingo dau Eleizeak, zer besterik egingo dogu guk, mundu honi begitu eta mundu hau maitatu baino? *Orain, eta beste edozeren ganetik, maitetasuna*: gaurko gizon hau maitatu, dan modukoa eta dagoan lekuan, gizon guztiak maite izan!

d) Mundu barri baterako oinarriak:

• Mundu harri bat sortzeko asmoz, beste gizon batzuk beste era bateko oinarriak jarri gura dituez: indarra, aberastasuna, jakituria, burrukca, interesa edo beste gauzaren batzuk; *Eleizeak, ostera, maitasuna!*

• Maitasun horrek, sarri askotan, ez dau erantzunik aurkitzen:

Eleizeak edozein gizoni, edozein herriri maitasuna eskaintzen deutzon unc honetan, gauza garratz bat sentitzen dogu, atzo lez gaur be: maitasunak —maitasunak, batez be!— jaramonik eza, kontra-jartze edo oposizinoa, barrea ta burlea, areriotasuna aurkitzen eta sortzen dituala. Horixe izan zan Kristoren trajeria tristea: bere maitasunak eta gizonen areriotasunak eroan eben kurutzera. *Maitatzen jakitea*, sarri askotan, *sufritzen jakitea da!*

• Baina, hori ta guzti be, arrisku guztiok gorabheera, *zelan itxi Eleizeak alde batera maitatzeko eginbehar hau?* Entzun deogun beste behin be San Paulori: “Nok aldenduko gaitu gu Kristoren maitasunetik?”

· Bihar-etzi gizonak gaurko Eleizeari begiratuko deutescan, hauxe esango dabe: “Zer egiten eban orduko Eleizeak?” Eta erantzun hauxe hartu dagiela: *Maitatu!*: ama-bihotzez, artzain-bihotzez, bihotz zabalez...

· Gaur zibilizazino barri bat sortu gurean gabiliz: “Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez, / ez holako zibilizaziorik!”

Guk, kristinauok, *maitasunaren zibilizazinoa* egin behar dogu.

## 2gn. egunerako haria

1. Sarrerako abestia.

2. Hasierako otoitza: atzokoa bera, Espiritu Santuari. Eta Andra Mariari.

3. Maitasunaren zibilizazinoa: gaurko eleizcaren zeregina, eginbearra. Maitasun horren lehenengo arpegia cdo alderdia: Jaungoikoa: Jaungoikoaren maitasuna, Jaungoikoa maite izatea.

4. San Paulo Atenascn: “Ignoto Deo”, Jaungoiko ezezagunari egindako altarea. Gaur be beste hainbeste: idolo ta sasi-jaungoiko, jaungoiko-txiki asko; baina egiazko Jaungoikoa ez dogu eza-gutzen.

5. Gaurko Euskal Herrian bertan:

5.1. Oraintsura arte: Euskaldun = fededun. Esaterako, Pello Mari Otañoren bertso cderrok, aita batek Ameriketara doan seme-ari egindakoak:

*“Gorde zazu buruan eta bihotzean  
aitak zer esan zizun haruntz abitzean,  
bitarteko harturik Jesus gurutzean.  
Jainkoa eta aita-amak batez ahaztutzean  
ez leike ondo izan denbora luzean.*

*Ez nizuke utziko joaten egitan  
gure erlijioa ezpalitz han bertan.*

*Iritxiko baziña hain urrutietan  
herri ta eleizarik ez dan tokietan,  
oroi zaite Jainkoaz leku guztietan!*

*Seme, izan goguan zure gurasuak  
eta uzten dituzun senide goxuak,  
jaio zīnan tokiko mendi ta basuak  
euskerazko otoitzak edo errezuak  
erakutsiak zuri amatxi gaixuak.”*

5.2. Gaur, ostera, Jaungoikoa ukatzea harrokeria bihurtu da:  
Jaungoikoa, zertarako?

· Hona hemen, heriotzearen aurrean, gaurko *ateo* biren berbak:

*“Sinesten dut / egun batetan hilen naizela,  
hutsean eroria, / ezerezean amildua,  
hauts bihurtuko naizela...”*

*“...haitzurak negar dagio, bainan  
ez jantzi beltzik atera:  
haren arnasa geratu zaigu  
haizearekin batera...”*

6. Jaungoikoa, espiritu hutsa, ikusi-ezina, ulertu-ezina... Baina Jaungoikoagana hurreratzeko badaukaguz bide batzuk:

6.1. Geure adimenaren argia:

*“Zure izena, Jainko Jauna,  
bai miragarri, bai eder, mundu zabalean!  
Hau gizoniaren goitasuna!  
bere menpean dauko dana.  
Zure izena, Jainko Jauna,  
bai harrigarri, bai eder, mundu zabalean!” (salmoa)*

(“Mundua eder egin dezulako”, Lourdes Iriondoren abesti barria)

## 6.2. Fedearen argia:

—Pascal: “Gure Jaungoikoa ez da filosofoen eta jakitimen Jaungoikoa; Abraham, Isaak eta Jakobena Jaungoikoa baino” eta, batez be, “Jesukristo gure Jaunaren Aita”.

—Jesusegan hurreratu eta agertu jaku Jaungoiko ikusiezina: “Jaungoikoa ez dau inok sekulan ikusi”; baina “Berbea gizon egin zan, eta geure artean jarri eban bere bizilekua”. Jesusen berbak Felipe: “Zelan dinostazu Aita erakusteko? Felipe, Ni ikusten nauanak, Aita ikusten dau; ala ez ete dozu sinisten Ni Aitagan eta Aita Nigan gagozala?”

7. Fedcaren irakatsirik cderrena eta pozgarricna, hauxe da: Jaungoikoa maitasuna dala. Jaungoikoak gizonari gizonen berbe-tan berba egin bchar izan deutso, eta egumeroko bizitzatik ateratako irudien bidez aitzen e mon deutso bere maitasun neurribako hori:

### 7.1. Aita:

• Jesusek beti-beti ahotan darabilen berba gozoa: Abba!, Aitatxu neurca!

• “Hara zenbaterainoko maitasuna izan deuskun Jaungoikoa: bere seme izena daukagu, eta izan be bagara” (San Joanek).

• “Seme zarielako, bere Semearen Espiritua ixuri dau gure bihotzetan, eta Espiritu horrek eten barik dihardu esaten: ABBA, Aita!”

### 7.2. Ama:

• *“Aho batek ezteki diolarik: “Ama”,  
hitz goxo bakar horrek mundu bat derama  
Ama baino hoberik zer diteke asma?” (Oxobi)*

- Gure Domingo Agirre, Ondarruko euskal idazleak.
- Jaungoikoak: “Ahaztu ete lei ama batek bere sabelean daroan seintxua? Ba nik etzaituet ahaztuko!”

7.3. Senarra: Oskas igarlearen berbak: basamortura croan; han, bakardadcan, berba gozoak belarrira, ea berrira bereganatzen dauan.

8. Holakoxea da gure Jaungoikoa, baina euskaldunon arriskua: jansenisinoa. Hona hemen X. Leteren abesti hau:

*“Urruti zegok Hura  
han bere zeruan  
gu bakarrik utzirik  
umezurtz munduan.”*

Abesti gogor-garratz-ilunagorik nekez aurkitu geinke; berba gitxiagotan kristau senaren aurkako gauza gehiago jaurtiten dituan abestia:

- “Urruti zegok”:
- bitanoko berbeta gogorra.
- “Non dago beste herririk, bere Jainkoak guk geure Jaungoikoa baino hurrago daukanik?” (Moises)
- “Beragan bizi gara, mobitzen gara, gagoz” (S. Paulo)
- “Berbea gizon egin zan eta geure artean jarri eban bere bizilekua” (S. Joan)
- “Ni zeuokin egongo naz, mundua mundu dan artean” (Jesus)
- “Hura” (ha): ez ete dauko bere izenik? Bai! Aita dogu: “bedcinkatua izan bedi zure izena”.
- “Hau bere zeruan”:
- “Nire atsegina, gizonen artean egotea”
- Guri bere zorion betea emotearren, bere ondora, bere zerura dei egiten deusku, zeru-lurren Egileak.
- “Gu bakarrik utzirik”:



• Norbaitek maite banau, nire Aitak be maiteko dau hori, eta berorregana etorriko gara, eta berorregan iminiko dogu geure egonlekua”.

• “Aitagaz eta Semeagaz alkartasuna izan dagizuen...”

—“Umezurtz”:

• “Hara zenbaterainoko maitetasuna izan deuskun Aitak: Jaungoikoaren seme-izena daroagu, eta izan be horixe gara!”

• “Etzaituet Nik umezurtz itxiko: banoa, baina barrero etorriko naz, eta neu nagoan lekuan egongo zarie zuok be.”

• “Gure bihotzetan ixurita daukagun Espiritu Santuak autoritzen dau, gu Jangoikoaren seme-alaba gareala, ezin-esaneko in-tziriz gure bihotzetan beti deika: Abba! Aita!” (S. Paulo). (cfr. gure gotzainen berbak, 8 zk.; Paulo VI.a, Evangelii nuntiandi, 26 zk.).

#### 9. Jesukristo, gure anai nagusia

• Gure sinismenaren erdi-erdian, Kristo Jauna. Guk ez dogu irakatsi bat, dotrina bat sinisten, guk pertsona bategan sinisten dogu.

• Gaurko nahaste honetan, hainbestek Kristogandik alde egi-ten daben ordu honetan, guk Pedroren berbak esan behar doguz, behin eta barriz: “Zuek be itxi egin gura nozue? —Jauna, baina nogana joango gara, ba? Zuk betiko bizitzako berbak daukazuz!”

• Jesusi zor deutsagun maitasuna, berak guri deuskunaren erantzun jatorra ta zorra:

“Nok aldendu gu Kristoren maitasunetik?”

“Maite izan nau, eta bere bizia emon dau neugaitik!”

“Nik ez deutsuet *morroi* esango, morroiak ez daki-ta ugazabak zer egiten daben; nik zuoi *adiskide* esan deutsuet, Aitagandik jakin dodan guztia esan deutsuet-eta”.

“Inok ez dauko maitasun haundiagorik, bere adiskideen alde bere bizia emoten dauanak baino”.

• Kristo guretzat ez dago hilda, bizi-bizirik baino. Bera da gure Maisua, gure Argia, gure Bidea, gure Bizia, gure Saria, gure

Eroslea, gure Epailea, gure Adiskidea, Bidelaguna, Jaunaren Hitzak: "Kristok atxilotuta nauka, preso eginda". (S. Paulo)

• Jaunagana hurreratzeko biderik onena, beti ta batez be gaurko ilunabarrean: Emausko ikasleena: Liburu Santuak irakurtzea eta alkaturik Eukaristia ospatzea. Mezako mahai biak.

• Beste bide batzuk:

a) Jesusen Nekaldia: kurutzeak, kurutze-bidea...

b) Errosarioko misterioak gogotan erabili: Jesusen misterioak Andra Mariaren begiz eta bihotzez.

c) Santuen ikasbidea: Paulo, Pedro, Agustin, Bernardo, Inazio Loiolakoa...

#### 10. Espiritu Santua:

• Jesusen emoirik edo doerik ederrera: "Hobeto dozue Ni zuekandik joatea; bestela ez jatzue etorriko Espiritu Santua".

• Jesusen bizitzan, beti Espiritu Santua eragile; gaur, Eleizearen arina. Gu Espiritu Santuaren eleiza bizi.

• Eleiza Amak beti darabil ahotan Espiritu Santuaren izena: sakramentueta, Meza santuan, ordu nausienetako eskarrietan.

• Paulo VI.a: "Sarritan esan ohi da, gaur eguneko erlijino-liburu askok ez deusala bere lekuri emoten Espiritu Santuari. Guk, geure aldetik, dei hau egiten deusegu guztiei, baina, batez be, eleizartzain eta teologoei: Espiritu Santuak gure salbazino-egintzan daukan eragina hobeto sakondu dagiela, eta kristau otoitz-liburuak argiago jarri dagiela Espiritu Santu horren bizi-eragina".

• Espiritu Santuaren aroan bizi gara: Pentekostalistak, otoitz-alkarteak, Eguzki aldeko Eleiza.

#### 11. Jaungoiko hirutan bakarra.

• "Aitaren eta Semcaren eta Espiritu Santuaren izenean".

• "Aintza Aitari eta Semcari eta Espiritu Santuari".

• "Honen bitartez, honekin eta honegan, zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe ta aintza guztia, gizaldi ta gizaldi guztietan".

• “Bedeinkatu zagiezala Jaungoiko guztialdunak: Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak”.

• Orixe, *Euskaldunak*, “Amonaren hiletak”:

*“Zeruan goien Irutasuna  
Jaungoiko aundi ta maite,  
besoak zabal, zuri begira  
atsegin ederrez beite.  
Ori izan zendun mundu onetan  
izan guztien izaite:  
Aren besotan, menderen mende  
zorionez gerta (egon) zaitez!”*

### 3gn. eguna

1. Hasiara: Abestia, “Ainguru batek Mariari” (Andra Mari Martikoz).

2. Otoitza: Atzo esandakoak gogora ekarteko, otoitz eder hau egingo deusagu Jesukristori: “Hor zagoz, Jesus” (*Gora Jainkoa*, 53 zk.).

3. Gaurko gaia: Maitasunaren lehenengo arpegia ikusi dogu, ganetik bada be, Jaungoikoa hirutan bakarra. Gaur, maitasun horren bigarren arpegia ikusten ahaleginduko gara: Eleizea, Elciza Ama.

Egunotan erabilitako gaia, beharbada, baten batentzat gogai-karri izango zan, edo gaur egunerako desegokia; gaur badirudi holako *bigunkeriak* eta *aingerukeriak* alde batera itxi eta beste gauza batzuk aitatu behar direala: hemen lurreko gorabehera larriak, geure eguncroko buruhauste ta arazoak.

Oraintsu eskaini deusku Aita Santuak agiri eder bat, gai honezaz: “Gaurko munduari barri ona eroatea”. Hara zer dinoskun, beste gauza askoren artean:

• “Ebanjelioa zabaltzea, lehenengo ta behin, Espiritu Santuaren bitartez Jesukristogan agertu jakun Jaungoikoa iragartea da.

Jaungoiko horrek mundua maite-maite izan dauala Bere Semeagan; gizon egindako Bere Berbegagan emon deusela izatea gauza guztiei, eta gizon guztiak betiko bizitzara deituak izan direala; gizonarentzat Egilea ez dala izenik bako eta urrun dagoan indar bat; Aita dala: "Guk Jaungoiko-scmeen izena daukagu, eta izan be horixe gara", eta, horregaitik, alkarren anai-arreba, Jaungoikoagan.

• "Ebanjelioa zabaltzeak beti euki behar dau —oinarri, ardatz eta gailur lez— hauxe argi iragartea: Jesukristogan, gizon egindako Jaungoikoaren Semeagan, hil eta biztutako Jesusegan, gizon guztiei eskaintzen jakela salbamena, Jaungoikoaren graziaren eta errukiaren doe lez".

• "Ebanjelizatzeak ezin dau iragarri barik itxi geroko bizitza, gizonaren dei sakon eta azken lez, oraingo izate honcgaz bat egin da eta etenda. Ebanjelizatzeak, ganera, itxaropena iragartea be eskatzen dau: Jaungoikoak egindako agintzariak Jesukristoren itun edo Alkartasun Barrian bete direala; Jaungoikoak gu maite gaituala eta geuk be Jaungoikoa maite behar dogula; gizon guztiak anai-arreba lez maitatu behar doguzala, maitasun hau, Jaungoikoaren maitasunetik datorrelako, Ebanjelioaren mamina data; txarraren edo pekatuaren misterioa eta ona bilatzeko ahalgina iragartea; geroago ta gehiago iragarri behar dogu, Jaungoikoaren bila otoitz-bidetik, eta baita Eleizearen bidetik be; eta, Eleiza honen barruan, sakramentuak."

#### 4. Eleizearen misterioa:

Eleizea, gaur, askoren aho-minetan:

a) Arerioak: kulpa guztiak, trapu lohiak, eztenkadak, garratasuna, esker txarra... Euskal Herrian be bai!

b) Seme-alaba onak: Eleizearen ordña (Azken Kontzilioa); maitasuna, zintzotasuna, leguntasuna.

Baina ia inok ez dakigu Eleizea zer dan, misterio bat da-ta. Guk hemen, labur bada be, azken Kontzilioaren irakatsi nausi batzuk agertu nahi doguz. (LG, 9)

4.1. Jaungoikoaren asmoa: bere antz eta irudiko egin eban gizona santu egin eta salbetea, baina hori herri baten barruan:

Lege Zaharrean, Israel.

Lege Barrian, Israel barria = Eleizca.

4.2. Zer da Eleizca?

Askoren crantzuna: Gcu gara Eleizea! (gotzainen, abadeen aurka).

Kontzilioak:

• Buru: Kristo bera, hil eta biztua, zeru-lurren Jauna.

• Izaerea: Jaungoikoaren seme-alaba, Espiritu Santuaren elciza bizi, Jainko-herriaren oinordeko.

• Legea: maitasuna, baina Kristorena eta Kristoren neurrian.

• Egitekoa: Jauna barriro etorri artean, Barri Ona zabaldu eta horren argitara eta indarrera mundu osoa aldatzca, Jainkoaren Erreinua zabaltzea.

• Arima: Espiritu Santua: argi-emoile, eragile, zuzentzaile, pozkile, indar eta gozotasun.

• Mundu honetan eta mundu honentzat; baina hemen betiko egonlekurik edo aberririk ez daukagula; beti gerora begira, beti bidazti (bidean), erromes.

4.3. Zetatik bizi da Eleizca?

Jaungoikoaren berbatik: Eleizeak argitu ta zabaldua, sinismena, fedca. Jaumaren berbarean mahai ondo hornidua.

Jesus Biztuaren indarretik eta geroko bizitzaren egarri bizitik, itxaropena.

Espiritu Santuaren eraginetik: maitetasuna.

Grazi-biderik nausicnak: sakramentuak.

**4gn. eguna**

1. Eleizca eta gu (Gu Eleizan):

—Eleiza bakarrak arpegi bi, baina ezin bananduak: agirikoa eta czkutukoa.

—Gaurko tentazino eta arriskuak: arpegiaren azala baino ez ikustea.

—Kristoren antzeko: egiazko Jaungoiko eta egiazko gizon, biak batera eta banandu ezinda.

—Eleizcaren aberastasun neurribakoa aitzen emoteko, irudi asko: sendia, herria, gorputza, batasuna. Cuk hemen, San Paulori jarraituz, gorputzarena hartuko dogu:

· Zati asko, ezbardinak, danctarikoak: baina dan-danak gorputz berarenak, guztiak preminazkoak.

· Zati bakotxak bere zeregina, beste inok bete-ezina: bako-txak berea ondo beteten badau, gorputz osoak irabazi, gorputz osoa pozik.

· Guztiak bat, eta alkarren zerbitzurako eta onerako (batez be, preminarik handiengan aurkitzen diranen onerako).

· Eleizearen seme-alaba guztiok, gauzarik gehienetan eta nau-sienetan, *bardin* gara: Jaun bat, Batco bat, fede bat; duintasun bardina; danok, graziaz, Jaungoikoaren seme-alaba; danok santutasun batera deituak; danontzat salbamen bakarra, itxaropen bera, banandu-ezinezko maitasuna. Ez dago, ba, Kristogan eta Eleizan ezetariko ezbardintasunik ez arrazaren, ez herriaren, ez giza-maila edo sexuaren aldetik”. Zuok guztiok bat zatic Kristogan”.

San Agustin handiaren berba ederrak: “Zuentzat nazanak bildurtzen banau, zuekin batera nazanak poztu egiten nau: zuentzat, gotzain edo elciz-artzain naz; zuekin, kristinau. Izen harek cginbehar bat adierazoten dau, honek grazia; harek arriskua; honek salbamena”.

Bardintasun honen barruan, gauzarik behinena, behar-beharrezkoena: maitasuna, Jaunaren grazia, batasuna.

· Guztiok alkarren zerbitzari apal eta maitale, baina berarizko zerbitzari edo morroiak: eleiz agintariak. Euron agintaritza ez dator herriagandik, Kristogandik baino (baina herriaren onerako, ez euren onerako); gure gaurko Eleizeak holako zerbitzari asko behar ditu, baina, batez be, on-onak: apalak, pobreak, Jaungoi-

kozale sutsuak, jakitunak, herria maite dabenak, curen bizi oso-  
osoa kristau herriaren alde emoten dakienak.

2. Laikoen eginbearra Eleizearen seme-alaba lez:

• Eleizearen seme-alaba guztiok egiteko bardina: Kristoren  
errcinua zabaltzea, gizon guztiak eta mundu osoa salbazino-bide-  
an jartea.

• Baina bakotzak berarizko eginbeharrak. Herritarrak edo lai-  
koak, curen-curena ta behinena, hauxe: mundu honetako gorabe-  
hera guztietan murgilduta, barruraino sartuta, bertoko arazoak  
eta problemak Jaungoikoak nahi dauancz zuzentzen ahalegindu-  
tea (L.C. 31).

• Hortxe, munduko arazo guztietan sartuta, curen ogibidea  
Jaungoikoaren borondate-bidetik betcaz, Ebanjelioaren argitara  
beti, bete behar dabe curen egitckoa: mundua barrutik lez santu-  
tu, legamiak ore osoa astintzen dauan lez. Horixe da laikoen deia  
edo berarizko bokazinoa.

• Hau holan dala, gaurko mundu honetan eta ordu honetan  
gizonaren egarririk bizienak —aldien ezaugarri edo seinalcak!—  
zeintzuk direan ikusirik eta azterturik, laikoak itaun hau egin  
behar deutso beti bere buruari: Nik zer egin nei? Zer, neuk baka-  
rrik eta neure kontura? Zer, beste batzukaz alkartuta? (maitasu-  
na eguneroko bizitzan crakutsi behar dot!).

3. Gaurko gizonaren egarririk bizienak, zeintzuk dira? Hona  
hemen azken Kontzilioaren crantzuna:

—Mundu honetako gauza guztiak mcncratu eta bereganatu  
(gizonak).

—Politika, ekonomia ta gizarte-ordena guztia, gero ta gehia-  
go gizonaren onerako ta zerbitzurako jarri, gizona beti aintzat  
hartzen dala.

—Ondasunak —era guztietakoak— hobeto ta zuzenago  
banandu: zuzentasuna, bardintasuna.

—Herri atzeratuak edo askatu-barriak askatasun osoa nahi  
dabe: politikan, ekonomian, kulturen, t.a. curen buruen jabe iza-

tea. Zoritzarrez, herri aberatsen eta atzeratuen arteko une edo bitarte hori haundiagotuz doa, eguncan baino egunean haundia-  
goa da.

—Emakumcak gizonaren eskubide bardinak nahi ditu gizar-  
tean eta Eleizan.

—Beharginak (langileak) eta baserritarrak (nckazariak),  
biziteko lain irabazi ezeze, herriko gorabehera guztictan parte  
hartu ta sartzea nahi dabe, aldenduta gcllditu barik (ekonomian,  
politikan, kulturean, erosotasunean...).

—Baina, batez be, egarririk bizieta, sakonena, zabalduena,  
hauxe:

• Pertsonak eta alkarteak: libre bizi, oso-osoan, gaurko mun-  
du honen ahalmen guztiak gizonaren zerbitzurako jarriaz.

• Herriak: herri guztien arteko anaitasun edo alkartasuna sor-  
tu.

“Holan, gaurko gure mundu hau hara zelau agertzen jakun:  
aldi berean indartsu eta makal; gauzarik oncnak eta txarrenak  
egiteko gauza dala: askatasuna ala morrontza, aurrerapidea ala  
atzerakizuna, anaitasuna ala gorrotoa hautatzeko bidca zabal-  
zabalik dauko gaurko gizonak. Gizonak ondo daki bere eskuan  
daukala, berak sortutako indarrak artez crabiltea, eta baita inda-  
rron menpeko eta azpian izatea”. (CS, 9).

#### 4. Gizona, zer da eta zertarako?

—Askok eta askok gauzen morroi edo miseria gorrian bizi  
direalako, holako itaun sakonik egiteko ez astirik ez gogorik dau-  
kee.

—Askok: uste dabc gizonak berak, bere indarrakin bakarrik,  
zeru edo paradisu bat sortu leikcala mundu honetan; ez daukagu-  
la gcroko paradisu horren preminarik, ezta Jaungoikoaren beha-  
rrizatik be.

—Askok: antxinako jentilak edo paganoak lez, gaurko jentil  
barriak be bardin antzera erantzuten dabe: Jan eta edan daigun,  
bihar-etzi hil egingo gara-ta! (kontsumo-gizartea).



—Beste askok: itaun horreok ez dauke erantzun egokirik: gizona, izan be, abererik errukarriena da: bere buruari holango itaun zorrotzak egiten jakin, eta ez daki gero ez nondikorik, ez norakorik, ez zertarakorik! (existentzialismoa).

—Gero ta gchiagok, ostera, itaun sakonok egiten dabez:

- Zer da gizona?
- Zergaitik dira nekeak, gaixoak, gaiztakcria, heriotzea...?
- Hainbeste burruka ta gudutik, zer atera dogu onik? Zer irabazi dogu?
- Gizonak eta gizartcak, zer emoten deutsie alkarri?
- Bizitza honen ostean, zer dago? (Jakituria bakarra: M. Unamuno).

#### 5. Fedearn erantzuna:

Itaumon argitasunik ederrena Kristogan eta Eleizan aurkitu geinke (GS, 10-11):

—Gizona, hurreko beste ondasun guztien ganetik; diran guztiak gizonarentzat dira (honetan bat gatoz fededunok eta fedebakoak, geure buruaren argitasunak irakatsita).

—Fedearn argi berarizkoak gchiago dinosku:

- Gizona Jainkoaren antz eta irudira egina dagoala: buru argiaren jabe gauzak ezagutzeko askatasunaren jabe, erabagiak hartu ta betetako (GS, 12).

· Gizona, bere buru argiaz, mundu osoaren jabe, munduko errege (GS, 14-15): aurrerapide harrigarriak! Baina, gauzen ganetik, sekula ase ezinda, *egia* ta *Jaungoikoa* bila beti. Benetako *jakituriaren* beharriana!

· Gizonak bere bihotzean daroa legea, librea da (GS, 16-17): libre bai, baina ez edozer egiteko, bere kontzientziaren deia jarraitzeko baino. Kontzientzia bera zuzen eta zintzo eratu beharra.

· Baina gizona ez dago bakarrik: Jainkoak emakume ta gizon egin zituan, familia baten bizi izateko (GS, 12). Sendia, familia,

gizonaren abiarik gozoena ta beharrezkoena da: benetan dira errukarri umezurtzak, alargunak, etxetik kanpora dabiltzanak. Gizona hazi ta heziteko, bere heldutasunera heltzeko, ez dago lur gozatsu ta samurragorik. Senar-emazteak, guraso-umeak, bata bestecarentzat, alkar ezagutze eta maitasun bero, estu ta emonkor baten. (GS, 23-24)

• Sendia ez da nahikoa: gizonak, helduko bada, hori baino alkarte zabalagoa behar dau: herria, gizartea... (GS, 25). Gizona gizartearentzat da, baina, batez be, gizartea gizonarentzat (GS, 26, 27, 29).

### 5gn. eguna

1. Hirugarren arpegia: gizonaganako maitasuna.

Lehenengo egunean esandakoa birresan: gizona, gaurko gizona, dan modukoa eta dagoan tokian, maite izan eta otsindu.

2. Kristinau zintzo izatea nahi dauan laikoak ez dau nahikoa: norbere arazoak ondo atondu ta zuzendu, errezutxu batzuk egin, inori kalterik ez egin eta besteak or konpon daitezela, bakoxtak berak ahal dagiana egin dagiala!

3. Hona hemen laiku lez kristinau zintzo izan nahi dauanaren eginbehar batzuk:

—Mundu hobego, zuzenago ta ederrago bat egiten ahalegintzea (Jaungoikoak bere kreazino-lagun egin gaitu!).

—Beti, ta beste ezeren ganetik, gizona (pertsonea) begien aurrean izatea: beti ta dana gizonaren onerako, gizonari zor jakon lotsa ta begirune osoaz (ez gara gu gauzentzat, gauzak dira guretzat).

—Ondasunak eta gaur eguneko aurrerapidak ahal danik eta gehicentzako izan daitezen arduratzca ta ahalegintzea: bardintasunerantz jo beti!

—Behartsuenentzat, batez be; eurok dira, izan be, Kristoren irudi bizi: umetxuak, zaharrak, umezurtz eta alargunak, lan barik

dagozanak, gaixoak, txiroak, kanpotarrak, baserritarrak, erbeste-ratuak, herri txikietaoak, aurrean erabiliak, giltzapetuak...

—Kristoren argiaz eta Espirituaren indarraz beti: fedeak eta maitasunak eraginda.

—Borondate oneko gizon guztiekin alkartuta, baina ziur beti, inoren menpeko bihurtu barik.

—Holan jokatu nahi badogu, nekerik, kurutzerik, esamesik, orduak eta loak galtzerik ez jaku falta izango; alkar ikusi ezinak, gorrotoak, guzur baltzak... espetxea bera be bai, bcharbada, eto-rriko jakuz (Kristo berberaren bidca).

Baina Jaunaren ikasbidea dogu aurrcau, eta Apostoluaren berba ederrok gogoan: “Inok ez zagiezala aurrcau erabili lapurrak edo gaizkileak zarielako; baina, hori Kristoren izenean egiten badcutsue, zorionekoak zariel!”. Bardin antzera esan euskun Jesusek Berak be: “Zorionekoak, zuzentasunagaitik aurrean erabiliak!”

4. Gure egunotan, askatzerako deia (Mensaje de liberación).

Aita Santuak irakatsi ederra eskaini deusku oraintsu, “Evangeliu nuntianti” deritxon Agirian.

Gure gotzainen deia: 8, 9, 10 zk.

## ANDRA MARIA<sup>2</sup>

### 1.go eguna

#### SARRERA

1. Agura ta poztasuna: Begoñan, aspaldiko adiskidcak, amaren gomuta.

2. Gaia:

· Sermolarion betiko kurutzea: zeri ekin? zer hautatu? zer onena?

· Ondo hiltzen lagundu!: Ez, ondo biziten baino!

· Cai asko aukeran: Garizumea, azken Kontzilioaren irakatsiak, Aita Santuaren berbea, gure Euskal Herriko gotzainen deia, norberaren bihozkadak.

· Labur bada be, guzti hori izango dogu gogoan, baina aparteko leku bat emon gura neuskio aurtzen Andra Mariari: bere ondoan, bere aurrean, bera bide-erakusle ta argi dogula, Jesus gure Salbagilcaganako biderik laburrena, artezena, ziurrena ta gozoena Bera dogulako.

· Andra Mariaren benetako irudi edo imajinca: ez da harrizkoa, ez zurezkoa, ez uregorrizkoa, Jaungoikoaren Berbeak Libu-

---

<sup>2</sup> Gogo-jardunak Begoñako Basilikan, 1977, martiaren 22-26.

ru Santuen eta Eleizearen irakatsien bitartez erakutsi deuskuna baino.

## GAURKO GAIA: "ANDRA MARIA, FEDEDUNON ESPILU GARBIA"

1. Gure gaurko Eleizearen preminarik bizienetariko bat, hau xe: fedea argitu, garbitu, sendotu, zabaldu. Gu FEDEDUNAK gara.

—Gure gotzainek esandakoa:

• Fede barik Eleizea ez da ezer, gauza hutsa da, bere sentidurik eta maminik bakoa.

• Elcizea eta bateatuen aldra edo taldea ez dira, beste barik, gauza berbera. Umetan hartutako Bateoak fededunen alkartean sartzen dau seiná edo umetxua, eta Jaungoiko-famili haundiaren atal edo zati egiten; baina ez dau horrek, beste barik, segurtatzen, bateatu hori, hazitakoan, sinistedun izango danik; Bateoa hazia da, eta hazi horrek, erne ta helduko bada, kristau familiaren eta benetako fededunen alkartearen giroa edo inguru beroa behar dau.

—Gaur, askoren bihotzetan, kristau fedea galzorian edo galduta dago: Euskal Herrian bertan be bai. Ez dago urrin joan beharrik, hori holan dala ikusteko (gure arteko ama baten negar-zotinak: Neure semeak fedea ukatu!).

2. Andra Maria, fededun agertzen jaku Ebanjelioan:

• Jesusen berba harrigarriak (Bere ama goratu eutsan andratuari esandako berbak): "Zorionekoak, batez be, Jaungoikoaren berbea entzun eta betetan dabecnak!". Ez dira Andra Mariaren aurka, beronen goragarri baino.

• Aingeruaren berbeari sinistuz, apalik eta zintzo esango dau: "Hemen nago ni, Jaunaren mirabea: egin bedi nigan zuk dinozuna". San Agustinek: "Fedearen bidez, lehenago sortu eban Jaunaren Berbea bere bihotzean, bere sabelean baino."

· Elizabetek: “Zorionekoa zu, sinistu dozulako!” (Eta ez nire gizon fedebakoa).

· Artzainen eta Jesus Uncearen berbak entzutean, Mariak “bere bihotzean gordetan zituan, hausnartuz”.

· Honetan be, Andra Maria bere Seme Jesusen antz-antzeko agertzen jaku: Jesus Bera be hortixik bizi zan: Aitaren Berbatik; Aitaren borondatea egitea zan Jesusen janaria; “egin bedi zure borondatea”, Jesusen etenbako otoitz sutua.

### 3. Gaurko eleiztarrok be bide bardinetik jo behar dogu:

· Horixe izan zan lehenengo kristinauen jokabidea: Aposto-luen oinetan batzen ziran, euren irakatsia entzuteko.

· Horixe da gure gotzainen eskari sutua:

—Kristinau alkarteak geroago ta hobeto eratu daitezala, euren makaltasun eta pekatu ta guzti be, ahalegindu daitezcan Ebanjelioaren irakatsia hobeto ezagutzen eta zintzoago betetan.

—Fedea hazi bat dan ezkerre, hazi hori heldutasun batera erotan behar da; eta, horretarako, Katekumenadu-ekintzak atondu behar dira (Bateo aurrekoa, gurasoentzat; Lehenengo jaunartze-koa, umetxu ta gurasoentzat; Sendotzakoa, gaztetxu ta gurasoentzat; Ezkontza aurrekoa, senar-emaztegai kristinauentzat...; eta, etenbakoa, kristinau guztiontzat: era askotarikoak).

· Gaur norberak, askatasun eta argitasun guztiaz, emon beharko deutso bere erantzuna Jaunaren deia: sinismena, fedea... Arriskuak, bai; baina baita aukera hobeko bat be, gure sinismenari eusteko, fedegaitik eskerrak emoteko, fede hau argitu-garbitu-sendotu-sakondu ta zabaltzeko...

· Biderik onena: bakarrean eta, batez be, alkartean, Jaunaren berbea entzutea:

—Jaungoikoaren Berbearen mahaia: hobeto hornidua, ugarriagoa, errezagoa.

—Goztainen deia: Guk behar dogun Eleizcak hara zelangoak izan behar dauan:

Berbearen entzule dan Eleizca, Berbeak epaitzen dauan Eleizea.

Bibliako berbea entzutea, fededunen alkarteko lagunakana zabalik egotea, eta eleiz Artzainen aparteko berbecari adi egotea: hauxe eskatzen jako gaurko Eleizeari.

## 2. eguna

### 1. Atzoko haria

• Cu, Jesusen eta Andra Mariaren antzera, *fededun* gara; gure asmorik behinena, ahaleginik biziena: Jaungoiko Aitaren Berbea entzun, Haren borondatea bilatu, eta maitasun handiz betetan ahalegindu eguneroko gorabehera guztietan.

• Zer gara gu, nor gara gu? = FEDEDUNAK gara gu!, Andra Maria “Virgo fidelis” izan zan antzera.

### 2. Sinismena, Jaungoikoaren deia ta grazia (doea)

• Jesusen berbak: “Inor ez dator Nigana, Aitak ekartzen ez badau” (Jn. 6, 34-46).

• Hori holan dala:

—Gure esker ona.

—Apaltasuna ta txikitasuna Jaunaren aurrean, Jaungoikoak txiki ta apalei erakusten deutez bere misterioak (Lk. 10, 21-22).

—Eskari sutua:

• Jauna, ikusi dagidala!

Jauna, gehitu eidazu sinismena

Sinisten dot, Jauna, baina lagundu nire sinisterik-ezari!

• Bihotz garbia; jokabide zintzoa; “Zorionekoak bihotz-garbiak: eurak ikusiko dabe Jainkoa!”

• Testigantza argia.

• Sinismena galtzea: geure errua; ez harrokeria, zoritxarrik txarrena baino (Gaurko gazte askok galdu egin ei dabe fedea: sekula euki ete dabe fede “heldu” bat?)

### 3. Sinismenaren argia ta indar gozoa

• Berc iluntasunean be, argi barri bat, begi barri batzuk: Jaungoikoa AITA dogula, beste inok baino gehiago maite gaituala, gu

salbetako bere Seme Bakarra emon deuskula, gauza guztiak geureak direala, betiko zorion beterako egin gaituala, gure izatea ez dala heriotzean amaitzen...

• Indar eta poz-iturri, itxaropen sendo ta gozo (*Lauaxeta* zanaren azken olerkiak: "Agur, Ama", 178 or.).

4. Eleizeak gaur, mundu guztian, eta gure artean batez be, FEDEAREN BIDEKIBILI ibili gura dau:

• Andra Mariaren antzera, "Eleizeak be, batez be Liturgia santuan, Jaungoikoaren berbea fedez entzuten dau, bere bihotzean hartzen, iragarten, gurtzen, cleiztarrei biziaren ogi lez eskaintzen, eta horren argitara aztertzen ditu aldien ezaugarri edo seinaleak, horren argitara ikusten eta biziten ditu eguneroko gorabehera guztiak" (*Marialis Cultus*, 16 zk., azkena).

• Gure Gotzainak: Fedea hazi bat dan ezkerro, hazi hori hezi ta heldutasun batera croan behar dogu; gaur norberak emon behar dutso bere erantzuna Jaunaren deiari, askatasun guztiaz. Horretarako, egoki-egokiak eta preminazkoak doguz Katekumenaduekintzak:

• Lehenengo denporetako Eleizan: 3 urteko katekumenadua, gitxienez.

• Gaur be bardin antzera, Mixino-lurraldeetan.

• Gure artean, umetxutan hartutako fedea argitu-sendotugarbitu-gaurkotu-zabaldu beharra daukagu; eta, horretarako, Eleizeak indar barria emon nahi deutse Katekumenaduekintzei:

—Bateo aurrekoa: guraso ta aita-ama bitxientzat.

—Lehenengo Jaunartzerakoa: umetxu ta gurasocentzat.

—Sendotzarakoa: gaztetxu ta gurasocentzat.

—Ezkontza aurrekoa: senar-emaztegaientzat.

—Sakramentu guztien aurrekoa.

—Beste batzuk: "Kiko", t.a. (Abadeen poz-iturri, Eleizaren arnas barri...)



## GAURKO IRUDIA: ANDRA MARIA, "VIRGO ORANS"

Otoitz-eredu edo espilu.

1. Jesus, otoitz-zale: (Alderdi hau, gaur ahaztua, ezin kendu Ebanjeliotik!)

• Munduan sartu zanetik: "... Hemen nator ni, zure borondatea egiteko".

• Gaztetxu zala: "... Nik Aitaren etxean (gauzetan) egon behar dot".

• 40 eguneko otoitz-aldi luzea, barau ta guzti, bateoa hartu ondoren.

• Egun barruko otoitz-bihozkadak eta gau osoak otoitzari emonda.

• Nekaldian: Pazko-Afarian eta ostean (Abade-Otoitza), Gethsemani-n, kurutzean.

• Zeruan: "Beti bizirik, gure alde otoitz egiten".

• Apostoluen enbidia ta eskaria: "Erakutsi eiguzu otoitz egiten!" eta Jesusek bere otoitza irakatsi eutsen: "Aita gurca".

2. Andra Maria be bardin-bardin: (cfr. *Marialis Cultus*, 18 zk.)

• Bere otoitzik cderrcna: Magnificat (poza, fedea, gorespena, esker ona, apaltasuna, Jaungoikoaren zintzotasuna, salbamena, apal eta txikiak ganako aparteko maitasuna...).

• Cana-n: ezkonparrien estualdian, apostoluen fedea sendotuz.

• Pentekoste-aurreko bederatziruenean: Apostoluen eta ikasleen erdian.

• Zeructan, bere Semearen ondoan: gure alde otoizlari, Ama errukior lez: "Erregutu egizu gure alde" (Beti geure arduratan: Lourdes, Fatima...).

3. Eleizeak be bardin: (*Marialis Cultus*, 18 zk., azkena)

• Birjina otoizlaria da Eleizea be, Aitari egunero agertuten deutzazalako bere seme-alaben beharrianak, "eten barik gora-

tzen dau Jauna eta erregutzen munduaren salbamenerako". (*Orduen Liturgia*. Otoizlariak Eleizan).

· Kontzilioaren lehenengo Agiria: Liturgiakoa: Eleizearen otoitz "ofiziala".

· Gure Gotzainen deia: (13 zk.) "Jainkoaren Hitza entzuten dakian Eleizeak laster aurkituko dau mundu sekularizatu honetan galzorian dagoan *otoitzaren balioa...*" (Eta Bibliako otoitzen hizkeran gizon guztien bihozkadentzat berba egokiak aurkituko doguzala, dinoskuc). "Gure itxaropenaren deadar izango da otoitza, otoitzik egiten ez dauanak ez daukalako itxaropenik. Otoitzgogoa barrituz itxi behar dabez kristinauak eta kristau alkarteak euren bildur, lotsa ta zalantza edo dudak. Holantxe bakarrik eskuratu ahal izango dabe gizonak euren salbamen-itxaropena."

· Gaur kristinau askok eta askok otoitza alde batera itxi dabe; beste askok, ostera, barrero aurkitu dabe otoitz-bidea: otoiz-taldea hor-hemen...).

#### 4. Gure otoitza

· Fedreak argitutako gizonak berezkoa dau Aita Jaungoikoagaz berba egitea, maitasunak eraginda (Bere ama ezezaguna aurkitu dauan gazteak!).

· Horixe da otoitza: "Maite gaituanagaz maitasunez berba egitea" (S. Teresa).

· Seme(alaba)-bihotzez, era guztietako otoitza egin behar dogu:

· Jaungoikoaren handitasuna ta santutasuna gurtu (adorazinoa).

· Jaungoikoaren errukia ta bihotz ona goratu (gorespenak).

· Jaungoikoaren ontasunari eskerrak emon.

· Jaungoikoari laguntasuna eskatu (eskariak, eskabideak).

· Jaungoikoaren neurribako handitasuna "hausnartu": *contemplatio*.

· Otoitzetik bizitzara, bizitzatik otoitzera.

· Zelan? Apalik, uste osoaz, seme-bihotzez, damuturik, berba gitxigaz, edozein alditan, batez be aparteko egun eta orduetan,

geure berbaz eta bihozkadaz, ikasitako berbaz (geuretuaz), Eleiza Amaren otoiitz "ofizialaz" (Meza, Orduen Liturgia...), bakarrean eta alkarturik, etxean eta eleiz alkartasunean.

GAURKO IRUDIA: "ANDRA MARIA = VIRGO MATER, Birjinia ta Ama"

1. Kredoaren erdi-erdian autortzen dogu, Jaungoikoaren Seme bakarra "Espiritu Santuaren egitez, Maria Birjinagandik gorputz-harturik, gizon egin" zala:

—Jaungoikoaren Seme Bakarra gizonaren Seme egin dala: dan-danean geure antzeko, pekatuan izan ezik, benetako Jaungoiko ta benetako Gizon. Egunean hiru bider zabalduko dabe misterio sakon hau eleizetako kanpaiak, eta kristinauok, holako berbak entzutean, burua makurtu edo belauniko jarriko gara (gaurko Mezan lez):

• Lehenengo mezetako "Et incarnatus" (Goikoetxearena!)

• Ipar Euskal Herriko eleizetan, meza nagusi ostean, beti Angelus abesten da.

• Orixeren eredu ederra (artzain basoan, eleizan "Coral" bat hausnartzen).

—"Maria Birjinagandik gorputz-harturik": Andra Maria, Jesusen egiazko ana: sortu, erditu, jagon, bularra emon, hazi, janaritu, lagundu, maitatu, irakatsi, ondo-ondoan egon... heriotzako ordurarte!

• "Jaungoikoaren Ama" dalako jatorkoz beste esker, mesede ta apainduria guztiak (titulu hauxe dau Begoñako Amak)

• Bere birjintasuna galdu barik: "Espiritu Santuaren egitez".

2. Honetan be, Andra Maria Eleizearen espilu garbi: Eleizca bera be, Andra Mariaren antzera, *Ama* da eta *garbia*:

• Ama: Barri Ona iragarritz fedea sortzen dau eta Bateoa emonaz, betiko bizi barri batera sortzen ditu Jaungoikoaren seme-alabak, Espiritu Santuaren egitez. Eta, behin sortutakoan, ez ditu

bertanbehera itxiko: Jaungoikoaren Berbeaz eta Jesusen Gorputz-Odolaz janarituko ditu; beti bere seme-alaben ondo-ondoan egongo da, maitasun handiz, ama-bihotzez.

• Birjina: Sinismen garbiz, Jaungoikoaren berbeari beti adi, Espiritu Santuaren eraginez eta indarrez, pekatuak parkatzeko graziaz (sakramentuetan).

Hau holan dala:

—*Eleiza Amaren misterio sakona* sinistu, ezagutu, maitatu:

• Kristogan sinisten dogunon alkartea.

• Buru: Jesus Berpiztua, bizi-emoile, Senar maitc...

• Arima: Espiritu Santua, argi, poz, batasun-iturri, santutzaile...

• Lege: maitasuna.

• Izakera: Jaungoikoaren seme-alaba (orain, fedez; gero, betebetea aurpegiz-arpegi Bera ikusiaz, zorion bete ta betikoan).

• Eginbeharra: Jainkoaren Erreina zabaldu ta sustraitu, Jesus barriz etorri artean.

—Eleiza hau Jesusck sortu ebana da:

• Anaitasun bat, batasun bat.

• Zuzendari-zerbitzari: Apostoluak, gotzainak, abadeak.

• Bere ataletan beti makal eta pekatari; baina, halan eta guzti be, salbamen-iturri, salbamen-sakramentu.

• Ez dagoz Eleiza bi, Eleiza bakarraren alderdi bi baino (agirikoa ta ezkutua); ezin bata ukatu ta bestea onartu.

## LABURPEN LEZ

Andra Maria beti begien aurrean eta bihotz-bihotzean dogula, gure kristinautasunaren alderdi nautsi batzuk ikusi nahi izan doguz:

1. *Virgo fidelis*: Sinismena.

2. *Virgo orans*: Otoitza.

3. *Virgo mater*: Eleiza ama.

Kristinau baten hiru maitasun handi:

• Jaungoikoa *aita* samur lez maitatu.

• Jesus *anai* ta *salbatzaile* lez maitatu.

• *Andra Maria* ta *Eleiza Ama* maitatu.

## KRISTINAUEN ITXAROPENA<sup>3</sup>

### 1. Kristau itxaropena, Jaungoikoaren doea

1.1. Kristoren Ebanjelioa Barri Ona da, zorion betea ta bctiko agintzen deuskulako.

1.2. Baina zorion hori ez da gizonaren eskuen frutu hutsa, gizonak berak bakarrik bere abalegin hutsez lortu lciken gauzea.

1.3. Geroko bizi betea norbere eskuz *lortua* baino gehiago *emona* da; erregalua edo doea, irabazia baino gehiago; maitasunaren frutua, zuzentasunarena baino gehiago (entzun daiguzan S. Pauloren berbak: Rm. 8, 31-39; Ef 2, 4-10).

### 2. Kristau itxaropenaren gaurreguneko eragozpenak:

2.1. Gaurko gizona 'gauzak diren lez ikusten' ohituta dago, teknikaren bidez; ikutu ta neurtuten ez dana, czerezkotzat dauka gaurko gizonak.

2.2. Horregaitik, kristau itxaropenak eskaintzen deuskun zorion bete hori amescta huts eta kaltogarriztat dauka; geure bihotzean daroagun beti bizi-gureak sortutako begitantzino hutsa ei da hori. Gauza polita, bai, baina guzurrezkoa!

---

<sup>3</sup> Gamizen emondako gogo-jardumetako haria, 1978ko Carizuman. Gaia, Euskal Herriko gotzainak eskainitako Artzain Idazkitik (Itxaropenari buruz).

2.3. Esan daigun, kristinauari be gogor egiten jakozala sinis-tea ta itxarotea; gauza gogorra, garratza ta iruntsi-ezina jako hil-beharra, heriotzean dana amaituten dalakoa sentiduten dau-ta:

*“Oi zein dan ituna / bera-bear au!  
Nik ez nai eguna / biurtzerik gau!”* (Lizardi)

Unamunoren “Nik ez dot hil gura! Nik bizi egin gura dot, bizi, betiko bizi, ta Neu bizi!”.

3. Baina kristinauak Jaungoikoagan dauka itxaropenaren ziurtasuna

3.1. Gure itxaropenaren oinarri edo zimentu sendoa ez gara geu, Jaungoikoa baino; horregaitik, Abrahamen antzera, “itxaron-ezin guztien kontra itxaroten dau”.

3.2. Zergaitik? Jaungoikoak bere berbea betetan daualako, Jaunak bere berbeari eusten dakialako. Eta hori Jesusen biztueran erakutsi dau (Ikus Ap Eg 13, 32-33).

“Jesus biztu ez bada, gu gizon guztien artean errukarricnak gara!” (S. Paulo).

Gu Kristogaz bat eginda gagoz, bai heriotzean, bai biztueran eta zorion betean.

4. Giza-itxaropena eta kristau itxaropena

4.1. Marx-en berbak: “Erlijinoa herriaren lo-bedarra da” (Bere aldiko erlijino-bizitza!)

4.2. Baina benetako kristinautasunak ez deutse ezer kentzen gizonaren itxaropenei: hemengo itxaropenak itxaropen nausiaren alderditxuak eta hara-bitarteko pausuak dira. Jakintza, zuzentasuna, maitasun heldua, herri barruko bakea, herrien arteko alkartasuna, eta holako itxaropen ederrok betiko Erreinua iragarten eta has-ten daben ezaugarri edo seinaleak dira. Lurreko itxaropenok ez dabe euren baliorik galduten, irabazi baino, gure sinismenak irakatsita dakigulako gizonak borondate onez hartutako nekerik ez

dala alperrik galtzen Jaunagan. (Ederrak benetan San Pauloren ber-  
bok —eta baekian berak munduko nekzen barri!— 1 Kor. 15, 18).

Gizonen aurrerapenak hain neketsuak eta motelak dira izan,  
eta heriotzeagaz amaituten dan guztia balio gitxikoa da berez;  
baina, hori ta guzti be, kristau itxaropenak ardurarik eza eta etsi-  
pen edo desesperazioa aldendu ta uxatu egiten dauz gure biho-  
tzetik; kristau itxaropenak giza-itxaropenak gora jaso, garbitu eta  
osotasunera erotaten ditu. Betiko etxegintzan gabiltzala esaten  
deusku fedeak, eta holan errezago egiten jaku etxegintzan jarrai-  
tzea, gogorik galdu barik.

### **Itxaropenaren ondorenak gure bizitzan**

#### **1. Eroapen edo pazientzia eragileak**

Liburu Santuak eroapen eragileagaz alkartuten dau itxarope-  
na (1 Tes 1, 3). Itxaropena, izan be, ez da garailari-itxurazko bir-  
tutea, Kurutzetu-antzerakoa baino. Kristoren bizituereak ez deus-  
ku mina, oinazea ta burrukea kenduten. Jaungoikoaren Erreinua  
mundu honetan estalduta, ostenduta, bizi da, pobretasumean, ez-  
jakinaren eta minaren azpian. Geroko bizitzan baino ez da herio-  
tzea azpiratua izango (1 Kor 15, 54).

Hau holan dala, egoera honeri kristinaiak emon behar deu-  
tson erantzuna hauxe da: Eroapena, sendotasuna ta iraupena.  
Gure bizitzan “estualdi askotan gabiliz, baina itota ez; ezbaian edo  
dudan, baina ustea galduta ez; erasopcan bai, baina eskutik itxi-  
ta ez; zapalduta bai, baina hondatuta ez. Jesusen heriotzca daro-  
agu gorputzean, Jesusen bizia be gure gorputzean agertu daiten”  
(2 Kor 4, 8-10).

Beste edozein gizon lez joten gaitu guc be oinazeak (minak),  
baina oinazeak azkeneko berbea ez daukalako itxaropenak poztu  
egiten gaitu. Azkenean, onak txarra azpiratu cgingo dau, cgiak  
guzurra, maitasunak norberekeria eta burrukarako gogoia.

Guk orain nekepean ereiten dogun hazirik ez da galduko:  
popezko frutu ugari ekarriko deuskuz hazi horrek. Ze ederra, kris-

tau begiz irakurrita edo abestuta, 125garren salmoa (Erbestetuak aberrira bidean).

Guzti honegaitik, genre aurrerapide motela ta laburra ikustean, geure ta besteen pekatuen indarra hain handia dala ikustean, ez dogu itxaropenik galdu behar: gogo ta borondate ona galdu barik, etsi barik, behin eta berrero jahi behar gara, behin eta berrero hasi ta aurrerantzako bidea hartu, Jaunak bere eskutik ez gaitu ixten-eta; bere Espiritu Santuaren indarra ta laguntasuna emoten deuskuz.

Izan bekiguz pozgarri San Pauloren berba ederrok (Rm 8, 18): "Oraingo nkeak ez dira ezer, gero gudan agertuko dan edertasunaren aldean".

Beste burrukalari askok eta askok be sekulako nekeak hartuten dabez, euren helburuak lortuteko (kirolariak, politikoak, gudariak...): "Guztiok, behingoan zimelduten dan koroe bat hartuteko; guk, ostera, sekula zimelduko ez dana".

Bihotz-jausita gagozanetarako, oso egokia da Ebanjelioan Emausko ikasleen zatia irakurtea (Lk. 24, 13-35).

Lauaxeta zanak, zuen parajeko olerkari handiak, hilteko zan aurretxean, hauxe berau erabilen gogo-bihotzcan: "Gel zaitel!"

## 2. Poza, alaitasuna. Aurrera beti! Itxaropena, eragile

Itxaropenak begi barriak emoten deutzoz kristinauari: Jaungoikoaren asmoa dogu begi geure begien aurrean: Ni zetarako egin nau Jaungoikoak? Cauzak, mundua, zetarako egin dauz? Asmo eder hori gogoan eta bihotzcan, orain esku artean daukan hori gero izango dan edertasunez ikusten dau, eta horrek bizipoza ta indar eragilea emoten deutzoz fededunari. Holantxe artista bustin-zati bat eskuetan, edo ohol-zati bat; holantxe ama umetxuaren aurrean, maisua ikaslearen aurrean. Itxaropena eragile da: "Aurrera", hots egiten deusku.

Gizonaren eta munduaren dei (bokazino) hori dala-ta, itxaropena dogunok ez dogu jausi behar dagoana dagoan lez ezin-hobetzat hartuteko tentazinoan; ez alperkeriaz, ez uste on edo



konfiantzarik ezaz, ez ardurarik ezaz. Lur honetako gauzarik —danik ederrena izanda bere!— ez da heldu bere betiko betetasunera, osotasunera: horregaitik, guk ezin dogu ezer oso ta betetzat hartu mundu honetan, ezin gcinke ezer “jaungoiko-txiki” egin: ez abertzaletasuna, ez giza-maitasuna, ez jakintza, ez aurre-rapena, ez gizarte barria... ez dira on oso ta bete-beteak, ez dira Jaungoiko: euron neurri laburrean hartu behar doguz.

“Guk ez daukagu hemen betiko uririk”, dinosku Liburu Santuak. Itxaropena egonezinaren edota nahikorik ezaren iturri bihurtzen da gure barruan, ez deusku ixten une ta aldi baten lotzen edo geratuten, ezetariko gauzarik eta baliorik “absolutotzat” hartuten (bete ta osokotzat): ez deusku ixten ezetariko ezer “sasi-jaungoiko” edo idolo bihurtzen.

### 3. Lana (beharra), gauzen barritzaile

Kristinaua, itxaropenaren eraginpean, ez da kondaira edo historiaren begirataile eta kritikataile hutsa, ez; guztiz bestetara baino: kondaira horren barruan sartuta, adoretzu ekiten deusko lanari.

Jaungoikoak “bere antz eta irudira” egin dau gizona: sortzaile, kreatzaile; horregaitik, ezin gu egon ezer egin barik, Jaungoikoak Berak dana egingo daualako ustetan. Lehenengo kristinauak izan eben holango tentazinoa, baina Jaunaren berbak argitu ebezan San Pauloren bitartez (2 Ts. 2, 1-3).

Gure obispoak berbok esaten deuskuez: “Minez ikusten dogu, aldi ta une batzuetan kristinauok ez dogula behar dan bestean gure ganean hartu itxaropenak eskatuten deuskun behar-beharrezko behar hau: betikotzat hartu izan doguzan egoera batzuen jagole edo zaintzaile gchiago izan gara, egitcko egoanaren akulari eta zirikatzaile baino”.

### 4. Otoitza

“Otoitza sinismenaren alaba bada, bardin esan geinke dala itxaropena be. Otoitzik egiten ez dauanak ez dau itxaropenik. Otoitz egiteak hauxe adierazoten deusku: itxaroten doguna ez

dagoala geure eskuetan; gurc salbazinoa doakoa (debaldekoa) dala autortuten dogu holan; baina, baita, geure ahaleginez goragokoa izan arren, salbazino hori lortuteko konfiantzea dogula.

Gure herriko santu bati (Aita San Inaziori) ezarten deustoe honako esaera hau: "Behar egin daigun, dana geuk egitekoa balitz lez; eta otoitz egin daigun, dana Jaungoikoak emotekoa balitz lez".

Ez da otoitz egin behar, ezer ez egitearren; otoitz egin behar da, otoitz hori gure egiteko guztien aurrelari, laguntzaile ta amaiera izan dakigun, eta holan gure giza-itxaropena kristau-itxaropen bihurtu daiten".

##### 5. Eleizearen egoera barria itxaropenaz onartu

Gaur Eleizeak bere burua makalago ikusten dau leku askotan, eta hortik itxaropenaren krisialdi bat sortu da beraren barruan.

Kristogan sinisten dogunok, Eleizearen etorkizunari uste oncz, konfiantza osoaz, begituten deustagu.

Baina etorkizun hori argitsua ta eder-zoragarria izango dala ko amesetarik ez dogu egiten. Jesusek ez deusku agindu Eleizca geroago ta zabalagoa ta maitatuagoa izango danik. Baina agindu deusku, bai, Eleizea beti salbazinoaren cragile izango dala, eta bere burua garbitu eta hobeagotuteko hartzen dan nekerik ez dala alperrik galduko.

Gurezat Eleizearen ordurik eta aldirik onena oraintxe bizi doguna da; gaurko Eleiza honcric eskerrak hartuten dogu Jaungoikoaren doerik ederrena: Jesus gure Salbatzailea. Gaurko Eleiza honexek emoten deusku hori.

Ganera, badogu Jaungoikoaren etxe honetan zergaitik pozik bizi, gaur dan langoxe Eleizan, lehen go aldi hobeagoen bizi-minik izan barik: salbazino-kondairak esaten deusku, Eleizearen aldirik baketsu ta itxuraz zoriontsuenak ez dirala izaten egokienak bere burua garbitu eta munduan zabalduteko. Gure gaurko egoera apal hau deika daukagu, pobretasuna, harrokeririk eza eta zoriontasunerako zuzentasun-cgarria bilatu daiguzan.

## AMA BIRJINA SORTZEZ GARBIARI BEDERATZIURRENA

### 1. Sarrera.

“Urtero lez, hemen batu gara, aurtan be, Bilboko euskaldunok, geure zeruko Amari Bederatziurren hau eskaintzeco. Bederatzi egunetan bertan batuta, Jaungoikoak Mariagan egindako mirariak hausnartu ta goratuko doguz; eta, euren argitara, ispilurik garbiencan lez, geure eginbeharrak be argi agertuko jakuz, Eleiza amaren misterioan”.

Agurra: “Jaungoikoaren ama ederra geure amatzat hartzen dogun guztioi, grazia ta bakea emon beiguz Jaungoiko gure Aitak eta Jesukristo Jaunak”. Amen.

### 2. Jainkoaren berbea:

Irakurgaria: Luk. 1, 39-50.

Berbaldia:

—Hain erdalduniduta —zoritxarrez!— daukagun Euskal Herriko uri nagusi honetako euskaldunok, batzuk behintzat, hemen batu zarie, beste urteetan lez, geure Zeruko Ama garbiari otoitz, eskari, goratzarre ta gurariak eskaintzera ta, eskaini be, zcuen bihotzetan hain gozo jatzuen euskera zahar honetan.

—Zer dala-ta hau? Maite-maite dozuen hizkuntza maitagarri honi bide barri batzuk zabaltzearren? Ala, batez be, ama-semcen hartuemonctan, amaren ezpanetatik hara ikasitako hizkuntzak berarizko sakontasun eztsitu ta gozoa dabezalako? Zcin samur aitzen emon euskun hau Oxobi olerkariak:

*“Aho batek eztiki diolarik: !Ama!”  
hitz goxo bakar horrek mundu bat darama.”*

*“Nik be bero daukat bihotzean garra;  
Jainkoak piztu zidan euskaldun txingarra;  
ama baidut oraindak minetan indarra,  
ama, gau ilunean argidun izarra!!!”*

Edo beste honenak:

*“Haurra bere amari nola mintzo zaio?  
“Ama, ama” eskuaraz sehaskatik dio.  
Amari lakhet zaio horren entzutea,  
gure eskuara hain da mintzaira maitea!”*

—Berbaldiok egiteko eskubideari baietzeko erantzuna emon neutsanctik hona, neure buruari sarri itaundu deustat: eta zelan crabili behar etc dot, ba, nik egunokaz Ama Birjinari jagokon gai hau? Izan be, ez da gauza erreza damu gurariak ascutea; honetan nenbilela, hartu neban eskuetan, beste behin, Vatikanoko Ilgarren Konzilioko liburua, ta bertan aurkitu neban argitasuna zein bidetatik ibili jakiteko.

Nire ustez, behintzat, Eleizcaren irakatsiai jarraituz, hiru bide daukaguz, Ama Birjinari buruz berba egiteko:

a) Lehenengoa: Jaungoikoak bere Seme bakarraren Amatzat aukeratu dauan Andra eder hau *ezagutu*, geroago ta hobeto. Beharbada, gure egunotan, behin baino sarriago gizona bere



Begoña, 1995-11-9. Karmelo gotzain egin aurretxoan. Euskal Herriko gotzainak: Miguel Asurmendi (Gasteiz), Ricardo Blazquez (Bilbo), Fernando Sebastian (Iruñea), Karmelo Etxenagusia eta Jose Maria Setien (Donostia).

buruari begira bizi da: beronen kezka arduratzen dabe, baka-  
rrik; eta erlijinoari berari be argitasunik eskaintzen badeutso,  
horretarakoxe baino ez da izaten; kezka ta itaun horrezi erantzun  
bakegarri bat emoteko.

Ez dinot nik horretan errazoi astunik ez dagoanik; baina,  
gaur atzo ta beti be ez ete da egon, gero, San Joanek bere Ebanje-  
lioan dinoskuna: “Betiko bizitza hauxe da: Zeu ezagututea, egiaz-  
ko Jaungoiko hori, eta zeuk bialduriko Jesukristo”.

Hara ba, zer dinoskuni Eleiz Batzar Nagusiak sermolarici:  
Liburu Santuak, Elcizako guraso, erakusle ta Lituurjiak ondo cza-  
gutuaz, Birjina guztiz Santu honen doe ta bikaintasunak azaldu

daiguzala, baina beti be hauxe erakutsiz: Kristogaz daukeen zeri-kusia, Kristo dalako egi ta santutasun guztiaren iturria. Hortik sortzen da benetako fedea, Jaungoikoaren Amaren bikaintasuna ezagututera gakarzana.

b) Bigarren bidea: honan ezagutu ezker, berez-berez sortu-ko dira gudan, alde batetik, gure Amaganako maitasun sutua, eta, bestetik, Beronen antz-antzeko izateko guraria. Izan be, non aurkitu ete geinke eredu hobeagorik, espilu garbiagorik, bide-erakusle zuzenagorik Berau baino? Aztertu egizuez Kontzilioaren berbak, eta hor-hemen, behin eta barrero aurkituko dozuez hone-langoak.

“Bai fedean eta bai maitasunean, Elcizearen zatirik gorengoan eta guztiz bikain hau dozu eredu ta jarraibide argitsua” (53 zk.).

“Maria, bai Birjina lez, bai Ama lez, Elcizearen irudia da” (63 zk.).

Berari begira, bada, ikusiko dogu, beste inon baino hobeto, zertarako gagozan mundu honetan, nora goazan, eta nondik eta zelan joan behar dogun, geure bizitzako une ta gorabehera guz-tietan.

Egia esan, Kristo dogu bakarrik gure bide ta eredu: “Neu naz bidca. Bere Semcaren antzeko izan gaitezcan”, haina Kristoga-nako bidcrik artezena bere Ama dogu guztiok.

c) Hirugarren bidea: Ama Birjinearen edertasunaren aurrean begi-begira jarri, ta edertasun harrigarri hori dala-ta, geure hitzen iluna argitu, zikina garbitu, gogortasuna samurtu, mingot-sa czti-gozo bihurtu. Bihozkeri ustela baino ez dala hau? Nork esan dau? Ez ete dogu, ba, beste horrenbeste egiten geure egu-neroko bizitzan? Bilbon bertan, zenbatek eta zenbatek, jai egu-netan keaz eta zarataz betcriko kale ilun-zikin honeetatik alde egiten daben, mendietarantz, ta hango gailurretatik hainbeste gauza eder ikusirik, ez ete jake bihotza barrizatzen, bizitza

maitagarriago agertzen, beti goruntz ekiteko gogo bizi bat sortuten?

Gauza itsusiok, ostera, ez doguz geure inguruan bakarrik: norberen bihotzaren barri dakianak, ondotxu daki gure ezereza, pekatua, grina zitala, ustela... Horrelango ordu garratzetan, bai gozagarri jakula geure bihotzeko begiok zeruko Amaren edertasunera jiratea, eta Beroni, guztiz harriturik —pozez beterik be bai!— Gabirel goi-aingeruak, Jaungoikoaren partez, ezarriko berbak barriro zuzendu: “Agur, Maria, graziaz betea, Bedeinkatea zu andra guztien artean...”

Paul Clandel, Frantziako olerkari katoliko handiak lez, guk be honelantxe berba egin Andra Mariagaz:

“Jesukristoren Ama: ez naitortzu otoitz egitera.  
Ez daukat gaur ez zer eskaini, ez zer eskaturik.  
Zeu ikustera baino ez nator, Ama.  
Zeuri begitu, eta pozaren pozez negar egin,  
hauxe jakinik: ni Zure semea nazala ta Zu hor zagozala.

Zeugaz egon, Ama, Zeure aurre-aurrean.  
Ezer ez csan, zure arpegiari begi-begira egon,  
eta itxi bihotzari bere erara abestu dagiala:  
ederra zarcalako,  
guztiz garbia,  
Jainkoaren graziak barriren barri eginiko Andrea,  
aspaldian ahaztuta geunkan Paradisu gizona...”

## 2garren eguna

“Andra Maria, Jainkoaren Ama da; hona hemen bere edertasun guztiaren oinarri, ardatz eta giltza”.

Irakurgai: Luk. 1, 35.

### 3garren eguna

Sarrera:

a) Filipo, Mazedoniako Erregea, ta bere seme Alexanderren-gandik hartzen dauan ospea.

b) Horrelaxe, Mariagaz be: sortzez garbia, graziaz bctea, pekatuaren ikuturik bakoa, Birjina, zeruetara jaso, Erregina... baina, batez be, "Jaungoikoaren Ama".

c) Horregaitik esaten deutsagu, hainbeste bider, otoitz labur baina atsegingarri hau: "...bedeinkatua zara zu andra guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabelko frutua, Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren ama...".

"Ama" berbea, aho beteko hitza bada, zer ete da Andra Mariarentzat, Jainkoaren Ama dala guk autortzea?

d) Ama Birjinaren edertasuna hain aberatsa izanik, ezin, ba, oso-osorik berba bakar batcn adierazo. Hau dala-ta, kristinau-herri bakotxak, bere crara, edertasun neurribako horren alderdi bat aintzat hartzen dau, batez be, Mariaren izena aitutzen dabenean.

"Neure andrea" —Madonna—, esaten deutse italiarrak;

"Birjina donca" frantses hizkuntzakoak;

"Birjina guztiz donea" gazteleraz.

Gure Euskal Herri honetan, barriz, era bitara: "Andra Maria" ta, batez be, "Ama Birjina". Bai egoki aukeratua izan dala deitura hori, bai atsegingarria Mariarentzat, bere amatasuna eta Birjintasuna guk ahaztutea... Canera, gure Begoñako zaindaria be....

### IV. Ama Birjinaren gurtza Eleizan

#### *Gurtza honen izatea ta oinarria*

66 zk. Eleizeak berarizko gurtzaz ospatzen dau Maria, ta zuzen ganera: Jainko graziak, bere Semearen ondoren, aingeru ta gizon guztien ganetik goratu dau, Kristoren misterioekaz hain



alkartuta egon zan Jainkoaren ama guztiz Santuari egokonez. Izan be, antxina-antxinatik izan da ospatua Birjina Zoriontsua "Jainkoaren Ama"ren izenagaz: beronen babesera joten dabe fedcdunak euren arrisku ta beharrizanetan dei eginaz. Batez be Eleizako Kontzilio ondoren Jainko-herriaren Mariaganako gurtza harrigarriro hazi zan ohorean eta maitasunean, otoitzcan eta antz-bidean. Berak iragarri ebanez: "Zoriontsua deituko deuste gizaldi guztiak, gauza handiak egin ebazalako nigan ahaltsua danak" (Luk. 1, 48).


Gurtza hau, Eleizan beti izan danez, guztiz bakarra da, bai-na, hori ta guzti be, gizon egindako Hitzari ta Aitari ta Espiritu Santuari emoten jaken jaurespen-gurtzatik oso da bestelakoa, eta hau asko biztuten dau.



## SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*  
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea  
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M<sup>o</sup> Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*  
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*  
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. C.C. della Croce – Bernardo M<sup>o</sup> Carro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*  
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*  
Sarrera: Lino Akesolo
6. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*  
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea  
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*  
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*  
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*  
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*  
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*  
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*  
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Caroa*  
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M<sup>a</sup> Azkue: *Latsibi*  
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Karmele Olano  
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M<sup>a</sup> Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-  
Mipiinak*  
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*  
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perca
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*  
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*  
Eratzailea: Jaime Kerejeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*  
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*  
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume  
ipuin*  
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*  
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*  
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*  
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*  
Testuaren ardura: Igone Etxebarria



## SUTONDOAN SORTA

*Azkenengo liburuen zerrenda*

21. GRIMM ANAIEN BERROGEITA  
HAMAR UME IPCUIN  
Ipolito Larrakoetxea "Legoaldi"  
*Sarrera, oharra eta moldaketa:*  
Miren Atutxa
22. BERBALAQUAREN KULUNKAN  
PROSA LANAK • 1  
Eusebio Erkiaga  
*Sarrera eta edizioa:* Andres Urrutia
23. BERBALAQUAREN KULUNKAN  
PROSA LANAK • 2  
Eusebio Erkiaga  
*Sarrera eta edizioa:* Andres Urrutia
24. EUSKALDUNAK MADRILEN  
Jose Basterretxea "Oskillaso"  
*Sarrera eta edizioa:* Adolfo Arejita
25. EUSKEREAN NIRE BIZITZAN  
Karmelo Etxenagusia  
*Testuaren ardura:* Igone Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE  
CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Satordatza



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia  
Departamento de Cultura

ISBN 84-89816-46-8



9 788489 816466